

202. araua

Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO)

EBO (V). Ortografia-markak

Euskaltzaindiak data eta leku hauetan onartua:

- 2024ko irailaren 27an, Iruñean
- 2025eko otsailaren 28an, Gasteizen
- 2025eko martxoaren 28an, Bilbon
- 2025eko apirilaren 29an, Donostian
- 2025eko maiatzaren 30ean, Iruñean
- 2026ko urtarrilaren 30ean, Donostian

AURKIBIDEA

Sarrera	9
Ortografia-markak euskara batuaren historian.....	10
Lan honen helburua	14
1. Puntuazio-markak	15
1.1 Puntuazioa	15
1.2 Puntuazio-sistema iraganean eta gaur egun	16
1.3 Zein dira puntuazio-markak?	17
1.4 Puntuazio-marken zereginak	18
1.5 Puntuazio-markak eta letra-estiloa.....	18
1.6 Puntua.....	19
1.6.1 Puntuaren funtzio nagusia: mugatzailea	20
1.6.1.1 Puntu eta jarraia	20
1.6.1.2 Puntu eta bereiza.....	21
1.6.1.3 Puntu eta amaitua	23
1.6.1.4 Puntu mugatzailea enumerazio bertikaletan.....	23
1.6.2 Noiz ez den erabiltzen puntua.....	25
1.6.2.1 Goiburuak, esloganak, bide-seinaleak eta kontsignak.....	25

1.6.2.2 Izenburu, titulu eta azpiizenburuak, liburu-eskaintzak eta egileen izenak	26
1.6.2.3 Irudi- eta argazki-oinak	27
1.6.2.4 Aurkibideak.....	28
1.6.2.5 Taulak, helbideak, sinadurak.....	29
1.6.3 Puntuaren gainerako funtzioak	29
1.6.3.1 Laburdura-puntua.....	29
1.6.3.2 Silabak bereizteko puntua	30
1.6.3.3 Helbide elektronikoetako puntua	30
1.6.3.4 Puntua zenbakizko adierazpenetan	30
1.6.4 Esaldi-amaierako puntua eta ohar-deia batera gertatzea	30
1.6.5 Puntua beste puntuazio-marka baten ondoan gertatzea.....	32
1.6.5.1 Puntuazio-marka bikunen ondoan (parentesiak, parentesi karratuak, komatxoak, marra- parea)	32
1.6.5.2 Galdera- edo harridura-markaren edo etenpuntuen ondoren.....	33
1.7 Koma	34
1.7.1 Koma, zeregin gehien dituen puntuazio-marka	36
1.7.1.1 Aukerako komak	37
1.7.1.2 Nahitaezko komak	37
1.7.1.3 Debeku diren komak.....	39
1.7.2 Komak egitura sintaktikoak markatzeko.....	40
1.7.3 Koma noiz erabiltzen den	41
1.7.3.1 Komaren erabilera esaldi-hasieran: mintzagai aurreratua.....	42
1.7.3.2 Komaren erabilera esaldi-amaieran: mintzagai aurreratugabea eta gehikuntza	47
1.7.3.3 Komaren erabilera tarteki eta kidekoetan	48
1.7.3.3.1 Bokatiboak	49
1.7.3.3.2 Diskurtso-markatzaileak.....	52
a) Foku-adberbioak eta diskurtso-markatzaileak	54
b) Diskurtso-markatzaile noranzkodunak eta ez-noranzkodunak	54
c) Komarik ez <i>hala nola</i> adberbio adibide-ezarlearen eta <i>erran nahi baita</i> birformulatzailaren ondoren.....	56
1.7.3.3.3 Interjekzioak eta berrespen eskeko galderak.....	57
1.7.3.3.4 <i>Bai</i> eta <i>ez</i> esaldiordeak	58
1.7.3.3.5 Aposizio-tartekiak	59
1.7.3.4 Komaren erabilera juntaduran.....	59
1.7.3.4.1 Komaren erabilera esaldi-osagaien juntaduran	60

a) Esaldiaren bi osagai emendiozko juntaduran elkartzen direnean, komarik ez	60
b) Banakaritzako egitura (<i>bai... bai...; ez... ez...; edo... edo; nahiz... nahiz ...</i>)	60
c) Esaldiaren hiru osagai edo gehiago juntatzea: enumerazioak eta errepikapenak	62
d) Komaren erabilera gainerako emendiozko esamoldeetan.....	64
e) Komaren erabilera osagaien hautakaritza-juntaduran.....	65
f) Komaren erabilera osagaien aurkaritza-juntaduran	66
1.7.3.4.2 Komaren erabilera perpaus-juntaduran.....	66
a) Komaren erabilera emendiozko juntaduran (<i>eta</i>) eta hautakaritza-juntaduran (<i>edo, ala</i>)....	66
b) Aditz laguntzailea isiltzea juntaduran eta koma.....	69
c) Aditz errepikatua osorik isiltzea juntaduran.....	71
d) Komaren erabilera hiru esaldi juntatzean	72
e) Komaren erabilera esaldiak juntatzen dituen <i>ez bakarrik (soilik)... ere</i> emendiozko esamoldean.....	72
f) Komaren erabilera aurkaritza-juntaduran (<i>baina, baizik, ezpada</i>)	73
1.7.3.5 Komaren erabilera mendeko perpausetan	74
1.7.3.5.1 Komarik ez perpaus osagarrietan (<i>-(e)la, -(e)n</i>)	75
1.7.3.5.2 Komarik ez perpaus erlatibo arruntetan	75
1.7.3.5.3 Izenordain erlatiboz eraturiko perpaus aposiziozkoak (<i>zein/non + bait-/-(e)n</i>)	75
1.7.3.5.4 Aposiziozko perpaus erlatibo gibeleratuak	76
1.7.3.5.5 Korrelaziozko perpaus erlatiboak.....	78
1.7.3.5.6 <i>-(e)nez</i> eta <i>bait-</i> menderagailuak dituzten azalpenezko perpaus kausalak.....	78
1.7.3.5.7 Komaren erabilera gainerako mendeko perpausetan	78
1.7.3.6 Komaren erabilera aditz-isiltzeetan	80
1.7.3.6.1 Aditz laguntzailea isiltzea	81
1.7.3.6.2 Aditz errepikatua osorik isiltzea	81
1.7.3.6.3 Aditza osorik isiltzea.....	81
1.7.3.7 Komaren erabilera beste kasu batzuetan	82
1.7.3.8 Koma eta gainerako puntuazio-markak	84
1.8 Puntu eta koma.....	85
1.8.1 Puntu eta koma eta perpaus alboratuak	86
1.8.2 Puntu eta komaren erabilera perpaus alboratu paraleloetan eta aditz-isiltzeetan.....	89
1.8.3 Puntu eta komaren erabilera juntadura konplexuetan	90
1.8.4 Puntu eta komaren erabilera diskurtso-markatzaileen aurrean.....	90
1.8.5 Puntu eta komaren erabilera enumerazio konplexuetan	91
1.8.6 Puntu eta komaren erabilera mendeko perpausak bereizteko	92

1.8.7 Puntu eta koma eta gainerako puntuazio-markak.....	93
1.9 Bi puntuak.....	93
1.9.1 Bi puntuak perpaus alboratuen artean	95
1.9.2 Bi puntuen erabilera datorrenaren iragarle gisa (eraikuntza kataforikoak).....	95
1.9.3 Bi puntuen erabilera diskurtso-markatzaileekin.....	97
1.9.4 Bi puntuen erabilera testuan aipu bat txertatzeko: estilo zuzena	97
1.9.5 Bi puntuen erabilera enumerazioetan (katafora-kasu nagusietariko bat).....	98
1.9.6 Bi puntuak idazki administratibo-juridikoetan	100
1.9.7 Bi puntuak gutunetako eta hitzaldietako hasierako agurretan (“hau jakinarazten dizut/diot” katafora inplizitua)	101
1.9.8 Bi puntuak ohartarazpen bati edo adierazpen garrantzitsu bati sarrera emateko (katafora espezializatuak).....	101
1.9.9 Bi puntuak idazki eskematikoetan.....	102
1.9.10 Bi puntuak izenburuen eta azpiizenburuen artean	102
1.9.11 Bi puntuen erabilera tekniko bereziak.....	103
1.9.12 Bi puntuak eta gainerako puntuazio-markak.....	104
1.10 Etenpuntuak.....	104
1.10.1 Etenpuntuen ondorengo hitza noiz letra larriz eta noiz letra xehez hasita	105
1.10.2 Etenpuntuen erabilerak.....	106
1.10.2.1 Diskurtsoan eten bat egin dela adierazteko	106
1.10.2.2 Ezaguna den edo beharrezkoa ez den zerbait ez idazteko.....	106
1.10.2.3 Idatzi nahi ez dena ordezteko	106
1.10.2.4 Enumerazioak irekita uzteko.....	107
1.10.2.5 Mintzoa une batez eten dela markatzeko	107
1.10.2.6 Hitz bat bukatu gabe utzi dela adierazteko.....	107
1.10.2.7 Pasarte bat ezabatzeko	107
1.10.2.8 Etenpuntuak elkarrizketa eta kidekoetan	108
1.10.3 Etenpuntuak beste puntuazio-marka baten ondoan gertatzea.....	109
1.10.3.1 Etenpuntuak eta puntua.....	109
1.10.3.2 Etenpuntuak eta koma, puntu eta koma edo bi puntuak	110
1.10.3.3 Etenpuntuak eta galdera- edo harridura-markak	111
1.10.3.4 Etenpuntuak eta puntuazio-marka bikunak: parentesiak, parentesi karratuak, komatxoak, marra-parea.....	111
1.10.4 Etenpuntuak eta ohar-deia batera gertatzea	112
1.11 Parentesiak.....	112
1.11.1 Parentesien erabilera testuan txertatuta: tarteki bat zedarritzea	113

1.11.2	Parentesien erabilera testuan txertatuta: zehaztapen bat txertatzea	115
1.11.3	Parentesien erabilera testuan txertatuta: erreferentziak eta bidalketak	115
1.11.4	Parentesien erabilera testuan txertatuta: antezlanetako oharrak	116
1.11.5	Parentesiak hitz batean txertatuta: bi aukera ematea	116
1.11.6	Parentesiak hitz batean txertatuta: hitzak berreraikitzea	117
1.11.7	Parentesien erabilera bereziak: enumerazioak eta sailkapenak.....	117
1.11.8	Parentesien erabilera bereziak: (<i>sic</i>), (<i>bis</i>) eta (...).	118
1.11.9	Parentesien erabilera bereziak: formulak.....	119
1.11.10	Parentesien puntuazioa	119
1.11.11	Parentesiak parentesien barnean.....	120
1.11.12	Parentesiak parentesien ondoren	121
1.11.13	Parentesiak eta ohar-deia.....	122
1.11.14	Parentesia eta letra larriak	123
1.11.15	Parentesia eta gainerako ortografia-markak	123
1.12	Parentesi karratuak	126
1.12.1	Parentesi karratuen erabilera testuan txertatuta: zehaztapen bat edo iruzkin bat txertatzea.	127
1.12.2	Parentesi karratuen erabilera testuan txertatuta: [<i>sic</i>] eta [...]	128
1.12.3	Parentesi karratuen erabilera bereziak: transkripzio fonetikoak.....	128
1.12.4	Parentesi karratuen erabilera bereziak: filologia eta paleografia	128
1.12.5	Parentesi karratuen erabilera bereziak: formulak	129
1.12.6	Parentesia eta gainerako ortografia-markak	129
1.13	Marra	129
1.13.1	Marra-parearen erabilera tarteki bat zedarritzeko.....	131
1.13.2	Marra-parearen eta parentesiaren erabilera konbinatua: tartekiak tartekien barnean eta marrak eta parentesiak elkarren ondoan	132
1.13.3	Marra-parearen erabilera aipuetan.....	132
1.13.4	Marra-parearen erabilera narratzailearen zehaztapenak sartzeko	133
1.13.5	Marra bakarraren erabilera	135
1.13.5.1	Marraren erabilera elkarrizketetan.....	135
1.13.5.2	Marraren erabilera aurkibideetan	136
1.13.5.3	Marraren erabilera enumerazioetan	136
1.13.6	Marra eta gainerako ortografia-markak	137
1.14	Komatxoak	138
1.14.1	Zer komatxo-mota erabili eta komatxo-mailak aipuetan	139
1.14.2	Komatxoen erabilera aipuetan	140

1.14.3 Komatxoeren gainerako erabilerak.....	142
1.14.3.1 Komatxoeren erabilera izengoitietan	142
1.14.3.2 Komatxoeren erabilera hitzaren ezaugarriren batez ohartarazteko	143
1.14.3.3 Komatxoeren erabilera kontsigna, goiburu eta esloganetan, eta esaera eta atsotitzetan..	143
1.14.3.4 Komatxoeren erabilera izenburuetan	144
1.14.3.5 Komatxoeren erabilera hizkuntzalaritzako testuetan.....	145
1.14.4 Komatxoak eta gainerako ortografia-markak	146
1.14.4.1 Komatxoak eta gainerako ortografia-markak batera gertatzea aipuetatik landa.....	147
1.14.4.2 Komatxoak eta gainerako ortografia-markak batera gertatzea aipuetan	147
1.15 Galdera- eta harridura-markak	149
1.15.1 Galdera- eta harridura-marken posizioa esaldian	150
1.15.2 Letra larria edo xehea galdera- eta harridura-markaren ondoren	151
1.15.3 Galdera- eta harridura-marka beste puntuazio-marka baten ondoan gertatzea	152
1.15.4 Galdera- edo harridura-marka eta ohar-deia elkarren ondoan gertatzea.....	153
1.15.5 Noiz ez den erabiltzen galdera-marka galde-perpausetan	154
1.15.6 Noiz ez den erabiltzen harridura-marka harridura-perpausetan	155
1.15.7 Galdera-marka edo harridura-marka bat baino gehiago jarraian	155
1.15.8 Galdera-marka eta harridura-marka batera	156
1.15.9 Galdera-markaren eta harridura-markaren beste erabilera batzuk	156
2. Marka lagungarriak	157
2.1 Marratxoa	158
2.1.1 Lerro-amaieran hitza etenda dagoela adieraztea.....	158
2.1.1.1 Silaba-bereizketa.....	159
2.1.1.1.1 Erregela nagusia	160
2.1.1.1.2 <i>r</i> letraz amaitutako aurrizki jasoak	160
2.1.1.1.3 Bi kontsonanteren bilkurak	161
2.1.1.1.4 Bi kontsonantetik gorako bilkurak.....	163
2.1.1.1.5 Kontsonantearen ondorengo <i>h</i> letra.....	164
2.1.1.1.6 Lerro-amaierako marratxoaren posizioa taula gisa laburbildurik	168
2.1.1.2 Lerro-amaieran noiz ez den erabili behar marratxoa	169
2.1.1.3 Marratxoa duten hitzak lerro-amaieran nola banatu	171
2.1.1.4 Noiz ez den komeni hitza etetea.....	172
2.1.1.5 Lerro-bukaeran hitza etetean kontuan hartu beharreko zenbait aholku.....	172
2.1.2 Hitzak elkartzea	173
2.1.2.1 Izen bereziak elkartzea.....	173

2.1.2.2 Hitz-elkarteak adieraztea	174
2.1.2.2.1 Nahitaez marratxoz loturik idatzi beharrekoak	174
2.1.2.2.2 Marratxoz loturik edo bereiz idatz daitezkeenak	175
2.1.2.2.3 Loturik edo marratxoz idatz daitezkeenak.....	176
2.1.2.2.4 Idazkera arautu gabekoak: koordinazio- eta atributu-elkarteak	176
2.1.2.2.5 Marratxoaren erabilera hitz-elkarte koordinatuetan	176
2.1.2.2.6 Marratxoaren erabilera letra larriz hasitako hitzetan.....	177
2.1.2.2.7 Marratxoaren erabilera tandem elkarreetan.....	177
2.1.2.3 <i>edo</i> eta <i>eta</i> juntagailuak aurreko hitzarekin lotzea (<i>-edo, -eta</i>).....	178
2.1.3 Hitza eta kasu-marka bereiztea	180
2.1.3.1 Hitza eta kasu-marka bereiztea letra etzanez idatzitako hitzetan	181
2.1.4 Sigla eta kasu-marka bereiztea	182
2.1.5 Sinboloa eta kasu-marka bereiztea	182
2.1.6 Zifrak bereiztea.....	183
2.1.7 Sigla elkartuak bereiztea	184
2.1.8 Letrak eta zifrak bereiztea	184
2.1.9 Hitz-zatiak adieraztea	185
2.1.10 Marratxoaren beste erabilera batzuk.....	185
2.2 Beheko marra.....	186
2.3 Barra etzana	187
2.3.1 Terminoen arteko erlazio bat ezartzea	187
2.3.2 Lerro-amaiera adieraztea	189
2.3.3 Data adieraztea	189
2.3.4 Zerbait ondoz ondoko bi urteren artean gertatzen dela adieraztea.....	189
2.3.5 Lege, kode eta kidekoetan.....	190
2.3.6 Telefono-zenbakietan	190
2.3.7 Orrialde-zenbakietan eta puntuazioan.....	191
2.3.8 Fonemak adieraztea	191
2.3.9 Informatikan.....	191
2.4 Barra etzan bikuna	191
2.5 Alderantzizko barra etzana	192
2.6 Barra bertikala.....	192
2.7 Barra bertikal bikuna.....	193
2.8 Izartxoak	194
2.8.1 Ohar-dei gisa	194

2.8.2 Ez-gramatikaltasuna adieraztea	196
2.8.3 Forma hipotetikoak adieraztea.....	197
2.8.4 Beste erabilera batzuk.....	197
2.9 Apostrofoa	197
2.10 Parentesi angeluarra	199
2.10.1 Parentesi angeluarra zeinu bakun gisa	200
2.10.2 Parentesi angeluarra zeinu bikun gisa	200
2.11 Et edo anpersana	201
2.12 A bildua	202
2.13 Paragrafoa	202
2.14 Paragrafo-marka	203
2.15 Gezia	204
2.16 Giltza	205
2.17 Buleta.....	206
3. Marka diakritikoak	207
3.1 Zer dira diakritikoak? Zertarako erabiltzen dira?.....	207
3.2 Diakritikoak hizkuntza bakoitzaren ortografiaren parte dira.....	208
3.3 Letra edo grafema diakritikoduna alfabetoaren parte da ala ez?	208
3.4 Euskararen diakritikoak.....	209
3.5 Erdal marka diakritikoak euskal testuetan	210
3.5.1 Diakritikoak kanpoko izen arruntetan	211
3.5.2 Diakritikoak pertsonen izen-abizenetan.....	212
3.5.2.1 Diakritikoak atzerriko pertsonen izen-abizenetan	212
3.5.2.2 Diakritikoak Euskal Herriko pertsonen izen-abizenetan	213
3.5.3 Diakritikoak leku-izenetan	214
3.5.3.1 Diakritikoak atzerriko leku-izenetan	214
3.5.3.2 Diakritikoak Euskal Herriko leku-izenetan.....	215
3.5.4 Diakritikoak pertsona-izena edo leku-izena ez diren izen berezietan	216
3.5.5 Urruneko diakritikoekin, malgutasuna	217
3.5.6 Marka diakritikoak transliterazio eta transkripzioetan.....	218

Sarrera

Testu idatzietan, letrak —grafemak— erabiltzen dira hitzak osatzeko. Grafemek, beraz, mintzatzean erabiltzen ditugun hitzen soinu-unitate minimoak —fonemak— ordezkatzeko dituzte idazketa-sistema alfabetikoetan. Eta zifrak ere erabiltzen dira, digituak. Baina, idazteko, ez dira letrak eta zifrak soilik erabiltzen. Idazketa-sistemak, garatu ahala, beste baliabide grafiko batzuk eskuratuz joan dira. Hala, testuak osatzeko, bestelako marka batzuk ere erabiltzen dira, testuak modu egokian irakurri eta ulertzeko balio dutenak: ortografia-markak.

Honela definitzen da **ortografia-marka** *Euskaltzaindiaren Hiztegian*:

Letra edo zenbakia ez den marka grafikoa, testu idatzi bat zuzen irakurtzen eta interpretatzen laguntzen duena.

Grafemek fonemak ordezkatzeko dituzte, baina ortografia-markek ez dute inolako hotsik ordezkatzeko, testu idatzian baino ez dira existitzen.

Askotariko ortografia-markak daude, eta irizpide bat baino gehiagoren arabera sailkatu daitezke. Marken eginkizuna kontuan hartuta, hiru sail nagusi bereizi ohi dira:

- **Puntuazio-markak**

Testu idatzi bat antolatzeko eta argitzeko erabiltzen diren marken sistema da puntuazioa, eta zeregin nabarmena du testua sortzeko eta ulertzeko orduan. Idazketa-sistemaren barneko osagai bat da, zehatza eta aski itxia. Puntuazio-markak erabiltzea ezinbestekoa da testua behar bezala interpretatuko bada. Horretaz gainera, testuetan dagoen mezuaren izaerari buruzko informazio osagarria ere ematen dute puntuazio-markek. Zeinu grafiko konbentzionalak dira, eta idatzizko testua, diskurtsoa, egituratzeko balio dute. Haiei esker, testua hobeto uler dezakegu eta azkarrago irakur.

Puntuazio-marka nagusiak hauek dira: puntua, koma, puntu eta koma, bi puntuak, etenpuntuak, galdera-marka eta harridura-marka; haiekin batera, bigarren mailan, parentesiak, parentesi karratuak, marra eta komatxoak.

- **Marka lagungarriak**

Puntuazio-markez gainera erabiltzen diren gainerako markak dira, espezializatuagoak eta tipografiarekin zerikusi handia dutenak. Ez da zerrenda itxia, baina hauek dira nagusiak (batzuk testu teknikoetan baino ez dira erabiltzen): marratxoa, barra, barra etzana (zehar-marra ere deitua), beheko marra, barra bikuna, giltza, izartxoa, apostrofoa, gezia, parentesi angeluarrak, paragrafo-marka...

- **Marka diakritikoak**

Marka diakritikoak letra jakin batzuei ezartzen zaizkien zeinuak dira, letrari balio berezi bat emateko balio dutenak. Esate baterako, dieresia (bokalen gainean ezartzen da; adibidez, *u* letraren gainean ezartzen dena: *ü*).

Ortografia-markak sailkatzeko beste irizpide bat da kontuan hartzea zenbat osagai dituzten, bat edo bi. Irizpide horren arabera, bakunetan eta bikunetan sailkatzen dira. Bakunek osagai bakarra dute, eta bikunek bi, gehienetan forma desberdinekoak: irekierakoa eta itxierakoa. Marka bikunak hauek dira: parentesiak, parentesi karratuak, parentesi angeluarrak, komatxoak, giltzak eta marra-parea.

Ortografia-markak euskara batuaren historian

Ortografia-markak hizkuntzaren sistema ortografikoaren parte garrantzitsua dira, eta Euskaltzaindia berehala ohartu zen, 1968an euskara batuaren oinarriak ezarri zituenean, ortografia-marken arloan ere oinarri batzuk ezarri beharra zeukala. Horretarako, berariazko batzorde bat sortzea erabaki zuen 1970eko abenduaren 30ean Iruñean egindako batzarrean: Idatz arauak estudiantzeko batzordea. Koldo Mitxelena izendatu zuten batzordeburu.

Honela dio orduko batzar-agiriak:

Euskaltzaindiak idazte kontuan erregela edo arau gutxi eman du orain arte. Eta ez horren beharrik ez dugulako, noski.

(...)

Has gaitzen errazen eta azalekoen diren gauzetatik. Puntuazio kontuan, esate baterako, hamaika gauza dago erabaki beharrekorik, eta ez dut uste erabakitzen zailak direnik. Galdera eta harridura seinaleak esaldiaren hasieran eta bukaeran, ala bukaeran bakarrik jarri behar ote

dira? Apostrofua zein kasutan jarri behar da, marratxoa (guión) berriz, noiz eta non? Aipamenetan (zitetan) zer erabili behar da?

(...)

Eta zeregin honetan eskuak sartzeko, ez dezagun beldur gehiegirik. Hutsen batzuk egiteko beldurra, esan nahi dut. Hartuko diren erabakiak ez bait dira ezin aldatuzkoak. Geroago punturen bat beste era batera aldatu behar dela ikusiko balitz, beti gelditzen da horretarako atea zabalik.

Lanari ekin zion batzordeak, eta 1971ko maiatzaren 28an aurkeztu zuen lehen txostena: *Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri.*

Honela dio batzar-agiriak:

Batzorde honek bere lanen lehen fruitua eskeintzen digu, bada: «Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri». Huskeriak dirudite, txikikeriak, baina idazte kontuan bere axola dutenak dira. Axaleko gauzak, kanpoaldekoak hizkuntzan, baina hala ere hizkuntza idatziarentzat beharrezkoak. Hoietatik hasi behar genduela pentsatu dugu. Izan ere, errazagoak ere badira ta.

Askotan, ordea, katramila txiki hoiek arrazoiaren puruz erabakitzerik ez dago. Bide bat baino gehiago duzu aukeran, eta bat hartu behar. Baina zein? Hor dago kokka. Gure bidea izan da bi kriterio hauek begien aurrean eukitzea: 1. Ohitura edo tradizioarena; 2. Sinpletasunarena. Beraz, euskera idatzia beharrezko ez diren puntuazio markez gehiegi ez zamatzea edo astuntzea. Bi kriterio hoietaz baliatu gera gure lan hau prestatzekoan.

(...)

Gainera, hitz bat uste dut esan beharra dagoela arau hauen balioaz. Ez da gure asmoa agindu zorrotzak ematea, eta gutiago oraindik betirakoak ematea. (...) Geroago punturen bat beste era batera aldatu behar dela ikusiko balitz, beti gelditzen da horretarako atea zabalik. Etorkizunean hizkuntzak izan ditzazken eboluzioen berri guk ez dakigu. Ez dugu gure arauekin ezin neurtuzkoa neurtu nahi.

(...)

Zer izan nahi dute orduan gure atzalgai hauek? Norma gidari batzuk, bihar edo etzi beharbada alda ditezkenak edo beste hobeago batzuek truka ditezkenak. Baina gaurkoz hauek iduritu zaizkigu egokienak, eta hala eskeintzen dizkiegu idazle, maisu eta abarri.

Nahikoa lasaiak dira, bestalde. Ikusiko duzuten bezala, inoiz norma bat gomendatu ondoren, segidan haxe esaten da: «Hala ere ez da baztertzen beste era». Beste batzuetan era bat norma

bezala gomendatzera ere ez gera ausartzen, eta hauxe diogu soil-soilik: «Zilegi izan bedi», eta abar.

1971ko txosten horretan ezarri ziren, beraz, ortografia-markei buruzko lehen arauak.

Hona hemen:

1. *Harridura eta galdera markak* (!?). Harridura eta galdera markak esaldien asieran eta bukaeran jarri behar ote dira, ala bukaeran bakarrik? Gaztelaniak lehenbiziko bidea segitzen du, frantsesak bigarrena. Kontu honetan euskeraz, gaurko egunez, idazlerik gehientsuenek bigarren bidea harturik daukate, hau segitzen bait dute gaztelaniak ez, beste hizkuntza guztiek. Euskaltzaindiak ohitura edo joera hau ontzat ematen du. Beraz, *Erregela*: Harridura eta galdera ezaugarriak esaldiaren bukaeran bakarrik jarriko dira.

5. *Apostrofua* (').

Apostrofua noiz erabili behar da? Honetan ohitura bat baino gehiago izan da eta da oraindik euskeraz idaztekoan. Adigarri honen zeregiña eta marratxoarena ongi mugatu eta berezi behar dira bata bestetik, bakoitzari bere balio eta esanahi jakina ezarriz. Berezketa hori egin nahiz, eta gaur idazlerik gehienek harturik duten bidea onartuz, Euskaltzaindiak erregela hau proposatzen du: hitz batean letra bat edo beste *jan* dela adierazi nahi denean, orduan jarriko da apostrofua. Esate baterako: «Bederatzi t'erdiak». Arrazoia: Hau da inguruko hizkuntzetan marka honi ematen zaion balioa edo esanahia. Gure artean ere franko ugariak dira bide honi jarriak direnak, eta marratxoaren eta apostrofuaren zereginak ongi berezteko, bide hau hartu eta finkatu behar dela dirudi. Beraz, *Erregela*: Hitz batean hotsen bat ezabatu dela adierazi nahi denean, apostrofuaz aditzera eman bedi. Hontaz, ordea, oharpen bat egin beharra dago: benetazko premiarik ez denean (zerbait berezi adierazteko edo), horrelako jate hoiek ez direla iskribuz adierazi behar. Beraz, hitzak osorik idaztea gomendatzen du Euskaltzaindiak.

(Gainera, hitz elkarteetan, silaba galera gertatuagatik, ez da ezer jarri behar, edo jartzekotan, marratxoa jarriko da. Baina hortaz, hurrengo puntuan).

6. *Marratxoa* (-). Marratxoa da, zubi antzo, lokarria adierazteko erabiltzen den marra txikia. Bi hitzen artean edo hitzaren eta atzizkiaren artean jartzen da. Ez ordea beti (...). Hona hemen, bada, kasurik beharrezkoenak.

a) *Pertsona edo toki izen propioetan*. Arrotzak, ezezagunak edo guti ezagunak direnean bakarrik. Adibidez: «Scott-ek», «Bremen-en», «Hitler-ek». Gainerakoetan, deus ez: «Orion», «Bolibarren», «Gernikatik», «Parisen»; «Mogelek», «Axularren irakurria».

b) *Aldizkari eta liburu izenetan, aipamenetan eta abar*. Komatxorik ez denean eta atzizkiren bat segitzen baldin bada, tartean marratxoa jarri beharra dago. Adibidez: «*Garoa-n* irakurtzen da».

«Frantsesezko *corps*-ek» (letra berezia marraraino bakarrik).

d) *Atzizkia edo aurrizkia soilik aipatzen denean*. Adibidez: «*tu-* atzizkia», «*ber-* aurrizkia».

(...)

1990eko hamarkadaren erdialdean egin ziren hurrengo urratsak, 1994an Euskaltzaindiak araugintzaren aldi berriari ekin zionean. Hain zuzen, ortografiari buruzkoak izan ziren lehen arauak; haien artean, ortografia-markak aipatzen dituzten hauek plazaratu ziren:

- *Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri* (13. araua, 1994): marratxoaren erabilera
- *Ordinalen eta banatzaileen idazkera* (18. araua, 1994): puntuaren erabilera
- *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* (25. araua, 1995): marratxoaren erabilera
- *Orduak nola esan* (35. araua, 1995): bi puntuen eta komaren erabilera
- *Data nola adierazi* (37. araua, 1995): marratxoaren eta barra etzanaren erabilera
- *Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* (141. araua, 2004): barra etzanaren eta marratxoaren erabilera
- *Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak* (178. araua, 2015): marratxoaren erabilera

Arau horietan, ortografia-marka batzuen erabilera jakin batzuk zehazten dira, baina ez dira, berez, ortografia-markei buruzko arauak, ez eta ortografia-marken deskribapenak ere.

Euskaltzainditik kanpo, euskalgintzako erakunde batzuek (komunikabideak, argitaletxeak) ortografia-marka batzuei buruzko gomendioak eman dituzte beren estilo-liburuetan, zeinek bere esparruari zuzenduak, ortografia-marken arloan zegoen hutsuneari erantzun sektorialak edo ez hain sektorialak ematearren. Alde horretatik egindako saiorik osoenak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren barneko Ikasmaterialen Aholku Batzordeak (EIMA) pixkanaka ondutako estilo-liburuaren bi atal hauek dira:

- *Ortotipografia*, 2004an argitaratua.
- *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak*, 2014an argitaratua.

Bi lan horiek Euskaltzaindiak gainbegiratu zituen argitaratu aurretik, eta aldeko irizpen orokorra eman zien, egoki eta taxuzko iritzita, adierazirik, nolana ere, oniritzi horrek ez zituela murriztuko ez baldintzatuko Euskaltzaindiak gerora alor horretan har zitzakeen erabakiak.

Lan honen helburua

Aurrekari horiek guztiak izanda heldu da orain ortografia-markei buruzko lan hau, aurreko lan horiek osatu eta zehaztu nahi dituen eta ortografia-marken erreperitorio zehatza izan nahi duena. Deskribapen sistematikoa egiteaz gainera, marka bakoitzaren funtzioak ere xeheki zehaztuko dira.

Euskara batuaren ortotipografia da, nolana ere, lan honen esparrua. Puntuazioaren eremua, baina, ortotipografiatik harago doa. Halaber doa ortografiatik harago, eta erro sakonak ditu joskeraren lurraldean, estuki lotuta baitago sintaxi-egiturarekin, bai eta, funtzio sintaktikoetatik ere harago, funtzio informatibo direlakoekin. Alegia, diskurtsoaren ur sakonetara ere iristen da. Ez du lan honek, ordea, helburu orohartzailerik, xedea ez baita puntuazio-tratatu bat egitea. Halarik ere, joskera-kontuak ere jalgiko dira ezinbestean, puntuazio-marka batzuen erabilera joskeraren zelaian ebazten baita.

1. Puntuazio-markak

1.1 Puntuazioa

Adiera zabalean, idatziko testu batean esaldiak eta aditzik gabeko enuntziatuak mugatzen dituzten ortografia-marka konbentzionalak dira puntuazio-markak, eta proposizioen hierarkia sintaktiko-logikoa ezartzen dute testua egituratzeko. Irakurtzean, kontuan hartzen dira etenaldiak eta intonazioa markatzeko, baina ez beti. Izan ere, ahozko hizkuntzan egiten diren eten eta inflexio guztiak ez dira modu grafikoan markatzen hizkuntza idatzian. Eta, alderantziz ere, testu idatzian markatzen den etenaldi bakoitzari ez dagokio beti mintzaldiaren eten bat. Alegia, ez dago bana-banako korrespondentziarik mintzoaren etenen eta puntuazio-marken artean, ortografia-markak joskeraren arabera baitira, joskera ulertarazteko erabiltzen baitira. Hau da, puntuazio-markek diskurtsoa antolatzen dute behar bezala uler dadin: diskurtsoaren osagaien arteko erlazioak (logikoak eta sintaktikoak) agerian jartzen dituzte, eta, hala, osagaien mugak modu egokian bereiziz, anbiguitasunak saihesten dira. Era berean, zati batzuen izaera adierazteko balio dute, hala nola tartekiak markatzeko, aipuak markatzeko eta, elkarrizketetan, solaskide-aldaketa markatzeko¹.

Puntuazioaren mende dago neurri batean testua ulergarria izatea edo ez izatea. Horregatik, puntuazioaren alderdi batzuek izaera arauemailea dute, ezinbestean. Baina badira beste faktore batzuk puntuazio-marken erabilera baldintzatzen dutenak, hala nola testuingurua —adibidez, esaldiaren luzera eta beste puntuazio-marka batzuen ugaritasuna eta hurbiltasuna—, testu-mota eta idazlearen estiloa edo asmoa. Faktore subjektiboak dira batzuk, neurri batean, baina ez da hortik ondorioztatu behar puntuazioa zerbait subjektiboa denik eta ezin denik arautu. Puntuazioaren barnean bada askatasun-tarte bat norberaren estilorako, aukera estilistikoetarako, baina nahiko sistema finkoa da, barne-egituraduna eta barne-logikaz hornitua.

Ulertu behar da puntuazioa idazten denaren parte bat dela eta ez dela esaten denaren parte bat. Irakurlearentzat testuan ezarritako jarraibideak dira puntuazio-markak,

¹ Puntuazio-markak erabiltzeko irizpideak aldatuz joan dira denborarekin: garai batean, ahozko hizkuntza islatu nahiak izan zuen lehentasuna, baina isilean irakurtzea nagusitu zenean (XVIII. mendetik aurrera), testua ulertzeari eman zitzaion garrantzia, eta sintaxian eta semantikan oinarritzera eboluzionatu zuen puntuazio-sistemak.

errepideetan zirkulazio-seinaleak gidarientzako jarraibideak diren bezalaxe. Hau da, egileen eta irakurleen diskurtso idatzia ekoizteko eta ulertzeko gidak dira.

Puntuazioa ezin da ortotipografiaren edo ortografiaren mugen barnean zedarritu. Jarrera murriztailea litzateke pentsatzea arau-multzo orokor bat besterik ez dela, tipografiako erregelen sail bat dela, alderdi formalari dagokiola eta ez duela eragin handirik diskurtsoaren edukian. puntuazio-markek eragina dute diskurtsoaren interpretazioan: testu idatziaren esanahia puntuazioarekin batera sortzen da, ez puntuaziotik kanpo. Alegia, testu idatziak ez du esanahirik puntuazio-markak ezarri aurretik.

Laburbilduz, puntuazio-sistema lanabes garrantzitsu bat da, idazleek eta irakurleek baliatzen dutena idazkia prozesatzeko; hau da, ez da diskurtsoz kanpoko konbentzio bat: pertsona batek puntuak, komak eta puntu eta komak gaizki jartzen baditu, erakusten du bere pentsamendua ez dela argia, nahasia dela. Puntuatzen jakitea ideiak ordenatzen jakitea da.

Adierazi beharra dago, dena dela, badirela lizentzia estilistikoak direlakoak ere literaturaren munduan. Arau estandarretatik ohartuki egindako desbideratzeak dira (eta ez bakarrik puntuazioaren arloan), adierazkortasun jakin bat lortu nahian eginak, estilistikaren aztergai direnak. Beste inon baino baliatuagoak dira poesian, non ezin baitira bete-betean aplikatu prosa arrunta gobernatzen duten arauak, ez puntuazioan, ez elementuen ordenan ere. Desbideratze horiek ez dira hemen aztertzeak.

Lan honen esparru orokorra ortotipografia da. Horregatik, puntuazio-marken errepertorioa da abiapuntua: puntuazio-marka bakoitza deskribatzea, sailkatzea eta haren zereginak zehaztea.

1.2 Puntuazio-sistema iraganean eta gaur egun

Puntuazioa, gaur egun ezagutzen dugun moduan, Antzinatean hasitako eboluzio-prozesu luze baten emaitza da. Hasieran, ahozko diskurtsoarako lagungarri hutsa izan zen. Eskuizkribuetan, zuriunea ez zen erabiltzen; hitzak elkarri josiak idazten ziren (*scriptio continua*), eta ez zen puntuazio-markarik. Irakurlearen esku gelditzen zen idatzitakoa interpretatzea. Irakurtzea testuari “ahots galdua” itzultzea zen; jende gehiena

analfabetoa zen, eta irakurlearen erritmoa, intonazioa eta testua interpretatzen zuen hiztun trebearen elokuentzia baloratzen zen.

Erdi Aroan hasi zen puntuazioa gaur egun ezagutzen dugunaren taxua hartzen. Lehenik, zuriunea, hitzak bereizteko, eta lehen puntuazio-markak erabiltzea, hala nola puntua (puntu-mota bat baino gehiago baliatu ziren), baina ez modu uniformearen. Geroago, inprenta agertzearekin batera, kultura idatzia zabaltzen hasi zen: liburugintza garatu zen, eta irakurle-kopurua handitu. Garbi agertu zen orduan zenbait konbentzio tipografiko egonkor adostu beharra, ordura arte erreferente ia bakarra izan zen ahozkotasunetik neurri batean independente izango zirenak.

Irakurketa isila, dena dela, XVIII. mendera arte ez zen nagusitu. Orduan, puntuazioak, prosodian oinarritzeari utzita, irakurleari testu idatzia ulertzen laguntzeko funtzioa hartu zuen: joskeraren inguruan ardazteari heldu zion. Dena dela, XIX. mendean oraindik ez zen ezohikoa idazle ospetsu batzuek, hala nola Jean-Jacques Rousseauk, William Wordsworth-ek edo Charlotte Brontëk, inprimatzaileen esku uztea puntuazioa zuzentzea, arreta handia jartzen ez zioten edo ondo nola puntuatu ez zekiten seinale.

Hala eboluzionatu du puntuazioak, testua ozenki esaten laguntzeko marka-sail bat izatetik hizkuntza idatziaren funtsezko osagai bihurtu arte. Eta hizkuntza askotan idazteko alfabeto bera (alfabeto latinoaren kasuan) erabiltzen den gisa berean, puntuazio-marka berak ere erabili ohi dira alfabeto bera duten hizkuntzetan. Puntuazio-marka berak bai, baina ez beti modu berean erabiliak hizkuntza guztietan, zeren eta, haien eginkizuna joskera ulertaraztea eta nabarmentzea denez, hizkuntza bakoitzaren joskerara egokitu behar baitira.

Esanahia joskeraren bitartez mamitzen da, eta joskera prosodiaren bitartez mamitzen da ahoz, tonemek markatzen dituzten gorabeheren (inflexioen) bidez. Hala, egitura semantiko-sintaktiko-prosodiko hori islatzea da puntuazioaren zeregina.

1.3 Zein dira puntuazio-markak?

Puntuazio-sistemaren osagaiak zein diren eta zein ez diren zehaztea gai eztabaidatua izan da, eta, irizpidearen zabalaren edo estuaren arabera, haietariko batzuk puntuazio-markatzat har daitezke edo ez. Nolanahi ere, kontu konbentzionala da neurri handi batean. Lan honetan, hauek hartuko dira puntuazio-markatzat: puntua, koma,

puntu eta koma, bi puntuak, etenpuntuak, parentesiak, parentesi karratuak, marra, komatxoak, galdera-marka eta harridura-marka.

Eztabaidatu liteke, adibidez, ea zuriunea bera ere, hitzak bata bestetik bereizteko erabiltzen baita, ez ote den puntuazio-marka bat, unitate grafikoen arteko muga adierazteko baliatzen denez gero. Edo puntua marka bakarra den, edo bi diren (*puntu eta jarraia* eta *puntu eta bereiza*), edo hiru (*puntu eta jarraia*, *puntu eta bereiza* eta *puntu eta amaitua*). Marratxoa ere puntuazio-marka den, lerro-amaieran dagoenean aditzera ematen baitu hitza ez dela hor amaitzen. Ondorio praktikoetarako, nolahi ere, eztabaida horiek ez dute interesik.

1.4 Puntuazio-marken zereginak

Testu idatzian ageri den mezuaren esanahia ahalik eta zehatzen helaraztea da puntuazioaren eginkizuna. Horretarako, hiru funtzio nagusi betetzen dituzte puntuazio-markek:

- Hizkuntza-unitateen mugak adieraztea (funtzio demarkatiboa): testu idatziaren unitateak (hala unitate sintaktikoak —sintagmak, perpausak— nola diskurtsoaren unitateak —enuntziatuak—) zedarritzea, irakurleak uler dezan nola dagoen antolatua informazioa. Horretarako, puntua, koma, puntu eta koma eta bi puntuak baliatzen dira. Eta marka bikunek ere (parentesiak, parentesi karratuak, komatxoak eta marra-parea) testuaren parte bat zedarritzen dute, hots, bigarren diskurtso bat txertatzen dute diskurtso nagusian.
- Enuntziatuaren parte bat falta dela adieraztea: etenpuntuak erabiltzen dira horretarako.
- Enuntziatuaren intonazioa (modalitatea) islatzea: galdera- eta harridura-marken bidez adierazten da.


1.5 Puntuazio-markak eta letra-estiloa

Testu nagusiaren edo inguruan duten testuaren estilo berean (letra arruntez edo letra etzanez) idatzi behar dira, printzipioz, puntuazio-markak, non eta ez diren beste estilo

batean idatzita dagoen izenburu baten parte. Zehaztapen eta salbuespenetarako, ikus 198. arauko² 4.20 puntua (Letra etzana eta puntuazioa).

1.6 Puntua

Puntua marka zirkular txiki bat da, puntuazio-marka gisa esaldi bateko azken hitzaren azken letrari, azken digituari edo azken zeinuari atxikia idazten dena, tartean zuriunerik utzi gabe. Idazketa-lerroaren behealdean idazten da (.)



Puntuazio-markarik antzinakoena da. *Puntuazio* hitza bera latineko *punctum* (puntu) hitzetik dator. Beste puntuazio-marka batzuen izenetan ere erabiltzen da (**puntu** eta koma, **etenpuntuak**, **bi puntuak**) eta, marka gisa, beste puntuazio-marka batzuen parte da: puntu eta koma (;), etenpuntuak (...), bi puntuak (:), galdera-marka (?) eta harridura-marka (!). Antzinateko eskuizkribuetan hitzak edo hitz-taldeak bereizteko erabili zen, gaur egun zuriunea erabiltzen den moduan, modu ez-sistematikoan baina. XVI. mendean finkatu eta zabaldu zen puntuaren erabilera, inprenta asmatu eta hedatzearen ondorioz.

Puntuazio-marka izateaz gainera, marka diakritiko gisa erabiltzen da hizkuntza batzuetan, dela goi-puntu gisa (**ğ, ċ, ž, đ**) (adibidez, turkieraz, malteraz, polonieraz), dela puntu ertain gisa (**ŀ**) (adibidez, katalanez), dela azpipuntu gisa (**ę, ø, đ, ħ**) (adibidez, arabieraren eta hebreeraren transliterazio batzuetan).

OHARRA

Alfabeto latinoan, **i** eta **j** letra xeheek puntua dute ganean, baina letraren berezko osagaia da, nahitaezkoa; hau da, ez da marka diakritiko bat (turkiar alfabetoan, berriz, **ı** eta **İ** letra desberdinak dira).

² 198. araua: *Letra-estiloak*.

1.6.1 Puntuaren funtzio nagusia: mugatzailea

Puntuaren funtzio nagusia esaldi baten amaiera adieraztea da, hau da, diskurtsoaren unitateak zedarritzea. Zehazki, adierazpen-perpau baten edo aginduzko perpau baten (ez galde-perpau baten edo harridura-perpau baten) amaiera adieraztea. Diskurtsoaren eten markatu bat adierazten du; hau da, unitate semantiko edo sintaktiko beregain bat eratzen duten testu-zatiak bereizten ditu.

Irakaslea liburua irakurtzen hasi zen.

Eser zaitez zeure aulkian.

Ezetz.

Amaitzen den esaldiaren azken letra, digitu edo zeinuari lotuta idazten da puntua, baina puntuaren ondotik idazten den hitza ez da puntuari lotuta idazten: zuriune bat utzi behar da puntuaren eta hurrengo hitz horren artean, eta, gainera, letra larriz hasita idatzi behar da hurrengo hitz hori.

Aulkian eseri **zen**. Gero, hizketan hasi zen.

Prezioa esan zion: 250 €. Ezer esan gabe, ordaindu eta alde egin zuen.

1.6.1.1 Puntu eta jarraia

Esaldi bat idatzi ondoren puntua idazten bada eta, jarraian, paragrafo berean, beste esaldi bat badator, *puntu eta jarrai* deritzo puntu horri. Puntu eta jarrai hori, beraz, paragrafo beraren barneko esaldi autonomoak bereizteko erabiltzen da; hau da, gai berari buruz kontzeptu desberdinak adierazten dituzten bi esaldi bereizteko. Paragrafo beraren barneko enuntziatuen amaiera markatzeko balio du.

Bärlachek, errepide-ertzera hurbildu, eta beherantz begiratu **zuen**. Mahastiak, mahastiak besterik ez beraren eta antzinako herrixkaren artean. Eguzkia sartua zen ordurako. Errepidea, suge baten antzera, sigi-saga aurrera etxe artean.

OHARRA

Baliabide estilistiko gisa, batzuetan puntuz bereizten dira esaldiak beste marka ez hain sendo bat erabili beharrean (koma edo puntu eta koma, adibidez). Hala, garrantzi handiagoa ematen zaio enuntziatu bakoitzari.

Egun hartan eurixka **zen**. Hartu zuen kapusaia. Joan zen Senpererat. Erosi zuen xerri pollit bat.

Ez du dakien moduan jokatu. Eta galdu egin du.

Baliabide hori erabil daiteke, halaber, perpaus nagusia eta mendeko perpausa bereizteko, enfasia emateko.

Historia ongi funtsatuan jasotako gertaera hori ez da hola-hola gainetik pasatzekoa. Ez baita inolako arrazoirik aintzat ez hartzeko.

Pentsatzen hasi da zer esango dion. Ez dagoela argirik. Etxea zikina dagoela. Zarata handia dagoela. Ez duela etxe horretan bizi nahi.

Zenbaitetan, aukerakoa da, mezu bat emateko, enuntziatu bat edo bi erabiltzea, eta idazleak, lortu nahi duen adierazkortasunaren arabera, bata edo bestea hautatuko du.

Adibidez:

Has zaitetz jaten berehala.

Has zaitetz jaten. Berehala.

Biak zuzenak dira, baina bigarrenean nabarmendua gelditzen da *berehala* adberbioaren esanahia.

Literaturan eta publizitatean maiz baliatzen da puntua komaren orde. Segmentatze horren bidez, eten markatuagoak lortzen dira, diskurtsoaren elementu batzuk nabarmentzeko balio dutenak.

Ane egarri **zen**. Oso egarri. Azken unera arte.

1.6.1.2 Puntu eta bereiza

Paragrafoak bereizten ditu; hau da, elkarren ondoko paragrafoak bereizten ditu. Bestela esanda, paragrafoak sortzeko baliatzen da *puntu eta bereiz* marka (*puntu eta aparte* ere izendatu ohi da); haren bidez, bi paragrafo sortzen dira, aurrekoa eta ondokoa. Marka hori erabiltzen da adierazteko eduki edo ideia baten azalpena edo eduki horren ezaugarrien azalpena amaitu dela eta beste zerbait hasten dela, testuaren batasunaren barnean betiere.

Gaizki esanak barkatu, eta ondo esanak gogoan hartu. Hala dio bertsolariek hainbeste maite duten esapide osoak (ziria sartu eta gero, lasai gelditzeko aitzakiak).

Ongiaren eta gaizkiaren gaineratik jartzera ohituta dagoenaren apaltasun-itxurako faltsia du esaldiak (horregatik dute esaldi hori hain gustuko apaizek eta apaiz-itxurako bertsolariek).

OHARRA

Hizkuntza idatzian ideia bat edo argudio bat adierazten duen diskurtso-unitatea da paragrafoa. Elkarrekin erlazionatutako zenbait esaldiz osatuta dago gehienetan, esanahiaren araberako antolamendu logiko bati jarraituz. Paragrafoak nabarmentzeko eta, hala, orrialdearen barnean testua irakurgarriago-edo izan dadin, bi prozedura erabili ohi dira. Lehenengoa da paragrafo batetik bestera lerroarte handiagoa uztea paragrafo barnekoa baino. Hala egin da hemen, aurreko adibidean. Bigarren prozedura paragrafoa koskatzea da. Hau da, lehen lerroaren hasiera eskuinerantz desplazatzen da pixka bat, tarte huts nabarmen bat utzita. Paragrafoa koskatuz gero, lehen prozedura —paragrafoen arteko lerroarte handitzea— ez da erabiltzen. Aurreko adibidea honela geldituko litzateke koskatuz gero:

Gaizki esanak barkatu, eta ondo esanak gogoan hartu. Hala dio bertsolariek hainbeste maite duten esapide osoak (ziria sartu eta gero, lasai gelditzeko aitzakiak).

Ongiaren eta gaizkiaren gaineratik jartzera ohituta dagoenaren apaltasun-itxurako faltsia du esaldiak (horregatik dute esaldi hori hain gustuko apaizek eta apaiz-itxurako bertsolariek).

Alderantzizko koskatzea ere erabil daiteke (paragrafo esekia): paragrafoaren lehen lerroa gainerakoak baino ezkerrerago hastea. Hau da, lerro guztiak koskatzea lehenengoa izan ezik. Aldaera hau askoz gutxiago erabiltzen da testu arruntetan, eta gehienbat aurkibideetan, tauletan eta bibliografietan baliatu ohi da. Aurreko adibidea honela geldituko litzateke alderantziz koskatuz gero:

Gaizki esanak barkatu, eta ondo esanak gogoan hartu. Hala dio bertsolariek hainbeste maite duten esapide osoak (ziria sartu eta gero, lasai gelditzeko aitzakiak).

Ongiaren eta gaizkiaren gaineratik jartzera ohituta dagoenaren apaltasun-itxurako faltsia du esaldiak (horregatik dute esaldi hori hain gustuko apaizek eta apaiz-itxurako bertsolariek).

1.6.1.3 Puntu eta amaitua

Idazki baten amaieran jartzen den puntua da, amaierako puntua, eta adierazten du testu bat edo —zenbait kapituluz osatutako liburuen kasuan— kapitulu bat amaitu dela.

(...)

Horixe da gure kulturgintza: herrigintza, naziogintza. Komunitate baten berregintza. Itzuli beharra daukagu atzera, izan gabe geratu ginen Errenazimentu hartara. Euskararen Errenazimentura baino gehiago, Errenazimentu euskarazko batera. Geure buruaren aurkikuntzara eta libertatera.

1.6.1.4 Puntu mugatzailea enumerazio bertikaletan

Zerrenda gisa antolatutako enumerazioetan, zerrendako elementuak aurkeztean letrak edo zenbakiak erabiltzen badira, puntu bat ezar daiteke letraren eta zenbakiaren ondoren.

Non dago Arrastaria?

- a. Bizkaian
- b. Araban
- c. Gipuzkoan
- d. Zuberoan

Honelakoa izan daiteke min onkologikoa:

1. Minbiziak berak eragindakoa.
2. Minbiziak eragindako ahultzearekin erlazionatua.
3. Minbiziaren aurkako tratamenduek eragindakoa.
4. Bestelako osasun-arazoen eragindakoa.

Dena dela, beste baliabide tipografikoren bat erabiltzen bada letra edo zenbakia nabarmentzeko (hala nola letra lodia, beste kolore bat, zuriune handiagoa letraren edo

zenbakiaren ondoren...), ez da ezinbestekoa puntua jartzea. Buletak (•, ■, ▪, ◆...) edo marrak (ikus 1.13.5.3 puntua) erabiltzen direnean ere ez da punturik jartzen.

Non dago Arrastaria?

a Bizkaian

b Araban

(...)

Honelakoa izan daiteke min onkologikoa:

1 Minbiziak berak eragindakoa.

2 Minbiziak eragindako ahultzearekin erlazionatua.

(...)

OHARRA

Puntuaren ordez itxiera-parentesia erabiltzen bada —edo letra edo zenbakia parentesi artean jartzen bada—, ez da punturik jartzen.

Non dago Arrastaria?

a) Bizkaian

b) Araban

(...)

Honelakoa izan daiteke min onkologikoa:

1) Minbiziak berak eragindakoa

2) Minbiziak eragindako ahultzearekin erlazionatua

200. arauko³ 1.4.2 puntuan zehaztu dira enumerazioetako elementuak letra larriz hasita noiz idazten diren eta noiz ez jakiteko irizpideak.

Sailkapenetan maila anitzeko zerrenda zenbakituak erabiltzen direnean, zenbakien artean bakarrik jartzen da puntua eta azken zenbakiaren ondoren ez da jartzen (ISO-2145 nazioarteko arauaren arabera).

³ 200. araua: *Letra larriak eta letra xeheak*.

- 1 XXXXXXX
- 1.1 XXXXXXX
- 1.1.1 XXXXXXX
- 1.1.2 XXXXXXX
- 1.1.2.1 XXXXXXX
- 1.1.2.2 XXXXXXX
- 1.2 XXXXXXX
- 1.3 XXXXXXX
- 2 XXXXXXX
- (...)

1.6.2 Noiz ez den erabiltzen puntua

Puntuaren funtzio nagusia esaldiaren amaiera adieraztea da, baina esaldiz osatutako testu baten barnean. Batzuetan, testu nagusitik aparte ere idazten dira esaldiak, eta zalantza izan daiteke halakoetan puntua jarri edo ez. Oro har, testu nagusitik kanpo agertzen diren esaldien amaieran ez da punturik jartzen, nolabait etiketatzat-edo hartu ohi baitira. Gainera, askotan, testu orokorrak ez dituen beste baliabide batzuez hornitu ohi dira horrelako esaldiak: letra-tamaina handiagoa, edo estilo desberdina, edo paragrafoen barneko testua ez bezala lerrokatuta edo zentratuta egotea. Nolanahi ere, batez ere esaldi luzea denean edo esaldi bat baino gehiago dagoenean, puntua jartzen da. Ondoren datozen azpiataletan zehazten dira puntua erabiltzen ez den kasuak.

1.6.2.1 Goiburuak, esloganak, bide-seinaleak eta kontsignak

Goiburu eta idazkUNETAN, bide-seinale eta iragarkietan, epitafioetan, esloganetan eta kontsigna laburretan, bakarturik agertzen direnean eta idazkiko mezu nagusia direnean, ez da punturik jartzen amaieran.

GOIBURUAK

- Euskadi, auzolana
- Ekin eta jarrai
- Ezina ekinez egina

KONTSIGNAK

- Euskal Herria ez dago salgai

Euskadik behar zaitu

EPITAFIOAK

Bihotza, lana eta bizia zuen alde emanak

Gero arte

IRAGARKI ETA ABISUAK

Larrialdietako irteera

Kaskoa erabili behar da

Ez aparkatu

Mesedez, itxi atea

ESLOGANAK

Nafarroa, bestelako turismoa

Zure aurrezkia irabazle interesean

Bost kontinente, milaka kultura, zero muga

Publizitate-esloganak bi unitate baditu eta lerro desberdinetan jartzen badira, ez da beharrezkoa puntua. Adibidez, garagardo baten publizitate-eslogan honetan:

Malta bikoitza

Sari bikoitza

Baina lerro bakarrean agertzen bada eta barnean punturen bat baldin badago, amaieran ere puntua jartzen da:

Esnatu. Gaua da.

Mercedes-Benz. Onena edo ezer ez.

1.6.2.2 Izenburu, titulu eta azpiizenburuak, liburu-eskaintzak eta egileen izenak

Artelanen, liburuen, artikuluen, kapituluaren eta abarren izenburu, titulu eta azpiizenburuak —bai eta liburuen barneko taula eta laukien izenburuak ere— amaierako punturik gabe idazten dira bakarturik agertzen direnean eta beren lerroko testu bakarra direnean (zentratuta egon zein ez egon).

Gizona bere bakardadean

Bernardo Atxaga

Euskara Batuaren Eskuliburua

A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak

Euskaltzaindia

Geneak editatzen

Ebaki, itsatsi eta koloreztatu

Lluís Montoliu

Egilearen edo egileen izenaren ondoren ere ez da punturik jartzen lerroko testu bakarra denean. Adibidez, liburuen azaletan, aldizkari eta blogetako artikuluetako izenburuaren azpian eta aitzinsolasen edo bestelako idazkien amaieran.

Indianoa XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzan

Ana M. Toledo Lezeta

Euskarak bihotz gutxiago eta lan gehiago behar du

Koldo Mitxelena

Liburuen eta, oro har, idazkien hasieran jarri ohi diren eskaintzak oso testu laburrak izan ohi dira, testu orokorretik bakarturik jarri ohi dira gehienetan, eta, maiz, letra etzanez idazten dira. Halakoetan, ez zaie punturik jartzen amaieran.

Montserratati,

nire Silveria maiteari

Dena dela, eskaintza luzeagoa denean, zenbait esaldiz osatua, eta barnean punturen bat duenean, amaieran puntua jartzen da.

Liburu hau nire ikasleei –lehengoei, oraingoei eta izango direnei– eskaini nahi nieke; gizon-emakume horiei esker, izugarri dibertigarriak eta baliagarriak dira nire egunak. Nire lankide zoragarriei ere eskaintzen diet liburu hau, haiek baitira gure lanbidearen benetako bizkarrezurra.

Marybeth Brown

1.6.2.3 Irudi- eta argazki-oinak


Liburu eta aldizkarietako argazki, marrazki, eskema eta diagramen oinean jartzen diren testuak izenburu gisakoak direnean, hau da, irudiaren deskribapen orokor eta laburrak

direnean, ez da ezinbestekoa amaieran puntua jartzea. Nolanahi ere, kasuistika oso zabala da, eta argitalpen-motak ere askotarikoak dira; ezin da, beraz, gomendio orokorrik eman.



Zortziko korapiloa

Aldiz, irudi-oina luzea denean, azalpen-erakoa eta ez izenburu gisakoa, edo esaldi bat baino gehiago duenean, ohikoa da amaieran puntua jartzea. Irudiak zenbakituta daudenean ere, ohikoa da puntua jartzea.



5. irudia. *Hiztegi Batutik Euskaltzaindiaren Hiztegiara.*

1.6.2.4 Aurkibideak

Ohikoa da aurkibideak jartzea liburuetan irakurleari informazioa aurkitzen laguntzeko: gai-aurkibideak, aurkibide onomastikoak, analitikoak, kronologikoak eta abar. Aurkibideetan, ez da punturik jartzen lerro-amaieran.

Euskara Batuaren Eskuliburuko adibidea:

bat:

‘bat baino gehiago’, 228, 956

‘batek baino gehiagok’, 228, 956

‘bati baino gehiagori’, 228

bat/-bete, 259

bat eta *-a* artikulua, 260

Euskararen Gramatikako adibidea:

alokutiboa 1.6h-j, 13.3.2a, 13.7.1b, 24.3.4b, 27.3, 27.4, 27.5, 27.6

- . erregistroak sortzen dituen arazoak 27.3i
- . galderetan eta mendeko perpausetan alokutiborik ez 27.6b, c, 28.3.1c, 29.2.3, 34.4e
- araua hausten da 27.6d
- . hitanoa, *hika* (*toka/noka*) 27.3g, 27.4a, 27.5h, i
- . *zuka* alokutiboa, *xuka* alokutiboa 27.3e-h
- adizkiak *zu* izenordainaren gainean eratzen dira 27.4b

1.6.2.5 Taulak, helbideak, sinadurak

Tauletako zutabe edo errenkaden izenburuetan ez da amaierako punturik jartzen, ezta gutunen hasieran edo amaieran data idazten denean ere. Gutunak sinatzen direnean ere ez da punturik jartzen sinaduraren ondoren. Helbideak idaztean ere (adibidez, gutun-azaletan) ez da amaierako punturik jartzen.

1.6.3 Puntuaren gainerako funtzioak

Puntuazio-markatik kanpoko funtzioak dira. Puntua, erabilera horietan, ez da diskurtsoaren etenak adierazteko puntuazio-marka bat, beste funtzio tekniko batzuk dituen ortografia-marka berezi bat baizik.

1.6.3.1 Laburdura-puntua

Forma bera badute ere, ez dira gauza bera laburdura-puntua eta esaldiak bereizteko puntua. Laburdura-puntua ez da puntuazio-marka bat (laburdura-puntuari buruzko xehetasunetarako, ikus 196. arauko⁴ 12. puntua).

1.6.3.2 Silabak bereizteko puntua

Hizkuntzalaritzako testuetan, puntua erabiltzen da hitz baten silaben arteko mugak adierazteko, letrei atxikia aurretik eta ondotik zuriunerik utzi gabe. Hala erabiltzen da nazioarteko alfabeto fonetikoan.

pi.lo.ta; ni.re

1.6.3.3 Helbide elektronikoetako puntua

Posta elektronikoko helbideetan eta webgune eta web-orrien helbideetan, azpidomeinuak bereizteko erabiltzen da puntua.

info@euskaltzaindia.eus

www.euskaltzaindia.eus

Helbide horiek ez dute berezko punturik amaieran, baina, testu baten barnean idazten direnean —hau da, lerroko testu bakarra ez direnean—, amaieran puntua idazten da baldin eta helbidea esaldiaren amaieran gertatzen bada.

Gurekin harremanetan jartzeko, hau da helbidea: info@euskaltzaindia.eus.

Horretarako duzu Euskaltzaindiaren webgunea, www.euskaltzaindia.eus.

1.6.3.4 Puntua zenbakizko adierazpenetan

Zenbakizko adierazpenetan, puntuak berariazko funtzioak ditu: zenbaki ordinaletan, data eta ordua idaztean, etab. Zenbakizko adierazpenen atalean zehazten da noiz erabiltzen den eta noiz ez den erabili behar⁵.

1.6.4 Esaldi-amaierako puntua eta ohar-deia batera gertatzea

Testuetan, testu-zati jakin bati buruzko edo hitz jakin bati buruzko ohar bat egiten denean, ohar hori orrialdearen oinean (oin-oharra) edo testuaren amaieran (amaiera-oharra) idazten da, eta marka bat, ohar-deia, txertatzen da testu-zati horren

⁴ 196. araua: *Laburtzapenak: laburdurak eta siglak*.

⁵ Ikus zenbakizko adierazpenen ataleko 3.2.1 puntua eta 5. puntua.

edo hitz horren ondoan irakurleari adierazteko ohar bat dagoela. Ohar-deia, gehienetan, goi-indize gisa idatzitako zenbaki bat izaten da, baina izartxoak ere erabiltzen dira (badira beste ohar-dei mota batzuk ere).

Ohar-deia eta puntua batera gertatzen direnean, zalantza izaten da non ezarri ohar-deia, puntuaren aurretik edo ondotik.

(AURRETIK) *Erauntsiak lau ordu iraun du*⁸.

(ONDOTIK) *Erauntsiak lau ordu iraun du*⁸.

Ohar-deiak esalditik kanpo kokatzen dira, adibidez, ingelesez: sistematikoki, puntuazio-markaren ondoren jartzen da, puntuazio-marka edozein dela ere. Frantsesez, berriz, puntuaren aurretik. Gaztelaniaz, gehienbat frantsesez bezala jarri ohi da, baina, testu teknikoetan, gero eta ohikoagoa da ingelesez bezala jartzea. Bi prozedurak egokiak dira, eta estilo-kontua litzateke bata edo bestea hautatzea, baina izartxoari buruzko atalean (ikus 2.8.1 puntua) zehaztu da ezen, ohar-dei gisa baliatzen denean, amaierako puntuaren aurretik jartzen dela esaldiaren amaieran gertatzen bada. Horrenbestez, berdin egingo da izartxoaren ordean ohar-dei gisa zenbakia erabiltzen denean ere: puntuaren aurretik.

*Erauntsiak lau ordu iraun du*⁸.

OHARRA

Puntua laburdura-puntua denean, ohar-deia puntuaren ondoren jarri behar da, puntu hori laburduraren parte baita; horregatik, ezin da tartean ezer sartu.

EGOKIA

Testu hartan askotariko estiloak erabiltzen ziren, letra etzana, lodia, azpimarratua, letra larri txikiak, etab.³, dena nahas-mahas batean.

DESEGOKIA

Testu hartan askotariko estiloak erabiltzen ziren, letra etzana, lodia, azpimarratua, letra larri txikiak, etab.³, dena nahas-mahas batean.

1.6.5 Puntua beste puntuazio-marka baten ondoan gertatzea

Testuan, puntua ez da inoiz gertatzen testu idatziaren unitateak zedarritzeko baliatzen diren gainerako puntuazio-marketako baten ondoan (koma, puntu eta koma eta bi puntuak), elkar baztertzen duten aukerak baitira.

OHARRA

Laburdura bat esaldiaren amaieran gertatzen denean, puntu bakarra idazten da, ez bi (ikus 196. arauko 12.1 puntua).

Musika-mota guztiak: koralak, herri-kantuak, musika klasikoa, etab.

Alabaina, marka bikunen ondoan (parentesiak, komatxoak eta marra-parea) gerta daiteke puntua, eta orduan zalantza izan daiteke zein zeinen aurrean jarri behar den. Azkenik, zalantza izan daiteke zer egin behar den esaldiaren amaierako puntuarekin, jarri edo ez jarri, esaldiaren amaieran galdera- edo harridura-marka bat dagoenean edo etenpuntuak daudenean.

1.6.5.1 Puntuazio-marka bikunen ondoan (parentesiak, parentesi karratuak, komatxoak, marra-parea)

Puntua bateragarria da marka bikunen itxiera-markekin (itxiera-parentesia eta itxiera-parentesi karratua, itxiera-komatxoak eta itxiera-marra). Itxiera-komatxoen eta itxiera-marraren ondoren idazten da puntua, baita itxiera-parentesiaren ondoren ere parentesiaren barnekoa esaldi-zati bat denean. Parentesiaren barnekoa esaldi oso bat denean —edo bat baino gehiago—, amaierako puntua jartzen da, eta, ondoren, itxiera-parentesia (baina parentesiaren barneko puntuazioak ez dio eragin behar enuntziatu nagusiaren puntuazioari). 1.11.15 puntuan, parentesiaren eta puntuaren posizioari buruzko zehaztapen gehiago ematen dira. 1.14.4.1 eta 1.14.4.2 puntuetan, komatxoen eta puntuaren posizioari buruzko zehaztapen gehiago ematen dira.

Horrek esan nahi du «-» idatzi behar dela minus adierazteko [eta ez «-»].

Sevillan Batzorde Gorena sortu zuten —maiatzaren 27an—. Frantsesek Espainia okupatua zuten orduan.

Azken hitzak hauek izan omen ziren: «Esan denei nire bizitza zoragarria izan dela».

EGOKIA

Emisioen per capita indizea (zenbat tona biztanleko eta urteko).

DESEGOKIA

Emisioen per capita indizea (zenbat tona biztanleko eta urteko.)

Emisioen per capita indizea. (zenbat tona biztanleko eta urteko.)

Emisioen per capita indizea. (zenbat tona biztanleko eta urteko).

EGOKIA

Perfekzioa ez da beharrezkoa. (Voltairek esana da: «Onena, onaren etsai».)

Perfekzioa ez da beharrezkoa (Voltairek esana da: «Onena, onaren etsai»).

DESEGOKIA

Perfekzioa ez da beharrezkoa (Voltairek esana da: «onena, onaren etsai».).

Perfekzioa ez da beharrezkoa. (Voltairek esana da: «onena, onaren etsai»).

OHARRA

Laburdura-puntua itxiera-markaren aurretik dagoenean, esaldiaren bukaeran izanik, biak jarri behar dira, laburdura-puntua eta esaldiaren amaierako puntua.

Kapital higigarritik datozen errenten gaineko atxikipenak (aktibo finantzarioen eskualdaketa, berreskurapena, trukea, *etab.*).

1.6.5.2 Galdera- edo harridura-markaren edo etenpuntuen ondoren

Galdera-markak (?), harridura-markak (!) eta etenpuntuek (...) beren barnean dute puntua; hau da, puntua markaren osagarrietako bat da. Horregatik, esaldia marka horietako batekin amaitzen denean, ez da amaierako puntua idatzi behar.

EGOKIA

Eta honela esan zidan: Ez haizela joango? Zer esaten ari haiz, neska?

Bai, horrela. Gora gu eta gutarrak!

Denetik erosi zuen: ogia, esnea, kafea, galletak...

DESEGOKIA

Eta honela esan zidan: Ez haizela joango?. Zer esaten ari haiz, neska?.

Bai, horrela. Gora gu eta gutarrak!.

Denetik erosi zuen: ogia, esnea, kafea, galletak....

OHARRAK

- Amaierako puntua jarri behar da, ordea, esaldiaren amaieran dagoen galdera- edo harridura-marka obra baten izenburuari dagokionean.

Aurten ere, urteroko filma emango dute telebistan Aste Santuan: *Quo vadis?*.

Bai, zinema-areto batean ikusi nuen lehen filma izan zen *Viva Zapata!*.

- Baldin eta galdera- edo harridura-marka edo etenpuntuak esaldiaren amaieran badaude eta ondoren itxiera-parentesia edo itxiera-parentesi karratua edo itxiera-komatxo edo marra badago, amaierako puntua jarri behar da. Hau da, marka-segida hauek gerta daitezke esaldiaren amaieran:

?). !). ...).

?]. !]. ...].

?». !». ...».

?—. !—. ...—.

Eta kantari hasi ziren: «Olentzero joan zaigu...».

Oso ziur zegoen horrelakorik ez dela inoiz gertatu (nik kontatuko banio...).

Honela esan zidan: «Hoa kanpora, lotsagabea!».

Ez nuen nahi, baina hiruzpalau malko bota ditut (kaka zaharra!).

Behin eta berriz esan zuen euskaldunak horretarako itxiak garela (egia ote?).

1.7 Koma

Koma puntuazio-marka zirkular txiki bat da, puntu batez eta puntu horren eskuinaldetik beherantz eta ezkererantz okertzen den lerro labur batez osatua (,). Formaz eta tamainaz, apostrofoaren eta itxiera-komatxo bakunaren antza du. Haiek bezala, aurean

duen hitzari edo sinboloari atxikitzen zaio, tartean zuriunerik utzi gabe, baina, haiek ez bezala, idazketa-lerroaren behealdean idazten da. Komaren eta hari jarraitzen dion hitzaren edo sinboloaren artean zuriune bat utzi behar da, eta komaren ondoren doan hitza letra xehez hasita idazten da, salbu eta beste arrazoiren batengatik letra larriz hasita idatzi behar denean (izen berezia izateagatik, adibidez).

KOMA
,

OHARRA

Marka diakritiko gisa ere erabiltzen da koma alfabeto latinoan duten hizkuntza batzuetan; adibidez, errumanieraz eta letonieraz, letra jakin batzuen azpian idatzita, hala nola **ș** edo **ț**.

Euskaraz koma erabiltzeko gomendio eta jarraibideak eman dituzte zenbait erakundek eta taldek, gehienbat sektorialak, baina bada haien artean lan bat nabarmendu beharrekoa: Juan Garziaren *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak*⁶ (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, EIMA programa), Euskaltzaindiaren oniritziarekin argitaratua 2014an. Aipatu beharrekoa da, bestalde, *Euskararen Gramatika*⁷ (Euskaltzaindia, 2021); zehazki, hitz-ordenari eta funtzio informatiboetako buruzko kapituluak (41. kapituluak) eta diskurtso-markatzaileei buruzko eranskina (42. eta 43. kapituluak). Gramatika-liburua bada ere, eta ez puntuazioari buruzkoa, maiz ematen ditu komaren erabilerari buruzko oharra. Eta hor dago *Euskara Batuaren Eskuliburua*⁸ ere (Euskaltzaindia, 2018), puntuazio-marken atalean koma erabiltzeko gomendio labur eta zehatzak ematen dituena. Hiru lan horiek kontuan hartuta prestatu da komaren erabileraren gaineko atal hau.

⁶ [Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak](#), Juan Garzia, 2014, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

⁷ [Euskararen Gramatika](#), Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea, 2021.

⁸ [Euskara Batuaren Eskuliburua](#), Euskaltzaindia, 2018.

1.7.1 Koma, zeregin gehien dituen puntuazio-marka

Puntuazio-markarik konplexuena da koma, testuinguru askotan eta funtzio askotarako baliatzen baita. Perpausaren barnea gobernatzen duen puntuazio-marka nagusia da. Punturik punturako tartean, koma da baliabiderik erabiliena sintagmak eta proposizioak zedarrizteko eta bereizteko. Ideien konplexutasuna eta ideien arteko erlazioa zenbat eta handiagoa izan, hainbat handiagoa da erlazio horiek zedarritu beharra, eta hori da komaren eginkizuna, langintza horretan beste puntuazio-marka batzuen laguntza badu ere.

Esaldiak luze eta konplexuak direnean, koma ugari ager daitezke testuan esaldiaren amaiera markatzen duen puntura iritsi arte. Hala, komei esker batez ere, ondo isurtzen dira ideiak eta egoki ulertzen perpausen eta perpaus-osagaien arteko erlazioak. Hona hemen bi erakusgarri:

- Laurogeita sei hitzeko esaldi honetan⁹, hamasei koma daude:

Oroitzapenak itzultzen direnean, batzuetan iduri luke beirazko mendi batean zehar erreparatzen diogula iraganari, eta orain zuri hau kontatzen ari naizelarik, esan zuen Věrak, begiak itxi, eta geure irudia ikusten dut, bion begi-nini harrigarriki zabalduen tamainara txikituta, Petřín muineko dorretik begira aurrean dauzkagun mendixka berdeei eta, handik gora, beldar lodi baten antzera datorren funikularrari, bai eta, askoz urrutirago, hiriaren beste aldean, Vyšehrad gazteluaren azpiko etxeen artetik ageri den trenari ere —zuk beti antsiaz itxaroten zenuen tren hari—, emeki-emeki baitator, lurrun-hodei batean bilduta, zubia gurutzatzen duen bitartean.

- Ehun eta hogeita hiru hitzeko esaldi honetan¹⁰, hogeit hamar koma daude:

Eta ez baitzeukaten marinelek inoiz ere, gauez zein egunez, ontzigainera agertzerik han parean aurkitu gabe Ahab, edo bere pibote-zuloan tente, edo xuxen-xuxen ibiliz oholak bi muga finko zehatzen artean —masta nagusia eta mesanakoa—, edo, bestela, kamarote-atakan zutik, zango bizia ontzigainera aurreratua urrats egitekotan bezala, kapela ondo beheratua begien gainean, halako moldez non, zeinahi ere luze egon hantxe geldi, zeinahi ere gehiago metatu egunak eta gauak ez zelarik hamakan kulunkatu, hala ere, kapela eraitsi haren azpian gordea, ezin baitzuten gizonak ziur-ziur atzeman ea, hala

⁹ Austerlitz, W.G. Sebald, Igela, 2022. Itzultzailea: Idoia Santamaría Urkaregi.

¹⁰ *Moby Dick*, H. Melville, Balea Zuria, 2023. Itzultzailea: Juan Garzia Garmendia.

eta guztiz, batzuetan benetan itxiak zeuden haren begiak, ala artean ere arreta osoz zegokien begira, berdin baitzen ordubete osoa emana bazuen ere segidan hantxe atakan zutik, eta gauaren umel oharkabea ihintz-aleka pausatuz joan harri-landu halako longain eta kapela hartan.

Funtzio-aniztasun horren ondorioz, koma da zalantza gehien eragiten dituen puntuazio-marka. Batzuetan, nahitaezkoa da; beste batzuetan, berriz, debeku da koma jartzea; eta zenbaitetan, azkenik, aukerakoa da. Azken kasu horietan, komak ez du bereizte-baliorik; alegia, ezartzen duen etenak ez dakar aldaketa sintaktikorik, ezta semantikorik ere, mezuan.

1.7.1.1 Aukerako komak

Batzuetan, koma aukerakoa da, ñabardura-kontua da jartzea edo ez jartzea, eta, halakoetan, testuari argitasuna ematea izan ohi da koma jartzearen ondorio bakarra. Kontuan izan behar da ezen, zenbat eta luzeagoa eta konplexuagoa izan esaldia, hainbat erabilgarriagoa dela koma testua ondo ulertzeko. Beste batzuetan, inguruan beste puntuazio-marka bat egoteak ere eragina izan dezake koma bat jartzean edo ez jartzean. Hona hemen aukerako komaren adibide batzuk (hurrengo puntuetan zehaztuko eta garatuko dira kasuz kasu):

Amaiari(,) bonboiak ekarri dizkio Itziarrek.

Bonboiak(,) Amaiari ekarri dizkio Itziarrek.

Aurten ere(,) etorriko dira.

Neska horrek ondo egiten ditu gauzak(,) nahi duenean.

Hurbilenekoa ere, Zumarragakoa(,) alegia, urruntxo geratzen zaie.

Osaba-izebak Leitzan bizi dira(,) eta lehengusuak Beran.

Aurten(,) ez da inor etorriko praktikak egitera.

1.7.1.2 Nahitaezko komak

Beste batzuetan, koma nahitaezkoa da, baina ez komarik gabe esaldia gramatikala ez delako, baizik eta koma jartzen ez bada beste esanahi bat ematen zaiolako enuntziatuari. Kasu horietan, koma funtsezkoa da unitate sintaktikoen arteko erlazioak eta mendekotasunak argitzeko. Komak bereizte-balioa du orduan, erlazio sintaktikoak

aldatzen baititu. Hona hemen nahitaezko komaren adibide batzuk (hurrengo puntuetan zehaztuko eta garatuko dira kasuz kasu):

Eider, irakaslea eta Itziar kanpinean elkartu ziren udan.

[Hiru pertsona elkartu ziren. *Irakaslea* hitzaren ondoren komarik ez egoteak adierazten du enumerazio bat dela: A, B eta C.]

Eider, irakaslea, eta Itziar kanpinean elkartu ziren udan¹¹.

[Bi pertsona elkartu ziren. *Irakaslea* hitzaren ondoren koma egoteak adierazten du aposizio esplikatibo bat dela. Berdin jar liteke *irakaslea* marra artean. Beraz, Eider eta Itziar elkartu ziren, eta Eider irakaslea da.]

1980ko hamarkadaren hasieran hiesa denon arazoa zela gogoratu zuen.

[1980ko hamarkadaren hasieran izan zen hiesa denen arazoa.]

1980ko hamarkadaren hasieran, hiesa denon arazoa zela gogoratu zuen.

[1980ko hamarkadaren hasieran gogoratu zuen.]

Modu sotilean, emakume askok euren buruari egiten dizkioten galderak egiten dituzte aktoreek taularen gainean.

[Modu sotilean egiten dituzte aktoreek galderak.]

Modu sotilean emakume askok euren buruari egiten dizkioten galderak egiten dituzte aktoreek taularen gainean.

[Modu sotilean egiten dituzte emakume askok galderak.]

Neska-laguna, beste batekin hizketan ari zela ohartu zenean, biziki haserretu zen.

[Neska-laguna haserretu zen.]

Neska-laguna beste batekin hizketan ari zela ohartu zenean, biziki haserretu zen.

[Beste norbait haserretu zen.]

¹¹ Bada beste aukera bat, komarik gabekoa: Eider irakaslea eta Itziar.

1.7.1.3 Debeku diren komak

Kasu batzuetan, ez da komarik jarri behar. Kasuan-kasuan zehaztuko eta garatuko dira hurrengo puntuetan, baina hauek dira kasu nagusiak:

- Esaldiko bi osagai (izenak, adjektibo edo izenondoak, izenlagunak, adberbio edo aditzondoak, adizlagunak, aditzak) *eta* juntagailuaren bidez elkartzen direnean, desegokia da; berdin esaldi-atalak elkartzean ere.

azidoak **eta** baseak; ikasi **eta** irakatsi; gorriak **eta** berdeak

Erabakiak hartzeko **eta** harremanak eraikitzeko trebetasunak

erregulartasunak bilatzea **eta** orokortzea

- Gainerako juntagailuen bidez lotutako osagaietan ere ez da komarik jartzen.

Esan gezurra **ala** egia den.

lauak **nahiz** makurrak; gorria **zein** urdina; txikia **baina** gogorra; artikuluarekin **edo** artikulurik gabe

- Esaldiaren gunean ez da komarik erabiltzen (tartekien koma-parea eta enumerazioen komak izan ezik). Hau da, galdegaiaren eta aditzaren artean ez da komarik idazten, eta aditzaren eta aditzarekin batera galdegaiari testuinguru zehatza ematen dioten sintagmen artean ere ez (adibideetan, letra lodiz ageri dira galdegaiak, eta azpimarraturik, berriz, gainerako sintagmak).

Oso ingurune kutsatuak dira etxeak eta bulegoak.

Hiriatarako joera nagusitu zen XIX. mendean.

Gaur, **etxean** geldituko gara arratsaldean.

Saiatzen denean, **ondo** idazten ditu gutunak mutiko honek.

Bi musu eman zizkion osabak izebari oparia ikusi zuenean.

- Mintzagaia esaldiaren subjektua denean, ez da komarik jartzen subjektuaren ondoren (baina tartekiaren koma-parea jar daiteke).

[EGOKIA] Amaiak liburuak ekarri ditu.

[DESEGOKIA] Amaiak, liburuak ekarri ditu.

[EGOKIA] Amaiak, orduan, liburuak ekarri ditu.

- Mendeko perpausen barnean ere ez da komarik jarri behar (tartekien koma-parea eta enumerazioen komak izan ezik). Hau da, esaldi osoaren mailarako koma-arauak ez dagozkie mendeko perpausei.

Erosten duzunean, konturatuko zara. [Koma mendekoaren ondoren.]

Erosten duzunean konturatuko zarenez,... [Komarik ez mendekoaren barnean.]

1.7.2 Komak egitura sintaktikoak markatzeko

Printzipio sintaktikoak, semantikoak eta estilistikoak gurutzatzen dira puntuazioaren bilbean, eta konfigurazio horrek betebeharrak eta aukerak dakartza berekin. Horrenbestez, esaldia eraikitze moduak (hautatutako eraikuntza sintaktikoak), eman nahi zaion zentzu zehatzak (semantikak) eta egilearen estiloak erabakitzen dute esaldiaren puntuazioa. Faktore horiek guztiek eragiten dute komaren erabileran.

Koma bat jartzeko arrazoiak askotarikoak dira: mintzaldiaren etena, koma artean zedarritutako elementuen luzera eta posizioa, esaldiaren esanahia eta abar. Hala, hitz batzuk bereizteko, juntadura markatzeko eta elipsiak markatzeko balio du komak.

Askotan, sintaktikoki nahitaezkoa da koma; beste batzuetan, berriz, komaren erabilera idazlearen estiloaren arabera da. Oreka bilatu behar da, nolahi ere, koma aukerakoa denean: koma gehiegi erabiliz gero, esaldia etenez betez, testu neketsua izan daiteke emaitza, arintasunik gabea; koma gutxiegi jarriz gero, anbiguotasunari eta esanahia ez ulertzeari zabalduko zaie bidea.

Ahozkoan, inflexio bat dagokio, askotan, testuko komari. Hala ere, kontrakoa ez da beti betetzen; alegia, esaldi bat irakurtzean egiten diren inflexio eta eten labur batzuk ez dira grafikoki markatu behar komaren bidez.

Bestalde, ez da egokia ahozko etenaren luzeraren arabera sailkatzea puntuazio-markak. Alegia, ez da egokia esatea eten laburrari koma dagokiola, eten luzeagoari puntu eta koma eta eten are luzeagoari puntua, zenbaitetan hala bada ere. Puntuazio-marka desberdinak erabiltzeak ez dakar berekin etenaren luzera nahitaez aldatzea. Kasurako, hiru adibide hauek eten-luzera berarekin irakur daitezke:

Eta joan egin zen, zorionez.

Eta joan egin zen; zorionez.

Eta joan egin zen. Zorionez.

Adibide horietan, puntuazio-markak ez du etenaren luzera aldatzen, baina bai islatzen nola antolatu nahi duen idazleak informazioa. Zer puntuazio-marka hautatzen den, aldatu egiten da markak bereizten dituen atalen arteko mendekotasun-maila: adibideko *zorionez* adberbioari ematen zaion garrantzia handiagoa da bigarren adibidean lehenengoan baino, eta are handiagoa hirugarrenean.

Horregatik, ez da komeni ahozko mintzaldiaren etena erreferentziatzat erabiltzea komaren tokia ebazteko. Komak egitura sintaktikoak markatzen dituzte; beraz, joskerari erreparatu behar zaio jakiteko noiz eta nola erabili.

Joskerarekin bakarrik ez, funtzio informatiboekin ere estuki lotuta dago koma. Adibidez, perpaus zirkunstantzialen kasuan, mendeko perpausaren funtzio informatiboak —mintzagai den ala galdegai— erabakiko du komaz edo komarik gabe lotu behar den perpaus nagusiarekin¹².

Bukatzen duenean etorriko da.

[*Bukatzen duenean* galdegaia da: esaldiak *noiz etorriko da?* galderari erantzuten dio.]

Bukatzen duenean, etorriko da.

[*Bukatzen duenean* mintzagaia da; esaldiak ez dio erantzuten *noiz etorriko da?* galderari.]

1.7.3 Koma noiz erabiltzen den

Komaren erabilera lotuta dago komaren bidez bereizten diren elementuen funtzio sintaktikoari. Ikuspegi sintaktikotik zein semantikotik, hiru funtzio nagusi ditu komak: esaldian elementuak juntatzea, kentzea eta haien ordena aldatzea.

¹² Funtzio informatiboek, hau da, informazioaren egiturari dagozkion funtsezko funtzioek (mintzagaia, galdegaia, kontrastea) hitz-ordenari eragiten diote: informazio-testuinguruak nabarmentzeko, osagaien hurrenkeraren aldaketa baliatzen du euskarak. Hala, bada ordena neutro edo kanoniko bat, ez-markatua, inongo osagairik nabarmentzen ez duena, eta bada ordena markatu bat, osagai jakin bat nabarmentzen duena. Mintzagai/galdegai jokoan garrantzi handia du komak. Azalpen xehe baterako, ikus *Euskararen Gramatikaren* 41. kapitulua: “Hitz ordena: informazio egitura”.

Hala, esaldian izaera bertsuko elementuak —hitzak edo hitz-taldeak edo perpausak— juntagailurik gabe sartzeko erabiltzen da. Koma juntatzailea da.

Kontrako funtzioa ere bete dezake: esaldiak zentzurik galdu gabe bereizi daitezkeen elementuak markatzeko (koma-parea erabiltzen da horretarako). Halaber balia daiteke koma aditz bat kendu dela adierazteko.

Azkenik, leku-aldaketa bat markatzeko ere baliatzen da koma; hau da, unitate bat esaldian izan ohi duen ohiko lekutik aldatu dela markatzeko.

Funtzio nagusi horiek kontuan izanda, zenbait azpiataletan aztertuko da hurrengo puntuetan komaren erabilera.

1.7.3.1 Komaren erabilera esaldi-hasieran: mintzagai aurreratua

Esaldian informazioa antolatzeke moduari lotuta dago komaren erabilera. Gaiari heldu aurretik, kontuan hartu behar da zer den ordena neutroa eta zer ordena markatua.

Informazioa egituratzean, perpausaren barneko osagaien hurrenkera aldatzen dute hizkuntza batzuek informazio-testuinguru batzuk nabarmentzeko. Halakoa da euskara. Osagaien hurrenkera horretan, bada *ordena neutroa (ordena kanonikoa)* deitzen zaiona: ordena horretan ez da perpausaren osagai jakin bat nabarmentzen, eta perpausak *zer gertatu da?* galderari erantzuten dio. Ordena neutroko perpausetan mintzagaiak (diskurtsoaren markoa ezartzen duen osagaia da mintzagaia) eta iruzkinak (mintzagaiari buruzko informazio berria gehitzen duen osagaia) osatzen dute informazio-egitura, eta subjektu-funtzioa betetzen duen sintagma izan ohi da mintzagaia. Era horretako perpausetan ez da komarik behar.

Idoiak sari bat irabazi zuen iaz.

[Mintzagaia: Idoiak; iruzkina: sari bat irabazi zuen iaz.]

Baina informazioa dakarren osagaia nabarmendu nahi izanez gero, beste hurrenkera bat hautatuko da. Orduan, ordena neutroa hautsita, ordena markatua erabiliko da eta galdegai bat izango da, beti aditzaren aurretik ezarria. Adibidez, *zer irabazi zuen iaz Idoiak?* galderari erantzuteko:

Sari bat irabazi zuen iaz Idoiak.

[Galdegaia: sari bat; mintzagaiak: iaz eta Idoiak.]

Galdegaia dagoenean, mintzagaiak posizio bat baino gehiago izan dezake. Mintzagaiak ematen duen informazioa bereziki nabarmendu nahi ez bada, askotan gertatzen den bezala, aditzaren eskuinean ematen da. Hala daude mintzagaiak aurreko adibidean, aditzaren ondoren. Mintzagai bati enfasi berezia eman nahi zaionean, berriz, esaldiaren gunearen aurretik kokatzen da. Orduan, *mintzagai aurreratua* esaten zaio. Ohikoa da mintzagaia aurreratzea esaldi batetik bestera mintzagaia aldatu dela azpimarratzeko.

Ordena markatuan, hau da funtzioen eskema nagusia:

mintzagai aurreratua(k) - esaldiaren gunea - gehikuntza(k)

Esaldiaren gunea galdegaia, aditzak eta galdegaiari testuinguru zehatza ematen dion mintzagaiak osatzen dute, eta gunea horretan ez da komarik erabiltzen. Horrenbestez, bi toki geratzen dira koma erabili ahal izateko: esaldiaren gunearen aurrekoa eta ondokoa. Aurreko lekua mintzagai aurreratuarena da. Eta ohikoa da koma erabiltzea mintzagai aurreratuaren amaiera markatzeko (hurrengo puntuetan zehazten da noiz den bereziki beharrezkoa koma eta noiz ez mintzagai aurreratuaren ondoren). Aurreko adibideko *iaz* mintzagaia aurreratuz gero:

Iaz, sari bat irabazi zuen Idoiak.

[Esaldiaren gunea: sari bat irabazi zuen Idoiak; mintzagai aurreratua: Iaz.]

OHARRA

Mintzagai aurreratua subjektua denean, hurrenkera bat dator ordena neutroaren hurrenkerarekin, eta subjektuaren eta predikatuaren artean printzipioz ez da komarik erabiltzen, nahiz eta hitz egitean etena markatu bien artean.

Idoiak sari bat irabazi zuen iaz.

Mintzagaia esaldiaren subjektua denean koma ez jartzeko salbuespenak badu bere salbuespena, ordea: mintzagai den subjektu horren ondoren aditza datorrenean, koma jartzen da; bestela, subjektu hori galdegai dela ulertuko litzateke.

Idoia, joan da.

[Trinkoa balitz: Idoia badoa. Hau da, Idoia mintzagai da, eta ba- galdegai.]

Idoia joan da.

[Trinkoa balitz: Idoia doa. Hau da, Idoia galdegai da.]

Ezinbestekoa da esaldiaren hasieran doan eta subjektua ez den mintzagaiaren ondoren koma jartzea? Askotan bai.

- Mintzagaiak leku edo denborazko erreferentzia orokorrak ematen dituenean, enuntziatu osoari dagozkionak eta ez aditzaren ekintzari soilik lotuak, komeni da koma jartzea.

Azken urteotan, Ekialde Hurbilean gertatzen ari dira tentsio geopolitiko nagusiak munduan.

Europar, aireportuetako zarataren gaia behin eta berriz agertu da hedabideetan.

Harreman-bizitza honetan, berebiziko garrantzia izaten dute ingurukoek.

Hain azkar aldatzen ari den mundu honetan, ekonomia-elkarte pribatu batzuek indar handiagoa dute haiek biltzen dituzten nazio-estatuek baino.

OHARRA

Oso laburra denean, komarik gabe ere idatz daiteke.

Azken urteotan(,) berriro piztu da eztabaida.

- Mintzagai aurreratua luzea denean, koma jartzea gomendatzen da.

Nafarroako hegoaldeko herri ezagun batean, iragarki bitxi bat agertu zen atzo plaza nagusian.

Udaberri euritsu, heze eta hotz hartan, herritar guztiak haserre zeuden.

- Beharrezkoa da koma diskurtso-markatzaileen ondoren eta honelako osagaien ondoren: maiztasuna adierazten dutenak (*noizean behin, noiz edo noiz, gehienetan, hilean behin, etab.*), balorazio bati sarrera ematen diotenak (*zoritxarrez, zorionez, tamalez, zalantzarik gabe, berez, etab.*), zerbait nabarmena dela adierazten dutenak (*izan ere, bistan denez, hain zuzen ere, jakina, etab.*), ikuspegia adierazten dutenak (*alderdi historikotik, ikuspegi ekonomikotik, teknikoki, linguistikoki, etab.*), jarrera adierazten dutenak (*egia esan, argi eta garbi, hitz batez, etab.*) eta balio kontzesiboa edo baldintzazkoa duten esamoldeak (*kasu horretan, hala eta guztiz ere, etab.*).

Definizio horren arabera, taula periodikoko elementu gehienak izan daitezke metalak.

Lan horri esker, prestigiozko zentroak sortu dira gure lurraldean azken 20 urteetan.

- Mintzagaia esaldiko objektua edo datiboa denean, aukerakoa da koma.

Amaiari(,) bonboiak ekarri dizkio Itziarrek.

Bonboiak(,) Amaiari ekarri dizkio Itziarrek.

- Ezezko perpaus gehienetan, ez adberbioa bera da galdegai; beraz, esaldian haren aurrean dagoena mintzagai izango da, eta ez galdegai. Horregatik, ezezko perpaus gehienetan aukerakoa da mintzagaiaren koma.

Aurten(,) ez da inor etorriko praktikak egitera.

Praktikak egitera(,) ez da inor etorriko aurten.

- *Ere* partikula agertzeak adierazten du *ere* duen sintagma mintzagai dela, *ere* duen sintagma ezin baita izan galdegai, ezta ondoren aditza duenean ere. Horregatik, kasu horretan aukerakoa da koma.

Iruñean zuten etxean ere(,) aizkora zeukan aitonak, han egur egin behar ez bazuen ere.

Aurten ere(,) etorriko dira.

Afaltzera ere(,) badator.

- Mintzagai aurreratua laburra denean, nahasbiderako aukerarik ez dagoenean eta kontraste esplizitua markatzen ez denean, koma aukerakoa da.

Iaz(,) sari bat irabazi zuen Idoiak.

[Laburra da, ez dago anbiguotasunik eta kontrasterik ere ez. Koma aukerakoa da.]

Iaz, esan zuen etorriko zela ≠ Iaz esan zuen etorriko zela.

[Koma behar da anbiguotasuna hausteko.]

Iaz, sari bat irabazi zuen Idoiak; aurten, bi.

[Komak kontrastea markatzen du.]

Hona hemen koma aukerakoa duten beste adibide batzuk:

Aurten(,) Erromara joango gara oporretan.

Hasierako bidaietan(,) ez zuten ezer aurkitu.

Hasierako bidaietan(,) urrea aurkitu zuten.

Orain(,) ikerlana egingo duzu.

Geografian(,) etengabe erabiltzen dira mapak.

XX. mendean(,) oso azkar hazi zen munduko biztanleria.

2020an(,) Italia izan zen ardo-ekoizle nagusia.

- Mintzagaiak adierazten duen kontrastea esplizitua denean, ordea, koma idazten da:

Iaz, Londresa joan ziren oporretan; aurten, Erromara joango dira.

Orain, ikerlana egingo duzu; bukatzen duzunean, tesia idatziko duzu.

Hasierako bidaietan, urrea aurkitu zuten; hurrengoetan, ezer ez.

Geografian, etengabe erabiltzen dira mapak; kimikan, ia inoiz ez.

- Askotan, koma jarri edo ez jarri, erabat aldatzen da esanahia, komarik gabekoa galdegaitzat ulertzen baita eta mintzagaitzat, berriz, komaduna, batez ere jarraian dagoen osagaia aditz bat edo mendeko perpaus bat denean.

Gaur, etorri da.

Gaur etorri da.

Horretarako, balio du hiztegiak.

Horretarako balio du hiztegiak.

Datorren astean, jokatuko duzu.

Datorren astean jokatuko duzu.

Horregatik, ez dute ezer esaten.

Horregatik ez dute ezer esaten.

Bihar, etorriko balitz, ez nioke ezer esango.

Bihar etorriko balitz, ez nioke ezer esango.

- Mintzagaiaren eta galdegaiaren arteko mekanismoa esaldiaren mailakoa da. Perpaus beregaina mendeko perpaus bihurtzen denean, mendeko perpausaren barnean lausotu egiten da mintzagai kontzeptua; orduan, perpaus beregainean funtzioa zuen koma jada ez da erabili behar (ikus 1.7.3.5.7 puntuko oharra).

[EGOKIA] Ondo dagoenean, oso alaia da.

[EGOKIA] Esan didate ondo dagoenean oso alaia dela.

[EGOKIA] Asko maitatuz gero, asko sufritzen da.

[EGOKIA] Garbi dago asko maitatuz gero asko sufritzen dela.

[DESEGOKIA] Garbi dago asko maitatuz gero, asko sufritzen dela.

[DESEGOKIA] Garbi dago, asko maitatuz gero, asko sufritzen dela.

1.7.3.2 Komaren erabilera esaldi-amaieran: mintzagai aurreratugabea eta gehikuntza

Esaldiaren gunea galdegaiak, aditzak eta mintzagai aurreratugabeek osatzen dute. Galdegaiaren eta aditzaren artean ez da komarik jartzen, eta aditzaren eta mintzagai aurreratugabearen artean ere ez.

Ez da komarik jartzen mintzagai aurreratugabea subjektua denean:

Aise mugi daitezke **organo eta ehun gehienak**.

Ez da komarik jartzen mintzagai aurreratugabea objektua nahiz datiboa denean:

Diktaturak bertan behera utzi zituen **berme konstituzionalak**.

Amaiak dirua eskatu zion **amari**.

Ezta esaldiaren guneko gainerako argumentuekin ere.

Ane geltokian elkartuko da **zurekin**. [*elkartu* aditzaren argumentua da *norekin*]

Gainerako osagaiak ere (adjuntuak) komarik gabe idazten dira (baina komaz ere jar daitezke, gehikuntza gisa, beherago zehazten den bezala).

Horiek ederki moldatzen dira **batere hezurrik gabe**.

Hala, bigarren fronte bat ireki zen **Europako eremuan**.

Horrek frankismoaren gainbehera eragin zuen **Franco hil eta gero**.

Trena Hendaiaiko geltokian sartu da **orain dela hamar minutu**.

Autoa aparkatzen ari zen **nik ikusi nuenean**.

Esaldiaren gunearen atzean, batzuetan, esanahi osoko sintagma bat ezartzen da, lehenaz gainerako galdegai bat dakarrena. Adibidez:

Arrain asko jaten du jendeak hemen, **erreta**.

Bi galdegai daude hor: *arrain asko* eta *erreta*. Bi esaldi izatearen parekoa da:

Jendeak **arrain asko jaten du**, eta jendeak **erreta jaten du** arraina.

Bigarren galdegai horri *gehikuntza* deritzo. Semantikoki, beste esaldi baten balioa du, eta esaldiaren gunetik komaz bereizita idazten da.

Bata bestearen ondoan itsatsirik egoten dira, **geruzak osatuz**.

Neska horrek ondo egiten ditu gauzak, **nahi duenean**.

Udan, Erromara joango gara oporretan, **osaba-izebekin**.

1860. urtean jaio zen Txirrita, **Hernanin**.

2024ko urtarrilaren 26an hartu zuen erabaki hori Euskaltzaindiak, **Donostian**.

Adierazpen-esaldi batzuetan, dena dela, gehikuntza gisa eman beharrean mintzagai gisa eman daiteke; alegia, komarik gabe, esanahiaren aldetik ez baitago alde handirik.

Neska horrek ondo egiten ditu gauzak(,) **nahi duenean**.

Udan, Erromara joango gara oporretan(,) **osaba-izebekin**.

Galdegai gehitu horiek komatik gorako puntuazio-marka ere onartzen dute etena areago markatu nahi den kasuetan.

Neska horrek ondo egiten ditu gauzak; **nahi duenean**.

Neska horrek ondo egiten ditu gauzak. **Nahi duenean**.

1.7.3.3 Komaren erabilera tarteki eta kidekoetan

Tartekia esaldian nolabait aparte ematen den zerbait da —adiera zabalean eta oso definizio zehatza ez bada ere—, eta hitza, hitz-multzoa edo are perpaus osoa izan daiteke. Esaldiaren haria eten, eta beste era bateko informazioa txertatzen du, tartekatzen du, diskurtsoan. Tartekia kenduta, esaldiak zentzu osoa izaten jarraitzen du. Hizketan ere, esaldi nagusitik aparteko doinuaz markatzen da tartekia.

Parentesiak eta marra-pareak dira tartekietarako berariazko markak, eta ez hainbeste komak, baina oso ohikoa da komak erabiltzea tartekiak sartzeko esaldian. Zer marka baliatu —komak, marrak edo parentesia— zerbait subjektiboa da, idazleak tartekiari

eman nahi dion garrantziaren edo nabarmentasunaren araberakoa (handiagoa izango da marraz edo parentesia erabiliz gero komak erabilita baino).

Tartekirik gabeko esaldia:

Ohitura hori ez dago ondo ikusia.

Lehenengo esaldia, tarteki bat koma artean sartuta:

Ohitura hori, **herrialde batzuetan**, ez dago ondo ikusia.

Lehenengo tartekia marra artean sartuta:

Ohitura hori —**herrialde batzuetan**— ez dago ondo ikusia.

Tartekia parentesi artean sartuta:

Ohitura hori (**herrialde batzuetan**) ez dago ondo ikusia.

Testuinguruak ere eragin dezake tartekiaren marka hautatzeko orduan, batez ere tarteki bat beste baten barnean sartu behar denean; adibidez, marra arteko tarteki bat koma artean sartzea, baldin eta marra artean dagoen tarteki baten barneko tarteki bat bada.

Bost urtez behin lanbidez eta bizilekuz aldatu behar izan bazuen ere —eta hori guretzat, **europarrontzat**, ez da ohikoa—, ez zen inoiz kexatu.

Tartekia esaldiaren osagaien artean jartzen da askotan. Ez beti, ordea: esaldiaren hasieran eta amaieran ere jar daitezke.

Horren adibide da udaberrian martxan ipini zuten ortua.

Horren adibide da, **esaterako**, udaberrian martxan ipini zuten ortua.

Esaterako, horren adibide da udaberrian martxan jarri zuten ortua.

Horren adibide da udaberrian martxan ipini zuten ortua, **esaterako**.

Tartekiak era askotakoak izan daitezke, eta atalka aztertuko dira hurrengo puntuetan.

1.7.3.3.1 Bokatiboak

Norbaiti edo zerbaiti deitzeko erabiltzen den hitza edo hitz-multzoa da bokatiboa edo deikia.

Egun on, **Amaia!**

Agur, **Eneko**, ondo ibili!

Ohikoena da zuzentzen ari gatzazkion pertsonaren izena erabiltzea, baina izan daiteke izen arrunt bat ere, hala nola haren lanbidea edo titulua edo familia barneko izena. Beraz, bokatiboa tarteki-mota bat da, tarteki alokutiboa, solaskideari dei-hitzez zuzentzeko baliatzen dena. Zuzenean dei egin nahi bazaio solaskideari, haren izena edo hura deskribatzen edo izendatzen duen informazioa sartzen da diskurtsoan.

Bokatiboa esaldiaren hasieran, erdian edo amaieran ager daiteke, eta koma bidez bereizi behar da beti esaldiaren gainerakotik (haren aurretik edo ondotik puntua, puntu eta koma, bi puntu edo beste puntuazio-markaren bat dagoenean, komarik ez da jartzen).

Bokatiboen kasuan, ez baita bestelako tartekien gisakoa, ez dira erabiltzen marrik nahiz parentesiak.

Bai, **maitea**.

Ongi etorri, **Miren**.

Hi, **Joxe**, hator etxera.

Zuk, **azeria**, zer egingo duzu mahatsa ikusita?

Goazen, **neskak**, berandu da eta.

Niri ez zait ondo ateratzen, **maisua**, eta mila modutan saiatu naiz.

Hobe duzu azkar etorri, **aita**, euria egin behar du eta.

Txikleia erosiko didazu, **aitona**?

Ama, osaba-izebak etorri dira.

Autoa hondatu zait, **Eider**: berandu iritsiko gara bilerara.

Nirekin ikasiko dun zer den lan egitea, **alfer alaena!**

Hizkuntza-industriaren garaian sartuak ginen, **adiskide!**

Bokatiboa pertsonifikazio bat ere izan daiteke.

Oi, **herio guztiz krudela**, hik nor ez duk ikaratzen?

Makina bat herri ezagutu dut zuri esker, **nire bizikleta maitea**.

Bokatiboa hitz bakarrekota edo hitz bat baino gehiagokoa izan daiteke.

Ez, **gizona**.

Bai, **neska**.

Ondo al zaude, **polit hori**?

Horregatik, **lagun maitea**, nahi nuke zu ere etortzea gurekin.

Ongi etorri, **jaun-andreok**, zuena ere baden herriko etxe honetara.

Eta zu, **irakurle filosofo txiki hori**, ados zaude nirekin?

Pertsona berari zuzendutako bokatio bat baino gehiago ager daitezke jarraian, bokatioen artean koma jarrita.

Ondo dakizu, **Jone, ene alaba maitea**, nik ez nizukeela hori esango.

Agur, **Andre, Erregina santu, Jainkoaren ama santu, Maria**.

Eta pertsona bati baino gehiagori zuzentzeko modua da bokatio-segida bat jartzea.

Ane, Saroi eta Patxi, ez mugitu orain, argazkia egin behar dizuet eta.

Bokatioa galdera baten aurrean dagoenean, galderatik kanpo dago (galde-perpauaren intonaziotik kanpo). Amaieran dagoenean, berriz, barnean (galde-perpauaren intonazioaren amaierako inflexioa du); horregatik, galdera-markaren aurretik jartzen da. Erdian dagoenean, galde-perpauaren intonaziotik aparte gelditzen da.

Idoia, noiz bukatuko duzu itzulpena?

Noiz bukatuko duzu itzulpena, **Idoia**?

Noiz bukatuko duzu, **Idoia**, itzulpena?

Bokatioa komarik gabe jartzeak esaldia aldatuko luke:

Zer moduz **Ainara**? [Ainara zer moduz dagoen galdetzeko: ez da bokatioa.]

Zer moduz, **Ainara**? [Ainarari galdetzeko: bokatioa.]

OHARRA

Esaldi batean *zu* edo *zuek* izenordaina agertzen denean, zalantza egin liteke ea bokatioa den ala ez. Izenordaina esplizitatu besterik egiten ez bada, ez da bokatioa.

Nahiago baduzue, **zuek** zuzenean joan zaitezket.

[= Nahiago baduzue, zuzenean joan zaitezket.]

Etorri **zu** nirekin; hala, azkarrago egingo dugu.

[= Zatoz nirekin; hala, azkarrago egingo dugu.]

Bokatiboak, berriz, zuzenean ohartarazteko, deitzeko, balio du.

Zuek!, etorri nirekin, ez zaitezte gera hor erdian.

E!, **zu!**, atera zaitez hortik berehala!

Ohikoa da bokatiboa *zorionak, agur, kaixo, eskerrik asko, ongi etorri* eta antzeko hitzen ondoan, eta gutunen eta mezu elektronikoen hasieran.

Egun on, **jaun-andreok:**

Kaixo, **Saroi:**

Ongi etorri, **Patxi.**

Zorionak, **txapeldunak.**

Agur, **paperezko liburua;** ongi etorri, **liburu elektronikoa.**

OHARRA

Aurreko azken adibideetan, zuzenean aipatu beharrean hirugarren pertsonan aipatzen badira, hitz horiek jada ez dira bokatiboak eta, beraz, ez dira koma artean idazten.

Zorionak txapeldunei.

Agur paperezko liburuari eta ongi etorri liburu elektronikoari.

1.7.3.3.2 Diskurtso-markatzaileak

Diskurtso-markatzaileak (lokailuak barne) solas-mailako edo testu-mailako lotura gauzatzen duten gramatika-baliabideak dira. Kategoriaz, adberbioak edo lokuzio adberbialak izaten dira, eta askatasun sintaktiko handia izaten dute enuntziatuan, juntagailuek ez bezala. Posizio batean baino gehiagotan jar daitezke askotan; horregatik, koma bidez bereizten dira, oro har, enuntziatuaren gainerako elementuetatik. Era askotakoak dira: batzuk esaldi osoak dira (*esan gabe doa, bistan da...*), beste batzuk esaldi-osagaiak (*antza denez, hala ere...*) eta beste batzuk hitz bakarrekoak (*beraz, beharbada...*), eta modu batera baino gehiagotara sailkatu daitezke. Honela, adibidez:

- Informazioaren egituratzaileak (azalpenezkoak: *gauzak horrela, hori esanik...*; hurrenkeratzaileak: *hasteko, batetik...*; bazteratzaileak edo digresiogileak: *hori dela eta, bide batez...*)

- Lokailuak (emendiozkoak: *gainera, are gehiago...*; ondoriozkoak: *beraz, orduan...*; aurkaritzakoak: *aldiz, hala eta guztiz ere...*; hautakariak: *bestela, osterantzean, gainerakoan...*; kausazkoak: *izan ere, hain zuzen ere, zeren...*)
- Birformulatzailerak (esplikatiiboak: *alegia, hau da...*; zehaztaileak: *zehatzago esanda, zehazkiago...*; laburbiltzailerak: *labur esanda, laburbilduz...*; urruntzailerak: *dena dela, dena den...*; zuzentzailerak: *are hobeto, barkatu...*)
- Argumentu-operadoreak (argumentu-indartzailerak: *berez, egiatan...*; zehaztaileak: *bereziki, adibidez...*)
- Elkarrizketa-markatzaileak (ziurtasuna adieraztekoak; *jakina, noski...*; adostasuna adieraztekoak: *ados, ongi...*; solaskideari dagozkionak adieraztekoak: *gizona, beha, aizak...*; metadiskurtsoari dagozkionak: *zera, bon, bueno...*)

Diskurtso-markatzaileak, oro har, koma artean ematen dira tartekatuta doazenean. Hasieran, tartean edo amaieran joan daitezke gehienak, askatasun handia baitute. Hasieran doazenean, ondotik koma dutela eta aurretik koma edo puntuazio-marka nagusiago bat (puntu eta koma, puntua, bi puntu) eman ohi dira. Bukaeran doazenean, haien aurretik koma idazten da.

Nik bete dut esandakoa. **Hala ere**, zuk ez didazu saririk eman.

Nik bete dut esandakoa. Zuk, **hala ere**, ez didazu saririk eman.

Nik bete dut esandakoa. Zuk ez didazu, **hala ere**, saririk eman.

Nik bete dut esandakoa. Zuk ez didazu saririk eman, **hala ere**.

Zortzi orduko lana askotxo duk, baina, **tira**, nahi duenak egin dezala.

Bueno, ez da hainbesterako.

Bon, jarrai dezagun lanean.

OHARRA

Markatzaile asko sintagma arruntez baliatzen dira: *horregatik, horretarako, bestela, orduan....* Koma artean ez daudenean, beraz, ez dira markatzaile, osagai arrunt baizik. Adibide hauetan, kasurako, galdegai dira:

Horregatik zuen gorroto(,) eta, aldi berean, **horregatik tratatzen zituen** mespretxuz.

Herri-erakundeek ezarri behar dituzte ildo nagusiak, eta **horretarako egiten dira** zientzia- eta teknologia-plangintzak.

Dena dela, badira zenbait puntu kontuan hartu beharrekoak:

a) Foku-adberbioak eta diskurtso-markatzaileak

Diskurtso-markatzaile batzuk foku-adberbioak dira; hau da, esaldiaren osagai jakin bati dagozkio. Halakoak dira *bereziki, bederen, behinik behin, behintzat, bakarrik, soilik, baino ez, batez ere, batik bat, nagusiki, orobat, berebat, halaber, era berean...* Fokuari lotuta joan daitezke, bien artean komarik ez dagoela (halakoak dira *are* eta *ere*, beti fokuari lotuak). Nolanahi ere, tarteki gisa joan daitezke, koma artean, perpausaren osotasunari dagozkiola (*halaber, orobat...*). Adibidez:

[fokuari lotuak]

Aipatu beharra dago bilduma bat **bereziki**.

Hemengo landaredia **nagusiki** haritzez osatuta dago.

Herrialde horretan, **batez ere** emakumeak aritzen dira nekazaritzan.

[tarteki gisa]

Gauza asko aipatuko nituzke. **Bereziki**, pintura-bildumak dauzkat gogoan.

Askotariko zuhaitzak daude hemen; haritzak dira, **nagusiki**, aipatzekoak.

Herrialde horretan, emakumeak aritzen dira nekazaritzan, **batez ere**.

OHARRA

Fokua bakarturik dagoenean, estilistikoa baino ez da bi erabileren arteko aldea:

Hainbat gauza dira nabarmentzeko; alderdi formala **bereziki**.

Hainbat gauza dira nabarmentzeko; alderdi formala, **bereziki**.

Hainbat gauza dira nabarmentzeko; **bereziki**, alderdi formala.

b) Diskurtso-markatzaile noranzkodunak eta ez-noranzkodunak

Birformulatzailerik esplikatibo batzuk (*hau da, hots*) atal birformulatzaileraren hasieran kokatu ohi dira, diskurtsoan lehenago adierazitakoa bestelako hitzez formulatzeko.

“Noranzkodunak” dira, nolabait esateko, eta, koma artean emanda ere, ez da sortzen anbiguotasunik:

Hurbilenekoa ere, hau da, Zumarragakoa, urruntxo geratzen zaie.

Hurbilenekoa ere, hots, Zumarragakoa, urruntxo geratzen zaie.

Aditzez osatutakoak ere (*bestela esanda, bertze modu batera esanik...*) koma artean joaten dira, horregatik anbiguotasunik sortu gabe:

Hurbilenekoa ere, bestela esanda, Zumarragakoa, urruntxo geratzen zaie.

Hala ere, diskurtso-markatzaile batzuk, erabilienetakoak (*izan ere, beraz, hain zuzen, gainera, azken batean...*), ez dira noranzkodunak, eta, anbiguotasunik izango ez bada, koma baino zerbait gehiago behar dute testuinguru batzuetan. Hori gertatzen da, adibidez, *alegia* birformulatzailearekin: hasierako nahiz amaierako kokagunea onartzen duenez (hots, birformulatzaile noranzkoduna ez denez), ez dago jakiterik aurreko sintagmari ala ondokoari eragiten dion. Horrelakoetan, komeni da puntuazio-marka sendoagoz (puntu eta koma, puntua) bereiztea birformulakizuna eta atal birformulatzailea:

- Anbiguotasuna.

Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da, **alegia**, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.

- Lehen irakurraldian ez dago jakiterik *alegia* zerekin lotu, aurrekoarekin (ulertzen da, *alegia*...) edo ondokoarekin (...*alegia*, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa).
- Aurretik (edo atzetik, hala badagokio) puntu eta koma edo puntua jarrita, ez dago anbiguotasunik.

Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da; **alegia**, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.

Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da. **Alegia**, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.

Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da, **alegia**;/: merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.

Bestalde, atal birformulatzailea den tartekian (beheko adibidean, *Zumarragakoa* da atal birformulatzailea) beste tarteki bat (adibidean, *alegia*) sartu nahi bada, birformulatzaileari dagokion koma ken daiteke:

Hurbilenekoa ere, Zumarragakoa(,) *alegia*, urruntxo geratzen zaie.

Horrelakoetan, beste puntuazio-marka bat erabil daiteke atal birformulatzailea zedarritzeko; adibidez, marrak edo parentesia:

Hurbilenekoa ere —Zumarragakoa, *alegia*— urruntxo geratzen zaie.

c) Komarik ez *hala nola* adberbio adibide-ezarlearen eta *erran nahi baita* birformulatzailearen ondoren

Koma artean agertzeari dagokionez, badira bi salbuespen: *erran nahi baita* (*hau da* eta *hots* formulatzaileen gisakoa da) eta *hala nola* (adibidez eta *esate baterako* adberbioen gisakoa da). Ondoren komarik ez dutela idazten dira biak.

Euskarazko 1488 liburu dira iaz plazaratu, **erran nahi baita** egunean 4 liburu baino gehiago.

[Euskarazko 1488 liburu dira iaz plazaratu, **hots**, egunean 4 liburu baino gehiago.]

Etxetik honaino, **erran nahi baita** Mugerretik Donibane Garazira.

[Etxetik honaino, **hau da**, Mugerretik Donibane Garazira.]

Bolumen txikiko hondakin solidoak, **hala nola** papera, zigarrokinak...

[Bolumen txikiko hondakin solidoak; **adibidez**, papera, zigarrokinak...]

Nafarroako eremuetan kausitzen dira anitz euskal izen, **hala nola** Mendigorria, Landazuria.

[Nafarroako eremuetan kausitzen dira anitz euskal izen; **errate baterako**, Mendigorria, Landazuria.]

Ondoren datorrena tarteki bat bada, koma jar daiteke, baina koma hori ondoko tartekiarena izango da.

Erran nahi baita, nik uste, euskara atxiki nahi dutenek betetzen dute euskara galtzerat aise uzten dutenen ziloa.

Mila arrazoi eman dituzte, **hala nola**, Matthieu Akizeko hazpandar apezpikuak idatzi duen bezala, ez zela besteen meneko izateko on.

1.7.3.3.3 Interjekzioak eta berrespen eskeko galderak

Interjekzioak perpausetik kanpoko osagaiak dira, eta haietako asko esapide espezializatuak dira: *adio, agur, aupa, ene!, ai ama!...* Jendea agurtzeko (*agur, hepa...*), harridura edo samina azaltzeko (*ai!, ai ene!*), zin egin, madarikatu edo birao egiteko (*alafede!, alajainkoa!, arraio alua!...*) erabiltzen dira. Esaldiaren hasieran jartzen dira maiz, eta beren autonomia sintaktikoa gordetzen dute beti. Horregatik, enuntziatu batean txertatzen direnean, koma artean jarri behar dira, edo ondotik koma bat dutela esaldiaren hasieran badaude, edo aurretik koma bat dutela esaldiaren amaieran badaude.

Galderazko edo harridurazko esaldi edo esapide lexikalizatuak ere badira asko, eta haiek ere koma artean idazten dira: *kontuz!, kasu!, nork daki?, harrapa ezan/ezak!, zer egingo zaio (!), zergatik ez(?), bai jauna!, tira!, beharrik!, eskerrak!*

Adio, ikusi arte.

Aupa, neskak!¹³

Haren gauzak ongi direla, **alafede**.

Ukabilkadak behar bezala jasotzen ikasi duenak ez du, **alajaina**, gutxi ikasi.

Hartu sutan zegoen burruntzia eta, **dzast**, begi-begitik sartu zion.

¹³ *Aupa* hitza esaten zaion pertsona edo taldea aurrean dagoenean, koma jarri behar da *aupa* hitzaren eta animoa ematen ari zaion pertsonaren edo taldearen izenaren artean:

Aupa, neskak!

Aupa, gizona; jaiki, mutil.

Izan ere, bokatiboa dago hor:

Aupa, neskak, segi horrela, ongi ari zarete eta!

Baldin eta *aupa* hori *gora* gisako interjekzioa edo esapidea bada, jada ez dago bokatibo-funtziorik, eta ez da komarik behar:

Aupa Athletic eta aupa Osasuna!

Badoa urte zaharra, badator berria, gora Lasarte-Oria eta aupa euskal irria!

Aupa olinpiar joko horiek, beraz, baina hor ere denetan bezala izari bat atxikiz.

Egia da, **bai jauna!** Ni beraren gelan sartua nintzen¹⁴.

Tira, ohera!

«**Eskerrak!**», hots egin dute hirurek batera.

Esandako hori, **nork daki**, egia izan liteke.

Interjekzio bat baino gehiago elkartzen direnean, komaz banantzen dira bata bestetik, berdinak zein desberdinak izan.

Kontxo, kontxo, hau ere badugu!

Ai, ai, ai eta milatan ai!

Tira, segi, bizkor, berandu dun eta.

Enuntziatu baten ondoren, batzuetan, adierazitakoarekiko adostasuna eskatzeko edo adierazitakoa berresteko, galdera gisako adierazpide laburrak erabiltzen dira esaldiaren amaieran, hala nola *ezta?*, *bai?*, *ala?*, *e?* Adierazpide horiek komaz bereizi behar dira enuntziatuaren mezu nagusitik.

Txantxetan ari zara, **ala?**

Zuk zeure kontura lan egin nahi duzu, **ezta?**

Urrunetik heldu zara, **e?**

Joan den astelehenean “egun batzuetarako” alde egitekoa zela esan zidan, **bai?**, eta oraindik ez da itzuli.

1.7.3.3.4 *Bai* eta *ez* esaldiordeak

Bai eta *ez* hitzak adberbioak dira, eta galdera bati erantzutean baiezeko edo ezezeko esaldi baten ordain dira. Horretaz gainera, esaten dena edo ukatzen dena azpimarratzeko edo indartzeko ere erabiltzen dira. Eginkizun horretan, tarteki gisa txertatzen dira enuntziatuan, esaldi osoari dagozkiola. Askotan, esaldiaren hasieran txertatzen dira, komaz bereizita, baina tartean edo amaieran ere jar daitezke, hots, koma artean edo aurrean koma dutela.

Bai, zutaz ari naiz.

¹⁴ Esaldi horretan, *bai jauna* lexikalizatuta dago. Lexikalizatuta ez badago, *jauna* bokatiboa da, eta aurretik koma behar du: Bai, **jauna**, arrazoi duzu.

Badakit, **bai**, zer zaren zu.

Dena aitortu zidan, **bai**.

Ez, ez da etorriko.

Ez da etorriko, **ez**.

Ez du nahi, **ez**, nik ezer ere jakitea.

OHARRA

Osagai bat hartzen dutenean fokutzat, komarik gabe ematekoak dira.

Zuk bai, nik ez.

Orain ez, baina laster bai.

1.7.3.3.5 Aposizio-tartekiak

Aposizio ez-murrizgarriak (*aposizio esplikati*boak ere deituak) koma artean idazten dira.

Baionan, **Lapurdik**o hiriburuan, taberna gehiegi dago.

Pellok, **atzo aipatu nizun lagunak**, Iruñean lan egiten du.

Frantziako Iraultza edo Iraultza Handia, **Europak XVIII. mendean izandako gertakari politiko bortitzena**, 1789an gertatu zen.

Partizipiozko aposizioak ere, aurrekariarekiko komunztadurarik ez dutela, koma artean idazten dira.

Mutikoak, **luzaroan zain egona** [baitzen], negar egiteko gogo bizia zuen.

Komarik gabe idatz daitezke aposizio labur eskuineratu batzuk:

Paristar horiek gure herrian bazuten hartua etxetxo bat(,) **polita**.

Irakurri dut esklabotzari buruzko liburu bat(,) **oso ona**.

Neska jatorra da(,) **oso**.

Ikus aposiziozko perpaus erlatibo gibeleratuak 1.7.3.5.4 puntuan.

1.7.3.4 Komaren erabilera juntaduran

Juntadura prozedura sintaktiko bat da, maila bereko bi elementu edo gehiago elkartzen dituena haien artean mendekotasunik sortu gabe. Juntagaiak esaldiaren barneko osagaiak izan daitezke, hala nola izen-sintagmak (Izaro eta Jon etorri dira; liburu

handi hori eta mahai gaineko luma), izenlagunak (itsasoko eta lehorreko langileak), adberbio edo aditzondoak (atzo eta gaur; poliki baina etengabe hazi da) edo adjektibo edo izenondoak (emakume langile eta jakintsu hura; liburu on baina garestia); edo perpausak ere izan daitezke (atertu du, eta banoa kalera).

Kasuan-kasuan aztertu behar da, erabilera baldintzatzen baitute juntadura-motak eta juntagailua izateak edo falta izateak.

1.7.3.4.1 Komaren erabilera esaldi-osagaien juntaduran

a) Esaldiaren bi osagai emendiozko juntaduran elkartzen direnean, komarik ez

Esaldian bi osagai (izenak, izenlagunak, adjektibo edo izenondoak, adberbio edo aditzondoak, adizlagunak, aditzak) *eta* juntagailuaren bidez elkartzen direnean, ez da komarik jartzen.

katuak **eta** txakurrak; merkeak **eta** garestiak; goizean **eta** arratsaldean; bertoko **eta** kanpoko jendea; ikusi **eta** entzun; energiari **eta** ingurumenari buruzko hitzaldiak; pilotan **eta** futbolean.

Era horretakoak dira erreakzio organikoak **eta** ez-organiko batzuk.

OHARRA

Azken adibidean *eta* juntagailuaren aurretik koma jartzen bada (edo puntu eta koma, edo puntua), azken osagaia aparteko zerbait izango da, jada ez da juntadura arrunta izango:

Era horretakoak dira erreakzio organikoak, **eta** ez-organiko batzuk [ere bai].

Perpauzez osaturiko esaldi-atalak *eta* juntagailuaren bidez elkartzen direnean ere ez da komarik jartzen.

irakurtzen **eta** idazten ikasi; testuak itzultzea **eta** zuzentzea; bizkarra luzatzeko **eta** erlaxatzeko ariketak.

b) Banakaritzako egitura (*bai... bai...; ez... ez...; edo... edo; nahiz... nahiz...*)

Banakaritzako egiturek balio enfatikoak dute: intonazio berezi bat islatzen dute, osagaien arteko korrelazioa nabarmentzen duena. Elementu banakariak alborakuntzaz lotzen dira

sarri, normalean komaz banaturik (koma bat banakari bakoitzeko), esaldiarekiko mugan koma dagokienean (puntu eta koma ere izan daiteke, edo bi puntu).

Lanak berak zehazten ditu biak, **bai** testuingurua, **bai** interpretazioa.

Laguntza ikaragarria eman diguzue, **bai** materiala, **bai** emozionala.

Asko erabiltzen da egitura hori, **nahiz** ahoz, **nahiz** idatziz¹⁵.

Ez du zerikusirik **harekin**, **ez** itxuran, **ez** edukian.

Hitz gutxitan esateko, erakunde errazago bat egin nahi dugu; **bai** barne-prozesuei dagokienez, **bai** kanpora begirako harremanei dagokienez.

Kaletik ere ez dator zaratarik; **ez** sirena-hotsik, **ez** eztandarik.

Zeuk erabaki: **edo** mendira, **edo** hondartzara.

Hor dator ahatea, **orain** hondora, **orain** igeri.

Batean ondo, **bestean** gaizki, ehun urte betetzera iritsi da.

Urtea joan, **urtea etorri**, soilduz joan ziren oihanak.

Zen baino zaharragotzat hartzen zuen jendeak, **bai** arropagatik, **bai** esaten zituen gauzengatik.

Banakaritzako egituraren eta esaldiaren gainerako partearen artean koma desegokia denean (arrazoi gramatikalak tarteko: aipagarriak dira subjektuaren eta osagarri zuzenaren kasuak), banakarien artekoa kendu ohi da, alborakuntza hutseko moldea molde juntagailudunarekin berdinez bezala. Hau da, komarik gabe idazten da banakaritzako egitura baldin eta subjektua edo objektua bada, hots, esaldiaren gunekoa bada.

Bai Pello **bai** Miren atzerrian jaiotakoak dira.

(**Bai** Pello eta **bai** Miren atzerrian jaiotakoak dira.)

Bai Axularrek **bai** Oihenartek euskara gaitu, egokitu nahi zuten, batak hitz lauz, besteak hitz neurtuz.

¹⁵ Zenbait kasutan, zalantza izan liteke esaldiarekiko mugan zer dagokion, edo bi aukerak izan litezke zilegi. Esaldi horretan, esaterako, ñabardura bat izan daiteke, banakarien bidez adierazitakoa gehikuntzat hartu (hor bezala) edo guneko elementutzat hartu: Asko erabiltzen da egitura hori nahiz ahoz nahiz idatziz. Azken kasu honetan, desegokia da bigarren elementuaren aurretik koma jartzea: *Asko erabiltzen da egitura hori nahiz ahoz, nahiz idatziz. Banakarien ordez juntagailua erabiliz gero (*nahiz*), honela liriteke bi aukerak: Asko erabiltzen da egitura hori, ahoz nahiz idatziz. Asko erabiltzen da egitura hori ahoz nahiz idatziz.

(**Bai** Axularrek eta **bai** Oihenartek euskara gaitu, egokitu nahi zuten, batak hitz lauz, besteak hitz neurtuz.)

Lanak berak zehazten ditu **bai** testuingurua **bai** interpretazioa.

Bai gorpua **bai** motoa sasipean ezkutatu, eta Olcozen etxera buruz segitu genuen.

Neke handirik gabe aurkitu nituen **bai** Malcanton kalea **bai** Kurten etxea.

Aita konturatu da gertatu den guztiaz, eta, niri ez bezala, dibertigarriak iruditu zaizkio **bai** eszena **bai** gizona.

OHARRA

Banakariak egitura menderatu batean sartzen direnean, ez da komarik idazten (*eta* juntagailua sar daiteke):

Zer egin **bai** beltza **bai** zuria egokiak direnean?

EDO

Zer egin **bai** beltza **eta** **bai** zuria egokiak direnean?

Europako herrietan denetariko ereduak daude, eta oso ugariak dira **bai** estrategiazko ikerkuntza **bai** oinarrizko ikerkuntza egiten duten institutuak.

EDO

Europako herrietan denetariko ereduak daude, eta oso ugariak dira **bai** estrategiazko ikerkuntza **eta** **bai** oinarrizko ikerkuntza egiten duten institutuak.

Horrek agerian uzten du **ez** Jaurlaritzak **ez** aldundiek ez dutela eskuduntzarik zigor-arloan.

EDO

Horrek agerian uzten du **ez** Jaurlaritzak **eta** **ez** aldundiek ez dutela eskuduntzarik zigor-arloan.

c) Esaldiaren hiru osagai edo gehiago juntatzea: enumerazioak eta errepikapenak

Esaldian hiru osagai edo gehiago juntadura bidez elkartzen direnean, osagai bakoitzaren ondoren koma idazten da, azken-aurrekoaren eta azkenaren artean izan ezik, haien artean juntagailua idazten baita: x, y eta z.

Nahasteak, disoluzioak **eta** substantzia puruak bereizten ikasten ari dira.

Entsalada, arrain-zopa, makarroiak **eta** arroza dira gaurko lehen platerak.

Unibertsitatean, Eider, Elena **eta** Lierni Biologia, Ingeniaritza **eta** Kimika ikasten ari dira, hurrenez hurren.

Izarrak, galaxiak, nebulosak **eta** zulo beltzak dituzte aztergai.

Iruñeko, Tafallako **eta** Lizarrako alkateen bilera datorren astean izango da.

Jatera, edatera **eta** dantza egitera joango dira larunbatean.

Juntagailua *eta* izan beharrean besteren bat bada, berdin:

Ez diot inori hautatzeko, hartzeko **nahiz** arbuiatzeko eskubiderik kendu nahi.

Badakit esaten angelu bat zorrotza, kamutsa **ala** laua den.

Latinez, frantsesez **edo** beste erdararen batean idatziak.

Harmailetara joateko, A, B **zein** C ateak erabili beharko dira.

OHARRA

Zerrenda itxi gabea denean, *eta* juntagailua ez da baliatzen. Haren ordeztan, etenpuntuak jartzen dira amaieran.

Izarrak, galaxiak, nebulosak, zulo beltzak...

Baina erabil daiteke *eta abar* esapidea.

Izarrak, galaxiak, nebulosak, zulo beltzak, **etab.**

Izarrak, galaxiak, nebulosak, zulo beltzak **eta abar.**

OHARRA

Enumerazioak idazteko, badira beste bi aukera, gehienbat literaturan baliatuak:

- Juntagaien artean koma jartzea eta azken juntagaiaren aurretik juntagailurik ez erabiltzea (asindetona).

Izarrak, galaxiak, nebulosak, zulo beltzak.

- Juntagai guztien artean juntagailua jartzea eta komarik ez erabiltzea (polisindetona).

Izarrak **eta** galaxiak **eta** nebulosak **eta** zulo beltzak.

Enumerazioak konplexuak direnean juntagaien barnean komak edo beste juntagailu batzuk daudelako, juntagaiak puntu eta komaz bereiztea komeni da, azkena izan ezik, zeina, baldin *eta* edo *edo* juntagailua badu ondoan, komaz bereizten baita (puntu eta koma ere jar liteke, maila bat gehiago igoz puntuazioa).

Honela: A [puntu eta koma] B [puntu eta koma] C [koma + *eta/edo*] D

Denetatik zegoen: liburuak, handi nahiz txiki; diskoak, biniloizkoak zein digitalak; haurrentzako jokoak, **eta** bestelako jostailuak.

Gaurko bilerara sail hauek etorriko dira: Jaurlaritzako Lehendakaritza; Osasuna; Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza; **eta** Kultura.

Balio hauek lortu dira: 2,467; 3,5; 4,73; 5,29.

Enuntziatu berean elkarren segidan errepikatzen diren elementuak komaz idazten dira. Askotan, interjekzio-kutsua dute.

Bai, bai; horrela egin behar da.

Ez, ez, ez, ez! Ezta pentsatu ere!

Horrela, horrela, segi horrela!

Ez dira hor sartzen bikoiztapen indargarriak, oinarri-hitzaren esanahia indartzen dutenak (adjektiboak, adizlagunak eta adberbioak dira gehienetan, baina izenak, zenbatzaileak, graduatzaileak eta izenordainak ere izan daitezke), bikoiztapenak marratxo idazten baitira.

Ama, zopa **oso-oso-oso** beroa dago.

Niri **kafe-kafe** gustatzen zait, ez suzedane hori.

Osaba baserrian bizi zen, baina gu kalean; **kale-kalean**, eliza ondoan.

Amona **lasai-lasai-lasai** zegoen iritsi ginenean.

Guzti-guztiak etorri ziren, ez zen inor falta.

Bai, **bere-berea** du keinu hori.

d) Komaren erabilera gainerako emendiozko esamoldeetan

Emendiozko juntagailu nagusia *eta* da, baina beste egitura batzuk ere erabiltzen dira emendiozko esamoldeetan. Lehenengo osagaien *ez ezik*, *ez ezen* edo *ez eze* duten

egituretan ez dira perpaus jokatu beregainak elkartzen, perpaus-osagaiak baizik. Horrelakoak komaz idazten dira.

Liburu hau **ez ezik**, beste hori ere baduzu.

Euskadin **ez ezen**, Europan ere ibili naiz.

Eta haiei **ez eze**, neuri ere eraso egin didazu.

Ameriketara joan zela **ez ezik**, handik itzuli dela ere jakin dugu.

Irakurri **ez ezik**, idatzi ere bai.

Zuk egin duzun bezala **ez ezik**, bestela ere egin daiteke.

Etxean **ez ezen**, etxetik kanpo ere zintzo ibili behar da.

Han bilduko dira, gizonak **ez ezik**, aingeru onak eta gaiztoak ere.

Gurasoengandik **ez ezik**, izeba-osabengandik ere opari mordoa jaso du.

Komaz idazten dira emendiozko beste esamolde hauek ere: *ez bakarrik/soilik... ere, ez bakarrik/soilik... baizik (eta)/baina...(ere)*.

Ez bakarrik autoa, [baizik (eta)] etxea **ere** saldu behar izan zuen.

Alpeetan **bakarrik ez**, Himalaian **ere** ibilia da.

Ez bakarrik herritik herrira, baina etxetik etxera gaitzeruak desberdinak dira.

Ez bere herrikoak **bakarrik, baizik** Andonereneakoak **ere** etorri zitzaizkion.

e) Komaren erabilera osagaien hautakaritza-juntaduran

Esaldian osagaiak elkartzeko (partizipioak, postposizio-sintagmak, izenak, adjektiboak, adberbioak...) juntagailu hautakariak (*edo, ala, edota, zein, nahiz*) erabiltzen direnean, ez da komarik jartzen juntagailuaren aurretik.

Kendu **edo** desegin behar dira.

Bertakoekin **edo** kanpokoekin osatuko dugu zerrenda.

Zuk **edo** nik egin beharko dugu.

Egun goibel **edo** tristeak.

Aire **edo** doinu berriak.

Bihar **edo** etzi etorriko da.

Ametsa **ala** egia da hau?

Esan egia **ala** gezurra den.

Nik banekien nire etxean ez zegoela baliozko dokumentu **edota** objekturik.

Etxean **zein** eskolan erabiltzeko ordenagailuak.

Hitz barruan **nahiz** azkenean.

Ez dakit zertan hasiko den: txistua ikasten **edo** pianoa jotzen.

f) Komaren erabilera osagaien aurkaritza-juntaduran

Esaldi-osagai batzuk (adjektiboak, adberbioak, adizlagunak) *baina* juntagailuaren bidez juntatzen direnean, ez da komarik jartzen juntagailuaren aurrean.

Liburutegi txikia **baina** aberatsa da.

Oinez **baina** erritmo azkarrean egin dut ibilbidea.

Leku urrun **baina** lasaian bizi gara.

1.7.3.4.2 Komaren erabilera perpaus-juntaduran

Aurreko puntuetan, esaldiaren barneko osagaiak juntatzean komak noiz erabiltzen diren ikusi da. Orain, berriz, esaldi osoak juntatzean komak nola erabiltzen diren aztertuko da.

a) Komaren erabilera emendiozko juntaduran (*eta*) eta hautakaritza-juntaduran (*edo*, *ala*)

Oro har, esaldiak juntaturaz elkartzen direnean, komeni da koma jartzea, adierazteko juntagaiak esaldiak direla eta ez esaldien barneko osagaiak.

Han ziren batzuk **eta** besteak.

[juntagaiak esaldiaren barneko osagaiak dira: *batzuk + besteak*]

Han ziren batzuk, **eta** besteak laster iristekoak ziren.

[juntagaiak esaldiak dira: *han ziren batzuk + besteak laster iristekoak ziren*]

Nolanahi ere, nahikoa izan daiteke, batzuetan, juntagailua soilik jartzea, koma gabe —beti jar badaiteke ere—, baldin eta lehen irakurraldian nahasteko arriskurik ez badago. Beste askotan, berriz, beharrezkoa izango da koma. Gainera, koma oso lagungarria da

ozen irakurri behar denerako, esaldia hor amaitzen dela eta beste esaldi bati lotzen zaiola adierazten baitu; juntagailuak, aldiz, esaldiak aurrera jarraitzen duela adierazten du.

Bai, ekarri dituzte aulkiak, **eta** mahaiak datorren astean iritsiko dira.

[Komarik gabe, juntagaiak *aulkiak* eta *mahaiak* direla uler daiteke irakurtzean.]

Bi esaldi *edo*, *ala* edo *eta* juntagailuaren bidez elkartzen direnean, baldin eta aditza juntagailuaren ondoan egokitzen bada —haren ezkerrean zein eskuinean—, aukerakoa da juntagailuaren aurreko koma ez idaztea. Lehen esaldia non amaitzen den garbi gelditzen bada, aukerakoa da koma. Oro har, maizago gertatzen da komarik ez jartzea perpaus bakunak eta laburrak elkartzen direnean eta mintzagai bera dutenean.

Manifestariak ere ados **daude**(,) **eta** ministroaren dimisioa eskatzen ari dira.

Gipuzkoako mendirik altuena Aketegi **da**(,) **eta** 1551 m ditu.

Horiek guztiak mundu osoko arazo **dira**(,) **eta** gizateria osoari eragiten diote.

Azter ezazu poliki(,) **eta erantzun** iezaezu galderei.

Bideak iparralderantz egiten **du**(,) **eta** beherantz jarraitzen du etengabe.

Parte txiki bat beretzat gorde **zuen**(,) **eta** gainerakoa lagunei eman zien.

Zuberoako etxebizitzaren egoera: lautik bat hutsik **dago**(,) **edo** bigarren etxebizitza da.

Artea bere mugen bila **dabil**(,) **edo**, akaso, aspaldi ohartu da mugagabea dela.

Zopa bero **dago**(,) **ala** hotza dago?

Aginterazko esaldi juntatu sinpleak, adibidez, komarik gabe idatz daitezke, perpausak aditzez hasten direla baliaturik.

Asmatu adibideak **eta** txertatu testuan.

Marraztu termometroak **eta** jarri tenperaturaren balioak.

Dena dela, lehenengo esaldia luzea denean edo esaldiak konplexuak direnean —barnean komak edo juntagailuak dituztelako—, egokiagoa edo are beharrezkoagoa da koma.

Marraztu erregelak, mahaiak, termometroak eta likidoen ontziak, **eta** jarri tenperaturaren balioak.

Errimak eskatzen dituen moldeak, erak eta taxuak errespetatu egin behar dira, **eta** gutxienez ahapaldi osoan eutsi behar zaio irizpide-batasunari.

Lerro batean idatz daitezke bertsoak, olerkiak edota abestien letrak, **eta** barra etzana erabili behar da bertso-lerroak bereizteko.

Eskolak, alde batetik, jarraitu egiten du familian hasitako hazkunde-prozesua, **eta** familiarekin partekatzen du haurren hazkunde intelektual eta afektiboarekiko kezka.

Konturatu ere ez naiz egiten oroitzapen horiek hor daudela, **edo** erdizka besterik ez naiz jabetzen, **edo** pasatu eta gero konturatzen naiz.

Aditza juntagailuaren ondoan ez dagoenean, koma jartzen da nahasbideak saihesteko eta irakurketa errazteko.

Tokitan geratu dira emaitza onak, **eta** laudorioak urritzen hasi dira.

Irakasleekin joan ziren haurrak, **eta** gurasoak etxean geratu ziren.

Izan al zen Teogniz izeneko poetarik, **edo** bilduma arkaiko bat besterik ez da izen horrekin gorde dena?

Bidaiari modura joateko, ezinbestekoa duzu aldean poltsa, **eta** poltsa bat ez da zatar puska bat baino.

Bestalde, juntatzen diren perpausen artean esanahiari dagokionez jauzi kronologiko edo logikoren bat dagoenean, nabarmenagoa da komaren beharra.

Pentsatuko du, **eta** [gero] hartuko du erabakia.

Eskatu genuen bezala egin digute obra, **eta** [, ondorioz,] oso pozik gelditu gara.

OHARRAK

- Zenbaitetan, nolabaiteko aurkaritza adierazteko baliatzen da *eta* juntagailua, hau da, *baina* juntagailuaren balioa hartzen du. Orduan, nahitaezkoa da koma.

Etxetik ez ateratzeko esan genion, **eta** ez zigun kasurik egin.

Ate ondotik ez mugitzeko agindua zuen, **eta** ez zen gai izan geldirik egoteko.

Txindokira igo nahi dute, **eta** ezin da.

- Batzuetan, *eta* juntagailuaren bidez juntaturiko perpausek erakusten duten kontrako esanahiari zor zaio aurkaritza-balioa.

Uzta ugaria da, **eta** langileak gutxi.

- Hautakaritza-juntaduran hautakaritza baztertzaila indartzeko, ohikoa da *edo* juntagailua bi juntagaien aurrean kokatzea. Orduan, koma jartzen da bigarrenaren aurrean.

Zeuk erabaki: **edo** liburua erosten duzu, **edo** norbaiti eskatu beharko diozu.

Edo dagokionaren aurrean kexatu, **edo** betiko isildu.

b) Aditz laguntzailea isiltzea juntaduran eta koma

Esaldi juntatuen kasuan, bigarren perpauseko aditz laguntzailea isilduta dagoenean, *eta* juntagailuaren aurretiko koma aukerakoa da. Aditz laguntzailea isilduta egon zein ez egon, doinua, intonazioa, bera da.

Hark arkumea ekarriko du(,) **eta** nik prestatuko dut. [Aditz laguntzailea isildu gabe.]

Hark arkumea ekarriko du(,) **eta** nik prestatuko. [Aditz laguntzailea isilduta.]

Bi abesti kantatuko dituzte mutilek, **eta** bi dantza **egingo** neskek¹⁶.

Isilduta dagoena lehen perpauseko aditz laguntzailea denean, koma jartzen da normalean juntagailuaren aurretik, aditz-isiltzea markatzeko eta lehen perpausa —lehen juntagaia— hor amaitzen dela markatzeko, bai eta intonazio-aldaketa adierazteko ere. Aditz laguntzailea dagoenean, doinuak behera egiten du *eta* juntagailua ahoskatu aurretik; aditz-elipsia dagoenean, berriz, gora egiten du *eta* juntagailua ahoskatu aurretik, eta markatuagoa da etena.

Hark arkumea ekarriko du(,) **eta** nik prestatuko dut. [Aditz laguntzailea isildu gabe.]

Hark arkumea ekarri, **eta** nik prestatuko dut. [Aditz laguntzailea isilduta.]

Oroitarria jarriko dute(,) **eta** eguerdian bertsotan ariko dira. [Aditz laguntzailea isildu gabe.]

Oroitarria jarri, **eta** eguerdian bertsotan ariko dira. [Aditz laguntzailea isilduta.]

¹⁶ Aurreko bi adibideetan ez bezala, adibide honetan lehen perpausaren amaieran ez dago aditz laguntzailea, subjektua baizik. Horregatik, komenigarriagoa da hor koma jartzea, lehen irakurraldian ez ulertzeko subjektua ez dela *mutilek* bakarrik baizik eta *mutilek eta*...beste norbaitek.

Nolanahi ere, notazio arindua zilegi da, batez ere lehen perpausa laburra denean eta bi perpausetan subjektua edo objektua bera denean edo bi aditzek erregimen bera dutenean.

Ardoa ekarri(,) eta edan egin zuen.

Ondoren, ikasleengana joan(,) eta honela mintzatu zen:

Bere erreberentziak egin(,) eta joan zen, jada neurtitzen bat edo besteren nondik norakoa buruan.

Bizkarra eman(,) eta etxe barrura itzuli zen.

Ateari danbateko bat eman(,) eta kanpora egin zuen.

Zubi Txikian, sardinzar-saltzaileei burla egin(,) eta bizkor alde egiten zuten Maubert plazarantz.

Aditz laguntzailea isildua duen perpaus juntatua enuntziatuaren hasieran ez badago, hau da, tartean baldin badago, koma artean idazten da:

Taldeko kideek, oroitarria jarri, **eta** bertsoan jardun dute eguerdian.

Taldeko kideak, oroitarria jarri, **eta** bertsoan aritu dira eguerdian.

Ikasleak, esperimientua egin, **eta** irakasleari azalduko dio.

De las Cuevasek kornerra atera, Kodrok aukera-aukeran utzi, **eta** Merinok ez zuen barkatu.

Dena dela, bi perpaus subjektu bera eta aditz-erregimen bera dutenean, komarik gabeko notazio arindua ere erabiltzen da (komarik gabe idaztekotan, bi komak kendu behar dira, ez bakarra):

Beste ezer galdetu baino lehen, Dorik(,) agur esan(,) eta alde egin zuen pasillo luze batetik zehar.

Emakume batek(,) ura ekarri(,) eta eskuak garbitu zizkion, eta beste batek luma sorta batez xukatu zizkion.

OHARRA

Aditz laguntzailea isildua duen perpaus juntatua mendeko perpaus baten barnean gelditzen bada, ez da komarik idazten.

Hark arkumea ekarri, **eta** nik prestatuko dut. [Perpaus juntatuak.]

Hark arkumea ekarri **eta** nik prestatuko dudanez, zuek ez duzue ezer egin beharko. [Perpaua juntatuak mendekoaren barnean.]

Emakume batek(,) ura ekarri(,) **eta** eskuak garbitu zizkion. [Perpaua juntatuak.]

Emakume batek ura ekarri **eta** eskuak garbitu zizkiolako haserretu ziren zaindariak. [Perpaua juntatuak mendekoaren barnean.]

c) Aditz errepikatua osorik isiltzea juntaduran

Juntaduran elkartzen diren bi perpauak aditz bera dutenean, bigarren perpausoko aditza oso-osorik isildu ohi da. Orduan, aukerakoa da koma.

Osaba-izebak Leitzan bizi dira(,) **eta** lehengusuak Beran.

Mendekotasunezko elkarteetan, lehen osagaia mugatzailea da(,) **eta** bigarrena mugakizuna.

a , b , m eta n zenbakiei *koefiziente* esaten zaie(,) **eta** c eta p zenbakiei(,) *gai aske*.

Baina beste baliabide batzuk hobestekoak dira kontrastea markatu nahi bada, hala nola lokailuak erabiltzea edo, juntagailurik erabiltzen ez bada, lehen perpausaren ondoren puntu eta koma idaztea eta bigarren mintzagaiaren ondoren koma jartzea.

Osaba-izebak Leitzan bizi dira(,) eta lehengusuak, **berriz**, Beran.

Osaba-izebak Leitzan bizi dira; lehengusuak, Beran.

Osaba-izebak Leitzan bizi dira; lehengusuak, **berriz**, Beran.

a , b , m eta n zenbakiei *koefiziente* esaten zaie(,) **eta** c eta p zenbakiei, **ostera**, *gai aske*.

a , b , m eta n zenbakiei *koefiziente* esaten zaie; c eta p zenbakiei, *gai aske*.

a , b , m eta n zenbakiei *koefiziente* esaten zaie; c eta p zenbakiei, **ostera**, *gai aske*.

Mikel zintzoa da(,) **eta** Ane, **aldiz**, bihurri samarra.

Mikel zintzoa da; Ane, bihurri samarra.

Mikel zintzoa da; Ane, **aldiz**, bihurri samarra.

OHARRA

Mintzagai/galdegai joko hartu behar da kontuan. Galdegaiaren ondoren ez da komarik jartzen, nahiz eta aditza isildua egon.

Janowskyk orkestra zuzenduko du(,) eta Sainz Alfarok(,) abesbatza.

[Galdegaiak *orkestra* eta *abiesbatza* dira.]

Janowskyk zuzenduko du orkestra, eta Sainz Alfarok abesbatza.

[Galdegaiak *Janowsky* eta *Sainz Alfaro* dira.]

d) Komaren erabilera hiru esaldi juntatzean

Hiru esaldi, edo gehiago, juntatzen direnean, esaldi-osagaien puntuazio bera erabiltzen da, enumerazioetakoa: *x*, *y* eta *z*.

Irakurri testua, kokatu ubideak mapan **eta** egin laburpen bat.

Pintura-potoa ekarri zuen, brotxa bat eman nion **eta** gela osoa margotu zuen hiru orduan.

Juntagaiak konplexuak direnean juntagaien barnean komak edo beste juntagailu batzuk daudelako, puntu eta komaz bereizten dira, azkena izan ezik, zeina, baldin *eta* edo *edo* juntagailua badu aurrean, komaz bereizten baita (puntu eta koma ere jar liteke, maila bat gehiago igoz puntuazioa).

Irakurri testua eta material osagarria; kokatu mapan ubideak, ureztapen-putzuak eta iturriak, **eta** egin laburpen bat eta uraren zikloaren eskema.

e) Komaren erabilera esaldiak juntatzen dituen *ez bakarrik (soilik)... ere* emendiozko esamoldean

Ez bakarrik (soilik)... ere esamoldearen bidez esaldi-osagaiak zein perpaus osoak junta daitezke. Esamoldearen lehen partean, *ez* eta *bakarrik* adberbioak hiru hurrenkera posibletan antola daitezke (*ez bakarrik... / ez... bakarrik / ... bakarrik ez*), eta ondoren koma jartzen da (puntu eta koma ere jar liteke).

Dena miatu diote soldaduen esku baldarrek, **ez bakarrik** zakutoa, baita arropak eta arropa-azpiak eta gorputz-atal desiragarrienak **ere**.

Erreginak **ez** du erregea **bakarrik** iraindu, erregeak probintzia guztietan dituen buruzagiak eta herritar soilak **ere** iraindu ditu.

Orduan behartasun hori **ez** da egitezkoa **bakarrik**, eskubidezkoa **ere** bada.

Horretan **bakarrik ez** da bizkorra, zokor jotzen **ere** badaki.

Itzuliak duen onena txirindularitzarekiko errespetua da, eta **ez bakarrik** aurrenekoarekiko; tropeleko azkenak **ere** nabaritzen du.

Eta **ez** zaharrek **bakarrik**; ikasle gazteek **ere**, agian ohartzeko, atseginez hartzen dute parte.

f) Komaren erabilera aurkaritza-juntaduran (*baina, baizik, ezpada*)

Bi perpaus aurkaritza-erlazio bidez juntatzeko, *baina* da juntagailu nagusia. Nolabait kontrajarriak dauden bi perpaus elkartzen dira, eta *baina* juntagailuak berak adierazten du jauzi semantikoa. Horregatik, koma idazten da haren aurretik.

Berandu jaiki naiz, **baina** garaiz iritsi naiz.

Behin eta berriz eskatu genion, **baina** ez zuen kasurik egin.

Euria ari du, **baina** ez naiz bustiko.

Euria ari du, **baina** badut euritakoa.

Aditz-isiltzeak gertatzen direnean, berdin.

Gaurko egunean kaletarrak ondo bizi dira, **baina** nekazariak gaizki [bizi dira].

Zuk garajea utzi duzu autoa, **baina** nik kalean [utzi dut].

Txirindulari eskasa zen, **baina** saiatua [zen].

Hobeto bizi da, **baina** triste [bizi da]).

Beste hainbeste *baizik (eta)* eta *ezpada* juntagailuekin (baita haien esanahiarekin erabiltzen den *bainarekin* ere); haien aurrean, koma jartzen da.

Izaskun ez zen bilerara etorri, **baizik** txostena bidali zuen.

Ez zuten kanporatu, **baizik eta** bera irten zen.

Gure semea ez da lanera joan, **ezpada** etxean geratu da.

Ez da hil neskatxa, **baina** lo datza.

OHARRA

Batzuetan, galde-perpau baten edo harridura-perpau baten aurrean agertzen da *baina* juntagailua, harridura, enfasia, gaitzespena... adierazteko zenbait esapidetan. Ez da komarik jartzen *baina* horren ondoren (etenpuntuak jar litezke).

Baina zer egin duzu? / **Baina**... zer egin duzu?

Baina, baina... isil zaitez behingoz!

Baina, Jon! **Baina, baina** nolatan jo duzu zure laguna?

Amak esandakoa egin besterik ez zuen, eta guztia ondo joango zen. **Baina** ez: aurka egin behar!¹⁷

1.7.3.5 Komaren erabilera mendeko perpauetan

Perpau bat beste osagai baten mende dagoenean (dela aditz, izen, adjektibo, adberbio edo predikatu oso baten mende), esaten da mendeko perpaua dela perpau hori. Adibide hauetan, letra lodiz nabarmenduta daude mendeko perpauak, eta azpimarraturik ageri da zeren mende dauden:

Ez dut uste **mendira joango naizenik**.

Goraintziak eman aitari eta amari **hurrena ikusten dituzunean**.

Espaloian erretzen ari den emakume hori zarauztarra da.

Etxe hori garestia da **guk erosteko**.

Goiz da **hondartzara joateko**.

Beharrezkoa da **hizkuntza finkatua gera dadin**.

Menderakuntza baliabide sintaktiko bat da, bi perpau edo gehiago lotzen dituen haien artean mendekotasun-erlazio bat ezarrita. Era askotako mendeko perpauak daude, eta denetan ez da berdin jokatzeko puntuazioari dagokionez. Mendeko perpau batzuk

¹⁷ Ez da komarik jarri behar **ez/bai** esaldiordearen aurretik: *baina* ez dagoen tokian, ulertzen da *baina* ez zuen *hala egin* esaten ari dela, eta kasu horretan ez litzateke komarik jarriko *baina* juntagailuaren ondoren; hau da, ez horrek esaldi osoa (*ez zuen hala egin*) ordeztu du.

komaz bereizita idazten dira beti, beste batzuk komarik gabe beti, eta beste asko, berriz, komaz edo komarik gabe, betetzen duten funtzioaren arabera.

1.7.3.5.1 Komarik ez perpaus osagarrietan *-(e)la, -(e)n*

Komarik gabe lotzen dira perpaus osagarriak (jokatuak eta jokatugabeak).

Anek esan digu **etxea saldu duela**.

Eskerrak **amona ez den erori**.

Ez nuen uste **garaiz iritsiko nintzenik**.

Ez dit esan **noiz etorriko den**.

Lan gehiago egin dezagun nahi dute nagusiek.

Eskatu zidan **testu osoa zuzentzeko**.

Espero du **laster berriro etortzea**.

Lanera joatera behartuta zaude.

Etxean sartzen ikusi zaituzte.

Ander gezurretan ari delako susmoa daukat.

Ez daki **noiz eraman autoa konpontzera**.

1.7.3.5.2 Komarik ez perpaus erlatibo arruntetan

Perpaus erlatibo arruntak, jokatuak zein jokatugabeak, komarik gabe lotzen dira.

Liburutegitik ekarri zenituen liburuak goiko apalean daude.

Liburutegitik ekarritako liburuak goiko apalean daude.

Orain bizi naizen etxean osaba-izebak bizi izan ziren aspaldi.

Istorio tristeak kontatzen dituzten liburuak ez zaizkit gustatzen.

1.7.3.5.3 Izenordain erlatiboz eraturiko perpaus aposiziozkoak *(zein/non + bait-/-(e)n)*

Izenordain erlatiboaren aurrean koma jartzen da.

Urbiaingo herria ere, **zeinaz** bi hitzen erraiterat obligaturik bainago.

Katuak ere, **zeinaren** larrua gantzaz lehertzeko zorian baitzegoen, begi horiak biribildu, eta aztertu egin zuen mesfidati.

Alkate izan zen Donostiako hirian, **non** hil baitzen mila zazpiehun eta bigarren urtean.

Hirugarren erronda hartzen ari zen lagun batekin, **zeinari** xeheki ari baitzizaion kontatzen nola erosi zuen otarre bat patata.

Hemen ere badirela pariak, **zeinetarik** askok *jonki* bihurtuta bukatzen duten.

Aurrekaria absolutiboan egonik zehaztugabea denean (*bat, batzuk...*) edo semantikoki inespezifiko denean (*etorriko da eguna = egun bat*), ohikoa da koma jartzea izenordain erlatiboaren aurrean, baina ez da nahitaezkoa:

Obabako lehen amerikanoak berak idatzitako orri sorta bat(,) **zeinetan** fusilatu nahi izan zuteneko gaua kontatzen zuen.

Badira une batzuk eta egoera batzuk(,) **zeinetan**, barneko zirrara adierazteko, isilik egoteak gehiago balio baitu hitz egiteak baino.

Leku bakarti bat(,) **non** ez baitzuen bere egoitzarik ezein izaki zibilizatuk.

Barruan halako likore baten azken hondarrak besterik ez zeukan *botila bat(,) zeinari* marka bat egin baitzion.

Bigenero hitzak adierazten du pertsona bat(,) **zeinak** bere baitan dituen bai alde femeninoa bai maskulinoa.

Izan zen une bat(,) **zeinean**, guztiz izaturik, batzuek ihes egin baitzuten beren burua uretara boteaz.

Helduko da eguna(,) **zeinetan** esango zaidan presta nadila ondo hiltzeko.

Determinatzailea erakuslea denean ere, irakurketa inespezifiko da, eta ohikoa da koma.

Etsai hilgarri eta gorrotatu hura, **zeina** garaitzeko antolatu diren iragan milaka urtean jende eta gauza guztiak.

1.7.3.5.4 Aposiziozko perpaus erlatibo gibeleratuak

Horrelakoetan, perpausaren bukaeran dagoen perpaus erlatiboaren aurrean agertzen da aditz nagusia, eta komaz zein komarik gabe (batez ere, laburrak direnean) idatz daitezke. Adibidez, perpaus erlatibo arrunt hauen ordez (aurrekariak sintagma absolutiboa izan behar du, eta zehaztugabea —*bat, batzuk...*— edo inespezifiko):

Aspaldi ikusi ez nituen lagun batzuk etorri ziren.

Bihar oso itxura ona duen liburu bat utziko didate.

Beste hauek idatz daitezke:

Lagun batzuk etorri ziren(,) aspaldi ikusi ez nituenak.

Bihar liburu bat utziko didate(,) oso itxura ona duena.

Hona beste adibide batzuk:

Bizitzak ematen ditu kolpe latzak(,) gogoa iluntzen dutenak.

Badira txoriak(,) kantatzen ez dutenak.

Aposiziozko perpausaren ondoren perpausak jarraitzen badu, koma artean jartzen da aposiziozko perpausa:

Bihar liburu bat utziko didate, oso itxura ona duena, liburutegian.

Koma jartzea komeni da nahasbidea sortzeko arriskua dagoenean ere. Adibidez:

Film bat ikusi nahi dut aurtengo Zinemaldian oso kritika ona izan duena.

Komarik gabe, uler daiteke *aurtengo Zinemaldian* mendeko perpausaren barnean dagoela edo kanpoan dagoela, eta komak argituko du esanahia:

Film bat ikusi nahi dut, aurtengo Zinemaldian oso kritika ona izan duena.

Film bat ikusi nahi dut aurtengo Zinemaldian, oso kritika ona izan duena.

Perpaus erlatibo gibeleratua partitiboan dagoenean, ez da komarik erabiltzen.

Ez da(go) pozoirik alferkeriak bezainbat kalte egiten **duenik**.

Ez da libururik argitaratzen ale bakoitzetik bestera nolabaiteko alderik ez **duenik**.

Bada libururik gai hori argitzen **duenik**.

Ez dago gaitzik bere alde onik ez **duenik**.

Ez dut ezagutzen gazterik horrela jokatu **lukeenik**.

Ba ote da presorik kalean dagoela amets egin ez **duenik**?

Hor badun zerbait ontsa joan ez **denik**.

Ez da komarik jartzen ardatza *inor* edo *ezer* denean ere:

Euskal Herrian ez da(go) **inor** hark adina diru **duenik**.

Munduan ez da(go) **ezer** fisikak gobernatzen ez **duenik**.

1.7.3.5.5 Korrelaziozko perpaus erlatiboak

Mendeko perpausa (izenordaina duena) komaz lotzen zaio perpaus nagusiari.

Nor ere bizi baita etxe hartan, **hark** pagatu beharko du haren konponketa.

Nolakoa baita ama, **halakoa** ohi da alaba.

Non ere gordetzen baita, ez zaigu **handik** eskapatuko.

Berdin jokatu gabekoetan.

Zer ikusi, **hura** ikasi.

Eguzkia **nora**, zapiak **hara**.

Zer erein, **huraxe** bilduko du.

1.7.3.5.6 *-(e)nez eta bait-* menderagailuak dituzten azalpenezko perpaus kausalak

-(e)nez eta bait- menderagailuak dituzten azalpenezko perpaus kausalak ezin dira izan perpausaren gunekoak, periferiakoak dira beti, eta koma bidez elkartzen dira perpaus nagusiarekin. Beste hainbeste gertatzen da *aditz laguntzailea + eta* egiturarekin ere (*du[-]eta*).

Asmatu **duenez**, pozik dago.

Pozik dago, (zeren [eta]) asmatu **baitu**.

Pozik dago, asmatu **du eta**.

Penintsulako merkaturako bidea zabalik uzten **zienez**, onura ekarri zien horrek merkatariei.

Horrek onura ekarri zien merkatariei, Europako merkaturako bidea zabalik uzten **baitzien**.

1.7.3.5.7 Komaren erabilera gainerako mendeko perpausetan

Gainerako mendeko perpaus gehienak forma berean izan daitezke esaldiaren gunekoak (galdegaia edo mintzagai aurreratugabea) edo periferiakoak (mintzagai aurreratua edo gehikuntza), eta batzuk funtzio guztietan ager daitezke, hala nola denborazkoak eta moduzkoak¹⁸. Mintzagai aurreratua denean (edo mintzagai aurreratua izan gabe ere

¹⁸ Baldintzazkoak, kontzesiboak eta ondoriozkoak ezin dira galdegai izan, ez baitiote inongo galderari erantzuten. Horrenbestez, galdegai ezin badira izan, gehikuntza ere ezin dira izan, gehikuntza galdegai gehitua baita.

perpau nagusiaren aurretik dauden adjuntuak direnean, hala nola kontzesiozko edo baldintzazko perpauak), koma idazten da. Galdegaia denean, berriz, ez. Mintzagai aurreratugabea denean, ez da komarik jartzen; gehikuntza denean (ikus 1.7.3.2 puntua), berriz, koma jartzen da (puntu eta koma ere jar liteke). Adibidez:

Ondo dagoenean, oso alaia da. [mintzagai aurreratua]

Ondo dagoenean da oso alaia. [galdegaia]

Oso alaia da **ondo dagoenean**. [mintzagai aurreratugabea]

Oso alaia da, **ondo dagoenean**. [gehikuntza]

Oro har, mendeko perpaua perpau nagusiaren aurrean dagoenean, komaz bereizten da beti perpau nagusitik, hala jokatueta nola jokatu gabeetan.

Ondo dagoenean, oso alaia da.

Ondo badago, oso alaia da.

Etorriko balitz, esango nioke.

Asko maitatuz gero, asko sufritzen da.

Ezkondut denetik, etxezulo bihurtu da.

Denok dakizuen bezala, guk ere huts egiten dugu noizean behin.

Norbaiti eskerrak ematekotan, Ane ezin dugu alde batera utzi.

Gazte nintzelarik, katurako zaletasuna sortu zitzaidan.

Noiz ere etsia hartua baitzuen ehiztariak, aitzinean agertu zaio erbi eder bat.

Atea ireki zutenarekin batera, jendea bultzaka sartu zen.

Zu lo zeunden bitartean, etxe osoa garbitu dut.

Autoa garbitzeko, oso egokia da likido hau.

Negu gorria bada ere, Errusiara joan da.

Begiak malkotan zituela, ospitalera eraman nuen.

Gizona egoera horretan ikusirik, negarrez hasi ziren haurrak.

Zenbat..., hainbat...; hain..., ezen/non... ; nola..., hala... gisako korrelaziozko egitura konplexuetan, koma idazten da.

Zenbat eta biziago herria, **orduan** eta biziago gizaldien arteko etsaitasuna.

Hain gezurtia da, **non** ez baitio inork sinesten.

Nola jin den, **hala** behar dela jalgi.

OHARRA

Mendeko perpausa mendeko beste perpaus baten barnean gertatzen denean, ez dagokio komarik.

Ondo dagoenean, oso alaia da.

→ Esan didate **ondo dagoenean oso alaia dela.**

Asko maitatuz gero, asko sufritzen da.

→ Garbi dago **asko maitatuz gero asko sufritzen dela.**

Zu lo zeunden bitartean, etxe osoa garbitu dut.

→ **Zu lo zeunden bitartean etxe osoa garbitu dudalako** nago hain pozik.

Mendeko perpaus baten barnean erabil daitezkeen koma bakarrak tartekien koma-parea eta enumerazioetako koma dira.

Fluorra, kloroa, bromoa eta iodoa aztertzen ditugunean, ez-metalen propietateak zehaztuko ditugu.

Halogenoak, besteak beste, aztertzen ditugunean, ez-metalen propietateak zehaztuko ditugu.

Fluorra, kloroa, bromoa eta iodoa, besteak beste, aztertzen ditugunean, ez-metalen propietateak zehaztuko ditugu.

1.7.3.6 Komaren erabilera aditz-isiltzeetan

Bi gertakariren, edo gehiagoren, segida bat adierazten denean, aditza edo aditzetako bat isiltzea ohiko prozedura da errepikatu beharra saihesteko, edo, aditza lehenago aipatua izan ez bada ere, esan gabe ulertzen denean. Halakoetan, koma erabili ohi da isiltze hori ordezkatzeko edo iradokitzeko. Zenbait kasu bereizi behar dira.

1.7.3.6.1 Aditz laguntzailea isiltzea

Bi aukera daude: lehen aditz laguntzailea isiltzea (aurretiko aditz-isiltzea), edo bigarrena (atzetiko aditz-isiltzea). Ikus azalpena 1.7.3.4.2 puntuko b atalean (Aditz laguntzailea isiltzea juntaduran eta koma).

1.7.3.6.2 Aditz errepikatua osorik isiltzea

Elkartzen diren bi perpausek aditz bera dutenean, bigarren perpauseko aditza oso-osorik isildu ohi da. Ikus azalpena 1.7.3.4.2 puntuko c atalean (Aditz errepikatua osorik isiltzea juntaduran).

1.7.3.6.3 Aditza osorik isiltzea

Aditzik gabe (ez laguntzailerik gabe soilik, baizik eta aditz osoa isilduta) ematen dira zenbait esaera zahar eta atsoitiz. Eta hedabideetako lerroburuetan ere maiz baliatzen dira aditza isildua duten esaldiak. Horrelakoetan, koma idazten da aditz-elipsia markatzeko.

Esaera zaharretan, adierazpide labur eta trinkoa lortzeko isiltzen da aditza, aditz hori zein den ulertzen baita esplizitatu gabe.

Eguzkia nora, zapiak hara.

Zor zaharra, zor txarra.

Begia begi ordain, hortza hortz ordain.

Txakur zaunkariak, hozkarik ez.

Txerri goseak, ezkurra amets.

Damasko tropaz inguraturik dago. → Damasko, tropaz inguraturik

Hiru mendizale larri zauriturik gertatu dira. → Hiru mendizale, larri zauriturik

Lehoia sabanako erregea da. → Lehoia, sabanako erregea

Gure ametsa irabaztea da. → Gure ametsa, irabaztea

Sei eta bederatzi hamabost dira. → Sei eta bederatzi, hamabost

Zortzi bider lau hogeita hamabi dira. → Zortzi bider lau, hogeita hamabi

Mintzagaiaren amaiera markatzen du komak aditz-isiltzean. Galdegaiaren ondoren ez da komarik jartzen.

Irabaztea dugu amets → Irabaztea amets

Osasuna da txapeldun! → Osasuna txapeldun!

OHARRA

Izenburuetan eta irudi-oinetan, maiz, ez dira perpaus osoak edo aditz-isiltzeak erabiltzen, aditzik gabeko zatiak baizik, eta ohikoa da sintagma biko segida bat osatzea komarik gabe. Halakoak ez dira esaldiak; koma jartzeak —mintzagai-koma jartzea, alegia— esalditasuna adieraziko luke.

Alice lurralde miresgarrian

Joan eta Ane zigarro bat erretzen

Eguzkizaleak hondartzan

Eskualdeen parte-hartzea Europaren eraikuntzan

Egonaldiak familia euskaldunetan

Halako sintagma biko segidak enumerazio beregain batzuetan ere ager daitezke, baina ez dute osatzen perpausaren osagai arrunt den sintagmarik.

Argazki zahar hartan denetik ageri zen: **haurrak jolasean, arrantzaleak lanean, kale-garbitzailea erratza astintzen, gizon aspertuak leihotik begira...**

1.7.3.7 Komaren erabilera beste kasu batzuetan

Komak baditu beste eginkizun batzuk, esaldiaren joskerari lotuta ez daudenak: eginkizun konbentzionalak edo teknikoak.

a) Datak idaztean, koma idazten da lekuaren eta dataren artean.

Durango, 1983ko martxoaren 7an

Durango, 1983ko martxoaren 7a

OHARRA

Beste hainbeste egiten da erreferentziak edo bibliografia ematean: zenbait datu jarraian ematen dira, koma batez bereizita, hala nola aldizkariaren izena eta zenbakia, edo argitaratze-urtea eta lekua. Guztiak ere gehikuntzak dira, perpaus-aurrekari formalik gabeak.

b) Gutunetan eta mezuetan, kortesiazko hasierako hitzen ondoren, koma edo bi puntu idatz daitezke (Iparraldean, koma idatzi ohi da; Hegoaldean, bi puntu)¹⁹.

Andre hori,

Mezu hau idazten dizut gogorarazteko...

Kaixo, Idoia,

Etxera iristen haizenean, itxi nire gelako leihoa, mesedez, euria egin behar din eta.

Agur, harpidedun maitea,

Berriro ere, zuregana jo beharrean gaude laguntza eske.

c) Aurkibideetan eta alfabetoaren hurrenkeran antolatutako zerrendetan, koma erabiltzen da adierazi nahi denean sintagmaren jatorrizko ordena alderantzikatuta dagoela. Adibidez, abizena(k) izenaren aurretik paratu ohi d(ir)a bibliografietan, eta koma jartzen da abizenaren eta izenaren artean, hurrenkera ezohikoa dela adieraztearren.

Perez Gaztelu, E. (1995). *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea* (2 libk.). [...]

Pérez Rifo, M. (2000). “Descripción semántico-pragmática de los conectores textuales en el nivel temático del párrafo”. [...]

Petirena, P. (2006). “Aurkaritzako lokailuen inguruan”, *Administrazioa Euskaraz* 53 (16-17). [...]

d) Digituz idatzitako zenbaki dezimaldunen kasuan, digitu osoak digitu dezimaletatik bereizteko baliatzen da koma.

3,1415

10,265

¹⁹ Ikus bi puntuen erabilera 1.9.7 puntuan.

e) Biblia osatzen duten liburuen erreferentziak egitean, koma jartzen da kapituluaren zenbakiaren eta txatalaren zenbakiaren artean (eta komaren ondoren ez da zuriunerik uzten).

Dt 31,14 (Deuteronomioko 31. kapituluko 14. txatala)

1.7.3.8 Koma eta gainerako puntuazio-markak

Koma ez da inoiz gertatzen testuaren unitateak zedarritzeko baliatzen diren gainerako puntuazio-marketako baten ondoan (puntu, puntu eta koma eta bi puntuak), elkar baztertzen duten aukerak baitira.

Marka bikunen ondoan (parentesiak eta parentesi karratuak, komatxoak eta marra-parea) gerta daiteke koma; zehazki, itxiera-marka horien ondoan ager daiteke, eta marka horien ondoren idazten da.

Etenpuntuen ondoren ere jar daiteke, ez aurretik, eta ez da zuriunerik uzten bi marken artean.

(EGOKIA) Bueno, egia esateko..., lagun batzuekin gelditu naiz.

(DESEGOKIA) Bueno, egia esateko,... lagun batzuekin gelditu naiz.

Enuntziatu nagusian koma jarri behar bada parentesia edo parentesi karratua txertatzen den tokian, parentesiaren ondoren jarriko da, itxiera-parentesiaren ondoren eta ez irekiera-parentesiaren aurretik.

Diapasoiaren mugimendua oso sinplea da (aurrera eta atzera, pendulua bezala), eta, horregatik, sortzen duen hots-uhina ere oso bakuna da.

Berdin gertatzen da marraren kasuan ere.

Erromako kongresuan, izugarri kostatu zitzaion hasieran —beldur eszenikoa izan zen, egia esan, italieragatik—, baina primeran atera zen dena azkenean.

Komatxoei dagokienez, itxiera-komatxoaren ondoren jartzen da koma.

«Hiri-forma zehazten duten faktoreak», neuk sortutako adierazpidea, berria dela uste badut ere, azpian dagoen ideia lehenagokoa da, jakina.

«Naval erosi gura dugu», berretsi du ontziolako presidente Joanes Labairuk.

Irekiera-komatxoaren aurretik ere jar daiteke koma, baina zuriune bat utzita bi marken artean.

Azaldu duenez, «hori argitzeak ez du esan nahi Ibarretxeren planarekin ados ez daudenik».

Aldez aurreko txosten horiek udalerriz udalerrri egin ziren, boz-emaileak hirutan banatuz: «aldekoak», «etsaiak» eta «zalantzazkoak».


Galdera- eta harridura-markaren ondoren ere jar daiteke koma.

Jesus, Jesus!, hik ere handiak esaten ditun!

Baina ea, nondik helduko diot nire istorioaren hariari?, esan zuen tarte baten ondoren.

1.8 Puntu eta koma

Puntu eta koma puntuazio-markak bi osagai ditu: koma bat eta, haren gainean, puntu bat. Aurrean duen hitzari edo sinboloari atxikia idazten da, tartean zuriunerik utzi gabe, eta puntu eta komaren ondoren doan hitza letra xehez hasita idazten da, salbu eta beste arrazoiren batengatik letra larriz hasita idatzi behar denean (izen berezia izateagatik, adibidez).



Puntu eta koma puntuazio-markaren balio nagusia hurbil dago puntuarenetik, haren aldaera arinago gisa, eta komaren hurrengo maila ere markatzen du enumerazioetan, osagaiak koma daukatenean bereziki. Esanahiaren aldetik lotura duten bi esaldi edo gehiago elkartzeko balio du, zeren eta, kontraesana badirudi ere, bereiziz lotzen baititu. Orobat, esaldiaren osagaiak antolatzeke balio du, adierazitako ideien arrazoizko kateamendua nabarmentzeko, diskurtsoa argitzeko. Gehiago baliatzen da esaldi

luzeetan, baina berdin erabil daiteke esanahiaren bidez lotutako esaldi laburrak elkartzeko ere, adibide hauetan bezala²⁰.

Bestelako ostertz urrun baztergabeak nahi dituzte ezagutu; ortzi goragoak eta ur sakonagoak, eta haietako biztanleak, arrunt zein bitxi, handi nahiz txiki; eta itsasoaren larre urdin-berde mugarik gabeak ibili; atzera eta aurrera miatu uneak eta guneak beren jakingura eta gozamen asegaitez; patxadaz dastatu zoko-moko ororen giroa.

Gainera, bidaiariak zorabiatu egiten dira; liskarti bihurtzen; lorik gabe ematen gauak; ez dute inondik ere ondo pasatzen, eskuarki: ez, inoiz ez naiz joaten bidaiari modura; eta, berebat, nahiz itsasturi petoa izan neurez, inoiz ez naiz itsasoratzen komodoro edo kapitain edo sukaldari gisa.

Puntu eta komaren erabilerak zalantzak sortu ohi ditu (komaren eta puntuaren arteko marka izanik), eta idazle batzuek ez dute baliatzen, beharrezkoa ez delakoan. Hala ere, puntu eta koma oso baliagarria da testua ondo egituratzeko, diskurtsoa osatzen duten hizkuntza-unitateen arteko lotura semantikoa adierazteko balio baitu. Koma baino eten nabarmenagoa ezartzen du unitateen artean, eta, hala, nabarmenago agerrarazten unitate bakoitza, baina puntuak dakarren bereizketa baino eten txikiagoa ezartzen du. Beraz, informazioaren hierarkia markatzeko balio du, unitateen arteko harreman semantikoak nabarmentzeko. Eta, enumerazio konplexuetan, erraztu egiten du koordinazio-mailen identifikazioa; hala, idazleak errazago ulertzen du zer zerekin doan.

Semantikari oso lotua dagoen marka denez, haren erabilera-arauak ezin dira erabat zehatzak izan, idazlearen subjektibotasunaren mende baitaude neurri batean —idazleak aukeran ditu, askotan, beste puntuazio-marka batzuk—, baina erabilera-kasu nagusiak eta jarraibide orokorrak deskribatuko dira jarraian.

1.8.1 Puntu eta koma eta perpaus alboratuak

Esaldiak bata bestetik bereizteko balio du, nagusiki, puntuak. Eta esaldi barneko osagaiak bereizteko balio du, nagusiki, komak. Esaldiak, baina, elkartu ere egin daitezke, juntaduraz, juntagailuak erabiliz, eta juntagailurik gabe, bata bestearen ondoan jarrita, alborakuntzaz.

²⁰ *Moby Dick*, H. Melville, Balea Zuria, 2023. Itzultzailea: Juan Garzia Garmendia.

Sintaktikoki beregainak diren perpaus askeak elkarren ondoan gertatzen direnean eta beren artean esanahi-loturarik ez badute, puntuz bereizten dira.

Ane bere lagunaren zain zegoen atean. Ume batzuk parkean jolasten ari ziren. Bi perpaus beregainen artean nolabaiteko hurbiltasunen bat dagoenean (idazleak hala ulertzen duenean), puntu eta koma jartzen da bi perpausen artean. Baina edonolako esanahia duten perpaus lokabeak junta daitezke puntu eta komaren bidez. Alegia, aurreko adibidean puntu eta koma jar daiteke puntuaren ordean, puntu eta komak ez baitu, berez, esanahi-loturarik ezartzen bi perpausen artean: puntu eta koma neutroa da alde banatan dituen perpausen erlazio semantikoarekiko.

Ane bere lagunaren zain zegoen atean; ume batzuk parkean jolasten ari ziren. Hala, puntu eta komak perpausak bereizten ditu, baina ezartzen duen muga puntuarena baino apalagoa da.

Isilik dago; ez daki ezer.

Oso argia da Amaia; asko daki.

Berandu da; etxera noa.

Euria ari zuen; etxean geratu ginen.

Niregatik egin zuen; ezin nion ezer aurpegiratu.

Alferrik zaude hemen; orain ezin didazu lagundu.

Adibide horietan, puntua ere erabil daiteke, estilo-kontua baita, eta idazlearen aukera izango da bata edo bestea erabiltzea. Beti puntua erabiltzen badu, estilo etenagoa emango dio testuari.

Bi puntuak ere erabil daitezke puntu eta komaren ordean —eta komeni da hala erabiltzea—, baldin eta bi perpaus beregainen artean erlazio bat nabarmendu edo esplizitatu nahi bada (kausa eta ondorioa izan ohi da); hau da, esaldi bat bestearen azalpen edo arrazoitzat jotzen dela esplizituki adierazteko.

Euria ari zuen: etxean geratu ginen.

Niregatik egin zuen: ezin nion ezer aurpegiratu.

Alferrik zaude hemen: orain ezin didazu lagundu.

Era horretako erlazioa dagoenean, hurrenkera alderantzikatu ere egin daiteke:

Etxean geratu ginen: euria ari zuen.

Ezin nion ezer aurpegiratu: niregatik egin zuen.

Orain ezin didazu lagundu: alferrik zaude hemen.

OHARRAK

- Bi perpausen informazioen artean ondorio- edo kausa-erlazorik ez badago, bi puntuak ez dira egokiak puntu eta komaren orde.

Errieta egiten badiot, haserretu egingo da; haserretzen bada, ez du jokatu nahi izango.

Gurasoak etxera abiatu ziren; umea negarrez ari zen iritsi zirenean.

- Puntu eta komaren orde koma soila jartzea ez da beti egokia, koma ez baita marka egokia esaldi beregainak juntatzeko.

[EGOKIA?] Laster etorriko da Ane, dena kontatuko digu.

[EGOKIA?] Harreman honek berezko ezaugarriak ditu, ez ditugu aipatuko guztiak.

[EGOKIA?] Bigarren etapa 1925eko abenduaren eta 1927. urtearen artean izan zen, fase hartan lortu zuen gailurra diktadoreak.

Hala ere, esaldiak laburrak eta sinpleak direnean, koma soila aski izan daiteke.

Isilik dago, ez daki ezer.

Oso argia da Miren, asko daki.

Berandu da, etxera noa.

Notazio arin hori erabiltzen da literaturan, baliabide estilistiko gisa, azelerazio-efektu bat lortzeko; adibidez, esaldiak hitz berarekin hasten direnean (perpaus beregain sinpleak lotuz, betiere).

Amak garbitzen zuen etxea, amak garbitzen zituen arropak, amak gobernatzen zuen oilategia, amak prestatzen zituen otordu guztiak.

Atomoa zen materiaren azken osagaia, atomoa zen zatitu ezin zitekeen zatia.

Edo segida-efektu behartu bat lortzeko.

Haur bat naiz, berandu esnatu gara, autobusa galdu dut, amak lanera hots egin dio aitari eskolara eraman nazan, amak ez daki gidatzen, ez du inoiz ikasiko²¹.

1.8.2 Puntu eta komaren erabilera perpaus alboratu paraleloetan eta aditz-isiltzeetan

Egituraz eta edukiz antzekoak diren esaldi alboratuak elkartzeko ere erabiltzen da puntu eta koma. Funtzio horretarako, egokiagoa da puntua baino, baliagarria baita esaldien arteko oposizioa adierazteko edo haien arteko konparazioa edo kontrastea nabarmentzeko. Konparazio edo kontraste hori nabarmentzeko, ohikoa da kontrastea markatzen duen aurkaritza-lokailuren baten laguntzaz baliatzea (*berriz, aldiz, ostera*).

Eiderrek oso gustukoak ditu makarroiak; Patxik(, berriz,) espagetiak nahiago ditu.

Nahikari Kepaz maiteminduta dago; Kepa Fernandoz maiteminduta dago; Fernando,(aldiz,) Nahikariz maiteminduta dago.

Asteak oso-oso luzeak dira hemen; aste-bukaerak oso-oso laburrak dira; eta oporrak,(ostera,) oso-oso bakanak dira.

Horrelako esaldiak puntu eta komaz bereizten direnean, ohikoa da aditza isiltzea bigarren esaldian (eta hurrengoetan). Koma baliatzen da aditz-isiltzea markatzeko; beraz, are beharrezkoagoa da, orduan, puntu eta koma, esaldiak ulertuko badira.

Eiderrek oso gustukoak ditu makarroiak; Patxik,(berriz,) espagetiak.

Nahikari Kepaz maiteminduta dago; Kepa, Fernandoz; Fernando,(aldiz,) Nahikariz.

Asteak oso-oso luzeak dira hemen; aste-bukaerak, oso-oso laburrak; eta oporrak,(ostera,) oso-oso bakanak.

²¹ *Eraikuntzarako materiala*, Eider Rodriguez, Susa, 2021

1.8.3 Puntu eta komaren erabilera juntadura konplexuetan

Perpaus juntatuak luzeak edo pisutsuak direnean eta barnean komak dituztenean, puntu eta koma jar daiteke, komaren ordeztu, juntagailuen aurrean, maila bat gorago ekarriz puntuazioa. Hala, apur bat gehiago bereizten da lehen parte osoa bigarrenetik.

Halako batean, baxuak, tronboiak, tronpak, turutak, fagotak, denak lehertu ziren, serio eta harro, tximistargi horixkak euri-olatuen artean nola; **baina** haiek ere etsi egin zuten azkenean, amore eman, isiltzera egin.

Orain, ordea, polizia-teniente bat hil dute, argi eta garbi erakutsiz hemen ere pitzatzen hasiak direla segurtasun publikoaren eraikinaren hormak; **eta** horrek, dudarik gabe, begiramen handirik gabeko neurriak eskatzen ditu.

Baina, zeinahi ere luze eta akigarri izan jazarpena, espero da bete-beteko indarrean egitea bien bitartean arpoilariak arraun; **edota**, hobeki, espero da eredugarri izatea haren jardun supergizakizkoa gainerakoentzat, ez bakarrik arraunketaren bikainarengatik, baizik eta tai gabe aritzeagatik ozen eta ozar deiadarka.

Eta, izan ere, idolo bat da; **edo**, hobeki, antzina, hala izan zen haren antzirudia.

Juntagailuak bereizten dituen perpausen segida areago aldentzeko, puntua ere jar daiteke.

Ederki ulertu genian elkar lehen unetik bertatik, han, kaftanez jantzitako judu eta greziar zikinen artean eserita geundela. **Baina** turkiar gau hartan edan genituen deabruzko pattar haiek, auskalo zer datilen zuku irakin haiek eta Odesa inguruko galsoro galduetako itsaso suhar haiek barrena kiskali zigutenean eta begiak ikatz gorria bezala dir-dir genituenean, gure hizketa ere berotzen hasi zuan.

Gero gerra etorri zen. Aitaren anaia bat hil zuten gerran. **Eta**, tarteka, denboratan ikusi gabeko norbait azaltzen zen herrian. **Edo** hilotzen bat ekartzen zuten. Bizilagun bat ere hil zuten. Haren alabak etxean ezkutatzeke agindua helarazi zuen aitak erietxetik.

1.8.4 Puntu eta komaren erabilera diskurtso-markatzaileen aurrean

Diskurtso-markatzaileak posizio askotan jar daitezke (ikus 1.7.3.3.2 puntua). Oro har, koma artean ematen dira tartekatuta doazenean. Hasieran doazenean, berriz, aurretik koma, puntu eta koma edo puntua izan dezakete. Puntu eta koma jartzen da markatzaileak lotzen dituen perpausak luzeak direnean edo barnean komak dituztenean.

Han zeuden denak, zerraldoa inguratzen, egurrezko kutxa soil bat, koroarik eta lorerik gabea; **hala ere**, kutxa barrukoa zen epelean babestuta zegoen izaki bakarra aterrunerik gabeko euri-jasa etengabe haren erdian, bota eta bota ari baitzuen, gero eta indar handiagoz, gero eta etengabeago.

Nolanahi ere, gazte, ez duk beti biltzen enekin; **beraz**, ez diat uste hirekin nahiko duenik.

Ez baita gizonik inola ere bere identitatea xuxen senti dezakeenik begiak itxita eduki ezean; **alegia**, iluntasuna balitz bezala gure esentzien ingurune egokia, nahiz eta argia izan laketgarriago gure parte buztinezkoari.

1.8.5 Puntu eta komaren erabilera enumerazio konplexuetan

Enumerazio konplexu deritze juntagaien barnean komak edo juntagailuak dituztenei. Kasu horietan, puntu eta koma erabiltzen da komaren ordeztuntz juntagaiak bata bestetik bereizteko. Azken juntagaiak *eta* edo *edo* juntagailua badu aurrean, koma dagokio aurretik, edo, beharrezko iritziz gero, puntuazioa goratuz, puntu eta koma (ikus 1.7.3.4.1 puntuko c) azpiatala).

Zenbait gauza ekarri beharko dituzue: paperezko orri zuri bat, han marrazkia egiteko; koloretako arkatzak, marrazkia margotzeko; guraizeak, papera ebakitzeko,/; eta gutun-zorro bat, oparia gordetzeko.

Liburu hau egitean gogoan izan ditut beren buruari galdetzen diotenak zergatik aritu, urteak joan eta urteak etorri, gustuko ez duten jarduera batean; beren bizitzari zentzua eman nahi diotenak; ezegonkortasunaren beldur ez direnak,/; eta zoriontsu izatearren sakrifizioak egiteko prest daudenak.

Garai onenetan, hiru betaurreko pare izan ohi ditu Mirandak: eguzkitako batzuk, alakatuak eta inkrustazio beltzez hornituriko armazoi urre-kolore bat dutenak; beste batzuk oso arin eta gardenak, merke-merkeak, etxerako,/; eta erreserbako batzuk, leiarretako bat lasai samar dutenak eta, ustez, ondo ematen ez diotenak.

Adibidez, askotan erabiltzen dira puntu eta komak pertsona batzuk eta bakoitzaren kargua zerrendatu behar direnean.

Bileran hauek izan ziren, besteak beste: Rosa Idiakez, Enpresa Zientzietakoa; Mikel Urteaga, Ingeniaritza Eskolakoa,/; eta Izaskun Gonzalez, Filosofia Fakultatekoa.

1.8.6 Puntu eta komaren erabilera mendeko perpausak bereizteko

Esaldi konplexu batean komak daudenean, eta gehienbat mendeko perpausa(k) aditz nagusiaren atzetik doa(ze)nean, puntu eta koma erabil daiteke mendekoa(k) nagusitik bereizteko edo mendekoak bata bestetik bereizteko. Hala, argitu egiten du testuaren egitura puntu eta komak, eta esaldia irakurtzea errazten.

Basati hori izan zen han zeudenen artean pertsona bakarra, antza, sartu nintzela ohartu zena; zeren hura baitzen bakarra, irakurtzen jakin ez, eta, beraz, hormako idazkun odol-hotz haiek irakurtzen ari ez zena.

Charley Coffinek esaten zuen izotz-zulatzailer gisa zela erabilia; ezen, Itsaso Polarraren gainazalera egin eta izotz-geruza batez estalia aurkitzean hura, bere adar horrekin ekinez urratzen duela bidea.

Proiektua aurrera aterako da baldin eta interesatu guztiok batera aritzen bagara; baldin eta eskaera, behar diren dokumentu guztiak ondo beteta, epea amaitu baino lehen aurkezten badugu; baldin eta ahozko aurkezpen egoki, taxuzko eta zehatza egiten badugu; eta baldin erabaki behar dutenek egun horretan herritarren presioa sentitzen badute.

Egiezue so orain azkenik buru txanodun agurgarrioi, oraindik hor daudelarik batera; zeren bat laster baita hondoratuko, arrastorik uzteke, itsasoan, eta bestea luze gabe baita haren atzetik joango.

Enumerazio bertikaletan, osagaiak paragrafo desberdinetan idazten dira, eta zerrendako osagaiak puntu eta komaz bereizi daitezke (komaz ere bereizi daitezke, bai eta inolako puntuazio-markarik gabe utzi ere, bakunak badira). Azken osagaiaren ondoren, puntua jartzen da.

Hauek dira alorrez alorreko euskalgintzako profesionalak:


- irakasleak, unibertsitatekoak izan zein azpiko mailetakoak izan;
- kazetariak, hala prentsa idatzikoak nola ikus-entzunezkoetakoak;
- itzultzaileak, autonomoak zein bestelakoak;
- argitaratzaileak (edozein euskarritan);
- idazleak.

1.8.7 Puntu eta koma eta gainerako puntuazio-markak

Testuan, puntu eta koma ez da inoiz gertatzen testu idatziaren unitateak zedarritzeko baliatzen diren gainerako puntuazio-marketako baten ondoan (puntua, koma eta bi puntuak), elkar baztertzen duten aukerak baitira. Gainerako puntuazio-marken ondoren, berriz, ager daiteke, komarekin gertatzen den bezala (ikus 1.7.3.8 puntua). Adibidez, marren ondoren, bere horretan eman behar da berez dagokion koma nahiz puntu eta koma, marrarik ez balego bezalaxe.

1.9 Bi puntuak

Bi puntuak puntuazio-marka bat dira. Bi puntuz osatua dago marka: bata bestearen gainean daude puntuak, eta oinarrizko lerroaren gainean idazten dira (:). Formaz eta tamainaz, puntu eta komaren antzekoa da (komaren orde, puntua). Aurrean duen hitzari edo sinboloari atxikia idazten da, tartean zuriunerik utzi gabe, puntua, koma eta puntu eta koma markekin egiten den bezala²². Bi puntuen eta haien ondoren idazten den hitzaren edo sinboloaren artean zuriune bat utzi behar da, eta ondoren doan hitza letra xehez hasita idazten da, salbu eta beste arrazoiren batengatik letra larriz hasita idatzi behar denean (izen berezia izateagatik, adibidez); dena dela, badira salbuespenak: bi puntuak aipuak sartzeko erabiltzen direnean eta idazki espezifiko batzuetan, letra larriz hasita idazten da bi puntuen ondoren dagoen lehen hitza (ikus 1.9.4 eta 1.9.8 puntuak).



Bi puntuek ondoren datorrenera bideratzen dute irakurlearen arreta, eta bi erabilera nagusi dituzte. Batetik, ondoren datorren zerbait nolabait iragartzea (funtzio kataforikoa); bestetik, bi perpaus juntaturen arteko harreman bat adieraztea.

²² Hala idazten da gaztelaniaz, ingelesez, alemanez, katalanez, portugesez, nederlanderaz, italieraz eta beste hizkuntza askotan (xxx: xxx). Frantsesez, berriz, zuriune bat uzten da aurreko hitzaren eta bi puntuen artean, antzeko beste marka batzuen eredu berean (xxx : xxx).

Bigarren funtzio horretan, bi puntuak adierazten dutena beste era batera adieraz daiteke:

Gaixo dago: ez da lanera etorriko.

[≈ Gaixo dago; beraz, ez da lanera etorriko.]

Ez da lanera etorriko: gaixo dago.

[≈ Ez da lanera etorriko, gaixo dago eta.]

Puntu eta koma ere jar liteke, batzuetan, bi puntuen ordean, baina puntu eta komak ez luke berez adieraziko bi ideien arteko harreman hori:

Gaixo dago; ez da lanera etorriko.

OHARRA

Ez da gomendagarri, kasu guztiz bereziren batean izan ezik, bi puntuak bi aldiz erabiltzea enuntziatu batean. Hau da, puntutik puntura behin bakarrik jar daitezke bi puntuak. Bestela, nahasgarri gertatzen da, zaildu egiten baita osagaien arteko mendekotasun sintaktikoei antzematea. Hori saihesteko, puntuazioa edo erredakzioa egokitu beharko dira. Adibidez:

[DESEGOKIA] Botilak bi motatakoak izan daitezke: plastikozkoak edo beirazkoak: plastikozkoak edari freskagarrietarako erabiltzen dira, eta beirazkoak esnekietarako.

[EGOKIA] Botilak bi motatakoak izan daitezke: plastikozkoak edo beirazkoak. Plastikozkoak edari freskagarrietarako erabiltzen dira, eta beirazkoak esnekietarako.

[DESEGOKIA] Zerbitzu hauek guztiak eskaintzen dizkizu bidaia-agentziak: taxia hiri hauetan: Erroma, Florentzia eta Siena; euskaraz egiten duten gidariak; goi-mailako hotelak...

[EGOKIA] Zerbitzu hauek guztiak eskaintzen dizkizu bidaia-agentziak: taxia Erroma, Florentzia eta Sienan; euskaraz egiten duten gidariak; goi-mailako hotelak...

Dena dela, aipuak txertatzen direnean —hau da, beste pertsona baten hitzak testura ekartzen direnean—, ez dago arazorik bi puntuak bi aldiz agertzeko enuntziatuan,

diskurtso desberdinei baitagozkie: bigarren diskurtsoa komatxo artean ageri denez, ez dago eragozpenik zer zerekin doan ulertzeko.

Honela idatzi zuen Koldo Mitxelenak 1968an: «Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan».

Eta hitzen formei buruz, hau esan zuen, besteak beste: «Bazterrekoak bat datozenean, berriz, indar gehiago dute erdikoek baino: *burdina*, adibidez, hobe Gipuzkoako *burni(a)* baino».

1.9.1 Bi puntuak perpaus alboratuen artean

Bi perpaus alboraturen arteko erlazio logiko bat adierazteko erabiltzen dira bi puntuak, azalpen bat emateko (puntu eta koma neutroa erabil daiteke baldin eta semantika hutsak iradokitzen badu erlazio hori). Azalpen hori kausa-ondorio motakoa da, zenbaitetan aldaera gisa, analisi edo sintesi gisa edo kontraste gisa defini daitekeena.

[kausa] Orain ulertzen dut zergatik dagoen hain pozik: etxea saltzea lortu du.

[ondorioa] Bertso hura benetan hunkigarria zen: buruz ikasi nuen berehala.

[sintesia] Olatzi biziki gustatzen zaio literatura, bai eta zinema, antzerkia eta musika klasikoa ere: oso pertsona kultua da.

[analisi] Mikel oso nekatuta zegoen: bezperan jada ez zuen ondo lo egin, goiz osoa eman zuen apalategietako liburuak jasotzen, eta arratsaldean etxe osoa garbitu zuen goitik behera.

[kontrastea] Amaia ez da nire laguna: nire etsaia da.

1.9.2 Bi puntuen erabilera datorrenaren iragarle gisa (eraikuntza kataforikoak)

Eraikuntza kataforiko deritzenek bi ataletan antolatzen dute enuntziatuaren informazioa: lehen partean iragarri egiten da, nolabait, bigarren partean zehaztuko dena edo adibidetuko dena. Bi parte horien artean bi puntu idazten dira. Maiz erabiltzen dira bi puntuak ondoren adibideak eta definizioak emateko, baina iritziak, aginduak eta bestelako ideiak adierazteko ere balio du.

Badira **pertsona batzuk** telefonoz *bai* edo *ez* besterik esaten ez dakitenak: gure aita, besteak beste.²³

Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Mikel Laboaren ***Hamalau* diskoa**, 1994an argitaratua: benetako maisulana.

Eta lortu zuen. **Horixe** nahi zuen berak: zu berriro ez etortzea.

Begira, **honela** egingo dugu: atera behar duzunean, esan niri, eta ni arduratuko naiz telefonoari erantzuteaz.

Berriro holakorik ez gertatzeko, **hau** erabaki dugu: ez dadila inor irten ikasgelatik hamarrak baino lehen.

Badira **gauza batzuk** beti egin behar dituzunak: adibidez, esku-frenoa jartzea autoa aparkatu ondoren eta zamarra atzeko eserlekuan ahaztuta ez uztea.

Asko eztabaidatu dugu, bai, baina azken **erabakia** falta zaigu: lehiaketara aurkeztuko gara ala ez?

Gauza bat esango dizut: haserre nago, erabat.

Hiru lagun etorri ziren: Olatz, Amaia eta Saroi.

Borgesek berak iradokia da istorio guztiak **bitan** biltzen direla: bidaiari doanarena eta gurutzean hiltzen denarena.

Horregatik maite ditut gaurko gazte asko: tentaldiaren ihesi ez dabilzalako, lohiaren beldur ez direlako.

OHARRA

Bi puntuekin iragartzen den informazioak hurrengo puntuan amaitu behar du; ez lehenago, ez geroago.

[DESEGOKIA] Honela gertatu zen istripua: autoa bere bidetik zetorren, baina azkarregi; eta errepidea bustita zegoen. Oinezkoa errepidea zeharkatzen hasi zen, irrist egin, eta gainera etorri zitzaion autoa.

²³ Adibide honetan, puntu eta koma ere jar liteke bi puntuen ordean. Ikus azalpena 1.8.1 puntuan.

[EGOKIA] Honela gertatu zen istripua: autoa bere bidetik zetorren, baina azkarregi, eta errepidea bustita zegoen; oinezkoa errepidea zeharkatzen hasi zen, irrist egin, eta gainera etorri zitzaion autoa.

Alderantzizko hurrenkeran ere antola daiteke diskurtsoa zenbaitetan; hau da, lehen partean adierazpen nagusia eman eta bi puntuen ondoren aurreko hori zer den esan:

Izan ala ez izan: horra hor **auzia**.

Europako haizeak onak ala kaltegarriak ditugun: horra orain piztu eta berritu zaigun **auzia**.

1.9.3 Bi puntuen erabilera diskurtso-markatzaileekin

Diskurtso-markatzaileak aipatu dira komaren erabilera aztertzean (ikus 1.7.3.3.2 puntua), eta han adierazi da askatasun handia dutela esaldian kokatzeko. Markatzaile batzuk beste zerbaiti bide emateko erabiltzen dira, eta eten bat markatzen dute. Horrelako markatzaile batzuen ondoren, bi puntu idazten dira.

Hobe duzu berriro holakorik ez egin. Bestela esanda: berriro egiten baduzu, kalera joango zara.

Are gehiago: aitzak bolada luzeak egiten zituen kanpoan, eta amak eramaten zuen orduan kontu haren ardura.

Ondorioz, eta laburbilduz: laster geratu zela etxea emakumerik gabe.

Adibidez: zer da lana, edo ezkontzea, edo helduen bizimoduko beste edozer gauza?

Zenbaitetan, koma ere erabil daiteke bi puntu horien ordean, puntuazioa arindurik, perpaus sinpleekin bederen. Izan ere, diskurtso-markatzaileen semantikak berez markatzen du katafora:

Are gehiago:/, normalena ere izan daiteke hori testuinguru jakin batzuetan.

1.9.4 Bi puntuen erabilera testuan aipu bat txertatzeko²⁴: estilo zuzena

Testuan beste pertsona edo beste testu batek esandakoa hitzez hitz sartzeari (edo pentsamenduak etorri bezala transkribatzeari) deritzo estilo zuzena: kontalariak hitza ematen die pertsonaiei, eta haien hitzak bere hartan erreproduzitzen ditu. Hala

²⁴ Testuan aipuak zuzenean txertatzeko, badira beste modu batzuk. Ikus 1.13.3 (Marra-parearen erabilera aipuetan) eta 1.14.2 (Komatxoaren erabilera aipuetan) puntuak.

txertatzen dira testuan aipuak eta fikziozko pertsonaien hitzak²⁵. Komatxo artean idazten da aipua, lehen hitza letra larriz idatzita, eta, aipuaren aurretik, adierazpen-aditz bat behar izaten da (isilduta ere egon daiteke), hala nola *esan*, *pentsatu*, *erantzun*, *galdetu*, *adierazi* eta abar. Aditz hori aipuaren aurretik idazten denean, bi puntu jartzen dira aipua hasi aurretik.

Amak, orduan, honela erantzun zuen, haserre: «Ea behingoz tximista batek eramaten zaituen!».

Agurtzerakoan, besarkatu, eta esan zidan: «Hor, beste aldean, Stromovka parkea dago».

Esaera zaharrak dioen bezala: «Gogozko tokian aldaparik ez».

Hona zer dioen bigarren xedapenak: “Kontratua indarrean den bitartean...”.

Han gelditu zen tarte batez, zutik, ziztu bizian aldendu zen autoaren atzeko argiei begira: «Nahi bezain azkar gidatzea zaukak orain».

Raoult: «Etxeratze-deiak harridura sortu du, baina biziak salbatuko ditu».

Adierazpen-aditza aipuaren ondotik idazten denean, ez dira bi puntuak erabiltzen, koma (edo marra) baizik.

«Etxeratze deiak harridura sortu du, baina biziak salbatuko ditu», adierazi du Raoult-ek.

1.9.5 Bi puntuen erabilera enumerazioetan (katafora-kasu nagusietariko bat)

Enumerazioa hasten dela iragartzeko, bi puntu idazten dira. Bi puntuen aurretik dagoen esaldi-atalean, enumerazioaren edukia aurreratzen edo iragartzen duen elementu bat behar da:

Bertsolariak, ona izateko, **baldintza hauek** behar ditu: buru argia, bihotz zabala eta eztarri ona.

Honako arlo hauek landuko ditugu: bioetika, zuzenbide biomedikoa eta bioteknologia.

Atzo, **hauek guztiak** etorri ziren: igeltseroa, arotza, sarrailagilea, pintatzailea, iturgina eta bernizatzailea.

²⁵ Antzezlanetan, fikziozko pertsonaien hitzak sartzeko, lerroaren hasieran pertsonaiaren izena idazten da eta, jarraian, bi puntuak idazten dira (edo puntua eta marra, bestela). Ikus 1.11.4 eta 1.13.5.1 puntuak.

Atzo, **hauei** kontatu nien zer gertatu zitzaidan: Aneri, Anderri, Patxiri eta Mirenen amari.

Hona **nor bildu ziren**: Itxaso Rodriguez, alkatea; Jon Urrea, zinegotzia; Maddi Errotaetxe, enpresaburua; eta Jose Migel Agirre, idazkaria.

Elementu horiek gabe egiten dira batzuetan enumerazioak —ohikoak, adibidez, ahozkoan— esaldiaren lehen partearen amaiera markatuz eta geldialdi bat eginez, nolabaiteko enfasiarekin, ondotik datorrena azpimarratuta uzteko. Testu neutroetan, dena dela, baldin eta benetako enumerazioak badira, komeni da enumerazioaren edukia aurreratzeko elementu bat jartzea, eta ez aditzak eta subjektuak edo aditzak eta objektuak bereizita uztea tartean bi puntu jarrita.

Bertsolariak, ona izateko, behar ditu: buru argia, bihotz zabala eta eztarri ona.

[benetako enumerazioa bada, eta ez enfasi-joko hutsa:] Bertsolariak, ona izateko, **hiru gauza** behar ditu: buru argia, bihotz zabala eta eztarri ona.

Landuko ditugu: bioetika, zuzenbide biomedikoa eta bioteknologia.

[Benetako enumerazioa bada:] **Hiru gai** landuko ditugu: bioetika, zuzenbide biomedikoa eta bioteknologia.

Atzo, etorri ziren: igeltseroa, arotza, sarrailagilea, pintatzailea, iturgina eta bernizatzailea.

[Benetako enumerazioa bada:] Atzo, **hauek** etorri ziren: igeltseroa, arotza, sarrailagilea, pintatzailea, iturgina eta bernizatzailea.

[EGOKIA?] Atzo, kontatu nien zer gertatu zitzaidan: Aneri, Anderri, Patxiri eta Mirenen amari.

[Benetako enumerazioa bada:] Atzo, **hauei** kontatu nien zer gertatu zitzaidan: Aneri, Anderri, Patxiri eta Mirenen amari.

OHARRA

Enumerazio baten elementuak aurreratzin direnean ere, bi puntu idazten dira. Ohiko enumerazioaren alderantzizko hurrenkera da hori. Bi puntuek, orduan, itxi egiten dute enumerazioa, eta elementu horiek barnean hartzen dituen kontzeptua aurkezten dute.

Egonarria, erabakitasuna eta ahalegina: hirurak beharko dituzu garaipena lortzeko.

Arropa garbitzea, lehortzea eta apaletan uztea: horiek dira zure eginkizunak.

1.9.6 Bi puntuak idazki administratibo-juridikoetan

Administrazioaren esparruan edo zuzenbidearen esparruan erabiltzen diren testuetan (hitzarmenak, kontratuak, eskabideak, ziurtagiriak, ebazpenak, dekretuak eta abar) bi puntu idazten dira dokumentuaren helburua aurkezten duen aditzaren ondoren. Ohikoa da, halaber, aditz osoa letra larriz idaztea eta testuko hurrengo hitza beste paragrafo batean idaztea.

Idurre Elorrieta Bazigalupek, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluko idazkari nagusi denak, hau

ZIURTATZEN DU:

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, bere berrehun eta laurogeita hamargarren bileran, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeita bialarraian ageri den erabakia onetsi duela aztergaien zerrendako bigarren gaiari buruz. [...]

IKUSIRIK:

Lehenengoa.– 209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen ordainsari-osagarri gehigarri buruzkoa, eta bereziki [...]

ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.– Erabaki honi erantsitako Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle-ikertzaileen ordainsari-osagarri gehigarrien deialdia onartzea.

1.9.7 Bi puntuak gutunetako eta hitzaldietako hasierako agurretan (“hau jakinarazten dizut/diot” katafora inplizitua)

Gutunetan, posta-mezuetan eta beste idazki batzuetan, kortesiazko hasierako hitzen ondoren, koma edo bi puntu idatz daitezke (Iparraldean, koma idatzi ohi da, eta Hegoaldean, berriz, bi puntu)²⁶.

Andre hori:

Mezu hau idazten dizut gogorarazteko...

Kaixo, Idoia:

Etxera iristen haizenean, itxi nire gelako leihoa, mesedez, euria egin behar din eta.

Agur, harpidedun maitea:

Berriro ere, zuregana jo beharrean gaude laguntza eske.

Baita hitzaldien hasieran ere, hartzaileak aipatzeko.

Bilboko herriari:

Berriz ere zuen aurrera nator [...]

Lagunok!:

Garai txarrak ditugu hauek. [...]

1.9.8 Bi puntuak ohartarazpen bati edo adierazpen garrantzitsu bati sarrera emateko (katafora espezializatuak)

Ohar, aholku edo adierazpen garrantzitsuren bat bereiz ematean, bi puntu erabiltzen dira arreta pizteko. Era guztietako afixetan eta inprimakietan ageri da erabilera hori. Halakoetan, bi puntuen ondorengo lehen hitza letra larriz hasita idazten da (bi puntuen erabilera arruntean ez bezala).

Oharra: Ezinbestekoa da lanposturako eskatzen diren baldintza guztiak betetzea.

Post data: Dokumentuaren kopia bidaliko dizut, postaz.

²⁶ Ikus 1.7.3.7 puntua.

Lege-ohartarazpena: Webguneko informazioa kasu bakoitzean aplikagarri den legediaren arabera erabili behar da.

1. urratsa: Formatua erabakitzea

2. urratsa: Letra-mota hautatzea

1.9.9 Bi puntuak idazki eskematikoetan

Dokumentu batzuetan, hala nola txostenetan eta eskabide-inprimakietan, bi puntu idazten dira bete edo zehaztu behar diren kontzeptuen ondoren (1.9.8 puntuan ez bezala, bi puntuen ondorengo lehen hitza ez da letra larriz hasita idazten, izen berezia ez bada).

Izena: Ander

Abizenak: Amundarain Larrea

Helbidea: Lizardi kalea 10, 8.a esk.

Herria: Zaldibia

Ikasketak: lizentziaduna

- **Aldizkari ofiziala:** EHAA
- **Aldizkari-zk.:** 164
- **Hurrenkera-zk.:** 3913
- **Xedapen-data:** 1998/07/24
- **Argitaratze-data:** 1998/08/31

1.9.10 Bi puntuak izenburuen eta azpiizenburuen artean

Obren izenburuek, batzuetan, bigarren izenburu bat (azpiizenburu bat) izaten dute, lehenengoa zehazten duena edo informazio osagarriren bat eransten duena, eta bi puntu idazten dira bien artean²⁷. Erabilera hori berezia da, bi puntuek testuaren barnean

²⁷ Beste batzuetan, azpiizenburua bigarren lerro batean idazten da argitalpenaren azalean. Halakoetan, izenburu osoa testu batean aipatu behar denean, puntua jartzen da izenburuaren eta azpiizenburuaren artean. Adibidez, liburu honek honela du izenburua azalean:

**Euskal estilo libururantz
Gramatika, estiloa eta hiztegia**

Liburu horren izenburua testu batean txertatu behar denean, puntua jartzen da:
2001ean argitaratu zen *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia* liburu.
eta ez honela:

2001ean argitaratu zen *Euskal estilo libururantz Gramatika, estiloa eta hiztegia* liburu.

duten erabilera ez bezalakoa, baina tipografiaz mugatua da (letra etzana edo komatxoak), eta, horri esker, ez da testuan nahasgarri gertatzen.

Mendebaleko euskara zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia

Ekuzio diferentzialak: teoria eta praktika

Euskal estilo libururantz: gramatika, estiloa eta hiztegia

Artikuluaren izenburuetan, berdin.

“Euskal WordNet: euskararako ezagutza-base lexiko-semantikoa”,
Euskalingua 7.

“Euskararen tratamenduak: erabilera”, IKER 9

“Diskurtso-markatzaile berri bat: *hurrenez hurren* birformulatzailea”, ASJU
45-1.

1.9.11 Bi puntuen erabilera tekniko bereziak

Bi puntuak ez dira erabiltzen puntuazio-marka gisa bakarrik. Matematikan, zatiketa adierazteko sinbolo gisa baliatzen dira. Zuriunea utzi behar da bi puntuen aurretik eta ondotik.

$$12 : 3 = 4$$

Bi magnituderen arteko erlazioa —hau da, ratioa— adierazteko ere erabiltzen dira bi puntuak (adiera horretan, zuriunerik utzi gabe bi puntuen aurretik eta ondotik, ez baitu zatiketa adierazten, bi zenbakiren arteko konparazioa baizik).

Telebista-pantaila horretan, zabalera eta altuera 4:3 ratioan daude.

Kartografian, marrazketan eta arkitekturan, irudien eskala (ratio gisa) adierazteko erabiltzen da (zuriunerik gabe bi puntuen artean, ratioa baita).

Euskal Herriko mapa geologiko hori 1:25 000 eskalan egina dago.

Eguneko ordua zenbaki bidez adierazten denean, bi puntuak erabiltzen dira orduak minutuetatik bereizteko eta minutuak segundoetatik bereizteko, ISO 8601 estandarraren arabera.

17:28:54 (arratsaldeko bostak, hogeita zortzi minutu eta berrogeita hamalau segundo)

Bi puntuak badituzte beste erabilera tekniko berezi batzuk ere jakintza-arlo batzuetan (informatikan, matematikan, logikan) eta beste hizkuntza batzuetan. Askoz espezifikoagoak dira; horregatik, ez dira lan honetan jaso.

1.9.12 Bi puntuak eta gainerako puntuazio-markak

Testuan, bi puntuak ez dira inoiz gertatzen testu idatziaren unitateak zedarrizteko baliatzen diren gainerako puntuazio-marketako baten ondoan (puntua, koma eta puntu eta koma), elkar baztertzen duten aukerak baitira.

OHARRA

Laburdura-puntuaren ondoren jar daitezke bi puntuak, baina laburdura-puntua ez da puntuazio-marka.

Bapo afaldu genuen, bapo edan, bertsoan egin, abestu, etab.: ederki pasatu genuen.

Gainerako puntuazio-marken ondoren, berriz, ager daiteke.

Zer okela da hau?: zailago dago zorua bera baino.

Gidari itsuak!: eltxoa irazten duzue eta gamelua irensten.

Hitzei buruz dakiguna hobeto argitzeko, har dezagun ziur asko inork ezagutzen ez duen ingelesezko hitz bat (asmatua da): *frimp*.

Ingeniaritza-lanak egiten zituen, hala nola aireportuak, geltokiak, eraikuntza-lanak —monumentuak, eraikinak, zubiak...—: denetatik egiten zuen.


Inklusioak (materia «ez-bizia»: gantza, azukrea, hondakin-produktuak).

Metanoa, karbono monoxidoa, kloruroa, zianuroa...: orotara, 51 produktu toxiko ageri dira zerrendan.

Bi puntuak eta ohar-deia batera gertatzen direnean, ohar-deia bi puntuen aurretik edo ondotik jar daiteke, estilo-kontua baita (ikus 1.6.4 puntua).

1.10 Etenpuntuak

Etenpuntuak puntuazio-marketako bat dira, bata bestearen ondoan horizontalean eta tartean zuriunerik utzi gabe ezarritako hiru puntuz osatuak. Idazketa-lerroaren behealdean idazten dira, puntua bezala (...).



Ezkerrean duten hitzari, sinboloari edo markari atxikiak idazten dira, tartean zuriunerik utzi gabe, baina zuriune batez bereizten dira ondotik datorren hitzetik edo sinbolotik. Etenpuntuen ondotik puntuazio-marka bat dagoenean, ez da zuriunerik jartzen haien artean.

Etenpuntuak deritze haien zeregin nagusia delako adieraztea enuntziatua eten dela edo haren parte bat falta dela. Hau da, perpausa amaiera zehaztugabea eten dela. Ahoskeran, etenpuntuak atsedenaldira batean eta intonazioaren etete batean islatzen dira.

Marka honek badu garrantzia: bera gabe, enuntziatu batzuk ez lirateke gramatikalak izango, amaitu gabe egoteagatik.

[GRAMATIKALA] Orduan, pistola hartu eta...

[EZ-GRAMATIKALA] Orduan, pistola hartu eta.

[GRAMATIKALA] Gaurko haizea ere...

[EZ-GRAMATIKALA] Gaurko haizea ere.

Hala, etenpuntuek aditzera ematen dute badagoela beste testu bat, edo badagoela ñabardura bat, agerian ez dagoena.

1.10.1 Etenpuntuen ondorengo hitza noiz letra larriz eta noiz letra xehez hasita

Etenpuntuen bidez adierazten den etenaldiak esaldiaren amaiera adierazten badu, ondoren datorren hitza letra larriz hasita idazten da.

Jarraian, Sozialista Abertzaleak taldearen ordezkaria... **Ez** du hitz egingo.

Aldiz, etenpuntuak barruan badaude, hau da, enuntziatua ixten ez badute, ondoren datorren hitza letra xehez hasita idazten da.

Jakina: bietako bat erabat desagertuz gero, lasai jarrai lezake besteak... bera ere desagertu arte.

1.10.2 Etenpuntuen erabilerak

Etenpuntuek, oro har, amaitu gabeko ideia bat edo amaitu gabeko enumerazio bat adierazten dute, baina beste zeregin batzuetarako ere erabiltzen dira, hala nola pasarte bat ezabatzeko, izen baten edo hitz baten letrak ordeztuko —konfidentzialtasunagatik edo diskrezioagatik, adibidez—, narratzailearen zalantza bat adierazteko edo aditzera emateko zerbait ez duela azaldu nahi, edo isilune bat, monologo baten etenak, elkarrizketa bateko parte-hartzaileen etenak eta abar adierazteko.

1.10.2.1 Diskurtsoan eten bat egin dela adierazteko

Izan daiteke beldurra adierazteko, edo zalantza, desioa, emozioa, kezka edo isilune bat.

Ni mingaina dantzatzen hasiko banintz...

Irakaslea duzu telefonoan... Espero dut berri onak emateko izatea deia.

Egia esan, ez dakit zer egin... esan edo isildu.

Zer pena!, zer atsekabea!, hau mina!...

Ai egia balitz...!

Eee... ba... hemen, belaunean.

1.10.2.2 Ezaguna den edo beharrezkoa ez den zerbait ez idazteko

Hiru puntuak erabiltzen dira, halaber, zerbait amaitu gabe uzteko, beharrezkoa ez delako edo jotzen delako irakurleak badakiela zer datorren ondoren, ezaguna delako. Batez ere, atsoitzak osorik ez idazteko jartzen dira, edo kanta eta antzekoetan.

Bai, nekeza da, baina badakizu: gogozko bidean...

Hator, hator, mutil, etxera...

Badakin, gero dioenak...

1.10.2.3 Idatzi nahi ez dena ordeztuko

Hitz zatar bat edo komeni ez den hitz bat ordeztuko. Hitza edo hitz-multzo bat osorik ordeztu dezakete etenpuntuek, edo idatzi nahi ez den hitzaren lehen letraren ondoren

jar daitezke (hitz baten tarteko letra batzuen ordeztartzen denean, ez da zuriunerik uzten etenpuntuaren ondoren).

P...kumea hi! Nora hoga gure diruarekin!?

Zure senar... hori ez dut ikusi ere egin nahi!

1.10.2.4 Enumerazioak irekita uzteko

Enumerazio bat osatu gabe uzten dela, hau da, aipatzen ez diren beste elementu batzuk badituela adierazteko, etenpuntuak jartzen dira amaieran.

Arrandegian denetik zegoen gaur: legatzak, bisiguak, lupiak, barbarinak...

Hona hemen giza kondizioaren gai handiak: maitasuna, bizitza, heriotza, askatasuna...

1.10.2.5 Mintzoa une batez eten dela markatzeko

Zirrara sortzeko nahita egiten den isilune bat adierazteko. Jakin-mina edo arreta piztearren ahozkoan egiten den isilunea markatzeko erabiltzen da.

Eta zozketaren irabazlea da... Patxi!

Nor eta... Eider!

1.10.2.6 Hitz bat bukatu gabe utzi dela adierazteko

Hitz bat osorik esan gabe gelditu dela adierazteko, dela hiztunari hitz hori ezezaguna zaiolako, dela osorik entzun ez duen hitz bat errepikatu nahi duelako.

Ogi zekaleduna eskatu, eta dendariak, begiak zabal-zabalik: «Zeka... zer?».

1.10.2.7 Pasarte bat ezabatzeko

Aipatzen ari den testu baten parte bat ezabatu dela adierazteko, etenpuntuak jartzen dira parentesi karratuen artean. Hobe da parentesi karratuak erabiltzea, eta ez parentesi arruntak, irakurleari aditzera emateko etenpuntu horiek ez direla testu aipatuaren parte.

Eteten den zatia amaitu gabeko esaldi baten barneko zati bat denean, parentesi karratuen ondorengo hitza letra xehez hasita idazten da.

«Berehala zerurat joan, ala [...] arimaren galtzeko arriskuan bizi?»

Poliki-poliki doakio Peru erakusten ez euskara bakarrik [...], beste gauza asko baizik euskararen bitartez.

Amaitutako esaldi baten ondoren esaldi oso bat —edo esaldi oso batzuk— aipatu gabe uzten direnean, parentesi karratuen ondorengo hitza letra larriz hasita idazten da.

«Gure herriaren etsaien aurka egiten ditugu ekintzak beti, ez beste inoren aurka. [...] Gure borrokaren funtzio politikoa demokrazia eskuratzea da».

Aipua enuntziatuaren hasieratik egiten ez denean, irekiera-komatxoen ondoren jartzen dira parentesi karratuen arteko etenpuntuak, eta aipuaren amaiera enuntziatuaren amaierarekin bat ez datorrenean, hau da, aipua osatu gabe uzten denean, itxiera-komatxoen aurretik jartzen dira parentesi karratuen arteko etenpuntuak²⁸.

«[...] hosto nahiz orbel erorietan lotsati».

«Baxenabarrek edo Nafarroa Behereak [...]».

Kasu horietan parentesirik gabe ere jar daitezke etenpuntuak, komatxoei atxikita. Halakoetan, etenpuntuen eta ondorengo hitzaren artean zuriunea jartzen da, baina aipuaren azken hitzaren eta etenpuntuen artean ez da zuriunerik jartzen.

«... hosto nahiz orbel erorietan lotsati».

«Baxenabarrek edo Nafarroa Behereak...».

Nolanahi ere, aipuetan ez da ezinbestekoa nabarmentzea enuntziatuaren hasiera edo amaiera falta dela. Alegia, etenpunturik gabe ere jar daitezke.

«hosto nahiz orbel erorietan lotsati».

«Baxenabarrek edo Nafarroa Behereak».

1.10.2.8 Etenpuntuak elkarrizketa eta kidekoetan

Elkarrizketa batean etenpuntuak bakarrik erabiltzen direnean, hau da, ondoan hitzik ez dutela, mintzakidea isilik dagoela adierazten da, ez duela erantzuten.

—Hobe zenuke gurekin etorri.

—...

—Bestela, arratsalde osoa telebistari begira, majo aspertuko zara.

—...

²⁸ Aipuak egiteko, badira modu gehiago ere. Ikus 1.14.2 puntua.

Elkarrizketetan edo antzeko formatua duten testuetan, hala nola film baten azpitituluetan edo, legebiltzar batean, bilkura bateko transkripzioetan, esaldiaren hasieran jartzen dira batzuetan etenpuntuak: aurrekoarekin lotura ezartzeko balio dute. Adibidez, hizketan ari den pertsonaren mintzoa ustekabeko zerbaitek eteten badu, mintzatzeari berriro ekin diola adierazteko.

—Esango nuke...

(zarata ozen bat entzun da sukaldean)

... kafe erre usaina dagoela hemen

(AZPITITULUAK)

Hala ere, azkenaldian...

[eztulka]

... ez dut berari buruz ezer jakin.

(BILKURA BATEN TRANSKRIPZIOA)

Hezkuntza Sailari dagokionez...

Bukatu, mesedez, Alzelai andrea.

... esan behar dut ez dagoela inolako arrazoirik esateko hemen hezkuntza...

Bi mintzakideren hitzak modu esplizituan lotzeko ere balio dute etenpuntuak, lehenengoak hasitako esaldia bigarrenak bukatzen duenean.

«Bazen behin...», hasi zen amona bilobari begira. Eta «... Txanogorritxo izeneko neskatxa bat», erantzun zion berehala bilobak.

1.10.3 Etenpuntuak beste puntuazio-marka baten ondoan gertatzea

1.10.3.1 Etenpuntuak eta puntua

Esaldiaren amaieran etenpuntuak jartzen badira, ez da punturik idazten esaldiaren amaiera adierazteko.

EGOKIA

Denetik erosi zuen: ogia, esnea, kafea, galletak...

DESEGOKIA

Denetik erosi zuen: ogia, esnea, kafea, galletak....

OHARRA

Laburdura baten ondoren etenpuntuak jartzen badira, lau puntu idazten dira (laburduraren puntua eta etenpuntuaren hiru puntuak).

Hauek dira laburdurarik erabilienetako batzuk: etab., iz., or., adib....

OHARRA

Esaldiaren amaieran etab. edo etc. laburdura jartzen bada, ez da etenpunturik jartzen.

(EGOKIA) Zientzia-diziplina askotako profesionalak elkartuko dira: ingeniari-tza, kimika, ingurumena...

(EGOKIA) Zientzia-diziplina askotako profesionalak elkartuko dira: ingeniari-tza, kimika, ingurumena, **etab.**

(DESEGOKIA) Zientzia-diziplina askotako profesionalak elkartuko dira: ingeniari-tza, kimika, ingurumena... **etab.**

(DESEGOKIA) Zientzia-diziplina askotako profesionalak elkartuko dira: ingeniari-tza, kimika, ingurumena **etab....**

1.10.3.2 Etenpuntuak eta koma, puntu eta koma edo bi puntuak

Etenaldi bat adierazten duten puntuazio-marken aurretik jar daitezke. Hau da, komaren, puntu eta komaren edo bi puntuen aurretik jar daitezke, ez ondotik, eta ez da zuriunerik uzten bi marken artean.

(EGOKIA) Bueno, egia esateko..., lagun batzuekin gelditu naiz.

(DESEGOKIA) Bueno, egia esateko..., lagun batzuekin gelditu naiz.

Maisu industrialak, langilea, ekonomiako ikaslea...; bakoitzak berea esan du.

Metanoa, karbono monoxidoa, kloruroa, zianuroa...: orotara, 51 produktu toxiko ageri dira zerrendan.

1.10.3.3 Etenpuntuak eta galdera- edo harridura-markak

Perpaua etenda dagoenean, galdera- edo harridura-markaren aurretik jartzen dira etenpuntuak.

Ez nuke sarkin-itxura eman nahi, baina bereizita zaudete edo...?

Berak arrazoia eman norbaiti? Ezta...!

Perpau osoa galde- edo harridura-perpaua denean, galdera- edo harridura-markaren ondotik jartzen dira etenpuntuak.

Zeinek jartzen ditu, baina, mugak?: zientzialariek?, moralistek?, legegileek?...

Maitagarri hura arratoi bihurtu zen, eta jirabiraka hasi zen bere isatsa harrapatu nahian; gero, krak!... eta kriskitin-suge bihurtu zen..., sigi-saga bihurritu zena; ondoren, krak!... eta begi-bola odoltsu bilakatu zen.

1.10.3.4 Etenpuntuak eta puntuazio-marka bikunak: parentesiak, parentesi karratuak, komatxoak, marra-parea

Puntuazio-marka bikunekin ere konbina daitezke etenpuntuak. Etenpuntuak marka horietatik kanpo jartzen dira adierazten dutena diskurtso nagusiari dagokionean.

Hitz bati esaldian funtzioa ematen dioten kasu-markak bat etortzen dira batzuetan: *hizkuntzak* (absolutibo plurala, ergatibo singularra, ergatibo mugagabea), *Eibarren* (inesiboa, genitiboa)...

«Zer da hau?», «zertan ari naiz?», «zer zentzu du honek?», «nondik nora nabil edo noa?»... Halakoak izan ohi dira jeneralean paranoia arduratsuaren galderak.

Terminologia dela eta, zenbait termino finkatu beharra ikusi da (*trantsitibo*, *adjektibo*, *adberbio*, *aldi* —eta ez *tempus*—...), orain arte erabilitakoak arras baztertu gabe.

Etenpuntuak adierazten dutena puntuazio-marka bikunek zedarrizten duten diskurtsoari dagokionean, berriz, puntuazio-markaren barnean jartzen da.

Gaztetan kantatzen zioten txantxa baten airea nagusitu zaio: «... dantzan hobeto daki artajorran baino».

Soari espresioa ematen dioten hazpegiak —bekainak, betondoak, irribarreak edo haserreak eragiten dituen begi ertzetako zimurrak...— ezkutuan izaki, begiek ez zuten sentimen jakinik adierazten.

Material hauetan, gel baten propietateekin batera (elastikotasuna, gardentasuna...), betegarriaren propietate magnetikoak dauzkagu.

1.10.4 Etenpuntuak eta ohar-deia batera gertatzea

Ohar-deia eta etenpuntuak batera gertatzen direnean, ohar-deia etenpuntuak ixten duten kate osoari dagokiola, etenpuntuaren ondoren jartzen da ohar-deia. Eta, horrenbestez, esaldi-amaierako puntua idazten da ohar-deiaren ondoren.

Barre eragin, doministiku eragin, kalte eragin, negar eragin...².

² Berez, 'izena + egin' aditz esapideen kausatiboak baino ez dira, aspaldi ihartua dugun *-ra-* artizki kausatiboaz sortutako *eragin* (*egin* > *e-ra-gin*) bigarren osagai dutenak.

**Gu handiak; *zuen gu; *beste gu...²⁵.*

²⁵ ETBn ematen zuten *Beste gu* programak izen hori bazuen ere, hor hizkuntza-arau bat bortxatuz lortzen den efektuaz jolastu nahi zela dirudi.

Aldiz, ohar-deia ortografia-markaren aurretik dagoen hitzari bakarrik dagokiola zehaztu nahi izanez gero, markaren aurretik jartzen da.

Hauek dira lehen moldekoak: *era askotako, denetariko, askotariko*³...

³ Lehen adierazi den moduan, *askotariko* hitzaren sinonimoa da *orotariko* hitza.

1.11 Parentesiak

Parentesia ortografia-marka bikun bat da, bi forma baititu. Zutikako bi marra kurbatu dira, ia zirkuluerdi-formakoak. Lehenengo formari *irekiera-parentesi* deritzo (ezkerreko parentesia edo hasierako parentesia); eskuinetik begiratuta, konkaboa da: goiko eta beheko muturrak eskuinerago ditu erdialdea baino. Bigarren formari *itxiera-parentesi* deritzo (eskuineko parentesia edo amaierako parentesia); ezkerretik begiratuta, konkaboa da: goiko eta beheko muturrak ezkererago ditu erdialdea baino.

IREKIERA-PARENTESIA	PARENTESIAK	ITXIERA-PARENTESIA
(())

OHARRA

Badira beste bi parentesi-mota ere:

- Parentesi angeluarrak (ikus 2.10 puntua): ⟨ ⟩
- Parentesi karratuak (ikus 1.12 puntua): []

Parentesi angeluarrak ez dira erabiltzen testuetan, ez dira ortografia-markatzat hartzen; parentesi karratuak, berriz, ortografia-marketako bat dira.

Parentesiak bi modutan erabiltzen dira: testuan txertatuta edo hitz batean txertatuta. Eta badituzte erabilera bereziak ere.

1.11.1 Parentesien erabilera testuan txertatuta: tarteki bat zedarritzea

Testuan enuntziatu baten barnean kokatuta, informazio argigarri edo osagarri bat txertatzeko balio dute parentesiek (zerbait zuzentzeko, zehazteko, zabaltzeko edo zertzeladaren bat eransteko). Hau da, ez dira mezuaren parte nagusia, bigarren mailako zerbait baizik. Tartekatzen den sekuentzia hori zedarritzeko baliatzen dira parentesiak; hau da, tarteki bat sartzeko testuan²⁹. Parentesiek, beraz, bakartu egiten dute bigarren enuntziatu hori, tartekia, enuntziatu nagusiaren barnean.

Irekiera-parentesiak eten egiten du esaldia, diskurtsoa; amaiera-parentesiaren ondoren, esaldiak jarraitu egiten du. Beraz, parentesiak eta haien edukia kenduz gero, esaldiaren egiturak lehengoan irauten du.

Zedarritzen duten sekuentziaren lehen karaktereari atxikiak —irekiera-parentesiaren kasuan— eta azken karaktereari atxikiak —itxiera-parentesiaren kasuan— idazten dira,

²⁹ Parentesi artean dagoen testuari ere parentesi deritzo, singularrean.

tartean zuriunerik utzi gabe. Eta enuntziatu nagusiaren elementuetatik zuriune batez bereizten dira, hitz baten barnean idazten diren parentesiak direnean izan ezik.

Tartekatzen den sekuentzia hori zenbaki bat, hitz bat edo hitz-kate bat izan daiteke, edo perpaus oso bat edo paragrafo bat.

Ordu bietatik aurrera, haur gaixoa (ejem!) ikastera joan da berriro.

Eguraldiaren egoera (euria, ekaitza, hodeiak) irudikatzeko joera hori beste margolari askorengan ere ikus daiteke.

Hosto kizkurreko eta lore zuriko belar-landarea da akantoa (*Acanthus mollis*).

Azken hori ez da oraino osoki onartua (emazteak soldaduz beztiturik ikustea eskandalagarria zaie batzuei), eta keinu itsusiak ikusi dira.

Soneto sinbolista bat, *La Conque* aldizkarian (aldaera batzuekin) birritan agertu zena (1899ko martxoko eta azaroko zenbakiak).

Esaldi batzuk oso erraz pentsatzen ziren (Ez haut behar, ez hi ez beste inor. Ez dik zerikusirik hirekin, neurekin baino ez, eta ez diat azalpenik emateko gogorik!); baina ez zen hain erraza Parisera joan eta zapla botatzea.

OHARRA

Enuntziatu batean tartekiak sartzeko, parentesiez gainera, marra-parea eta komak baliatzen dira. Tarteki bat sartzeko zer marka hautatu zerbait subjektiboa da, neurri batean, baina, oro har, kontuan hartu behar da tartekia enuntziatu nagusitik bereiziago gelditzen dela parentesiak erabilia marra-parea erabilia baino (parentesiaren eta enuntziatu nagusiaren arteko deskonexio sintaktikoa handiagoa izan daiteke parentesiekin marra-parearekin baino), eta are bereiziago komak erabilia baino.

Parentesiak dira modurik orokorrena testu batean iruzkinak edo informazio osagarri edo argigarriak sartzeko. Gainera, tartekia oso luzea denean edo esaldi bat baino gehiago duenean, parentesiak bakarrik erabiltzen dira. Marra-parea ez da erabili ohi tarteki luzeetan, eta koma-parea ezin da erabili tartekiak barne-puntuazioa duenean (puntua, puntu eta koma, koma edo bi puntuak dituenen), testua ulergaitza bailitzateke. Paragrafoaren hasieran ere jar daitezke parentesiak; marra-parea, berriz, ez.

1.11.2 Parentesien erabilera testuan txertatuta: zehaztapen bat txertatzea

Daturen bat edo zehaztapen labur bat txertatzeko erabiltzen dira maiz parentesiak. Eginkizun horretarako ez dira erabiltzen komak edo marra-parea. Adibidez, enuntziatuan urte bat edo leku bat zehazteko, aipatu den obra baten egilea zein den adierazteko, sigla bat erakusteko —edo, alderantziz, sigla bat dagoen tokian beraren esanahia argitzeko— eta abar.

Gai honetaz, besteak beste, Rudolf de Rijk (1969) mintzatu da.

Atzo, 224 palestinar hil zituen Israelgo armadak Palestinan (183, Gazan).

1990ean *Uztaro* aldizkari zientifikoa sortu zuten; geroago sortu ziren historiari buruzko *Kondaira* aldizkaria (2003-2013), arkitekturari buruzko *Aldiri* aldizkaria (2009-2022) eta osasungintzari buruzko *Osagaiz* aldizkaria (2017).

Hartmut Esslinger diseinatzaile eta asmatzailea Simmersfeld herrian jaio zen (Alemania).

Eta aurkeztu ere, Iruñean aurkeztu zen geroztik *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLU) deituko zen lanaren lehenbiziko liburukia.

1973an sortu zen UEU (Udako Euskal Unibertsitatea).

Batzuetan perpaus beregainak elkartzen dira: *Badakizu, edo jakin nahi duzu nola?* (Agirre Asteasukoa); *Egia da, edo ez, edota nik amets egin ote dut?* (G. Arrue).

1.11.3 Parentesien erabilera testuan txertatuta: erreferentziak eta bidalketak

Liburu baten barnean, irudietara, laukietara edo obraren beste atal batzuetara bidaltzeko oharrak parentesi artean idatzita txertatzen dira testuan, bai eta beste obra edo iturri batzuetara edo bibliografiara jotzeko oharrak ere.

Adiera bat baino gehiago du *bide* izenak (ikus *Euskaltzaindiaren Hiztegia*).

Partitibo delakoa ere *(-r)ik* mugatzaile berezi bat dugu (ikus § 15.5).

Kalkulatu zer kantitate (bolumen) gehitu behar zaion ur destilatuari 1 L ozpin artifizial (ikus 4-7 taula) lortzeko.

Prostatako hipertrofiaren kasuan, oso ahul dauden gaixoetan, kateter suprapubiko bat jarriko da (22.2 irudia).

Datiboaren edo absolutiboaren arteko hautua euskalkiaren araberakoa da (ikus Fernández & Ortiz de Urbina 2010, 2012).

Bizkitartean, euskara baturako, *-i* berezkoa duten aditzetan bukaera atxikitzea gomendatzen du Euskaltzaindiak (ikus 28. araua): *jaiki* (ez **jaik*), *jarraiki* (ez **jarraik*), *atxiki* (ez **atxik*).

1.11.4 Parentesien erabilera testuan txertatuta: antzezlanetako oharrak

Antzezlanetako testuetan, antzerkigileak antzezpen-oharrak (didaskaliak) tartekatzen ditu informazio osagarria emateko pertsonaiei eta haien mugimenduei buruz, giroari buruz, keinu edo emozioei buruz, obra jendaurrean nola antzeztu behar den adieraztearren. Eszena baten hasieran (eszenografia deskribatzeko) edo elkarrizketen artean egoten dira (testua nola antzeztu behar den jakinarazteko). Ohar horiek parentesi artean jartzen dira, eta askotan letra etzanez idatzi ohi dira, testutik bereiztearren.

VLADIMIR: Burutik eginda hago! Aterpea behar diagu! (*Eskutik heltzen dio Estragoni.*) Hator. (*Tira egiten dio besotik. Estragonek amore ematen du hasieran, baina gero kontra egiten dio. Gelditu egiten dira.*)

ESTRAGON (*Zuhaitzari so eginez*): Tamalez ez diagu soka-mutur bat aldean.

VLADIMIR: Hator. Hozten hasi dik dagoeneko. (*Tira egiten dio besotik. Lehengo joko bera.*)

ESTRAGON: Oroitaraz iezadak soka-mutur bat ekartzeko bihar.

VLADIMIR: Bai. Hator nirekin. (*Tira egiten dio besotik. Lehengo joko bera.*)

(*Godoten esperoan.* Samuel Beckett. Itzultzailea: Juan Garzia)

1.11.5 Parentesiak hitz batean txertatuta: bi aukera ematea

Hitz bat edo termino bat bi modutara irakur daitekeela adierazteko, parentesi artean idazten da aukerakoa den hitz-zatia edo morfema. Parentesia hitzari atxikita jartzen da, zuriunerik utzi gabe.

Erlazio desorekatu horren proiektzio moduko bat aurkituko dugu sarritan: hizkuntza nagusia sendo(**ago**) eta menderatua ahul(**ago**).

Baze(**goe**)n Aldapeko sagarraren puntaren puntan txori baten txiruliruria entzun zuen gizon bat.

Etxea(**k**) txikia(**k**) d(**ir**)a.

Zikin(**a**) dago/daukazu gela.

Bestelako atributuetako batzuetan, berriz, sobera dago, berez, -**a(k)** mugatzailea.

Halaber erabiltzen dira parentesiak hitz batean linguistikako lanetan adierazi nahi denean elementu bat idazten dela baina ez dela ahoskatzen edo hitzun guztiek ez dutela ahoskatzen. Adibidez:

il(h)e; e(z) naiz; arrai(n); esango (d)izut; mutila(re)na.

1.11.6 Parentesiak hitz batean txertatuta: hitzak berreraikitzea

Hizkuntzalaritzako testuetan, testuak edo inskripzioak transkribatzean edo interpretazioak egitean, osorik ez dauden zatiak edo izan litezkeen zatiak parentesi artean idazten dira hitzari atxikita, zuriunerik gabe.

Luzaideko *Arbánta* interesgarria da, oinarrian *Harburuá(u)ndieta* dagoela irudi baitu.

Hipotesi honi ohar bat egin dakiok: badirudi -g- herskaria duten *a(u)gur* formak kultismoak direla fr. eta okzit. zaharrea (XII.-XIV. m.).

1.11.7 Parentesien erabilera bereziak: enumerazioak eta sailkapenak

Enumerazio eta sailkapenetan, batez ere bertikaletan (adibidez, testu baten atalak edo paragrafoak izendatzen dituzten elementuen zerrenda batean), elementu bakoitzaren aurretik letra xehe bat edo zenbaki bat jar daiteke hurrenkera adierazteko (letra xehea erabiltzen denean, letra etzana zein arrunta erabil daiteke, estilo-erabakia baita), eta itxiera-parentesia jartzen da hari atxikita. Ondoren datorren hitza letra larriz hasita idatz daiteke edo ez (ikus 200. arauko II. ataleko 1.4.2 puntua). Marrak ere balia daitezke (parentesirik gabe) letra edo zenbakien ordean (ikus 1.13.5.3 puntua). Adibidez:

Hortaz, honako elkarte moduok marratxoan idaztekoak dira:

- a) **Gorri-gorri(a)** ereduko bikoiztapen indargarriak
- b) **Apurka-apurka** ereduko bikoiztapenak
- c) **Seme-alabak, zuri-gorriak** ereduko elkarteak
- d) **Barra-barra, plisti-plasta** eta **zehatz-mehatz** eredukoak

Materialak baldintza hauek bete behar ditu:

- 1) toxikoa ez izatea
- 2) birziklagarria izatea
- 3) nahiko sendoa izatea
- 4) merkea izatea
- 5) etiketa apaingarriak jartzeko aukera ematea

OHARRA

Itxiera-parentesia bakarrik jarri beharrean, letra edo zenbakia parentesi artean ere jar daiteke. Hau da, goiko adibideetan: *a), b), c), d)*... zein *(a), (b), (c), (d)*... eta 1), 2), 3), 4) zein *(1), (2), (3), (4)*...

Parentesiaren ordeaz, puntua ere erabil daiteke (ikus 1.6.1.4 puntua).

1.11.8 Parentesien erabilera bereziak: (*sic*), (*bis*) eta (...)

Latinezko *sic* adberbioa parentesi artean idatzita erabiltzen da, testuan txertatuta, irakurlea ohartarazteko esaldi bat edo termino bat jatorrizko testuan aurkitu den bezala idatzita dagoela, edukiagatik beragatik harrigarria bada ere, edo ortografia desegokia edo ezohikoa duela nabarmentzeko. Hala, idazleak irakurleari jakinarazten dio ez dela transkripzio-akatsa, jatorrizko iturrian dagoen bezala idatzita dagoela baizik. Latinezko *sic erat scriptum* («hala zegoen idatzia») esaldiaren lehen hitza da.

Mari Karmen koskorretaraino (*sic*) egina dago bere gizon-gauzarekin beti xextran eta kalapitan ibiltzeaz.

Bertsozale Elkarteak 1991. urtean plazaratu zuen *Bapateko bertsoen transkribapenerako erizpideak (sic)* izeneko txostena.

Musika-partituretan eta kanten testuetan latinezko *bis* hitza («bi aldiz») letra etzanez eta parentesi artean idatzita erabiltzen da ahapaldi bat edo bertso-lerro bat errepikatzen dela adierazteko.

Garaziko herria benedika dadila (*bis*)
 euskarari eman dio behar zuen tornuia (*bis*)
 Euskara, euskara, jalgi hadi kanpora! (*bis*)

(...)

(Xabier Leteren *Kontrapas* kanta)

Sebastian bat bada zeruan
Donostia bat bakarra munduan
hura da santua ta hau da herria
horra zer den gure Donostia!
Irutxuloko, Gaztelupeko
joxemaritar zahar eta gazte (*bis*)

(...)

(*San Sebastian martxa*)

Etenpuntuak parentesi artean idatzita erabiltzen dira adierazteko aipatutako testuaren parte bat ezabatu dela. Parentesi karratuak ere erabiltzen dira, batez ere beharrezkoa denean nabarmentzea ezabatutako pasartea ez dagoela ezabatuta aipatzen ari den jatorrizko testuan (ikus 1.10.2.7 puntua).

Douglas Biberrek honela adierazi du: «Idazkeraren iraunkortasunak (...) antzinako belaunaldien jakintza ‘okerra’ jartzen digu aurrez aurre».

«Behin batez, herri txiki batean, zapatari txiki bat bizi zen, ilarraren tamainako seme bat zuena. (...)»

1.11.9 Parentesien erabilera bereziak: formulak

Formula matematikoetan, eragiketa-segida batean, parentesiak baliatzen dira adierazteko parentesi arteko eragiketa matematikoek lehentasuna dutela parentesitik kanpo daudenekiko, hau da, eragiketak zer hurrenkeratan egin behar diren adierazteko. Segida konplexua denean, parentesi karratuak baliatzen dira jada parentesi artean sartutako eragiketak beste batzuekin elkartu eta gainerakoetatik bereizteko. Horretaz gainera, funtzioetan aldagaia adierazteko ere erabiltzen dira parentesiak.

$$x = a[(b + c) + (d - e)]$$

$$[(7 + 2) \times (9 - 7)] + (10 - 7)$$

$$f(x) = \sin x$$

1.11.10 Parentesien puntuazioa

Parentesiaren barnean idatzitako testua enuntziatu nagusitik aparteko zerbait denez, puntuazio autonomoa du.

Neska batzuek (guttiegi nire iduriko!) beren gustukoa atzematen ninduten.

Ipuinak badu miztoa, eta suge-miztoa gainera. Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (askoren edo gutxi batzuen?) gogoko izango; hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta gupidarik gabe azaldu nahi luke.

Eta hainbeste esaera gogoangarrik («koldarra ehun bider hiltzen da; bihoztunak, ordea, ez du heriotza behin baino gehiago dastatzen») gehiago merezi zuen.

Gauza bera gertatzen da izenlagunekin: *fakultateko eta hiriko kargudunen aldeko hitzak* (beste bidea, gramatikaren aldetik huts gabekoa izanagatik, korapilatsuagoa da: *fakultateko kargudunen eta hirikoen aldeko hitzak*).

Esan bezala, azterlanetan sailkapen bat baino gehiago aurki badaiteke ere, hemen emango dugun hau nahiko onartua dagoela esan daiteke (Martín Zorraquino eta Portolés 1999. Bada beste bat, berriagoa, Loureda-k eta Acín-ek egina, baina erabilgarriago ikusi dugu aurrekoa). Esan dezagun, bestetik...

Izan ere, faktore horien araberakoak izango dira, askotan, erabili beharreko materialaren propietateak (egitura, opakutasuna...), ontziaren itxitura-mota eta egokitzapen sekundarioa.

Era berean, parentesiak ez dio eragin behar enuntziatu nagusiaren puntuazioari. Alegia, parentesirik ez balego bezala puntuatu behar da enuntziatu nagusia: parentesiagatik ez da inolako puntuazio-markarik jarri behar parentesirik ez balego jarriko ez litzatekeenik.

(EGOKIA)

Izebaren autoa (hiru ate ditu eta nahiko zaharra da) hondatuta dago.

(DESEGOKIA)

Izebaren autoa (hiru ate ditu eta nahiko zaharra da), hondatuta dago.

1.11.11 Parentesiak parentesien barnean

Jada parentesi artean zedarrituta dagoen testu batean beste zerbait zedarritu behar bada, marra artean zedarritu behar da, parentesien artean beste parentesirik ez jartzeko. Eta, alderantziz, marra artean zedarrituta dagoen testu batean tarteki laburren bat sartu behar izanez gero, parentesiak baliatuko dira.

«Un golpe **nuevo**» guztiz barregarria da erdaraz ere (non eta ez garen ari boxeolariren batek-edo asmatu-rikoko kolpe zinez *berri* —orain artekoak ez

bezalako— batez, jakina), baina «un **nuevo** golpe» moldeak bestelako adiera bat hartzen du: kuantifikazio-adiera.

Soil-soilik, alde batetik, batzordekideei —X. Mendiguren Bereziartu (Euskal Editoreen Elkarteak izendatua), J.R. Zubimendi (Euskaltzaindiak izendatua) eta J. Garzia (EIZIEk izendatua)— eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, eta bestetik, beti bezala, zuri, irakurle saiatu horri, afera honetan eragile izan zaitezela eskatu nahi dizugu.

Dena dela, uniformetasunari eustearren, onargarria da parentesi artean beste parentesi bat jartzea baldin eta testuaren hasieran parentesi artean doan hitz bat errepikatu behar bada.

Guk **(on)**iritzia eskatu nahi genien (eta, **(on)**iritzia ematen ausartzen ez baziren, behintzat iruzkinen bat egitea), baina ez genuen aukerarik izan haiekin mintzatzeko.

1.11.12 Parentesiak parentesien ondoren

Ezin da desegokitzat jo parentesi baten ondoren beste bat agertzea, oso estetikoak ez bada ere; zenbaitetan, hala nola erreferentziak ematean edo bibliografietan, non denak molde berean eman behar baitira, ez dago saihesterik.

Hizkuntzalarien artean bi kategoria mota bereizi izan dira, ez eztabaidarik gabe, anitzetan ez baita erraza batzuen eta besteen arteko mugak bereiztea: lexikoak (izena, adjektiboa, aditza...) eta funtzionalak (postposizioak, menderagailuak, determinatzailea, komunztadura, denbora...) (ikus § 11.3).

Jonek idatzi du atelikoa da (ez dakigu idazketa-lana bukatu duen), baina *Jonek gutuna idatzi du* telikoa (gutunaren idazketa bukatu du) (Chung & Timberlake 1985).

Beste batzuetan, ordea, testua erraz molda daiteke bi parentesi elkarren ondoan ez gertatzeko.

(JATORRIZKOA)

1798an, Benjamin Thompson (**Rumford-eko kondea**) (**1753-1814**) amerikar zientzialariak frogatu zuen beroa etengabe sor daitekeela marruskaduraren bidez.

(MOLDATUA)

1798an, Benjamin Thompson (**Rumford-eko kondea**) amerikar zientzialariak (**1753-1814**) frogatu zuen beroa etengabe sor daitekeela marruskaduraren bidez.

(JATORRIZKOA)

Zenbat eta handiago izan ezkerreko eta beheko izkinatik eskuineko eta goiko izkinara arteko distantzia (**bai horizontalki eta bai bertikalki**) (**hau da, zenbat eta elektronegatibotasun-alde handiagoa egon**), orduan eta ionikoagoa da lotura.

(MOLDATUA)

Zenbat eta handiago izan ezkerreko eta beheko izkinatik eskuineko eta goiko izkinara arteko distantzia, **bai horizontalki eta bai bertikalki** (**hau da, zenbat eta elektronegatibotasun-alde handiagoa egon**), orduan eta ionikoagoa da lotura.

(JATORRIZKOA)

Horrela, ikatza Axial-eko meatzetik (**Colorado**) (**garaiera = 2000 m**) Los Angelesera (**itsas mailan**) garraiatzen da; hots, 2000 km-ko bidea egiten du ikatzak.

(MOLDATUA)

Hala, ikatza Axial-eko meatzetik (**Colorado**) **–2000 m-ko garaieran–** Los Angelesera garraiatzen da **–itsas mailan–**; hots, 2000 km-ko bidea egiten du ikatzak.

1.11.13 Parentesiak eta ohar-deia

Ohar-deia itxiera-parentesiaren aurretik jartzen da parentesi barneko azken hitzari bakarrik dagokionean. Parentesiaren barneko testu osoari dagokionean, itxiera-parentesiaren ondoren jarri ohi da.

Galderetan, *ala* da hobestekoa elkar baztertzen duten aukerak adierazteko, *edo* zilegi izanik ere (*Gramatika bideetan*⁴).

⁴Goenaga, Patxi: *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia, 1980.

Zenbatzailea duelarik, *geroago* forma hobesten da (*zerbait geroago, lau urte geroago, askoz geroago, zortzi urtez geroago*)¹³.

¹³ *Baino*-rekin ere erabiltzen da inoiz: *Hau baino geroago hasiak* (Villasante); *Gehiena loratu zen kazkabarra baino geroago*.

1.11.14 Parentesia eta letra larriak

Parentesi artean dagoen testuaren lehen hitza ez da letra larriz hasita idazten, salbu eta irekiera-parentesiaren aurrean enuntziatuaren amaiera adierazten duen beste ortografia-markaren bat dagoenean (halaber idazten da letra larriz hasita irekiera-parentesiaren ondorengo hitza izen berezia bada, jakina).

Behingoz bederen, zinemak, ispilu (**zeren** ispilu gero?) izateari utzirik, amets-ateak ireki dizkigu, Albert Larrorisseri eskerrak.

Bagenituen lehen euskaraz sasijakintsuak, sasiletraduak eta (**zergatik** ez esan?) sasikumeak.

Praktikan, haatik, hizkuntzaren molde eta erabilera gehienen egokitasunari buruzko adostasun zabal samarra aurkitzen dugu, oro har (**hiztunen** intersubjektibotasunez lortzen da adostasuna).

Egile klasikoak euskal grafia modernoan eman ditugu (**Elizanburu**, **Etxepare** eta abar).

Eugeni: Ba nik ezin gauza bera esan! (**Anderearen besoetan amilduz, mimontzi.**) Bekatu ugari egin duzula diozu, laztana, baina nik, Jaungoikoari eskerrak, bakar bat ere ez.

Eiderrek uste zuen bere lagun Idoiarekin jokatuko zuela. (**Ez** zekien Idoia ez zegoela hirian.)

Beste norbaitek erabiliko balu, onartuko genuke? (**Zorrotzago** jokatu zeure buruarekin lagun hurkoarekin baino.)

1.11.15 Parentesia eta gainerako ortografia-markak

Enuntziatu nagusiaren puntuazioari ez dio eragiten parentesi bat sartzeak. Enuntziatu nagusian koma bat, puntu bat, puntu eta koma bat edo bi puntuak jarri behar badira parentesia txertatzen den tokian, parentesiaren ondoren jarriko dira puntuazio-marka horiek, itxiera-parentesiaren ondoren eta ez irekiera-parentesiaren aurretik.

Halako material asko du irakurleak eskuragarri sarean (ez hainbeste euskaraz baina).

Hitzak eraikitzeko (baita sintagmak eta perpausak ere), oinarrizko bi morfema mota erabiltzen dira.

Hizkuntza bakoitzak modu jakin batean egiten ditu gauzak: batzuek morfologikoki markatzen dituzte aditzen denborak (ingelesak, esaterako, bi denbora besterik ez ditu markatzen); beste batzuek 'genero' kategoria askotan sailkatzen dituzte izenak.

Diapasoiaren mugimendua oso sinplea da (aurrera eta atzera, penduluaren mugimendua bezala), eta, horregatik, sortzen duen hots-uhina ere oso bakuna da.

Hitzei buruz dakiguna hobeto argitzeko, har dezagun ziur asko inork ezagutzen ez duen ingelesezko hitz bat (asmatua da): *frimp*.

Irekiera-parentesiaren aurretik harridura-marka, galdera-marka edo etenpuntuak jar daitezke.

Areago, erdal *-ario* ere atzizki honen bidez moldatu dute idazle batzuek zenbait urtetan: *notari, bikari, sekretari...* (*ministrari* ere erabili izan da azken boladan).

Horiek horrela, zenbateko hornitze-emia espero dezaket % 50eko errendimenduan lan eginez? (Errendimendua hornitze-emari erreal zati teorikoa da.)

Eta itxiera-parentesiaren ondoren jartzen dira galde- edo harridura-perpaua edo etenpuntuak enuntziatu nagusiari badagozkio eta ez parentesi barnekoari.

Beste hiztun batek hitz egiten duen aldi berean hitz egitea noiz da etena (hitz egiteko aukera kentzea) eta noiz gainjartze lagungarria (interesa eta gogoia erakusteko besteekin batera hitz egitea)?

Alde ederra (dago)!

Hitz bati esaldian funtzioa ematen dioten kasu-markak bat etortzen dira batzuetan: *hizkuntzak* (absolutibo plurala, ergatibo singularra, ergatibo mugagabea), *Eibarren* (inesiboa, genitiboa)...

OHARRA

Parentesi arteko harridura- eta galdera-markak —(!) eta (?)— zertarako eta noiz erabiltzen diren 1.15.9 puntuan azalduta dago (1.15.9 Galdera-markaren eta harridura-markaren beste erabilera batzuk).

Puntua irekiera-parentesiaren aurrean jar daiteke baldin eta parentesi arteko testua esaldi osoa bada.

Paul Valéry-ren gaitzirizpen bat, Jacques Reboul-en *Errealitatea deusezteko* orrietan. (Gaitzirizpen hori, derragun parentesi artean, Valéry-ri buruz benetan zuen aburuaren alderantzi doi-doia da. Hark hala ulertu zuen eta ez zen izan bien adiskidetasun aspaldikoa galtzeko arriskurik.)

Perfekzioa ez da beharrezkoa. (Voltairek esana da: «onena, onaren etsai».)

Lapurrak dira, gero. / Lapur galantak dira. (*Lapur batzuk dira.)

Parentesia beste puntuazio-marka bikun batekin (komatxoa, marra edo parentesi karratua) edo gehiagorekin batera gertatzen bada, azkena ireki dena izango da lehenengo itxiko dena.

Adibidez, AEBko ingelesean *gotten* erabiltzea *get* aditzaren lehenaldiko partizipio gisa, Britainia Handiko ingelesean erabiltzen den *got* formaren orde (esaterako, *She has gotten used to it* —AEBko ingelesean— eta *She has got used to it* —Britainia Handikoan—).

Hizkuntza askotan, izenak hainbat klasetan sailkatzen dira, eta gainerako hitzek —esaterako, adjektiboek, determinatzaileek, izenordainek edo aditzek (edo haien arteko konbinazioek)— izenekin komunztatu behar dute.

Azterketa zinematografikoetarako, ikus Brian Henderson-en «Tense, Mood, and Voice in Film (Notes After Genette)» artikulua.

Liburuak aholku argi ugari ematen ditu produkzio-fase guztiei buruz: hasi gidoia idazteko fasetik («Erabili kointzidentzia filmeko pertsonaiak arazoetan nahasteko, ez arazoetatik libratzeko») eta muntaketa-faseraino («Eszena jakin baten geografiak berehalaxe izan behar du sinesgarria ikus-entzuleentzat»).

Antzeko zerbait esan daiteke Egiptoko XI. eta XII. mendeetako inperio fatimitaz; edo Kordobako Kalifa-herria (Medina Azara [X. mendea], Averroes eta Maimonides [XII. mendea]) edo Granadako Erresuma goien-goienean zeuden garaiari buruz.

Aminoazido komertzial garrantzitsuena azido glutamikoa da; elikagaien zaporea areagotzeko erabiltzen da [monosodio glutamatoa (MSG)].

1.12 Parentesi karratuak

Parentesi karratua ortografia-marka bikun bat da, bi forma baititu. Parentesi-mota bat da, baina marrik ez dira kurbatuak, angeluzuzenak baizik. Lehenengo formari *irekiera-parentesi karratu* deritzo (ezkerreko parentesi karratua edo hasierako parentesi karratua); bigarrenari, *itxiera-parentesi karratu* (eskuineko parentesi karratua edo amaierako parentesi karratua).

IREKIERA-PARENTESI KARRATUA	PARENTESI KARRATUAK	ITXIERA-PARENTESI KARRATUA
[[]]

Parentesi karratuak testuan txertatuta edo hitz batean txertatuta erabil daitezke. Eta badituzte erabilera berezi batzuk ere.

Oro har, parentesi karratuek testuari kanpotik egindako esku-hartze bat adierazten dute, jatorrizkoa ez dena; parentesiak, berriz, egilearen esku-hartzetat har daitezke. Horregatik, parentesi karratuak ikusita, irakurleak badaki barnean dagoena ez dela jatorrizko egilearena.

Parentesiak bezala idazten dira: zedarritzen duten sekuentziaren lehen karaktereari atxikita —irekiera-parentesi karratuaren kasuan— eta azken karaktereari atxikita —itxiera-parentesi karratuaren kasuan—, tartean zuriunerik utzi gabe. Eta enuntziatu nagusiaren elementuetatik zuriune batez bereizten dira, hitz baten barnean idazten diren parentesi karratuak direnean izan ezik. Parentesi karratuek zedarritzen duten sekuentzia ez da letra larriz hasten, irekiera-parentesi karratuaren aurretik punturik ez badago.

1.12.1 Parentesi karratuen erabilera testuan txertatuta: zehaztapen bat edo iruzkin bat txertatzea

Beste norbaitek idatzitako edo esandako zerbait berrikustean, pertsona batek —askotan, editorea, itzultzailea edo kazetaria izaten da— parentesi karratuak erabil ditzake testuan zehaztapen bat sartzeko, informazio argigarri edo osagarri bat txertatzeko, errore baten berri emateko edo zerbait ezabatu dela adierazteko.

Parentesi karratuak baliatzen dira aipu baten barnean aipua jaso duenak sartzen dituen azalpenak edo iruzkinak txertatzeko. Hala, garbi uzten da ez direla aipuaren barnekoak, hala balira parentesi edo marra artean adieraziko bailirateke.

Kristeller-ek adierazten duen moduan (1951 eta 1952, 182), «Greziako autoreak artea [*tekhnea*] eta natura aurrez aurre jartzen hasi zirenean, giza jardueretan pentsatu zuten».

Hala ere, nabarmendu zuenez, «herrixka primitiboaren kondizioak galduak izateak baina oraindik *hiriak planifikatzeko sistemarik ez izateak*» [letra etzana gehitu da] antolatzen zuen etxeen multzokatzea.

Oso gogoko nuen entzutea nola egiten zituen Mark Sandrich-ek [film-zuzendaria] Fred Astaire-ren film musikaletako grafikoak, dantza-saioak non sartu jakiteko.

«Gaur [atzo] ez dugu ondo jokatu».

Parentesi karratuek adierazten dute aipu batean hitz bat aldatu edo erantsi dela testuingurutik kanpo ere ulergarria izan dadin.

«Antzinakoen artean hainbesteko agintea zuen ordena horrek [gramatikariak], ezen idazle guztien zentsoreak eta epaileak gramatikariak soilik baitziren, eta idazleek, horrenbestez, kritikari ere esaten zieten» (Wellek, 1963, 26).

John Murrayk, 1845eko *Handbook for Travellers* lanean, Madrili buruzko erdeinuzko hitzak idatzi zituen: «Madril Manzanares ibaiaren aldameneko muino itsusi batzuetan eraikita dago, eta ibaiak udan hain ur gutxi du, ezen ez baitu merezi ibai esatea ere; [Madril] ez da ez hiri ez antzeko ezer».

Parentesi karratuak erabiltzen dira, halaber, parentesi artean dagoen testu batean zehaztapen bat sartu behar denean, parentesi baten barnean beste parentesi bat ez jartzearren (ikus 1.11.12 puntua).

Rohmerrek, ordea, ez zuen galdu bere ipuin ironikoei esker mundu osoan zuen ospea (esate baterako, *Pauline à la plage* [1982] eta *Les nuits de la pleine lune* [1984]).

Hala ere, sufre elementala eta sufredun beste konposatu batzuk (tiosulfatoa, sulfitoa edo dimetil sulfoxidoa [DMSO]) erreduzitzeko gaitasuna oso hedatuta dago kimioorganotrofoen artean.

1.12.2 Parentesi karratuen erabilera testuan txertatuta: [sic] eta [...]

Parentesi karratuen barnean idatzitako *sic* adberbioa erabiltzen da irakurleari jakinarazteko testuan ageri dena jatorrizkoa dela eta ez dela idazte-akatsa. Parentesiak ere erabiltzen dira horretarako, baina parentesi karratuak jarrita garbiago gelditzen da ez dela jatorrizko testuarena; batez ere, aipu baten barnean denean (ikus 1.11.8 puntua).

Sobrevila akordio batera iritsia zen Hearst Metrotone albistegiarekin operadore bat Euskadira bidaltzeko, eta, geroago, Parisen *Guernika* [sic] (1937) eta *Elai Alai* (1938) dokumentalak egin zituen.

Honela esan zuen: «Prozesua geldoegia da giza ihardueren [sic] eragina zuzendu ahal izateko».

Testuaren parte bat falta dela adierazteko ere, etenpuntuak idazten dira parentesi karratuen artean sartuta. Hala, parentesi artean baino nabarmenago adierazten zaio irakurleari hori ez dela aipuaren jatorrizkoa (ikus 1.10.2.7 puntua).

«Edonork gogoratuko ditu orduantxe, European behintzat, guztiz nagusiak ziren bi sentipenak [...]: harridura eta errezeloa».

1.12.3 Parentesi karratuen erabilera bereziak: transkripzio fonetikoak

Hitz baten, hitz-segmentu baten edo hitz-multzo baten ahoskera adierazi nahi denean (transkripzio fonetikoak), sinbolo fonetikoak erabiltzen dira eta parentesi karratu artean idazten; barra etzanak ere erabiltzen dira, transkribatutakoak balio fonemikoa duela adierazi nahi bada³⁰.

Euskarazko *onddoa* hitzaren transkripzio fonetikoa [onɔoa] da.

1.12.4 Parentesi karratuen erabilera bereziak: filologia eta paleografia

³⁰ Ikus barra etzanen erabilera 2.3.8 atalean.

Filologian eta paleografian, eskuizkribuen transkripzioetan, parentesi karratuak baliatzen dira adierazteko jatorrizko testuan falta den zerbait sartu dela (interpolazioak). Parentesi angeluarrak ere erabili izan dira horretarako.

[G]alidila Vnçueta ta Vergara,
 [Ç]aldibarrec bere partea debala,
 [Ar]amayo, suac erre açala,
 [T]a sumi a[...]la Gurayarra,
 Cerren ceuren jauna ezcencan empara³¹.

1.12.5 Parentesi karratuen erabilera bereziak: formulak

Formula matematiko eta kimikoetan, eragiketa matematikoak taldekatzeko erabiltzen dira, parentesiekin konbinatuta, jada parentesi artean dauden elementuak elkartzeko (ikus 1.11.9 puntua).

$$[(7 + 2) \times (9 - 7)] + (10 - 7)$$

1.12.6 Parentesia eta gainerako ortografia-markak

Enuntziatu nagusiaren puntuazioari ez dio eragiten parentesi karratuak txertatzeak. Gainerako ortografia-markekin elkartzeari dagokionez, parentesi karratuek parentesiek bezala jokutzen dute (ikus 1.11.15 puntua).

1.13 Marra

Marra lerro horizontal bat da (—), letren altueraren erdialdean kokatzen dena. Ez da nahastu behar marratxoarekin (-), minusarekin (−)³², marra ertainarekin (–)³³ edo beheko marrarekin.

MARRA	MARRATXOA	MINUSA	MARRA ERTAINA	BEHEKO MARRA
—	-	—	—	—

³¹ Arrasateko Erreketa baladaren hasiera (*Textos arcaicos vascos*, 82. or.)

³² Minus sinbola (-) marratxoa (-) baino goraxeago agertzen da, zenbakiekin hobeto konbinatzeko. Zenbaki negatiboekin eta kenketetan erabiltzen da.

³³ Marra ertaina (marra txikia ere esan dakiok; ingelesez, *en dash* deritzo) marratxoa baino handiagoa da, eta marra baino txikiagoa.

OHARRA

Hauek dira marka horien kodeak Unicode estandarrean eta Windows-1252 sisteman.

MARKAREN IZENA	UNICODE	WINDOWS-1252	SINBOLOA
marra	U+2014	Alt + 0151	—
marratxoa	U+002D	Alt + 45	-
minusa	U+2212	Alt + 8722	–
marra ertaina	U+2013	Alt + 0150	—
beheko marra	U+005F	Alt + 95	—

Marra marka bikun moduan (marra-parea) zein marka bakun gisa erabil daiteke. Marra-parea erabiltzen denean, parentesiak bezala idazten dira; hau da, marren artean dagoen testuari atxikiak, tartean zuriunerik utzi gabe, eta enuntziatu nagusiaren elementuetatik zuriune batez bereizirik. Alabaina, itxiera-marraren ondoren beste puntuazio-marka bat dagoenean, ez da zuriunerik uzten bi marken artean.

OHARRA

Euskaraz, ez da orain arte zehaztu marra-parea erabiltzean marrek zedarritzen duten sekuentziari atxikiak erabili behar diren ala ez (adibidez, galdera-marka eta harridura-marka bakunak direla, eta ez bikunak, jada 1971n ezarri zuen Euskaltzaindiak). Hizkuntza guztiek ez dute berdin jokatzeko puntu honetan: gaztelaniaz eta katalanez, adibidez, barneko testuari atxikiak eta kanpoko testutik bereiziak idazten dira (xxx —xxx— xxx); frantsesez, barneko eta kanpoko testutik bereiziak (xxx — xxx — xxx); ingelesez, barneko eta kanpoko testuari atxikiak (xxx—xxx—xxx).

Beharrezkoa da, hizkuntza idatziaren batasunerako, guztiz konbentzionala den puntu honetan jokamolde bakarra izatea. Horregatik, azken 50 urteetako eta gaur egungo erabilera nagusia kontuan izanik, marka bikun guztietan (parentesiak, parentesi karratuak, marra-parea eta komatxoak) berdin jokatzeko da Euskaltzaindiaren hautua, hots, zedarritzen duten testuari zuriunerik gabe atxikiak eta enuntziatu nagusitik zuriune batez bereiziak idaztea. Itxiera-markaren ondoren datorrena beste puntuazio-marka bat bada, ez da zuriunerik uzten bi marken artean.

1.13.1 Marra-parearen erabilera tarteki bat zedarritzeko

Parentesien antzera, marra-parea ere erabil daiteke enuntziatu nagusiaren barnean bigarren enuntziatu bat txertatzeko, informazio argigarri edo osagarriren bat ematearren. Tartekatzen den sekuentzia hitz bat edo hitz-kate bat izan daiteke, edo perpaus bat, baina marra-parea ez da erabili ohi oso tarteki luzeetan; horretarako, parentesiak baliatu ohi dira.

Kale- eta karrika-izenak eta kidekoak —bide, plaza, errepide, pasealeku eta abarren izenak— adierazteko hitza da *odonimoa*.

Prozedura hori, nominalizazio deritzona —eta, oro har, adierazkizun guztiak izen kategoriara ekartzeko joera—, hain da erabilia auzo-erdaretan —gero eta erabiliagoa erregistro gehienetan, neurririk gabe askotan—, non ia *beste hizkera* alternatibo bat bilakatzen baita maiz.

Marren arteko testuak bere puntuazioa du, enuntziatu nagusiarenetik aparte. Eta marra arteko testua enuntziatu nagusiaren amaieran ere jar daiteke, puntu eta komaren aurrean edo puntuaren aurrean edo bi puntuen aurrean, bai eta amaierako puntuaren aurrean ere, horregatik itxiera-marra kendu gabe.

Zibilizazio txinatarra baino askoz geroagoak izan ziren arren, hiru kultura amerikarrak ere hilik daude —Mexikokoa, Erdialdeko Amerikakoa eta Perukoa—: Espainiako konkistatzaileek era basatian suntsitu zituzten XVI. mendearen hasieran.

Izan ere, XX. mendeko Euskadi izango zenaren oinarriak ezarri ziren, batetik, Industria Iraultza hastean —lehenik Bizkaian, eta geroago Gipuzkoan— eta, bestetik, 1980ko hamarkadaren bukaeran eta 1990ekoaren hasieran masa-politika berria abian jartzean —Sagastaren gobernu liberalak hartutako bi neurrik bideratu zuten: gizonezkoentzako sufragio unibertsalak eta Elkartze Lege berriak—.

Argitaraldi honetako kapitulu berriei dagokienez, aipamen garrantzitsuak egin behar ditut: J. H. Parry, *The Spanish Seaborne Empire* —9. kapitulua—; eta Besim Selim Hakim, *Arabic-Islamic Cities* —11. kapitulua—.

1.13.2 Marra-parearen eta parentesiaren erabilera konbinatua: tartekiak tartekien barnean eta marrak eta parentesiak elkarren ondoan

Marra artean dagoen testu baten barnean beste tarteki bat sartu behar bada, parentesi artean sartu behar da; hau da, marra arteko testu baten barnean ezin da berriro beste marra-pare bat sartu. Eta, alderantziz, parentesi artean dagoen testuan tarteki bat sartzeko, marra-parea baliatzen da. Bestalde, marra arteko testua parentesi artean baldin badago, parentesi karratuak erabil daitezke marra-parearen barneko testuan tarteki bat sartzeko.

Beraz, meteorizazio kimikoa da lurreko materialak deskonposatzea hainbat erreazioen bidez —batik bat, disoluzioa (adibidez, kuartzoa), hidrolisia (adibidez, feldespatoa) eta oxidazioa (adibidez, olibinoa)—, eta, horren ondorioz, espezie ionikoen eta koloidalaren disoluzioa sortzea.

Ordura arte erabiltzen ziren sistemak (nagusiki bi ziren: Wade-Giles eta «Zhuyin Zimu» izenekoa —ingelesez Mandarin Phonetic Symbols [MPS]—) ordezkatzeko jaio zen sistema berria.

Elkarren ondoan ere txerta daitezke parentesia eta marra-parea, enuntziatu berean.

Ezekoa konparazioari berari dagokionean, desberdintasunezkoa bilakatzen da alderaketa: *Maite zaitugu, munduan inor ez adina* (Txirrita) —beste guztiak baino gehiago, alegia—.

1.13.3 Marra-parearen erabilera aipuetan

Zuzeneko estiloa erabiltzen denean, idazlea marra-parez balia daiteke baldin eta marra artekoa tarteki dela adierazten duen aditz bat (*esan, aitortu, iradoki, proposatu...*) erabiltzen badu.

Halatan, alfer-alferrik izan ziren sindikatu-antolakuntzako lan guztiak: «Sozialistek langileei lanbide-elkarteetan izena emateko egindako deiak ez zuen erantzun handirik izan —dio Carreterok—, eta pixkanaka hoztu egin zen haien garra; gehienek laga egin zituzten beren elkarteak, eta, luzaroan ozta-ozta iraun ondoren, hiltzen utzi zieten».

Adibide horretan, marra artean dagoen *esan* aditzak (*dio*) garbi uzten du tartekia aipuz kanpoko dela.

Adibide honetan, berriz, marra artean dagoen tartekia aipuaren beraren parte da:

Carretero buruzagi sozialista moderatuaren arabera, «langileen artean zabaldu zen, 1890ean bezala, aurrerantzean ugazabei egin beharreko eskaerak erraz-erraz lortuko zirelako ustea, orduko hartan inola ere ez baitzen langile-elkarteen eraginik nabaritu —edo oso gutxi—; hortik ondorioztatu zuten elkartek ez zirela beharrezkoak langile-klasearentzat hobekuntza moral eta materialak lortzeko».

Horregatik, aipuaren barnean tarteki bat sartzeko, hobe da parentesi karratuak baliatzea, garbi uzteko ez dela aipuaren parte (ikus 1.12.1 puntua).

Bestalde, idazleak aipuari buruz sartu nahi duen zehaztapena aipuaren ondoren jartzen denean, ez da marra-parea edo parentesi karratua erabiltzen, eta komaz bereizten da aiputik.

«Dena dela, azalpenak eskatu izanak ez du esan nahi proposamenarekin ados ez gaudenik», azaldu du.

1.13.4 Marra-parearen erabilera narratzailearen zehaztapenak sartzeko

Elkarrizketa gisako narrazioetan, marrak erabiltzen dira narratzailearen iruzkinak eta zehaztapenak sartzeko, baina ez dira kasu guztietan bi marra erabiltzen. Zenbait kasu partikular bereizi behar dira³⁴.

- Narratzaileak pertsonaiaren mintzoa eteten duenean, marra artean jartzen dira narratzailearen hitzak.

—Berrogei urte baino gehiago joan dituk —hasi zen berriz— Bosforo ertzeko taberna judu zahar hartan elkar ezagutu genuenetik.

—Ez nian uste —erantzun zuen Bärlachek— gizaki bat halako apustu bati eusteko gai izango zenik.

—Poliziak —Lutzek orduan— hilketa-kasu gehientsuenak argitzen ditik; hala ziotek estatistikek.

- Narratzailearen iruzkina enuntziatu oso bat ez denean edo adierazpen-aditz batekin hasten denean (*adierazi, adostu, agertu, agindu, aholkatu, aipatu, aldarrikatu, argitu, asmatu, azaldu, berretsi, deklaratu, entzun, erabaki, erantzun, erregutu, esan, eskatu, galdetu, hitzeman, idatzi, igarri, ihardetsi, iragarri, itaundu, jakinarazi, kontatu, mehatxu*

³⁴ Adibide gehienak Friedrich Dürrenmatten *Epailea eta haren borraroa* liburutik hartuak dira (Erein&Igela, 2018; itzultzailea: Idoia Santamaria Urkaregi).

egin, oihu egin, pentsatu, salatu, sinetsi, ukatu, zin egin...), letra xehez idazten da, bai eta aurretik etenpuntuak edo galdera- edo harridura-marka badago ere.

—Argia, azkar! —xuxurlatu zion Bärlachek Tschanzi.

—Nor arraio zara zu? —garrasika potoloak.

Aizu, baina horregatik ez dugu ba... —xuxurlaka Mirandak—. Ez hola hitz egin.

- Narratzaileak sartutako informazioaren ondoren pertsonaiaren mintzaldiak jarraitzen ez badu, ez da itxiera-marrarik jartzen. Adibidez:

—Nora joan da, bada, Schmied jauna? —galdetu zuen emakume lodikoteak, gelako atea irekiaz batera.

—Atzerrira —Bärlachek, sabairantz begira.

- Narratzailearen iruzkinaren ondoren pertsonaiak mintzatzen jarraitzen badu eta puntu bat, koma bat, puntu eta koma edo bi puntu jarri behar badira, itxiera-marraren ondotik jartzen dira. Galdera-marka, harridura-marka eta etenpuntuak, aldiz, irekiera-marraren aurretik.

—Schmiedek lanera joan behar izan zuen bart —esan zion Bärlachek—; bat-batean atera behar izan zuen, eta eskatu dit gauza batzuk bidaltzeko. Beraz, haren gelara sartu behar dut, Schönler andrea.

—Arin ibili beharko duk, Bärlach —besteak erantzun—. Ez zaik denbora askorik gelditzen. Beste urte bat eman diate medikuek, berehala operatuz gero.

—Ez huen uste apustuari eutsiko nionik —barrez besteak—, biharamunean sekulako ajearekin esnatu ginenean taberna huts hartan, hi banku erdi-hautsi baten gainean eta ni, berriz, artean pattarrez bustirik zegoen mahai baten azpian.

—Ez diat sekula pentsatu hori —erantzun zuen komisarioak, eta gero, besteak pipa nola pizten zuen begiratuz, ezaxola—: ezin izan ditiat inoiz frogatu hik egindako krimenak.

—Burutik hago! —egin zuen garrasi Gastmannek bat-batean komisarioaren aldera; hain ozen egin ere, ezen biratu egin baitziren oinezko batzuk—. Burutik hago!

—Hala uste dut —Tschanzek erantzun—. Atxilotzen dudanean, izango zara niretzat... —lipar batez zalantza egin zuen galderarekin—, izango zara hildako senargaia zuretzat izandako gauza bera?

- Enuntziatu-amaiera baten ondoren narratzailearen iruzkina enuntziatu oso bat denean eta adierazpen-aditz batekin hasten ez bada, tartekia letra larriz hasita idazten da eta aurretik puntua jartzen da (edo galdera- edo harridura-marka edo etenpuntuak).

—Puru bat piztu behar dut. —Eta, piztu ondoren—: Arrazoi duzu, Tschanz, horrelako zerbait gertatuko zen noski Schmieden eta hiltzailearen artean; sinetsi egin nahi dizut.

—Ez dakigu askorik haren heriotzari buruz —jarraitu zuen komisarioak—; bala hau besterik ez dugu. —Mahai gainean utzi zuen Twannen aurkitutako bala. Tschanz, hura eskuan hartu, eta begira gelditu zitzaien.

1.13.5 Marra bakarraren erabilera

Marrak baditu beste erabilera batzuk, non haren eginkizuna ez baita tarteki bat zedarritzea. Erabilera horietan marra bakarra behar da, ez marra-parea.

1.13.5.1 Marraren erabilera elkarrizketetan

Elkarrizketetan —narrazio bateko elkarrizketetan edo antzezlanetan— marra erabiltzen da pertsonaia bakoitzaren hitzak iragartzeko edo solaskide-aldaketa markatzeko. Narrazio barruko elkarrizketetan —eleberrietan, kasurako— ez da beharrezkoa solaskide bakoitzaren izena aipatzea. Ohikoa da solaskide-aldaketa dagoen bakoitzean lerroz aldatzea. Marra idazten da lerroaren hasieran, eta, jarraian, zuriunerik utzi gabe, solaskidearen lehen hitza, letra larriz hasita³⁵.

—Ez al duzu ikusi gorpua?

—Ez, ez ditut maite hilotzak.

—Baina txostenean ere jasota dago hori.

—Are gutxiago maite ditut txostenak.

Antzezlanetan, berriz, ohikoa da lerroaren hasieran pertsonaiaren izena letra larriz (edo letra larri txikiz) idaztea. Ondoren, puntua eta marra idazten dira, eta, zuriune baten

³⁵ Elkarrizketak eta obrak mota askotakoak dira, eta marraren ordeztu beste aukera berariazko batzuk ere erabiltzen dira. Adibidez, ingelesezko eleberrietan komatxoak baliatu ohi dira elkarrizketetan.

ondoren, pertsonaia bakoitzaren hitzak (puntuaren eta marraren ordeztu bi puntu ere erabili izan dira. Ikus 1.11.4 puntua)³⁶.

METXA.— Arduradun batekin hitz egin nahi nuke... Egun on, gazteak. (*Nesketariko batek esku artean zituen paperak ezkutatu ditu mahaipean.*)

ZINEGOTZIA.— Egun on. Zer dugu?

METXA.— Arazo larri bat... Injustizia bat! (*Libre zegoen aulki bakarra hartu eta zinegotziaren aurrez aurre jarri da.*) Izugarria...! Nik uste dut...

ZINEGOTZIA.— Tira, tira, gizona... Lasaitu zaitez... Ez da horrenbestearainokoa izango...

1.13.5.2 Marraren erabilera aurkibideetan

Alfabetoaren hurrenkeran antolatutako zerrendetan —aurkibide, bibliografia eta kidekoetan— errepikatzen diren elementuak daudenean, lehen aipamenaren ondoren marra jar daiteke lerroaren hasieran elementu horiek errepikatu ordeztu. Marraren ondoren zuriunea uzten da³⁷.

Azkarate, M. (1990a). “Euskal *-garri* vs latinezko *-bilis*: bi balio desberdin”. In Perez Gaztelu, E. eta Urkizu, P. (arg.), *Patxi Altunari omenaldia* (19-39). Donostia: Deustuko Unibertsitatea, Mundaiz.

– (1990b). *Hitz elkartuak euskaraz*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

– (1995). “Sobre los compuestos de tipo sustantivo + sust/adj deverbales en euskera”. In Goenaga, P. (ed.), *De Grammatica Generativa*. ASJUren Gehigarriak 38 (39-50). Gasteiz, Donostia: UPV/EHU, Gipuzkoako Foru Aldundia.

1.13.5.3 Marraren erabilera enumerazioetan

Enumerazio bertikaletan, marrak erabil daitezke enumerazioko elementu bakoitzaren aurretik, zuriune bat utzita marraren eta elementuaren hasierako letraren artean (ikus 200. arauko II. ataleko 1.4.2 puntua).

³⁶ Adibideen jatorria: *Metxa* (Eneko Olasagastik egokitua Koldo Izagirreraren *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* narrazioan oinarriturik; 2002).

³⁷ Aurkibideak egiteko, bada modu bat baino gehiago, eta argialetxe batzuek beste estilo batzuek erabiltzen dituzte.

Hauek dira alorrez alorreko euskalgintzako profesionalak:

- irakasleak
- kazetariak
- itzultzaileak
- argitaratzaileak
- idazleak

Marraren orde, zenbakiak edo letrak erabil daitezke, edo buletak (ikus 1.11.7 eta 2.17 puntuak). Marraren ondoren idazten den lehen hitza letra xehez idazten da elementuak bakunak direnean, eta ez da beharrezkoa elementu bakoitzaren amaieran puntuazio-markarik jartzea, koma jar badaiteke ere. Elementuak konplexuagoak direnean, puntu eta koma erabil daiteke elementu bakoitzaren amaieran. Baldin eta elementuak enuntziatu osoak badira, puntua jartzen da elementu bakoitzaren amaieran, eta, orduan, elementu bakoitzaren lehen hitza letra larriz hasita idazten da (ikus 200. arauko II. ataleko 1.4.2 puntua).

1.13.6 Marra eta gainerako ortografia-markak

Marra-parea tarteki bat zedarritzeko erabiltzen denean, parentesiekin baliatzen diren irizpide berak baliatzen dira gainerako ortografia-markekin batera gertatzean (ikus 1.11.5 puntua; kontuan izan, dena dela, 1.13.4 puntuan deskribatutako erabilera bereziak). Hau da, irekiera-marraren aurretik harridura-marka, galdera-marka edo etenpuntuak jar daitezke; eta itxiera-marraren ondoren ere jar daitezke baldin eta galde- edo harridura-perpaua edo etenpuntuak enuntziatu nagusiari badagozkio eta ez marren arteko enuntziatuari.

Marra beste puntuazio-marka bikun batekin (komatxoa, parentesia edo parentesi karratua) edo gehiagorekin batera gertatzen bada, azkena ireki dena izango da lehenengo itxiko dena.

1.14 Komatxoak

Komatxoak puntuazio-marka bikun bat dira, bi forma baitituzte: *irekiera-komatxoa* eta *itxiera-komatxoa*. Zenbait komatxo-mota edo -aldaera daude. Nagusiak hiru dira: komatxo frantsesak (« »), komatxo ingelesak (“ ”) eta komatxo bakunak (‘ ’).

IREKIERA-KOMATXO FRANTSESA	KOMATXO FRANTSESAK	ITXIERA-KOMATXO FRANTSESA
«	« »	»
IREKIERA-KOMATXO INGELESA	KOMATXO INGELESAK	ITXIERA-KOMATXO INGELESA
“	“ ”	”
IREKIERA-KOMATXO BAKUNA	KOMATXO BAKUNAK	ITXIERA-KOMATXO BAKUNA
‘	‘ ’	’

Komatxo frantsesak letren maila berean idazten dira. Komatxo ingelesak eta komatxo bakunak, berriz, goratuta idazten dira, goi-indizeak idazten diren altueran.

Hauek dira marka horien kodeak Unicode estandarrean eta Windows-1252 sisteman.

MARKAREN IZENA	UNICODE	WINDOWS-1252	SINBOLOA
irekiera-komatxo frantsesa	U+00AB	Alt + 174	«
itxiera-komatxo frantsesa	U+00BB	Alt + 175	»
irekiera-komatxo ingelesa	U+201C	Alt + 0147	“
itxiera-komatxo ingelesa	U+201D	Alt + 0148	”
irekiera-komatxo bakuna	U+2018	Alt + 0145	‘
itxiera-komatxo bakuna	U+2019	Alt + 0146	’

OHARRA

Badira komatxo-mota gehiago ere. Adibidez, lehengo idazmakinetan komatxo zuzenak (komatxo daktilografikoak edo mekanografikoak) erabiltzen ziren, bakunak (') zein bikunak ("). Eta beste hizkuntza batzuetan beste sinbolo batzuk erabiltzen dira.

Adibidez, alemanez („“), polonieraz („”)

Komatxoak parentesiak eta marrak bezala idazten dira; hau da, komatxo artean dagoen testuari atxikita, tartean zuriunerik utzi gabe, eta enuntziatu nagusiaren elementuetatik zuriune batez bereizirik. Alabaina, itxiera-komatxoaren ondoren beste puntuazio-marka bat dagoenean, ez da zuriunerik uzten bi marken artean.

OHARRA

Euskaraz, ez da orain arte zehaztu ea zedarritzen duten sekuentziari atxikita erabili behar diren komatxoak (adibidez, galdera-marka eta harridura-marka bakunak direla, eta ez bikunak, jada 1971n ezarri zuen Euskaltzaindiak). Hizkuntza guztiek ez dute berdin jokutzen puntu honetan: gaztelaniaz, katalanez eta ingelesez, adibidez, barneko testuari atxikita eta kanpoko testutik bereizita idazten dira («xxx», “xxx”); frantsesez, barneko eta kanpoko testutik bereizita (« xxx »).

Beharrezkoa da, hizkuntza idatziaren batasunerako, guztiz konbentzionala den puntu honetan jokamolde bakarra izatea. Horregatik, azken 50 urteetako eta gaur egungo erabilera nagusia kontuan izanik, marka bikun guztietan (parentesiak, parentesi karratuak, marra-parea eta komatxoak) berdin jokatzeari buruzko hautua, hots, zedarritzen duten testuari zuriunerik gabe atxikita eta enuntziatu nagusitik zuriune batez bereizita idaztea (dena dela, itxiera-markaren ondoren beste puntuazio-marka bat badator, ez da zuriunerik uzten bi marken artean).

1.14.1 Zer komatxo-mota erabili eta komatxo-mailak aipuetan

Gure bi auzo-erdaretan —gaztelaniaz eta frantsesez— lehenespenez komatxo frantsesak erabiltzea gomendatzen dute erakunde eskudunek, hori baita bi erdara horietan tradizioa eta ohitura; bai eta katalanez ere. Hala ere, gero eta gehiago erabiltzen dira gaur egun komatxo ingelesak, batez ere teklatuetan komatxo frantsesak ez daudelako

eskura (eta, horrenbestez, tekla-konbinazioak erabili behar direlako komatxo frantsesak idazteko, ezin baitira zuzenean idatzi). Erosotasun-kontua da, azken batean, eta estilo-kontu hutsa, bi komatxo-motak —frantsesak zein ingelesak— baliagarriak baitira. Beraz, biak erabil daitezke euskaraz, baina koherentzia mantendu behar da, bai dokumentuen barnean, bai erakundeen barnean. Modu orokorrean, hau da gomendioa: moldiztegi-lanetan, lehenespenez, komatxo frantsesak erabiltzea (« ») eta hierarkia honen arabera antolatzea aipuen mailak: komatxo frantsesen artean dagoen testu baten barnean beste zerbait komatxo artean idatzi behar bada, komatxo ingelesak (“ ”) erabiltzea, eta haien barnean berriro zerbait komatxo artean idatzi behar bada, komatxo bakunak erabiltzea (‘ ’). Honela: «xxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Dena delakoagatik, komatxo ingelesak lehen mailan erabiltzen badira, bigarren mailan komatxo bakunak erabili behar dira [honela: “xxx ‘xxx’ xxx”], eta ez komatxo frantsesak [honela ez: “xxx «xxx» xxx”]. Eta komatxo ingelesak erabili nahi ez badira, bigarren mailan komatxo bakunak erabil daitezke [honela: «xxx ‘xxx’ xxx»], baina ez alderantziz [honela ez: ‘xxx «xxx» xxx’].

Deklarazioan, honela jaso zituen kazetariak bere hitzak eta eskuin-muturreko politikariarenak: «Nik honela idatzi nuen: “Eskuin-muturreko politikariak ‘hipokrita eta gezurtia’ deitu zion lehendakariari”. Beraz, nik ez nion hipokrita eta gezurtia deitu lehendakariari, eskuin-muturreko politikariak baizik».

1.14.2 Komatxoen erabilera aipuetan

Komatxoen oinarrizko eginkizuna diskurtsoan beste norbaitek esandakoak edo idatzitakoak hitzez hitz jasotzea da, hau da, aipuak markatzea. Horregatik, komatxoei *aipu-marka* ere esaten zaie. Hala, testuaren idazlea ez den beste norbaiten hitzak txertatzen dira testuan (elkarrizketa gisako testuetan, berriz, marra erabiltzen da, eta ez komatxoak. Ikus 1.13.3 eta 1.13.5.1 puntuak).

Ahalegin handia egin behar izan zuen agindu hori bete zedin. «Gutxiegi dakigu oraindik, eta azken bi mila urteetan asmatu den gauzarik azalekoena dira egunkariak», esan zuen.

Hala zegoen ohituta bera, hiri txikiegia baitzen Berna, beraren ustez, «tranbiak eta halakoak» izateko.

Zehar-estiloan idatzitako testu batean ere txerta daitezke aipu diren sekuentzia batzuk komatxo artean.

«Tesi maltzur hori» ez du gehiago entzun nahi.

Diskurtso desberdinak direnez, komatxo artean dagoen aipuak bere puntuazioa du, bera txertatua dagoen testuko esaldiaren puntuaziotik aparte.

Leihoetatik, ahots-marmarra: «sinestezina», «zer diozu, zuzendari jauna?», «eskandalagarria», «ez sinestekoa poliziaren jokaera, goi-kontseilari jauna» eta antzekoak entzun zituzten.

Berdin pentsatzen du Ageda Urmenetak. Baina beste modu batera ikusten du semearen gaitza. «Ongi dagoenean, oso ongi dago. Bere adineko edozein gaztek egin dezakeena egin dezake berak ere. Familiaren negozioan ari da lanean». Gaizki dagoenean, ordea, amesgaiztoa hasten da Urmenetarentzat. «Ezin dut kontrolatu. Oldartu egiten da».

Ez zuen arrastorik ere izan zertaz ari zizaion semea, alde egiteko uneantxe bat-batean esan zionean: «Hurrengoan, Elfi ekarriko dut, ezagutu beharko duzu halako batean!».

Narrazioetan, pertsonaien pentsamenduak estilo zuzenean jasotzeko ere baliatzen dira komatxoak.

Elkarri begiratu zioten Bärlachek eta Tschanzek, deseroso egiten baitzitzaien han tente egotea, geldi, epaitegi batean nola, non eta Juraren erdian, munduaren ipurdian, «erbiak eta azeriak elkarri gau on esaten dioten bazter galdu honetan», Bärlachek, haserrearen haserrez, pentsatu bezala.

Aipua luzea denean edo zenbait paragrafoz osatua dagoenean, beste prozedura batzuk baliatu ohi dira, komatxoak erabili beharrean, aipua dela nabarmentzeko, hala nola testuan barne-koska jartzea (orrialdearen ezker-ertzetik urrutiago hastea) eta letra-tamaina txikiagoa edo letra etzana baliatzea.

Orain bai, lot nakion euskara batuaren irteera-puntu ofizialtzat hartzen dugun 1968ari. Izan ere, duela 50 urte, hementxe bertan, Arantzazun, hala zioen Mitxelenak «Ortografia» izeneko idatzian, beste gauza interesgarri askoren artean:

Beharrezkoa dugu, bederen, hiztegitxo bat, ia ortografikoa huts-hutsik, nahitaezko badu ere hitzen esan-nahia laburzki adieraztea, zertaz ari den jakin dezagun. Orain idazten diren euskalkiak kontuan edukitzekoak dira, noski, batasun osorik ez duguino eta, euskara idatzia duenez gero oinharri, zenbait idazle hautaturen hiztegiaren gain eraiki behar litzake.

Komatxo artean idatzitako testuaren hasiera noiz idazten den letra larriz eta noiz letra xehez jakiteko, ikus 200. arauko II. ataleko 1.5 puntua.

1.14.3 Komatxoen gainerako erabilerak

Komatxoek, aipu-marka gisa erabiltzeaz gainera, badute oinarritzko beste funtzio bat: hitz bat edo hitz-kate bat nolabait markatzea, berezko esanahitik aparteko zerbait edo balio bereziren bat adieraztea. Erabilera horietako batzuetan letra etzanaren baliokide da; hau da, aukerakoa da letra etzana erabiltzea edo komatxo artean idaztea. Nolanahi ere, elkar baztertzen duten aukerak dira: ez dira bi prozedurak batera erabili behar, erredundantea baita (ikus salbuespen-kasu berezia —komatxoak eta letra etzana batera— 1.14.3.4 puntuko oharrean).

1.14.3.1 Komatxoen erabilera izengoitietan

Izengoitiak izen-deiturekin batera erabiltzen direnean, jarraian, letra etzanez idatzi ohi dira, baina komatxo artean ere idatz daitezke. Alegia, estilo-aukera da bata edo bestea erabiltzea (ikus 198. arauko³⁸ 3.5 puntua):

(EGOKIA)

Dolores Ibarruri «Pasionaria»

Jose Manuel Lujanbio “Txirrita”

Nikolas Ormaetxea «Orixe»

(EGOKIA)

Dolores Ibarruri *Pasionaria*

Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*

Nikolas Ormaetxea *Orixe*

(DESEGOKIA)

Dolores Ibarruri «*Pasionaria*»

Jose Manuel Lujanbio “*Txirrita*”

Nikolas Ormaetxea «*Orixe*»

³⁸ 198. araua: *Letra-estiloak*.

1.14.3.2 Komatxoaren erabilera hitzaren ezaugarriren batez ohartarazteko

Hitzen bat edo hitz-kateren bat enuntziatuko gainerako hitzak bezalakoa ez dela eta ezaugarri bereziren bat duela adierazteko erabiltzen dira komatxoak. Izan daiteke gaizki erabilia edo gaizki idatzita dagoen hitz bat, edo izan daiteke esanahi berezi batean erabilia dagoela adierazteko (adibidez, ironiaz), edo jakinarazteko idazleak hitz hori ez duela gogoko esaldi horretan edo ez duela egokitzat jotzen, edo hitz horrekiko nolabaiteko distantzia markatzeko (ikus 198. arauko 4.3 eta 4.4 puntuak).

Letra etzanez ere adieraz daitezke horrelakoak.

Ama, Ertzaintzaren «likotero» bat pasatu da hegan ikastola gainetik!

Oso gizon “zintzoaren” ospea zuen diruzainak. Kutxan genuen guztia hartuta hanka egin zuen!

Kristoren «txokolate»-puska zeraman poltsikoan, gero erretzeko.

Errusiak dio Estatu Batuek Ukrainaren metodo “terroristak” justifikatzen dituztela.

Oro har, ñabardura semantikoren bat duen zerbait nabarmentzeko erabiltzen dira komatxoak. Adibidez, kontzeptu berriren bat lehen aldiz aipatzeko edo hitz sortu berri bat edo terminoren bat aurkezteko. Horretarako, letra etzana ere erabili ohi da, bai eta letra lodia ere batzuetan.

Azkenean, euskaldunek ez zioten lagundu Maciàri bere saiakeran, eta «Prats de Molló-ko konplot» deritzonak (1926ko azaroa) huts egin zuen, Frantziako polizia ohartu zenean.

Laburbilduz, arazgailu “trinko” izenekoetan, hondakin-urak, hainbat gunetan zehar pasarazita, eraldatu, eta konposatu usaingabeak eta ez-kaltegarriak sortzen dira.

1.14.3.3 Komatxoaren erabilera kontsigna, goiburu eta esloganetan, eta esaera eta atsotitzetan

Testu baten barnean aipatzen direnean, komatxo artean eta letra larriz hasita idazten dira kontsigna, goiburu eta esloganak (solte aipatzen direnean, ez). Nolabaiteko aiputzat har daitezke.

«Ekin eta jarrai» da Euskaltzaindiaren goiburua.

Orduan ikusi zuen, ateburuan erdi ezkutaturik, “Ezina ekinaz egina” idazkuna.

Gogoratu Euskadi Irratiaren «Esan eta izan» leloa eta ETBko «Ibai zikina? Hi bai zikina!» iragarkia.

Atsotitzak, esaerak eta esaldi eginak testuaren barnean aipatzen direnean, komatxo artean idatzi ohi dira, batez ere bi puntuen ondoren. Aldiz, enuntziatuan txertatuta badaude eta kanpo-diskurtso baten erreprodukzioztat hartzen ez badira, uler daiteke ez direla aipuak eta, horrenbestez, ez da beharrezkoa komatxo artean idaztea.

Hor ere ondo egokitzen da “Zozoak beleari, ipurbeltz” atsotitza.

Esaera zaharrak dioen bezala: «Gogozko tokian aldaparik ez».

Gogozko tokian aldaparik ez dagoenez, ezin kexatuko gara.

1.14.3.4 Komatxoen erabilera izenburuetan

Testu baten barnean, argitalpenen izenak (liburuak, tesiak, aldizkariak...) letra etzanez idazten dira. Poemak eta ipuinak beste obra handiago baten parte badira, letra etzanez eta lehen letra larriz dutela idazten dira bakarrik erabiltzen direnean. Obra nagusiarekin batera izendatzen direnean, ordea, obra nagusia letra etzanez idazten da, eta komatxo artean, berriz, poema edo ipuina (ikus 198. arauko 4.9.1 puntua).

Gabriel Arestiren «Nire aitaren etxea defendituko dut» poema ezaguna *Harri eta Herri* liburuan argitaratu zen lehen aldiz, 1964. urtean.

Idatzizko obren parteak ere komatxo artean idazten dira. Adibideak:

Fisika orokorra liburuaren «Lana eta energia» kapituluan aurkituko duzu azalpena.

«Orga idien aitzinean, baina zelako idien aitzinean?» artikulua idatzi zuen Kepa Altonagak *Jakin* aldizkarian 2002an.

OHARRA

Baldin eta obra baten izenburu baten parte batek jatorrian letra etzanez idatzi beharreko parteren bat badu barnean, jatorrizko etzan horri komatxoak jartzen zaizkio, garbi uztearren non hasi eta non bukatzen den. Adibidez:

«*Leturiaren egunkari ezkutua*»*ri buruzko iruzkinak* izeneko saiakera-liburu bat argitaratuko da aurki.

Ikus-entzunezkoen eta multimedia-produktuen izenburuak ere (diskoak, filmak, telebista-programak...) letra etzanez idazten dira (ikus 198. arauko 4.9.2 puntua). Kanten izenak ere bai, beste obra handiago baten parte badira ere. Hala ere, obra nagusiarekin batera izendatzen direnean, obra nagusia idazten da letra etzanez, eta komatxo artean, berriz, kanta. Beste hainbeste irratsaio eta telebista-saioen kasuan ere.

Verdiren *Nabucco* operaren pasarterik ezagunena «Va, pensiero» korua da.

Hertzainak taldearen «Aitormena» kanta ospetsua *Amets prefabrikatuak* diskoaren barnean kaleratu zen.

ETB1en, «Plastikoak txipiroi erara» erreportajea ikusi nuen *Teknopolis* programaren barnean.

Hitzaldi, mahai-inguru, ponentzia, erakusketa, biltzar eta kidekoen izenburua, testu baten barnean aipatzen denean, komatxo artean (edo letra etzanez) idazten da (ikus 198. arauko 4.10 puntua).

Xabier Garagorrik «Zer izan nahi duzu handitan?» ponentzia aurkeztu zuen.

Ekainaren 5ean, «Emakumeak bertso munduan» mahai-ingurua izango da Martin Ugalde Kultur Parkean.

«Zuhaitzekin bizi» hitzaldia emango du Jakoba Errekondok.

Horren harira, «Eskoriatza eta txirrindularitza» erakusketa antolatu dute.

1.14.3.5 Komatxoen erabilera hizkuntzalaritzako testuetan

Hitz baten edo esamolde baten esanahia edo definizioa edo dakarren nozioa adierazteko erabiltzen dira komatxoak hizkuntzalaritzako testuetan. Funtzio horretarako, komatxo bakunak erabili ohi dira, baina beste komatxo-aldaerak ere balia daitezke.

Adibidez, **traigo tarde* ‘berandu dakart’ soila jasotzen duen perpausa ez-gramatikala da gaztelaniaz (berdin **J'apporte retard*), hau da, dakardan “hori” agerian adierazi behar dugu pertsona izenordaina isildu gabe: *lo traigo tarde* ‘berandu dakart’.

Ezaugarri hau dute mendeko perpaus osagarriek: perpaus nagusiko elementuren batekin ‘konplementazio-erlazioan’ daude.

1.14.4 Komatxoak eta gainerako ortografia-markak

Komatxoak beste puntuazio-marka bikun batekin (marra, parentesia edo parentesi karratua) edo gehiagorekin batera gertatzen badira, azkena ireki dena itxiko da lehenengo.

Komatxoak aipuak markatzeko eta beste funtzio batzuetarako erabiltzen dira, eta gainerako ortografia-markekin elkartzen direnean ez dute beti berdin jokutzen. Horregatik, bereiz aztertuko dira hemen.

1.14.4.1 Komatxoak eta gainerako ortografia-markak batera gertatzea aipuetatik landa

Komatxoak aipuak markatzeaz bestelako zereginetarako erabiltzen direnean:

- Koma, puntu eta koma, puntua eta bi puntuak. Itxiera-komatxoak marka horien aurretik jartzen dira.

Aldez aurreko txosten horiek udalerriz udalerriz egin ziren, boz-emaileak hirutan banatuz: «aldekoak», «etsaiak» eta «zalantzazkoak».

Inklusioak (materia «ez-bizia»: gantza, azukrea, hondakin-produktuak).

«Hiri-forma zehazten duten faktoreak», neuk sortutako adierazpidea, berria dela uste badut ere, azpian dagoen ideia lehenagokoa da, jakina.

Are gehiago, guztiek dute bereizgarri izaera «estatikoa»; egoera horretan, azken erabiltzaileak datu-basetik datuak eskuratu bakarrik egin ditzake.

- Harridura-marka, galdera-marka, etenpuntuak, marrak eta parentesiak.

a) Baldin eta komatxo arteko testuari badagozkio, itxiera-komatxoan aurretik jartzen dira.

Ikaslea, orduan, «Gora gu eta gutarrak!» artikulua irakurtzen hasi zen.

Koranarekin batera, hadith lanak ditugu, hadith deituriko liburuki ugariko istorio-bildumak (arabierazko *hadith* hitzetik, «esana(k)»).

b) Baldin eta komatxo arteko testuari ez badagozkio, itxiera-komatxoan ondotik jartzen dira.

Kategorizazio sozialak mundua endotaldetan eta exotaldetan («gu» eta «haiek») bereiztea dakar, eta, horri lotuta, norberarekin elkartua babesteko eta indartzeko arrazoiak izaten ditugu.

Zer da kode genetiko «unibertsala»?

1.14.4.2 Komatxoak eta gainerako ortografia-markak batera gertatzea aipuetan

Komatxoek beren barne-puntuazioa dute. Hau da, aipuaren barnean puntuak, komak, harridura-markak, galdera-markak, etenpuntuak eta abar izan daitezke.

Kontuz aritzea erabaki zuen, eta Tschanzek ere ez zirudien oso pozik egoera hartan. «Zer ari garen antzeman nahian zabilek. Argi ibili ezean, bere liburuetako batean agertuko gaituk», pentsatu zuten, gutxi gorabehera, biek.

Ez zen altxatu, agurtu ere ez ia, eta ea poliziak zer nahi zuen galdetu zien; hori besterik ez. «Oiesa —pentsatu zuen Bärlachek—, ez ditik gogoko poliziak; idazleek ez ditiztek inoiz begiko izan poliziak».

Telefonoak jo zuen; baita Lutzek erantzun ere, baina «Bilera batean nago!» garrasi egiteko bakar-bakarrik.

Leihoetatik, ahots-marmarra: «sinestezina», «zer diozu, zuzendari jauna?», «eskandalagarria» eta antzekoak entzun zituzten.

Eta esan nion: «Nola egingo duzu hori?».

Egunkarietako bat are urrutirago menturatu zen: «Bertold Rapatz ingeniari jauna, zeinaren aita von Rapatz familia noble entzutetsuaren ondorengo baita, noble izendatua Gail ibarreko trenbidea egiteagatik, helburu estrategiko oso garrantzitsuko trenbidea inondik ere...».

Clariceren ahotsak aurrera jarraitzen du —«... Baltimoreko erdigunetik atera eta eskuinera»— hurrengo eszenaren lehenengo planoan, non Your Self Storage biltegiaren kartela ikusten baitugu.

Estilo zuzeneko aipuak esaldi osoak direnean, letra larriz hasita idazten dira; adibidez, bi puntuen ondoren ematen direnean.

Agurtzerakoan, besarkatu, eta esan zidan: «**H**or, beste aldean, Stromovka parkea dago. Joango zara hara tarteka, nire ordeztu, paseatzera? Kutuna izan dut beti leku hori. Urmaletako ur ilunari begiratzean, halako batean nire aurpegia ikusiko duzu beharbada».

Raoult prest dago gobernuaren agindua betetzeko: «**E**tixeratze deiak harridura sortu du, baina biziak salbatuko ditu, bederen!».

PSE-EEko idazkari nagusiak babes osoa eskaini zion lehendakariari: «**B**akea lortzeko egingo dituen urratsetan Euskadik laguntzea nahi nuke».

Esaldi osoko aipuaren amaieran puntua jarri behar da, eta zalantza izaten da puntua non jarri, itxiera-komatxoaren aurretik edo ondotik. Hizkuntza guztiek ez dute berdin jokatzeko, eta, zenbaitetan, estilo bat baino gehiago erabiltzen dira, ez baitago erabat normalizaturik.

- Irizpide baten arabera, bukaerako puntua aipu-marketatik kanpo jartzen da. Hori da irizpide lehenetsia, eta bide horri jarraitu zaio lan honetan.

Han gelditu zen tarte batez, zutik, ziztu bizian aldendu zen autoaren atzeko argiei begira: «Nahi bezain azkar gidatzea zaukak orain».

Laburduren puntua, berriz, jarri egiten da.

Esan zuen zein diren kapital higigarritik datozen errenten gaineko atxikipenak: «aktibo finantzarioen eskualdaketa, berreskurapena, trukea, *etab.*».

Aipu-marken barruan galdera- edo harridura-marka edo etenpuntuak egonik ere, jarri egiten da bukaerako puntua.

Ezkerreko gantxo baten itxura eginez: «Eta jotzen badut sudur puntan?».

Honela esan zion: «Saiatu, saiatu naiz; baina...». Eta gero: «Baina nor zara zu ni horrela estutzeko?». Eta geroago: «Alde hemendik!».

- Beste irizpide baten arabera, komatxo arteko testuak zentzu osoa badu eta txertatua dagoen esalditik edo paragrafotik independentea bada, puntua itxiera-komatxoaren aurretik idazten da, bai eta aipuaren jatorria den testuan puntu hori ez badago ere. Ez da irizpide lehenetsia, baina ez da gaitzesten.

Han gelditu zen tarte batez, zutik, ziztu bizian aldendu zen autoaren atzeko argiei begira: «Nahi bezain azkar gidatzea zaukak orain.»

Raoult prest dago gobernuaren agindua betetzeko: «Etxeratze deiak harridura sortu du, baina biziak salbatuko ditu.»

Komatxo artean dagoen testuaren aurretik koma bat dagoenean, nahiz eta komatxo arteko testuak zentzu osoa izan, letra xehez hasita idazten da.

Azaldu duenez, «**h**ori argitzeak ez du esan nahi Ibarretxeren planarekin ados ez daudenik».

Komatxo arteko aipua esaldi osoa ez denean, ez da punturik jartzen.

«Umorea eta gogoeta» uztartzen dituela azpimarratu zuen egileak.

Lehendakariak zehaztu du beti «oinarrizko eskubide horren alde» aritu dela eta horretan segituko duela.

Errepidea «gogoetarako tresna» da Zubeldiaren azken liburuan.

Aipuaren barnean oharren bat erantsi behar izanez gero, marra artean erantsiko da (eta ez koma artean), baina komatxoak eten gabe.

(EGOKIA)

«Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak –dio Mitxelenak– baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera».

(DESEGOKIA)

«Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak», dio Mitxelenak, «baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera».

(DESEGOKIA)

«Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak» –dio Mitxelenak– «baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera».

1.15 Galdera- eta harridura-markak

Intonazio-markak dira galdera- eta harridura-markak, eta, nagusiki, testuan galde-perpausak eta harridura-perpausak adierazpen-perpausetatik bereizteko baliatzen dira. Alegia, enuntziatuaren modalitate jakin bat islatzeko balio dute, ahoz intonazioaren bidez adierazten dena. Haien bidez jakinarazten du idazleak esaldi bat galdera gisa edo harridura gisa aurkeztu nahi duela, eta irakurleari hori ulertarazteko baliatzen ditu puntuazio-marka horiek.

Galdera-markak bi osagai ditu: trazu bertikal bat, goialdean kurbatua, ezkerraldera begiratzen duela³⁹, eta, haren azpian, puntu bat (?). Harridura-markak ere bi osagai ditu: trazu bertikal zuzen bat (eskuarki ziri-formakoa, lodiagoa goialdean behealdean baino, letra-tipo guztietan hori betetzen ez bada ere) eta, haren azpian, puntu bat (!).

³⁹ Arabieraz, eskuinetik ezkerrerantz idazten denez, galdera-markak eskuinalderantz begiratzen du: ؟

GALDERA-MARKA	HARRIDURA-MARKA
?	!

OHARRA

Euskaraz, galdera-marka eta harridura-marka bakunak dira, Euskaltzaindiak 1971n hala erabakita. Hizkuntza ia guztietan halakoak dira, bakunak, baina gaztelaniaz eta galegoz bikunak dira, galde- edo harridura-perpauaren hasieran eta bukaeran ezartzekoak: hasierakoa (¿ eta ¡) eta bukaerakoa (? eta !).

1.15.1 Galdera- eta harridura-marken posizioa esaldian

Galdera-eta harridura-markak esaldiaren amaieran kokatzen dira maiz, baina esaldiaren barnean ere kokatzen dira batzuetan. Azken hitzari atxikita ezartzen dira, zuriunerik utzi gabe hitzaren azken letraren (edo digituaren edo karakterearen) eta puntuazio-markaren artean, baina bai puntuazio-markaren eta hurrengo hitzaren artean. Aitzitik, galdera- edo harridura-markaren ondotik beste puntuazio-markaren bat dagoenean, ez da zuriunerik uzten.

(EGOKIAK)

Zer galdetu duzu? Ez dizut ondo entzun.

Zoaz hemendik! Ez zaitut berriro ikusi nahi etxe honetan.

Baina, kontxo!, dagoeneko iritsi gara?

Han daudela?, hemen daude eta!

Zu bitxilore eginen?; ni ur garbi eginen.

(DESEGOKIAK)

Zer galdetu duzu ? Ez dizut ondo entzun.

Zoaz hemendik ! Ez zaitut berriro ikusi nahi etxe honetan.

Zer galdetu duzu?Ez dizut ondo entzun.

Zoaz hemendik!Ez zaitut berriro ikusi nahi etxe honetan.

Zer galdetu duzu ?Ez dizut ondo entzun.

Zoaz hemendik !Ez zaitut berriro ikusi nahi etxe honetan.

Baina, kontxo! , dagoeneko iritsi gara?

Han daudela ? , hemen daude eta !

Zu bitxilore eginen? ; ni ur garbi eginen.

1.15.2 Letra larria edo xehea galdera- eta harridura-markaren ondoren

Galde-perpau baten edo harridura-perpau baten amaieran galdera-marka edo harridura-marka jartzen denean, ondoren ez da punturik idazten (ikus 1.6.5.2 puntua). Hala ere, ondoren datorren esaldia letra larriz hasita idazten da, puntuaren ondoren idazten den bezala. Dena dela, galde- edo harridura-perpau bat baino gehiago bata bestearen ondoren idazten badira, uler daiteke haietako bakoitza esaldi oso bat dela, haietako bakoitza enuntziatu bat dela, edo uler daiteke enuntziatu bakar baten atalak direla.

Enuntziatu independentetzat hartzen direnean, letra larriz hasita idazten dira.

Zer du diferentea? Ez al da besteak bezalakoa? Zergatik uste duzu hori?

Zaude isilik! Ez egin negarrik! Eutsi negargurari!

Bestela, letra xehez hasita idazten dira (lehenengoa izan ezik), eta komaz edo puntu eta komaz (edo etenpuntuz) bereizita.

Non bizi da?, zarauztarra al da?, noiz hasi da tabernan lanean?, zergatik etorri da berandu?

Ene!; zelako praka itsusiak!; ez atera horrela kalera!

Niri bost!; zeuk dauzkazu hemen lotsatzeko motiboak!

OHARRA

Interjekzio laburrak errepikatzen direnean, komaz bereizten dira eta amaieran bakarrik jartzen da harridura-marka.

Et, et, et!

Ja, ja, ja!, lehertu behar dut barrez!

1.15.3 Galdera- eta harridura-marka beste puntuazio-marka baten ondoan gertatzea

Galdera- eta harridura-markaren ondoren ez da punturik jartzen (ikus 1.6.5.2 puntua), baina koma, puntu eta koma eta bi puntuak jar daitezke.

Zer okela da hau?: zailago dago zorua bera baino.

Gidariitsuak!: eltxoa irazten duzue eta gamelua irensten.

Jesus, Jesus!, hik ere handiak esaten ditun!

Ni zer naiz?, lur poxi bat; lehen deusik ez eta laster zizareen janari.

Burgos!; hura bai zela hiria!

Parentesi edo komatxoaren ondoan ere jar daitezke galdera- eta harridura-markak. Parentesi edo komatxo artean dagoen hitzak edo hitz-kateak galdera edo harridura adierazten duenean, itxiera-parentesi edo -komatxoaren aurretik jartzen da galdera- edo harridura-marka.

Hor irauin nuen, adinez (eta zuhurtziaz?) hazten ari nintzen bitartean, sei urte luzez.

Espatulaz (eskuz ez!) gehitu NaOH solidozko dilista moduko bat.

Ezkerreko gantxo baten itxura eginez: «Eta jotzen badut sudur puntan?».

Orduan, «hanka, mutilak!» esanda, mendian gora arineketan abiatu ziren.

Aldiz, galdera edo harridura adierazten duen hitz-katea parentesi edo komatxo artean dagoen hitza edo hitz-katea baino handiagoa bada, galdera- eta harridura-marka parentesiaren edo komatxoaren ondotik jartzen dira.

Beste hiztun batek hitz egiten duen aldi berean hitz egitea noiz da etena (hitz egiteko aukera kentzea) eta noiz gainjartze lagungarria (interesa eta gogoia erakusteko besteekin batera hitz egitea)?

Alde ederra (dago)!

Inork ikusi ote du, inoiz eta inon, erdaraz, *Don Quijote* edo *David Copperfield* «hobeturik»?

Gaixoak gu eta gaixoak gaurko liburuak! Surtara ez badoaz denak, zenbat bider ez ote dituzte murriztuko, soilduko, hankamoztuko, itxuraldatuko eta, hitz batean, «hobetuko»!

Etenpuntuekin batera ere ager daitezke galdera- eta harridura-markak. Etenpuntuak galdera- edo harridura-markaren aurretik jartzen dira perpausa etenda dagoenean.

Ez nuke sarkin-itxura eman nahi, baina bereizita zaudete edo...?

Berak arrazoia eman norbaiti? Ezta...!

Aitzitik, etenpuntuak ondotik jartzen dira perpaus osoa galdera- edo harridura-perpausa denean.

Hela!... Bada nehor?

Puf!... Beti gazte izan behar horrek lanak ematen ditu.

Zeren oharpena zen?... zertan zen esanguratsu?... Doktoreak ez zekien ziur-ziur, baina zerbaiten zain zegoen nolana ere.

Zeinek jartzen ditu, baina, mugak?: zientzialariek?, moralistek?, legegileek?...

Bi galdera-marka edo harridura-marka eta galdera-marka jarraian gerta litezke inoiz, baldin eta galde- edo harridura-perpausaren amaieran galdera- edo harridura-marka duen obra baten izenburua bada. Kasu horietan zuriune bat utz daiteke bi marken artean, izenburua letra etzanez jartzean bi markak itsatsita ez uztearren.

Gustatu al zitzaizun *Quo vadis?* ?

Gustatu al zitzaizun *Viva Zapata!* ?

1.15.4 Galdera- edo harridura-marka eta ohar-deia elkarren ondoan gertatzea

Testuetan, galdera- edo harridura-marka baten ondoren ohar-deia jarri behar denean, zalantza egin daiteke ohar-deia puntuazio-markaren aurretik edo ondotik jarri behar den. Estilo-kontua da aurretik edo ondotik jartzea, baina, ohar-deia galde-perpaus edo harridura-perpaus osoari dagokiola zehaztu nahi izanez gero, ondotik jarri ohi da.

Baina hau eratzen badugu, *Anek gaizki jaten du*, zer gertatzen da hor? Zenbat argumentu ditugu holakoetan?¹³

¹³ Arazo honen gainean hainbat ikerketa egin da. Hauek, besteak beste, aipa daitezke: Pylkkänen (2002); Junghanns (2008); Merchant (2007).

Aldiz, ohar-deia galdera- edo harridura-markaren aurretik dagoen hitzari bakarrik dagokiola zehaztu nahi izanez gero, markaren aurretik jarri ohi da.

Ziur zaude hala egiten zuela³?

³ *zuela* jarri dut, eta ez *duela*, badakidalako gaur egun ez duela hala egiten.

1.15.5 Noiz ez den erabiltzen galdera-marka galde-perpausetan

Galde-perpausak zuzenekoak edo zeharkakoak izan daitezke. Zuzeneko perpausetan, galdera-marka erabiltzen da.

Busti zarete?

Baionan ala Angelun bizi da?

Zer hartuko duzu?

Zeharkako perpausetan, galdera ez da zuzenean egiten, aditz gobernatzaile baten azpian jartzen da, eta halakoetan ez da erabiltzen inolako galdera-markarik.

Non bizi naizen galdetu didate.

Ez dit esan zenbatean saldu duen.

Oraindik ez du erabaki ardoa edo sagardoa edango duen.

Zenbaitetan, zuzeneko galde-perpausak baliatzen dira benetan galdera egitea —informazioa eskatzea— ez den beste helbururen baterako. Adibidez, zerbait agintzeko, eskatzeko, iradokitzeko. Halakoetan ere, dena dela, galdera-marka jartzen da.

Itxiko duzu atea, mesedez?

Zer iruditzen zaizu azkarxeago ibiltzea?

Noiz isildu behar duzu?

Egingo al dugu etentxo bat?

Urrunetik heldu zara, e?

Testu baten edo testu-atal baten izenburuan edo hitzaldi edo ikastaro baten izenburuan eta gisakoetan galdetzaile bat erabiltzen bada aditza jokatu gabe duen galde-perpaus bat osatuz, ohikoa da galdera-markarik ez erabiltzea.

Nola zuzendu andereño gaizto bat [liburu baten izenburua]

Nola erabili sare sozialak salmentak areagotzeko [ikastaro baten izenburua]

Jarraibide hauek daude dokumentuan:

- Zer egin lapurreta izanez gero
- Zertarako jarri salaketa
- Norekin jarri harremanetan

Ez dira benetako zuzeneko galde-perpausak, haien helburua ez baita informazio bat eskatzea. Nolanahi ere, horrelakoetan galdera-marka erabili ezinik ez dago. Jokatu gabeko aditzaren ordeaz aditz jokatu erabiliz gero, ordea, zehar-galdera gisa eratu behar dira edo galdera-marka beharko dute:

Nola zuzendu behar den andereño gaizto bat

Nola erabili behar diren sare sozialak salmentak areagotzeko

Jarraibide hauek daude dokumentuan:

- Zer egin behar da lapurreta izanez gero?
- Zertarako jarri behar da salaketa?
- Norekin jarri behar da harremanetan?

1.15.6 Noiz ez den erabiltzen harridura-marka harridura-perpausetan

Zalantzarik gabe interjekzio den hitz bat erabiltzen denean, onargarria da harridura-marka ez erabiltzea:

Kontxo, kontxo, denda saldu zutela uste nuen.

Tira, nahikoa da.

1.15.7 Galdera-marka edo harridura-marka bat baino gehiago jarraian

Erregistro ez-formaletan, galdera-marka edo harridura-marka bikoiztu edo hirukoiztu egin daiteke esaldiari enfasi handiagoa ematearren. Adierazkortasuna nabarmentzeko balio du, eta, horregatik, ez da erabili behar testu neutroetan. Publizitate-mezuetan baliatu ohi da, edo literaturan. Ez da komeni, baina, maiz erabiltzea, eraginkortasuna galtzen baitu.

Gizonak bazuen horren beharra, alajaina!!!

Ee! Eee!! Burutik zaude, ala?

Hori egia dela???

Bai??

1.15.8 Galdera-marka eta harridura-marka batera

Gerta daiteke esaldi bat aldi berean galderazkoa eta harridurazkoa izatea. Orduan, galdera-marka eta harridura-marka elkarren ondoan ager daitezke, berdin da zein lehenago. Adibidez, galdera batean harridura adierazteko edo harridura galdera-forman adierazteko.

Iritsiko ote gara noizbait?!

Utzi Ostolaza bakean, aditu?!

Ehun libera? Baduzu horrenbertzeren eskatzeko bekokia, duzun makurrarentzat!?

1.15.9 Galdera-markaren eta harridura-markaren beste erabilera batzuk

Intonazioarekin zerikusirik ez duten beste funtzio batzuetan ere erabiltzen dira galdera- eta harridura-markak, ondoan duten esaldi-zatiari esanahi berezi bat emateko. Horretarako, parentesi artean idazten dira, eta zalantza, ziurgabetasuna edo sinesgaiztasuna adierazten dute (galdera-markaren bidez), edo harridura edo ironia bestela (harridura-markaren bidez).

Bada fantasia sexualak edukitzea lagunari fideltasunik ez izatea (!) edo hari iruzur egitea dela pentsatzen duenik.

Ezetz, gaur ez duela parrandarik egingo (!).

Udaltzaingoaren arabera, mila pertsona inguru (?) izan ziren manifestazioan.

Mendi-gidari (?) hark ez zekien non geunden ere.

Data bat zalantzazkoa dela adierazteko, batez ere testu entziklopedikoetan, galdera-marka erabiltzen da zalantzazko dataren ondoren, edo, data erabat ezezaguna denean, dataren beraren ordean.

Kristobal Kolon (1451?-1506)

Gartzia III.a Santxitz edo Gartzia Dardartia (?-ca.⁴⁰ 1000)

⁴⁰ Latinezko *circa* hitzaren laburdura da *ca.*, eta “gutxi gorabehera” edo “inguruan” esan nahi du. Data baten aurrean jartzen da adierazteko gutxi gorabeherako data dela, hots, ez dela zehatza. Historiako testuetan eta testu akademikoetan erabili ohi da, datak zehazki ezagutzen ez direnean.

Taula eta laukietan ere erabiltzen da galdera-marka, datu bat ezezaguna dela adierazteko.

Txinan urteka saldutako automobilak	
2008	9 380 502
2012	19 306 435
2016	28 028 175
2020	?

Matematikan, harridura-marka erabiltzen da faktoriala adierazteko.

n zenbaki oso eta positibo baten faktorialaren sinboloa $n!$ da

$$5! = 5 \times 4 \times 3 \times 2 \times 1$$

2. Marka lagungarriak

Idatzizko diskurtsoan etenekin edo intonazio-aldaketekin erlaziorik ez duten beste alderdi batzuk adierazteko erabiltzen dira, gehienbat, marka lagungarri direlakoak, baina bestela ere defini daitezke: puntuazio-marka edo marka diakritiko ez diren gainerako ortografia-markei deritze marka lagungarri.

Multzo ireki bat osatzen dute, muga lausokoa, eta tipografiaren eremuarekin nahasten dira. Izan ere, non amaitzen da hizkuntza idatziaren erabiltzaileak ezagutu eta erabili behar duen puntuazio-sistema eta non hasten da tipografiaren eremu espezializatua, profesionalek bakarrik baliatzekoa? Idazkera analogikotik —paperean idaztea edo idazmakinez idaztea— idazkera digitalera —ordenagailu bidezko testu-tratamendua, autoedizioa, Internet— igaro gara, eta herritarren esku daude orain duela zenbait urte soilik inprimatzaileen eta tipografoen esku zeuden baliabide tipografiko asko.

Marka horietako batzuek funtzio ortografikoa dute; adibidez, marratxoak. Beste marka batzuek, berriz, ikono-balioa dute; adibidez, geziak. Beste batzuk tipografiaren eremutik iritsiak dira; adibidez, enumerazio bertikaletan erabiltzen diren buletak. Eta badira,

azkenik, zientzia eta teknologiaren eremuan erabiltzen diren marka bereziak, sinboloak, berez hizkuntza orokorrari ez dagozkionak, edota informazioaren eta komunikazioaren teknologien zabalkundeak orokortu dituenak, hala nola alderantzizko barra eta beheko marra. Haiiek guztiak deskribatuko dira hurrengo puntuetan, eta haien funtzio nagusiak zehaztuko.

2.1 Marratxoa

Marratxoa da marka lagungarririk erabiliena. Lerro horizontal txiki bat da (-), letren altueraren erdialdean kokatzen dena (zehazki, goranzko edo beheranzko irtengunerik ez duten letren altueraren erdialdean; hau da, **a**, **c**, **e**, **m**... [**a-c-e-m**] letren altueraren erdian, ez **b**, **d**, **f**, **g**... letren altueraren erdian [**b-d-f-g**]). Ez da nahastu behar marrarekin (—), ezta zenbaki negatiboen edo kenketaren sinboloa den minusarekin (−) edo marra ertainarekin (—) ere (ikus 1.13 puntua).

MARRATXOA	MARRA	MINUSA	MARRA ERTAINA
-	—	−	—

Bi funtzio nagusi ditu marratxoak. Batetik, adieraztea lerro-amaieran dagoen hitza ez dagoela osorik, hau da, etenda dagoela eta hurrengo lerroan jarraitzen duela. Bestetik, lotuta idazten ez diren baina bata bestearekin dena delakoagatik lotura duten bi elementu direla —bi hitz edo bi zenbaki— adieraztea. Beraz, lotura-marka bat da, dela hitzaren barnekoa, dela bi hitzen edo gehiagoren artekoa.

2.1.1 Lerro-amaieran hitza etenda dagoela adieraztea

Lerroaren amaierara iristean hitz bat osorik idazteko tokirik ez badago —eskuz idaztean zein testu-prozesadorea erabiltzean—, hau da, ezinbestean zatitu behar bada, marratxoa idazten da adierazteko hitza ez dela han amaitzen baizik etenda dagoela; hau da, hitz-zati bat dela eta hurrengo lerroa joan behar dela falta zaion zatia irakurtzeko eta, hala, hitza osatzeko.

Hitz bat zatitu behar izanez gero, bi aukera daude: morfemak kontuan harturik zatitzea edo silabak bereiziz zatitzea.

Morfemaka banatuz gero, honelakoak aterako lirateke:

zakurr.a, du.e.la, du.ten, gizon.ik, tximeleta.ri

Silabaka banatuz gero, honelakoak:

za.ku.rra, du.e.la, du.ten, gi.zo.nik, txi.me.le.ta.ri

Nabarmena da ondorioak aski desberdinak direla, nahiz batzuetan emaitza bera izan daitekeen (ke.a hitzean, esaterako).

Morfemaren irizpidea hautatzea arazotsua gerta liteke, ez baita beti erraza morfemak non hasten diren eta non bukatzen diren zehaztea (d.a.kar.te, g.en.bil.tza.n, Agurtzane.re.kin). Euskal idazle eta hiztunek askoz garbiago dute silabaren intuizioa morfemarena baino.

Horregatik, hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du Euskaltzaindiak.⁴¹

Horrenbestez, silabaren amaieran jarri behar da marratxoa (hurrengo puntuetan zehaztuko diren salbuespenetan izan ezik); hau da, marratxoak ez ditu bereizi behar silaba beraren parte diren letrak. Horretarako, hitzak silabatan nola bereizi jakin behar dugu, nola silabakatu.

2.1.1.1 Silaba-bereizketa

Euskal hitzetan, ezinbestekoa da silaba bakoitzak bokal bat edo diptongo bat izatea. Silabaren nukleoa bokal bat da, eta, askotan, gehigarri bat izaten da nukleo horren aurretik edo ondotik (edo aurretik eta ondotik): kontsonante bat, edo bat baino gehiago.

Hitzak silaba bakarrekoak izan daitezke (a, hi, hau, gu, da, su, gaur, geurtz), bi silabakoak (zu.re, a.ma, es.ne, di.ru) eta hiru edo gehiagokoak (eus.ka.ra, e.ma.ku.me, e.rre.so.nan.tzi.a, eus.kal.tzain.bu.ru.or.de).

⁴¹ Euskaltzaindiak hartutako lehen arauetako bat izan zen (13. araua, *Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri*, 1994ko azaroaren 25ean onartua).

2.1.1.1.1 Erregela nagusia

Bi bokalen artean gertatzen den kontsonanteak ondorengo bokalarekin eratzen du silaba (a.ma, e.ra, ka.tu, ta.xi). Hitzaren hasieran dagoen kontsonanteak edo kontsonante-bilkurak ondorengo bokalarekin eratzen du silaba (bi.la, sa.tor, fro.ga, pra.ka, xa.fla). Hitzaren amaieran dagoen kontsonanteak edo kontsonante-bilkurak aurreko bokalarekin eratzen du silaba (za.bal, asti.gar, a.rrunt, a.ditz, me.ga.ohm).

2.1.1.1.2 *r* letraz amaitutako aurrizki jasoak

Hitzaren hasieran *hiper-*, *inter-*, *super-* edo *ziber-* aurrizkia egokitzen denean, morfemak ebakitzen da hitzaren parte den aurrizkia lerroaren amaieran marratxoa jartzeari dagokionez, terminoa semantikoki behar den bezala identifikatzeko. Adibidez:

hiper.es.te.ka, **hiper.im.mu.ne**, **hiper.es.pa.zi.o**, **hiper.ak.ti.bi.ta.te**

inter.ak.ti.bo, **inter.ak.zi.o**, **inter.o.pe.ra.bi.li.ta.te**

super.e.ro.a.le, **super.e.go**, **super.or.de.na.gai.lu**, **super.a.rin**

ziber.e.ra.so, **ziber.es.pa.zi.o**

Alegia, lerroaren amaieran ezin da eten aurrizki horien azken letra (hemendik aurrerako adibideetan, barra etzanaren bidez [/] adierazten da lerro-aldaketa):

(EGOKIA) **hiperes-/teka**; **supere-/roale**

(DESEGOKIA) **hipe-/resteka**; **supe-/reroale**

Halaber jokutzen da aurrizkia lotzen zaion erroa *r* letraz hasten denean:

hiper-/realismo; **super-/razionalismo**; **super-/rotazio**

Dena dela, *r* letraz hasten den hitz batek *r* letraz amaitzen ez den aurrizki bat jasotzearen ondorioz hasierako *r* letra *rr* bihurtzen denean, silabak hartzen dira kontuan hitza zatitzeko:

au.to.rre.tra.tu, **ne.o.rre.a.lis.mo**, **pre.rra.fa.e.lis.ta**, **su.pra.rre.nal**.

OHARRA

Aurrizkia ez bada, silabak hartzen dira kontuan hitza zatitzeko:

in.**te**.ri.o.ris.mo, in.**te**.res.ga.rr*i*, hi.**pe**.roi, hi.**pe**.ro.pi.a, su.**pe**.ra.bit,
su.**pe**.ri.or.

(hitz horietan, *inter*, *hiper* eta *super* hitz-zatiak ez dira aurrizkiak, haien ondoren dauden beste hitz-zatiak ez baitira autonomia lexikala duten hitzak)

Bestalde, *ber-/bir-* euskal aurrizkiaren kasuan ez da hala jokutzen; hau da, *rr* digrama ezin da eten lerro-amaieran:

(EGOKIA) be-/**rr**antolatu; be-/**rr**idatzi, be-/**rr**osatu, bi-/**rr**amona.

(DESEGOKIA) ber-/**r**antolatu; ber-/**r**idatzi, ber-/**r**osatu, bir-/**r**amona.

2.1.1.1.3 Bi kontsonanteren bilkurak

Bi bokalen artean bi kontsonanteren bilkura gertatzen denean, zenbait kasu bereizi behar dira:

A) Digrama bat baldin bada (*dd*, *ll*, *rr*, *tt*, *ts*, *tx*, *tz*), bereizezina da, eta ondorengo bokalarekin eratzen du silaba:

a.**dda**.rra, kua.dri.**lla**, e.**rre**.ta, a.be.ra.**tsak**, e.**txea**, ba.**tzor**.de.a.

Ikus *rr* digramaren salbuespena aurreko puntuan.

B) *br*, *dr*, *fr*, *gr*, *kr*, *pr*, *tr* eta *bl*, *fl*, *gl*, *kl*, *pl*, *tl* bilkurek ere ondorengo bokalarekin eratzen dute silaba:

de.a.**bru**, a.**drei**.lu, ko.**fra**.di.a, e.mi.**gra**.tu, a.zu.**kre**, la.**pras**.ta.da,
ma.**trai**.le.ko, pu.**bli**.ko, e.rr*i*.**fle**, si.**gla**, bi.zi.**kle**.ta, di.zi.**pli**.na, a.**tle**.tis.mo.

SALBUESPENAK

- Baldin eta *r-* (erre) edo *l-* (ele) letraz hasten den hitz bati *sub-* edo *post-* aurrizkia eransten bazaio, nahiz eta *br*, *bl*, *tr* edo *tl* kontsonante-bilkurak gertatu, betiere garbi dagoenean *sub-* edo *post-* aurrizkia daukagula aurrean eta aurrizkia kenduta geratzen den hitz-atala beregaina dela, eten egiten dira bilkura horiek lerro-amaieran, hau da, *r* eta *l* letrak ez dira aurreko kontsonantearekin elkartuta uzten lerro-hasieran:

(EGOKIA) **sub-**/**r**obot; **sub-**/**l**uxazio; **post-**/**r**omantiko; **post-**/**l**iteratura

(DESEGOKIA) su-**br**obot; su-/**bl**uxazio; pos-/**tr**omantiko; pos-/**tl**iteratura

Adibide horietan guztietan, izan ere, aurrizkia kenduz gero gelditzen den zatia (robot, luxazio, [er]romantiko, literatura) hitz gisa ezagutzen ditu irakurlearen begiak. Hala ez bada, nahiz eta hitzaren jatorrizko erabidean aurrizki horiek izan, ez da beharrezkoa salbuespena egitea. Adibidez, **subrogazio** eta **subliminal** hitzak **lanbrotu** eta **bibliko** hitzak bezala zatitzen dira, -rogazio eta -liminal ez baitira guretzat hitz beregainak, hitz horien jatorrian *sub-* aurrizkia egonik ere⁴².

(EGOKIA) su-/**bro**gazio; su-/**bl**iminal

• Baldin eta *f* edo *t* letraz amaitzen den hitz bati *-lari* atzizkia eransten bazaio, hitzaren amaierako *f* edo *t* letra eta *-lari* atzizkiaren *l* letra ez dira elkartuta uzten lerro-hasieran (bestela, bai: erri-/**fl**e, para-/**tl**eta):

(EGOKIA) surf-/**l**ariak; trinket-/**l**ariak

(DESEGOKIA) sur-/**fl**ariak; trinke-/**tl**ariak

C) Gainerakoetan, bokal artean egonik bi kontsonante bata bestearen ondoan gertatzen direnean, silaba desberdinetakoak dira kontsonante horiek, eta bereizi egin daitezke lerro-jauzian:

a.raz.**le**, bi.dex.**ka**, kon.**tu**, bes.**te**, har.**tu**, bil.**te**.gi, pi.er.**cing**

Grafia egokitu gabe mailegatutako hitzetan edo haietatik eratorritako hitzetan gertatzen diren bestelako kontsonante-bilkurak silaba desberdinetakotzat jotzen dira lerro-amaieran eteteari dagokionez:

(EGOKIA) frac-/**k**ing, brah-/**m**anismo, bah-/**r**aindar, peh-/**l**eviera.

(DESEGOKIA) fra-/**ck**ing, bra-/**hm**anismo, ba-/**hr**aindar, pe-/**hl**eviera.

Idatzirako konbentzio bat da. Izan ere, *ck* kasuan, ez dira benetan bi [k] ahoskatzen, eta *hm*, *hr*, *hl* kasuetan ere ohikoa da *h* horiek ez ahoskatzea.

Analogiaz, hala jokutzen da *w* kontsonantearekin ere:

dar-/**w**inismo, edel-/**w**eiss, max-/**w**ell, spy-/**w**are, zimbab-/**w**etar.

⁴² Esanahi gardeneko hitza da *postraumatiko*: haren osagaiak *post-* eta *traumatiko* dira, baina ez da *posttraumatiko* idazten, *-tt-* ez uztearren. Marratxoz idatz liteke, *post-traumatiko*, arazoa saihesteko, baina idazkera lotua nagusitu da. Hitz hori lerro-amaieran zatitu beharra gertatuz gero, *pos-/traumatiko* zatituko litzateke.

Maileguzko hitz batzuek hasieran bi kontsonante dituzte, hala nola *gn*, *mn*, *pn* eta *ps*:
gnosis, gnostiko, mnemotekniko, mnemoniko, pneumatiko, pneumonia,
pterodaktilo, ptolomeotar.

Hitz horiek aurrizkiren bat hartzen dutenean, lerro-amaierara iristean
kontsonante-bilkura horiek ez dira gainerako hitzetan bezala eteten, aurrizkiaren
forma —eta aurrizkirik gabeko hitzaren forma— ez desitxuratzearren:

para-/**p**sikologia

(eta ez parap-/sikologia, nahiz eta autop-/sia edo elip-/se banandu)

neo-/**g**nostiko

(eta ez neog-/nostiko, nahiz eta mag-/nesio edo lig-/nito banandu)

para-/**p**neumonia

(eta ez parap-/neumonia, nahiz eta ap-/nea edo hip-/notiko banandu).

2.1.1.1.4 Bi kontsonantetik gorako bilkurak

Bi bokalen artean hiru kontsonanteren bilkura gertatzen denean, kasu hauek bereizi
behar dira:

a) Bilkurako bigarren eta hirugarren kontsonanteek digrama bat osatzen badute,
lehen kontsonantea silaba batean ahoskatzen da, eta digrama hurrengo silaban:

an.dde.re, **gi.zon.tto**, **a.bar.tsu**, **an.txe**.ta, **a.gor.tze**.

Silaba desberdinetan ahoskatzen dira alderantzizko hurrenkeran daudenean ere:
digrama silaba batean eta ondorengo silaban hirugarren kontsonantea:

gatz.dun, **i.sats.dun**.

b) Bilkurako bigarren eta hirugarren kontsonanteen elkartea gorago aipatutako talde
bereizezinetakoa bada (*br*, *dr*, *fr*, *gr*, *kr*, *pr*, *tr* eta *bl*, *fl*, *gl*, *kl*, *pl*, *tl*), lehen kontsonantea
silaba batean ahoskatzen da eta talde bereizezina hurrengo silaban:

lan.bro, **al.dra**, **zi.lin.dri**.ko, **dis.fru**.ta.tu, **wol.fram**, **bel.gra**.dar,
des.gra.zi.a, **kon.gre**.su, **iz.kri**.bu, **es.kri**.bau, **a.sin.kro**.no, **al.pro**.ja,

in.ter.pre.ta.zi.o, en.pre.sa, es.pek.tro, a.la.bas.tro, a.san.ble.a, zen.tro, peb.ble, in fla.zi.o, pan.fle.to, an.gli.ka.no, es.kla.bo, fol.klo.re, in.klina.zi.o, en.ple.gu, es.pli.ka.tu, bir.plan.te.a.tu.

c) Gainerako kasuetan, lehen bi kontsonanteek silaba bat eratzen dute aurreko bokalarekin eta hirugarren kontsonantea ondorengo silabara doa:

ins.ta.la.tu, kons.tan.te, pers.pek.ti.ba, hers.tu.ra, plank.ton, post.po.si.zi.o, ist.mo, belz.ga.rri, belz.ta.sun, trans.for.ma.do.re.

OHARRA

Analogiaz, hala jokutzen da w kontsonantearekin ere:

bots-/wanar, hard-/ware, sand-/wich, soft-/ware, rott-/weiler

Azkenik, bi bokal artean lau kontsonanteren bilkura agertzen denean, lehenengo biek silababat eratzen dute aurreko bokalarekin, eta ondorengo biek ondoko silabaren hasiera eratzen dute:

horn.blen.da, post.pro.duk.zi.o, ins.tru.men.tu, ads.tratu, abs.trak.zi.o.⁴³

2.1.1.1.5 Kontsonantearen ondorengo h letra

Ez da oso ohikoa, baina kontsonante-bilkura berezia da, berariaz aztertu beharrekoa.

a) *Kontsonantea + h* bilkura hitzaren hasieran edo amaieran

Gainerako kontsonante-bilkuretan bezala, hitzaren hasieran gertatzen denean ez dago zalantzarik lerro-amaierara iristean hitza banatzeko moduari dagokionez: beti ondorengo bokalarekin batera geratu behar du⁴⁴:

bhu-/tan.dar; char-/ter; dha-/katar; ghe-/tto; khi-/sinevar;
phnom-/penhdar; thai-/landiar; thim-/putar; she-/riff; xho-/sa.

Hitzaren amaieran dagoen kontsonanteak edo kontsonante-bilkurak aurreko bokalarekin eratzen du silaba:

a.mish, crom.lech, sand.wich, yi.ddish.

⁴³ Silabaren amaieran hiru kontsonante gertatzea ez da ohikoa. Mailegu batzuetan gerta daiteke, dena dela: angstrom, tungsteno. Bi kasu horietan, ese letran amaitzen da lehen silaba: angs.trom, tungs.te.no.

⁴⁴ Eta haren ondoren beste kontsonante bat dagoenean, berdin. Adibidez, thriller (thri-/ller).

b) *Kontsonantea + h* bilkura bokalen artean

Euskal hitzetan, bilkura hori *l, n, p, r* edo *t* kontsonanteekin gerta daiteke (bai eta *k* letrarekin ere, euskara batuan hitz arruntetan ageri ez bada ere). Batetik, *lh, nh* eta *rh* bilkurak silaba desberdinetan antolatzen dira:

al.ha.tu, **il.har**.tar, **ol.hai**.bi.tar, **zil.he**.ko.ar, **ain.har**.be.ar, **ain.hiz**.tar,
ain.ho.ar, **an.hauz**.tar, **zun.ha**.rrar, **zun.ha**.rre.tar, **ar.han**.tar,
ar.han.tsu.si.tar, **bur.ho**, **sor.ha**.pür.tar, **sor.ho**.lüz.tar.

Bestetik, *ph, th* eta *kh* bilkurek silaba eratzen dute ondorengo bokalarekin (fonikoki, ez dira kontsonante-bilkurak, kontsonante-mota bat baizik: herskari hasperendunak; horregatik, nahitaez, silaba bakarrean ahoskatu behar dira):

la.**phiz**.ke.tar, a.**tha**.rraz.tar, a.**the**.rei.ar, bi.**thi**.rin.dar, i.**tho**.rroz.tar;
A.**khi**.ti.o.la, Mü.**khü**.rre.a.

Mailegatueta edo maileguetatik eratorritakoetan, antzera: *lh, nh* (eta *mh*) eta *rh* bilkurak silaba desberdinetan antolatzen dira (**am.ha**.re.ra, Fa.**ren.heit**, **in.hi**.bi.tu, **in.ha**.bi.li.ta.tu, **men.hir**, ko.**pen.ha**.ge.tar, new.**del.hi**.ar, **dir.ham**). Gainerako bilkurek ondorengo bokalarekin batera gelditu behar dute lerro-aldaketagatik eteten direnean:

goua-/**che**; cou-/**ché**; abu-/**dhabiar**; ab-/**khaziera**; kaza-/**khera**; si-/**khismo**;
gei-/**sha**; muqdi-/**shoar**; wa-/**shingondar**.

SALBUESPENA

Hidr(o) osagaia duten izenetan *hidr(o)* osagaiaren aurrean kontsonanteren bat dagoenean, kontsonante hori eta *h* letra banatu egiten dira lerro-amaieran hitza silaba horretan eten behar bada:

(EGOKIA) **an-/hidrido**, **brom-/hidriko**, **des-/hidratatu**, **des-/hidrogenazio**,
fluor-/hidriko, **iod-/hidriko**, **klor-/hidriko**, **klor-/hidrato**, **sulf-/hidriko**,
zian-/hidriko.

(DESEGOKIA) **anh-/idrido**, **bromh-/idriko**, **desh-/idratatu**, **desh-/idrogenazio**,
fluorh-/idriko, **iodh-/idriko**, **klorh-/idriko**, **klorh-/idrato**, **sulfh-/idriko**,
zianh-/idriko.

c) *Kontsonantea + kontsonantea + h* bilkura

Elkarren ondoan bi kontsonante gertatzen direnean, bigarren kontsonantea amaieran hatxe letra duen digrama bat izanik, lehen kontsonantea aurreko silabaren parte da, eta digramak ondorengo bokalarekin eratzen du silaba:

al.**z**hei.mer, a.**p**ar.**t**heid, mur.**ch**an.te.ar, ket.**ch**up, kin.**sh**a.sar,
mar.**sh**a.lle.ra, sin.**d**hi, win.**d**ho.ek.tar, son.**gh**ai, stoc.**kh**olm.dar,
smart.**ph**o.ne.

d) *Kontsonantea + h + kontsonantea* bilkura

Kontsonante batek eta *h* letrak osatutako digramaren ondoren beste kontsonante bat dagoenean, digramak aurreko bokalarekin eratzen du silaba, eta hurrengo kontsonantea ondorengo silabaren parte da:

ban.gla.**des**.tar, **esh**.nunnar, flash.**b**ack, karkemish.**t**ar, lagash.**t**ar,
ka.zakhs.**t**an.dar, **ph**nom.**pen**h.dar.

e) *Kontsonantez amaitutako aurrizkia + h* bilkura

Kontsonantez amaitzen den aurrizki jaso bat (*des, hiper, inter, post, sub, super, trans*) *h* letraz hasten den hitz bati lotzen zaionean, aurrizkia (edo aurrizkiaren azken silaba) eta *h* letra lerro desberdinetan antolatzen dira lerro-amaieran hitza eten beharra gertatzen bada:

(EGOKIA) **des**-/**h**alogenazio; **hiper**-/**h**erstura; **hiper**-/**h**eparinemia;
inter-/**h**alogeno; **post**-/**h**ipnotiko; **post**-/**h**emorragiko; **sub**-/**h**eze;
sub-/**h**epatiko; **super**-/**h**eroi; **trans**-/**h**umantzia.

(DESEGOKIA) **de**-/**sh**alogenazio; **hipe**-/**r**herstura; **hipe**-/**r**heparinemia;
inte-/**r**halogeno; **pos**-/**th**ipnotiko; **pos**-/**th**emorragiko; **su**-/**b**eze;
su-/**b**hepatiko; **supe**-/**r**heroi; **tran**-/**sh**umantzia.

f) Bilkura berezi bat: *x + h*

Maileguetan, <ks> ahoskatzen da *x* letra hizkera zainduan (adibidez: sexu [sek.su], sexy [sek.si], taxi [tak.si], anxio [a.nek.si.o]); alegia, bi soinuren sekuentzia gisa. Haren ondotik bokal bat dagoenean, konbentzio grafikoa da ondorengo bokal horrekin lotzea lerro-amaieran hitza eten beharra gertatzen denean. Horregatik, lerro-amaierako

marratxoa haren aurretik jartzen da (se-/xua, se-/xy, ta-/xia, ane-/xioa), euskal hitzetan bezala (go-/xo, erre-/xil, ke-/xu). Haren ondoren *h* letra gertatzen denean, ordea, *x* letraren ondoren jartzen da lerro-amaierako marratxoa, lerro-hasieran *xh* bilkura —euskararentzat arrotza— gerta ez dadin:

(EGOKIA) **ex-/haustibo**, **ex-/hibizionismo**, **ex-/horto**, **sax-/horno**.

(DESEGOKIA) **e-/xhaustibo**, **e-/xhibizionismo**, **e-/xhorto**, **sa-/xhorno**.

2.1.1.1.6 Lerro-amaierako marratxoaren posizioa taula gisa laburbildurik

LETREN ANTOLAERA	MARRATXOAREN POSIZIOA
Bokalen arteko kontsonantea	
Ondorengo bokalarekin	a-/ma, e-/ra, ka-/tu, ta-/xi
Bokalen arteko kontsonantea edo bi kontsonanteren bilkura	
Hitzaren hasieran, ondorengo bokalarekin	sa-/tor, fro-/ga, pra-/ka, xa-/fla
Hitzaren amaieran, aurreko bokalarekin	za-/bal, asti-/gar, a-/rrunt, a-/ditz
Bi kontsonanteren bilkurak bokal artean	
Digrama bereizezinak badira (<i>dd, ll, rr, tt, ts, tx, tz</i>), ondorengo bokalarekin	kuadri-/lla, erre/ta, abera-/tsak, e-/txea, ba-/tzorde
<i>br, dr, fr, gr, kr, pr, tr</i> eta <i>bl, fl, gl, kl, pl, tl</i> bilkurak, ondorengo bokalarekin	dea-/bru, a-/dreilu, ko-/fradia, emi-/gratu, azu-/kre
Gainerako kontsonante-bilkurak, silaba desberdinetan (ikus salbuespenak)	adax-/ka, araz-/le, pier-/cing, kon-/tu, bes-/te, har-/tu
Hiru kontsonanteren bilkurak	
2. eta 3. kontsonanteek digrama osatzen badute, 1. kontsonantea silaba batean eta digrama hurrengoan	gizon-/tto, abar-/tsu, an-/txeta, agor-/tze
1. eta 2. kontsonanteek digrama osatzen badute, digrama silaba batean eta 3. kontsonantea hurrengoan	gatz-/dun, isats-/dun
2. eta 3. kontsonantea <i>br, dr, fr, gr, kr, pr, tr</i> eta <i>bl, fl, gl, kl, pl</i> edo <i>tl</i> badira, lehenengoa silaba batean eta beste biak hurrengoan	lan-/bro, al-/dra, zilin-/driko, dis-/frutatu
Gainerako kasuetan, 1. eta 2. kontsonanteak silaba batean eta 3.a hurrengo silaban	ins-/talatu, pers-/pektiba, plank-/ton, ist-/mo, belz-/garri, belz-/tasun
Lau kontsonanteren bilkurak	
1. eta 2. kontsonanteak silaba batean, eta 3.a eta 4.a hurrengo silaban	post-/produktzio, ins-/trumentu, abs-/trakzio
Kontsonantearen ondorengo h letra (ikus salbuespenak)	
< Konts. + h > bilkura hasieran edo amaieran: gainerako bilkuretan bezala	she-/riff, thai-/landiar, char-/ter crom-/lech, sand-/wich
< Konts. + h > bilkura bokal artean: <i>lh, nh, mh</i> eta <i>rh</i> silaba desberdinetan	al-/hatu, ain-/harbear, men-/hir, dir-/ham
Gainerako bilkurak, silaba berean	a-/tharraztar, la-/phizketar, si-/khismo, gei-/sha, wa-/shingondar

SALBUESPENAK

LETREN ANTOLAERA	MARRATXOAREN POSIZIOA
r letraz amaitutako <i>hiper-, inter-, super-, ziber-</i> aurrizkiak <i>r</i> letra ez zaio lotzen ondorengo bokalari silaba eratzeko	hiper- /esteka, hiper- /realismo inter- /aktibo super- /ordenagailu ziber- /eraso
kontsonante-bilkura: <i>r</i> edo <i>l</i> letraz hasten den hitzari <i>sub-</i> edo <i>post-</i> aurrizkia eranstean bazaio, <i>r</i> eta <i>l</i> silaba desberdinetan ----- Aurrizkia kenduta gelditzen den hitza beregaina ez bada, ez da salbuespena	sub- /robot sub- /luxazio post- /romantiko post- /literatura ----- su-/brogazio su-/bliminal
f edo t letraz amaitzen den hitza eta <i>-lari</i> atzizkia eranstean, <i>f</i> edo <i>t</i> letra eta atzizkiaren / letra silaba desberdinetan	surf-/lari trinket-/lari
< Aurrizkia + <i>gn-, mn-, pn-, ps-</i> hitz-hasierak >: aurrizkiaren azken letra ez da elkartzen hurrengo hitzaren hasierarekin	para-/psikologia, neo-/gnostiko
< Konts. + konts + h > bilkura: 1. kontsonantea silaba batean, eta 2.a eta <i>h</i> letra hurrengoan	al-/zheimer, apar-/theid, mur-/chantear, ket-/chup
< Konts. + h + konts > bilkura: <i>h</i> letra ez balego bezala	bangladesh-/tar, kazakhs-/tandar, flash-/back
< Kontsonantez amaitutako aurrizkia + h > bilkura: aurrizkia eta <i>h</i> silaba desberdinetan	hiper- /herstura, post- /hemorragiko, sub- /heze, trans- /humantzia
< x + h > bilkura: silaba desberdinetan	ex-/hibizionismo, sax-/horno

2.1.1.2 Lerro-amaieran noiz ez den erabili behar marratxoa

a) Osorik letra larriz idatzitako siglak⁴⁵

Osorik letra larriz idatzitako siglak ez dira bi lerrotan banatuta utzi behar, eta lerro-amaierako marratxoa ez da erabili behar sigla lerro batean uzteko eta siglaren kasu-marka hurrengo lerroan jartzeko; beraz, kasu horietan ezin da erabili marratxoa.

(EGOKIA) (...) HABEren / azterketetara joateko (...)

(DESEGOKIA) (...) HA- / BEren azterketetara joateko (...)

(DESEGOKIA) (...) HABE- / ren azterketetara joateko (...)

⁴⁵ Ikus 196. arauko siglen ataleko 17. puntua.

Letra larriz idatzita lehen letra bakarrik duten siglak, berriz, bi lerrotan banatu daitezke, eta, orduan, marratxoa erabil daiteke lerroaren amaieran.

(EGOKIA) Unes- / coren helburua

b) Laburdurak⁴⁶

Laburdura ez da inoiz bi lerrotan banatuta idatzi behar, eta lerro-amaierako marratxoa ez da erabili behar laburdura bi lerrotan banatzeko.

(EGOKIA) (...) iz. of. (...)⁴⁷

(DESEGOKIA) (...) iz.- / of. (...)

c) Zifrak

Zifraz idazten diren zenbakizko adierazpenak ez dira bi lerrotan banatu behar, eta lerro-amaierako marratxoa ez da erabili behar adierazpena bi lerrotan banatzeko.

(EGOKIA) 580 000 €

(DESEGOKIA) 580- / 000 €

(EGOKIA) XII.-XV. / mendeetan

(DESEGOKIA) XII.- / XV. mendeetan

(EGOKIA) Nafarrek 22-16 / irabazi zuten partida

(DESEGOKIA) Nafarrek 22- / 16 irabazi zuten partida

(EGOKIA) Norena da 192.158.1.38 / IP helbidea?

(DESEGOKIA) Norena da 192.158. / 1.38 IP helbidea?

D) URLak eta helbide elektronikoak

Web-helbideak eta helbide elektronikoak ez dira lerro-amaieran marratxoz eten behar, uler bailiteke marratxoa helbidearen parte dela.

⁴⁶ Ikus 196. arauko laburduren ataleko 15. puntua.

⁴⁷ *izen ofiziala* sintagmaren laburdura da iz. of.

(EGOKIA) https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegi-anbilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=29204&query=konstituzio-kontrakotasun

(DESEGOKIA) https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegi-anbilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entry-Id=29204&query=konstituzio-kontrakotasun

2.1.1.3 Marratxoa duten hitzak lerro-amaieran nola banatu

Marratxoz idazten den hitz-elkarte bat lerroaren amaieran eten behar denean, gainerako hitzetan bezala jar daiteke marratxoa. Adibidez, konstituzio-kontrakotasuna honela banatu liteke teorian:

kons- / tituzio-kontrakotasuna
konsti- / tuzio-kontrakotasuna
konstitu- / zio-kontrakotasuna
konstituzio-kon- / trakotasuna
konstituzio-kontra- / kotasuna
konstituzio-kontrako- / tasuna
konstituzio-kontrakota- / suna
konstituzio-kontrakotasu- / na

Bada beste aukera bat, maiz baliatua eta oso egokia dena: marratxoa dagoen tokian etetea hitz-elkartea lerroaren amaieran. Kasu horretan, marratxo bakarra jartzen da lerroaren amaieran, ez bi (bat hitz-elkarteari legokiokeena eta bestea lerro-amaierako etena adierazteari). Eta ez da marratxoa jarri behar hurrengo lerroaren hasieran ere. Anbiguitasuna gerta daiteke zenbaitetan, irakurleak teorian ez baitu jakingo hitza loturik idaztekoa den edo marratxoz idaztekoa, baina, arrazoi estetiko eta praktikoengatik, erabileran finkatutako tradizioa da halakoetan marratxorik ez jartzea lerroaren hasieran.

(EGOKIA) konstituzio- / kontrakotasuna

(DESEGOKIA) konstituzio-- / kontrakotasuna

(DESEGOKIA) konstituzio- / -kontrakotasuna

Bestalde, leku-izen eta abizen konposatuetan ez dago anbiguitasunik: bigarren osagaia ere letra larriz hasita idazten denez, letra larri horrek berak adierazten du ez direla loturik idazten.

Lasarte-Oriako herritarrak...

(EGOKIA) Lasarte- / Oriako herritarrak...

Antton Mari Aldekoa-Otalora ohorezko euskaltzaina...

(EGOKIA) Antton Mari Aldekoa- / Otalora ohorezko euskaltzaina...

2.1.1.4 Noiz ez den komeni hitza etetea

Irakurgarritasuna ez zailtzearren eta paragrafoa estetikoki harmoniatsua izan dadin, komeni da testu laburretan ez etetea hitza lerroaren amaieran. Kasu hauetan, adibidez:

- Izenburuetan: liburuetan, hedabideetako tituluetan, afixetan
- Azpituduetan: telebistan, filmetan
- Publizitateko eta ohartarazpenetako mezu laburretan: esku-orrietan, pankartetan.

Kasu horietan, ahal dela, ez da komeni hitz-elkartea osatzen duten bi hitzak lerro banatan uztea, batez ere marratxo idazten direnean. Adibidez, izenburu hau:

Nola sustatu seme-alaben autoestimua?

toki faltagatik lerro batean sartzerik ez badago, honela antolatu beharrean:

Nola sustatu seme-
alaben autoestimua?

hobe da honela antolatzea:

Nola sustatu
seme-alaben autoestimua?

2.1.1.5 Lerro-bukaeran hitza etetean kontuan hartu beharreko zenbait aholku

• Hitza etetean, silaba bakarra utz daiteke lerroaren amaieran edo hurrengo lerroaren hasieran, baina ez da utzi behar bokal bat soilik, silaba eratzen badu ere.

(EGOKIA) Europar Batasuneko konstitu- / **zio** baten alde

(DESEGOKIA) Europar Batasuneko konstituzi- / **o** baten alde

(EGOKIA) Errepublikaren garaiko **aber-** / tzaletasunaren ahaleginak

(DESEGOKIA) Errepublikaren garaiko **a-** / bertzaletasunaren ahaleginak.

- Ez eten lau letrako hitzik.

(DESEGOKIA) **ni- / re bu- / ru es- / ne ja- / so.**

- Hitza banatu ondoren, desegokia da bi silaba edo bi hitz-zati berdin elkarren ondoan gelditzea lerroaren bukaeran edo hasieran.

(DESEGOKIA) Ikasi behingoz halakoetan auzitan dagoena ez **dela dela-** / ko elkartearen...

(DESEGOKIA) Eusten saiatuko **gara, gara-** / pena modu iteratiboan eginez.

(DESEGOKIA) Herria apirilerako husteko agin- / **du du** epaileak.

(DESEGOKIA) Hari ere erri- / **eta eta** irain egingo diote.

- Paragrafoaren amaieran ez da komeni silaba bakar bat uztea.

(DESEGOKIA) Ipar Euskal Herrian ez daiteke erran poesia hiltorian dela: idatzizko genero literario gisa ez dabil osasun onean, baina beste forma batzuen bidez **di-rau.**

2.1.2 Hitzak elkartzea

Lerroaren bukaeran ezarrita hitza eten dela adierazteko erabiltzen bada ere, marratxoaren benetako funtzioa lotura adieraztea da (lerroaren bukaeran ezartzen denean ere, azken batean hori adierazten du, hitz hori ez dela hor amaitzen, baizik eta hurrengo lerroan dagoenarekin lotua dagoela). Hala, bi hitzen artean ezartzen da marratxoa hitz horiek elkartuta daudela adierazteko.

2.1.2.1 Izen bereziak elkartzea

Loturik idazten ez diren abizen konposatuen kasuan, bi osagaiak lotzeko erabiltzen da.

Uribe-Etxebarria, Aldekoa-Otalora, Hiriart-Urruti.

Administrazio-elkarte bat osatzen duten herrien izenak lotzeko ere erabiltzen da⁴⁸.

Arratzua-Ubarrundia, Beintza-Labaien, Altzai-Altzabeheti-Zunharreta, Lasarte-Oria, Gamiz-Fika.

⁴⁸ Euskaltzaindiaren 141. araua (*Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera*).

OHARRA

Herri batek edo erakunde batek bi izen baditu —euskarazko izen bat eta erdarazko izen bat—, marratxoa ez da erabili behar bi izenok elkarrekin idatzi behar direnean, hala nola izendegietan eta bide-seinaleetan. Bi izenak bereizteko, zehar-marra baliatu behar da (/).

(EGOKIA) Donostia / San Sebastián, Doneztebe/Santesteban

(DESEGOKIA) Donostia - San Sebastián, Doneztebe-Santesteban

(EGOKIA) Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Marratxoa baliaturik, kopulatibo deitu izan zaien hitz-elkarteak ere (dvandvak) eratzen dira izen bereziekin, hala leku-izenekin nola pertsona-izenekin.

Afrika-Asiak, Azpeiti-Azkoitiak, Bilbo-Iruñeak, Bizkai-Gipuzkoak,
Oria-Bidasoak, Sakana-Burundak.

Axular-Etxepareak, Unamuno-Barojak.

2.1.2.2 Hitz-elkarteak adieraztea

Hitz-elkarte mota batzuk nahitaez marratxoz lotu beharrekoak dira, eta beste batzuk, nahitaez bereiz idaztekoak; batzuetan, aukerakoa da marratxoz zein bereiz idaztea, eta, beste batzuetan, aukerakoa da marratxoz zein loturik idaztea. Euskaltzaindiaren 25. arauan (*Hitz elkartuen osaera eta idazkera*) zehazten dira kasuok banan-banan. Kasurik ohikoenak aipatuko eta zehaztuko dira jarraian.⁴⁹

2.1.2.2.1 Nahitaez marratxoz loturik idatzi beharrekoak

- Bikoiztapen indargarriak.

gorri-gorria, ozta-ozta, dagoen-dagoenean, gaur-gaurkoz

- Bikoiztapenak.

apurka-apurka, bat-batean, banaka-banaka, aldian-aldian

⁴⁹ Hitz-elkarte baten laburdura erabiltzen denean, baldin eta elkartea marratxoz idazten bada, marratxoari euts dakiok laboraturan ere. Ikus 196. arauko laboruren ataleko 7. puntua. Ikus noiz erabiltzen den marratxoa sigla alfanumerikoetan 196. arauko siglen ataleko 6.1 puntuan eta noiz sigla elkartuetan 6.3 puntuan.

- Sinbolismo fonetikoak eta hots-uztardurak⁵⁰.

bor-bor, dar-dar, pil-pil; plisti-plasta, tirrika-tarraka, firin-faran;
handi-mandi, tarteka-marteka, zehatz-mehatz

- Dvandva edo kopulatibo direlakoak.

- Zenbatzailez osatuak

gutxi-asko, hamar-hamabi, berrehun-hirurehun

- Galdetzailez osatuak

zer-nolako, noiz-nongo

- Izenez osatuak

seme-alabak, errege-erreginak, gizon-emakumeak; begi-belarriak,
janari-edariak, on-gaitzak, zeru-lurrak, izen-deiturak

- Adjektiboz osatuak

txuri-urdin, zuri-gorri, teoriko-praktiko, gazi-geza, greko-erromatar,
albano-kosovar, afro-amerikar

- Adberbioz osatuak

han-hemen, hara-hona, atzera-aurrera, goiti-beheiti

- *ez-* aurrizkia. Aditz-izenei eta adjektiboetara lotuta.

ez-betetze, ez-egite; ez-gramatikal, ez-konfesional, ez-metal, ez-ofizial

2.1.2.2.2 Marratxoz loturik edo bereiz idatz daitezkeenak⁵¹

- Izen + izen kategoriako hitz-elkarte mendekotasunezkoak (*eguzki-lore*). Sail ugariena eta emankorra da.

diru-sarrera / diru sarrera, barne-lotura / barne lotura, behi-esne / behi esne,
landa-lan / landa lan, herri-baso / herri baso, limoi-azal / limoi azal,
bertso-bilduma / bertso bilduma, sardina-lata / sardina lata, irin-fabrika / irin

⁵⁰ Batzuk lexikalizatu egin dira, izen bihurtuta, eta orduan loturik idazten dira. Adibidez, *zirimiri, dardara, zurrumuru, tirabira*.

⁵¹ Kasu batzuetan, marratxoa lagungarria da anbiguotasuna ezabatzeko, garbi uzten baitu egitura izen-elkarte bat dela eta ez izen bat eta adjektibo bat: *txori-hiltzailea* (txorien hiltzailea) eta *txori hiltzailea* (hiltzaile den txoria) edo *abiadura-konstantea* (abiaduraren konstantea) eta *abiadura konstantea* (aldatzen ez den abiadura) ez dira esanahi berekoak.

fabrika, lurrun-makina / lurrun makina, oilo-salda / oilo salda / uda-ikastaro / uda ikastaro, erbi-zakur / erbi zakur, pilota-txapelketa / pilota txapelketa, futbol-talde / futbol talde / garaje-itxura / garaje itxura

- Hitz-elkarte sintetikoak (*kale-garbitzaile*)

parte-hartzaile / parte hartzaile, zerga-biltzaile / zerga biltzaile, ontzi-gidari / ontzi gidari, kilometro-kontagailu / kilometro kontagailu, odol-isurtze / odol isurtze

2.1.2.2.3 Loturik edo marratxoz idatz daitezkeenak

Izen batez eta adjektibo batez osatutako adjektiboak. Adibidez, sudur (izena) + luze (adjektiboa) = sudurluze (adjektiboa)

sudurluze / sudur-luze, musugorri / musu-gorri, / puntabiribil / punta-biribil

2.1.2.2.4 Idazkera arautu gabekoak: koordinazio- eta atributu-elkarteak

Bi izenez osatutako elkarteak dira, baina, kopulatiboetan ez bezala, izaki bakarra adierazten dute⁵². Adibidez, afari-merienda eta kapitain pilotu.

Koordinazio-elkarteak gehienbat marratxoz loturik idatzi ohi dira.

afari-merienda, lehorgailu-garbigailu

Atributu-elkarteetan, berriz, idazkera ez dago erabat estandarizatuta, marratxoz edo bereiz (marratxorik gabe) eman ohi dira.

Bigarren osagaiak izenondo-adiera duenean, bereiz idatzi ohi dira.

neskatila zerbitzari, harri zilindro, gizon asto

Lehenengo osagaiak izenondo-kutsua duenean, marratxoz edo bereiz idatzi ohi dira.

eskola-etxe / eskola etxe, bonba-auto / bonba auto

2.1.2.2.5 Marratxoaren erabilera hitz-elkarte koordinatuetan

Mugakizun bera duten bi hitz-elkarte (edo gehiago) elkarren ondoan gertatzen direnean, mugakizuna ken daiteke lehenengo hitz-elkartean (eta bigarrean, hiru badira) eta,

⁵² Hitz-elkarte mota horien deskribapen zehatza ageri da *Euskararen Gramatikako* 7.1.3 puntuan.

hala, mugatzailearen koordinazio-hedapena baliatu⁵³. Marratxoz idazten diren hitz-elkarteak badira, mugakizuna desagertzen da, baina marratxoa ez. Adibidez:

edari-saltzailea eta izozki-saltzailea da \Rightarrow edari- eta izozki-saltzailea da.

galdera- eta harridura-markak

betetze- eta huste-lanak

negozio-, inbertsio- eta lankidetzeta-aukerak

goi- eta behe-mailako literatura

Mugatzaile bera duten bi hitz-elkarte (edo gehiago) elkarren ondoan gertatzen direnean ere egin liteke koordinazio-hedapena:

auto-saltzailea eta auto-konpontzailea \Rightarrow auto-saltzaile eta -konpontzailea

ingurumen-adierazleak, -indizeak eta -kontabilitatea

2.1.2.2.6 Marratxoaren erabilera letra larriz hasitako hitzetan

Nahitaez marratxoz idatzi beharreko hitz-elkarte baten osagai biak letra larriz idaztekoak badira, berdin jartzen da marratxoa.

Lasarte-Oria, Altzai-Altzabeheti-Zunharreta, Bizkai-Gipuzkoak⁵⁴

Marratxoa aukerakoa duen hitz-elkarte batean osagaiak letra larriz hasita idazten badira (erakunde-izen batean, adibidez), ez da marratxorik erabiltzen.

Egungo **foru-aldundien** aurrekariak; Arabako **Foru Aldundia**

Nafar **odol-emaileak**; Nafarroako **Odol Emaileen** Elkartea.

2.1.2.2.7 Marratxoaren erabilera tandem elkartetan

Gutxienez hiru hitzez osatutako elkarte bereziak dira. Azken osagaia, eskuineko izena, hitz-elkartearen burua da, eta, ezkerreko osagaien bidez, eskuineko izenari buruzko

⁵³ Eskuineko osagaia da mugakizuna (adibidez, *edari-saltzailea* hitz-elkartean, *saltzaile*) eta ezkerreko osagaia, berriz, mugatzailea (*edari*): *edari* hitzak zer *saltzaile* mota den zehazten du, *saltzaile*-mota guztien artean mota bakar batera mugatzen du.

⁵⁴ Lekua gehi eskualdea, harana edo ibarra adierazten duten herri-izenetan, lehendabizi herriaren izena jartzen da eta, gero, tarteko marratxorik gabe, ibar edo eskualdearena. *Donibane Garazi*, *Donibane Lohizune*, *Uharte Arakil*, *Etxarri Aranatz* (Euskaltzaindiaren 141. araua, *Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera*).

informazio bat ematen da modu trinkoan; hau da, bestela izenlagun konplexu baten bidez edo perpaus erlatibo baten bidez adieraziko litzatekeena laburtzeko balio dute.

Adibidez:

Bilbo-Behobia autobidea ⇒ Bilboren eta Behobiaren arteko autobidea

Behobia-Donostia lasterketa ⇒ Behobian hasi eta Donostian amaitzen den lasterketa

kobre-eztainu aleazioa ⇒ kobrez eta eztainuz osatutako aleazioa

EAJ-PSE koalizioa ⇒ EAJ eta PSE alderdiek osatutako koalizioa

mugatzaile-mugakizun hurrenkera ⇒ lehenengo mugatzailea eta gero mugakizuna den hurrenkera.

Era horretako elkarreetan, marratxoa ezartzen da ezkerreko osagaien artean. Barra etzana baliatzen da, berriz, zatidurazkoak (ar/eme proportzioa) edo txandaketazkoak direnean (on/off aldaketa).

2.1.2.3 *edo* eta *eta* juntagailuak aurreko hitzarekin lotzea (-*edo*, -*eta*)⁵⁵

Adiera edo balio bereziekin erabiltzen dira, batzuetan, *eta* eta *edo* juntagailuak. Azken juntagaia edo juntagaiak aipatu gabe uzten dira, solaskideak informazio hori —edo behar beste informazio— baduela pentsaturik. Halakoetan, intonazioari dagokionez, aurreko juntagaiari loturik azaltzen da juntagailua. Aukerakoa da, *eta* lagungarria, juntagailuaren aurrean marratxoa jartzea eta aurreko hitzari lotuta idaztea kasu horietan.

Esan didate zuen etxean-**edo** beste egun batean agertuko direla beharbada.

Zoratu-**edo** egin omen da.

Irenek-**edo** egingo zuen.

Irenek-**eta** egin dute.

Sarriago erabiltzen da bigarren pertsona, kontakizunetan-**eta**, balio generikoarekin.

⁵⁵ Ikus Euskaltzaindiaren 27. araua (“*Hori eta*”, “*hori edo*” eta horrelakoen idazkera) eta Euskararen Gramatikaren 28.7 puntua.

Lehoiek-**eta** lehia handia izaten dute elkarren artean.

Ushuaian-**eta** izan naiz oporretan.

Bestalde, badu *eta* juntagailuak beste funtzio bat intonazioan aurrean duen adizkiari lotuta azaltzen denean (-*eta* enklitiko⁵⁶): kausazko azalpenezko perpausak eratzea. Bere perpausaren amaieran ematen da, adizki jokatuaren ondoan. Perpaus nagusiaren ondoren agertzen da askotan, esaldiaren amaieran:

Gauden erne, etsaia hurbil **da eta**.

Ez naiz luzatuko, berandu **da eta**.

Neuk jarraituko dut, aspaldi ez **dut hitz egin eta**.

Partida galdu dute, burumakur **datoz eta**.

Antolaera horretan, ez da beharrezkoa marratxoa erabiltzea *eta*-ren aurrean, puntuaren aurretik dagoenez garbi baitago hor amaitzen dela eta ez dagoela juntagai bat *eta* horren ondotik. Beste batzuetan, perpaus nagusiaren aurretik agertzen da, koma batez bereizita perpaus nagusitik.

Berandu **da eta**, goazen etxera.

Gizonak, agure **zen eta**, makur-makurra zeukan lepoa.

Antolaera horretan ere ez da beharrezkoa marratxoa, komak garbi adierazten baitu non egiten den etena. Baina barnean ere ager daiteke, mendeko perpaus baten barnean adibidez, eta, orduan, komarik gabe. Kasu horretan, komeni da marratxoa jartzea *eta* hitzaren eta beraren aurreko aditzaren artean, anbiguotasunik ez izateko.

Harizti honetako haritz gehienak motzak dira, lepatu egin zituzten-**eta** urte askoan.

Ez nien familiakoei ezer esan, banekien-**eta** denak jeloskor jarriko nituela.

Harrituta zeuden, itsusia zen-**eta** zuk esan zenuen hura.

Ez dira-**eta** hamabost egun Mikel Isabelekin luzaz aritu zela.

Eta enklitiko hori -(e)la perpausei atxikita ematen da zenbaitetan (*dela eta*). Kasu horietan ere, marratxoa erabili ohi da ondotik punturik edo komarik ez duenean.

⁵⁶ Ikus *Euskararen Gramatikaren* 38.7 puntua.

Gaixorik zegoela eta, oheratzeko agindua jaso zuen.

Gaixorik zegoela-**eta** oheratzeko agindua jaso zuenean hasi zen kezkatzen.

Dirua dela eta, kezkatua dabil jendea.

Dirua dela-**eta** kezkatzeko arrazoirik badela uste al duzu?

Zer dela-**eta** dabil harro?

2.1.3 Hitza eta kasu-marka bereiztea

Kasu-markaren aurretik marratxoa jar daiteke, nahitaezkoa ez bada ere, hitza arrotza edo ezezaguna denean, hala garbi adierazteko non amaitzen den hitza. Maiz gertatzen da hori kanpoko pertsonen izen eta deituretan eta leku-izenetan.

Adibidez, Locke deitura ergatiboan dagoenean (Lockek), marratxoa jar daiteke (Locke-k) irakurleari ohartarazteko deitura Locke dela eta ez Lock; edo datiboan (Lockerri), marratxoa jar daiteke (Locke-ri) irakurleari ohartarazteko deitura Locke dela eta ez Locker. Edo Gabes edo Bordele leku-izenetan, lekuzko kasuetan (Gabesen, Gabesera; Bordelen, Bordelera...), marratxoa jar daiteke (Gabes-en, Gabes-era; Bordele-n, Bordele-ra...) irakurleari ohartarazteko leku-izenak Gabes eta Bordele direla eta ez Gabese edo Bordel⁵⁷.

Garbi dago, bestalde, anbigutasuna ez dela beti kasu-marka guztiekin gertatzen. Adibidez, Gabesi (datiboan) ez da anbigua, leku-izena Gabese balitz datiboan Gabeseri bailitzateke.

Izen ezagunekin, aldiz, ez da beharrezkoa: Emmanuel Macronek Parisen erran zuen hori idatz daiteke, adibidez, eta ez da beharrezkoa Emmanuel Macron-ek Paris-en erran zuen hori idaztea. Nolanahi ere, ezaguna zer den eta zer ez den eta norentzat den eta norentzat ez den ezin da modu orokorrean ebatzi, testuak askotarikoak baitira (eskola-liburuak, hedabideak, literatura, zientzia-lanak...), bai eta irakurleak ere (ikasleak, publiko orokorra, espezialistak...). Beraz, marratxoaren erabilera argigarri gerta daiteke batzuetan, baina astungarri ere gerta daiteke. Estilo-kontua da, eta ezin da gomendio orohartzailerik eman. Erabiltzaile batzuek, adibidez, hitzaren lehen

⁵⁷ Euskal Herriko leku-izenetan ez da beharrezkoa izaten marratxoa, baina zalantza eragiten duten izenetan erabil daiteke, asmo didaktikoz. Adibidez, *Urepele-ko*, *Uztarroze-ra*, *Beskoitze-n*, *Bidankoze-tik*.

agerraldian bakarrik ezartzen dute marratxoa, lehen aldiz aurkezten denean, eta ondorengoetan ez.

Marratxoa jartzea erabilgarria gerta daiteke, halaber, ahoskera eta idazkera desberdinak direla nabarmendu nahi denean, baina kasu horretan ere estilo-irizpidea da. Adibidez:

croissant-ak erosi ditu [kruasanak]

Apple-ren logoa [appelen]

Calais-en bizi da [kalen]

Shakespeare-ren sonetoak [xekspirren]

Erabilgarria da, orobat, hatxe letraz amaitutako hitzen kasuan. Adibidez:

Allah-ren izenean

Persiako xah-aren gorrea

Sarah-k idatzitako gutunak.

Kasu-marka lotzeak hitzaren ezagutza zaildu badezake edo kontsonante-bilkura ezohiko bat eragin, marratxoa erabil daiteke. Adibidez:

larunbat-tzat, habitat-tzat.

Edo, euskal pertsona-izen gutxi batzuetan, marratxoa jar daiteke emakumezko-izena eta gizonezko-izena batera gertatuz gero —elkarrizketa batean, kasurako— nahastea saihestearren. Adibidez:

Jon, Jone; Danel, Danele; Euken, Eukene

Jon-ek, Jone-k; Danel-ek, Danele-k; Euken-ek, Eukene-k.

2.1.3.1 Hitza eta kasu-marka bereiztea letra etzanez idatzitako hitzetan⁵⁸

Hitz bat letra etzanez dagoenean kasu-marka letra etzanez idaztekoa ez bada⁵⁹, ez da beharrezkoa marratxoa jartzea bien artean, garbi baitago non bukatzen den bata eta

⁵⁸ Ikus 198. arauko 4.17, 4.18 eta 4.19 puntuak.

⁵⁹ Hori noiz gertatzen den jakiteko, ikus 198. arauko 4.16 puntua.

non hasten bestea, baina ez da debekua marratxoa jartzea, estilo-aukera baizik. Dena dela, bi kasutan beharrezkoa da marratxoa:

- Letra etzanez amaitzen den hitza *r* letraz amaitzen denean, marratxoz lotzen zaio kasu-marka, gaizki ahoskatzeko biderik ez emateko.

Excalibur-en famak itzal egin zien gainerako ezpata-izen ospetsu guztiei.

Etsaiak ez dira kosakoak, baizik eta *huissier*-ak eta zerga-biltzaileak.

- Metahizkuntzan.

Ikusiko dugu *omen*-ek eta *ote*-k badutela adizki jokatuaren eskuinean agertzeko aukera.

Horrelako egituretan emendiozko juntagailua *bai*-ren indartzaile soila da.

2.1.4 Sigla eta kasu-marka bereiztea⁶⁰

Kasu-markak zuzenean eransten zaizkio siglari, marratxorik erabili gabe. Testu arruntak idazteko letra xeheak erabiltzen direnez eta siglak, berriz, letra larriz idazten direnez, oso argi zedarrituta gelditzen da zer den sigla eta zer ez, eta ez da behar, beraz, marratxorik.

Hala ere, bi kasutan erabiltzen da marratxoa siglaren eta kasu-markaren artean:

- Testu osoa letra larriz idatzita dagoenean, hala nola testuaren barneko izenburuetan.

BEZ-AREN IGOERA

- Letra larriz osatutako parte baten ondoren letra xehea duten siglen kasuan.

ETAp_m-ren desegitea

2.1.5 Sinboloa eta kasu-marka bereiztea⁶¹

Kasu-markak marratxoz lotzen zaizkie sinboloei. Testuan txertatu behar direnean, marratxoa jartzen da sinboloaren eta artikuluaaren edo kasu-markaren artean.

CO₂-aren isurketak

Mendilerroak NW-tik SE-ra zeharkatzen du lurraldea.

40 s-an osatu du itzulia.

220 V-eko tentsioa

⁶⁰ Ikus 196. arauko siglen ataleko 15.5 puntua.

⁶¹ Ikus 197. arauko 6.4 puntua.

2.1.6 Zifrak bereiztea

- Elkarrekin harremanen bat duten zifrak lotzeko —eta, era berean, bereizteko— erabiltzen da marratxoa, eta ez da zuriunerik uzten marratxoaren alde banatan. Adibidez, bitarteak adierazteko (denbora-bitarteak zein bestelakoak):

2023-2024 ikasturtea edo 2023-24 ikasturtea

XII.-XVII. (edo XII-XVII.) mendeetan

14.-27. orrialdeak edo 14-27. orrialdeak

% 2-% 5 bitartean (edo % 2-5 bitartean) igoko da KPIa datorren urtean.

Urak 25 °C-27 °C bitartean (edo 25-27 °C bitartean) egon behar du igerilekuan.

10-12 lagun elkartzen gara egunero jantokian.

Bihar, elur-maila 200-300 metrora jaitsiko da.

Jose Migel Barandiaran (1889-1991)

OHARRA

Denbora-bitarte bat zedarritzen duten bi urte oso adierazi nahi direnean, urte bakoitzaren zifra guztiak idazten dira marratxo batez bereizita. Orduan, adierazitako denbora-bitartea lehenengo urteko urtarrilaren 1etik azken urteko abenduaren 31ra doa.

2015-2016 programa [2015eko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra]

2018-2021 aldia

Bi urte oso ez direla zehazki adierazi nahi den kasurako, ikus 2.3.4 puntua (barra etzana).

- Kaleetako eraikinen ondoz ondoko zenbakiak adierazteko (modu konbentzionaletan hartzen dira ondoz ondoko zenbakitzat, binaka baitoaz: bakoitiak kalearen alde batean eta bikoitiak bestean).

Aizkorri kaleko 84-86 eraikinean dauka bulegoa.

- Datak adierazteko ere, marratxoa baliatzen da urtea, hilabetea eta eguna bereizteko (barra etzana ere baliatu ohi da horretarako).

2023ko urriaren 28a ⇒ 2023-10-28

- Partiden emaitzak adierazteko.

1-3 irabazi zion Osasunak Alavesi joan den igandean Gasteizen.

Frontoia gipuzkoarrez gainezka zegoen, baina nafarrek 22-16 irabazi zuten.

- Ipar Euskal Herrian⁶², Frantziako lege, dekretu eta kidekoen izenetan, zenbakien artean ezartzen da marratxoa, haren alboetan zuriunerik utzi gabe. Zifra-multzo bakoitzak bere funtzioa du, eta marratxoa multzo horiek bereizteko baliatzen da.

2009-1549 Dekretua, 2009ko abenduaren 14koa

2023-654 Legea, 2023ko uztailaren 23koa

2.1.7 Sigla elkartuak bereiztea⁶³

Bi siglaren batura diren sigletan, marratxoa erabiltzen da osagaiak bata bestetik bereizteko.

PSE-EE (Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra)

CD-ROM (compact disc eta read-only memory)

2.1.8 Letrak eta zifrak bereiztea

Badira adierazpen berezi batzuk letraz eta zifraz osatuak, hala nola sigla alfanumerikoak⁶⁴ eta kode batzuk. Sigla alfanumeriko gehienak marratxorik gabe idazten dira, hala nola ETB1, M16, MP3, G20, 3D eta abar, baina urteko egun aipagarri bat laburtzeko hilabetearen lehen letra, larriz idatzita, eta hileko eguna, zifraz idatzita, elkartzan direnean, marratxoa jartzen da letraren eta zifraren artean.

I-11 (irailaren 11)

M-8 (martxoaren 8a)

O-23 (otsailaren 23a)

⁶² Hego Euskal Herrian, barra etzana erabiltzen da lege, dekretu eta kidekoen izenetan.

⁶³ Ikus 196. arauko siglen ataleko 6.3 puntua.

⁶⁴ Ikus 196. arauko siglen ataleko 6.1 puntua.

2.1.9 Hitz-zatiak adieraztea

Hizkuntzalaritzan, marratxoa erabiltzen da hitzaren osagaiak txertatzeko, hau da, morfemak. Marratxoaren bidez adierazten da autonomia lexikalik gabeko osagaiak direla.

Aurrizkia dela adierazteko, aurrizkiaren ondotik idazten da marratxoa.

Hiztegitik ber-/bir- aurrizkidun aditz askori eman diote sarrera.

Atzizkia dela adierazteko, atzizkiaren aurretik idazten da marratxoa.

Egilea adierazten dute *-le* edo *-tzaille* atzizkiek.

Artizkia dela adierazteko, artizkiaren alde banatan idazten da marratxoa.

Inesiboaren aurrean ageri den *-a-* hori artikulua ote den eztabaidatu izan da.

Aspaldi ihartua dugu *-ra-* artizki kausatiboa.

2.1.10 Marratxoaren beste erabilera batzuk⁶⁵

- Testuko hitz bati enfasia emateko modu bat haren silabak marratxoz lotzea da.

Ka-le-ra!

Honezkero inor gutxik jarriko du zalantzan: bel-dur-ga-rri-a da.

- Totelka mintzatzea grafikoki islatzeko modu bat da errepikatzen diren silaben artean marratxoa jartzea.

Eta ze-zer egin be-behar dut, bada, nik? —galdetu zuen totelka.

- Hitz bat letraz letra ahoskatzen dela adierazteko, marratxoz lotuta idazten dira letrak.

Nire izena Maddi da: m-a-d-d-i.

⁶⁵ Konposatu kimiko organikoen izen askotan, marratxoak erabiltzen dira izen konplexuaren parte gisa (bai eta komak, parentesiak eta abar ere), nazioarteko arauetan zehaztuak (IUPACen arauak). Adibidez: 4,4-dietil-2,3-dimetil-5-propiloktanoa; 2-metil-3-(1-metiletil)hexanoa. Eremu espezializatuetako erabilerak ez dira lan honetan zehaztekoak, nazioartekoak baitira.

2.2 Beheko marra

Idazketa-lerroaren azpian jartzen den lerro horizontala (), *azpimarra* ere deitua. Formaz marratxoa bezalakoa da, baina hura halako bi da luzeran eta hura baino beherago kokatzen da.

BEHEKO MARRA	MARRATXOA
<u> </u>	—

Testu-prozesadoreak agertu baino lehen, idazmakinak erabiltzen zirenean, beheko marra karaktere bat zen, hitzak azpimarratzeko erabilia. Gaur egun, beheko marra ez da erabiltzen ohiko idazkeran testu arruntak idazteko, baina baditu funtzio batzuk, marka lagungarri gisa, batez ere informazioaren teknologia berrietan.

- Zuriunerik ezin denean jarri, ulertuko bailitzateke adierazpenaren osotasuna eten dela, beheko marra baliatzen da. Hala, fitxategien izenetan, Interneteko URLetan eta posta elektronikoko helbideetan, zuriunea ordeztu du; beraz, haren albo banatan ezin da zuriunerik jarri.

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabildatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu-ES

izena_abizena@enpresa.eus

- Letra etzana (edo komatxoak) onartzen ez duten sistemetan, beheko marra erabiltzen da letra etzanez jarri beharreko hitza edo hitzak seinatzeko.

Bidali niri *Urteko txostena* izeneko dokumentua

Hala idatziko da, adierazteko honela idatzita agertu behar lukeela:

Bidali niri *Urteko txostena* izeneko dokumentua.

- Azkenik, inprimaketan ere erabili ohi da, betetzeko zuriuneak utzi behar direnean.

Izena _____

Abizenak _____

2.3 Barra etzana

Barra etzana marra diagonal bat da, goitik behera eta eskuinetik ezkerrera trazatu ohi dena eta gutxi gorabehera letra larri baten altuerakoa edo, letra-tipoaren arabera, handixeagoa (/). Halaber deritzo *zihar-marra*.



2.3.1 Terminoen arteko erlazio bat ezartzea

Barra etzanak alde banatan dituen formak erlazionatzen ditu, eta haien arteko nolabaiteko kontrakotasuna, aukera edo txandaketa adierazten. Hori du funtzio nagusia.

- Gehienetan EDO juntagailuaren funtzioa betetzen du, hau da, disjuntzioa, eta hitzak, hitz bat baino gehiagoko unitateak edo morfemak elkartzen ditu. Barra etzanaren bidez elkartzen diren formak hitz bakar batez edo hitz-zatiz osatuta badaude, ez da zuriunerik uzten barra etzanaren alde banatan⁶⁶.

Bezero jauna/andrea

Zure semea/alaba udalekuetara bidali nahi baduzu...

Zenbat olio/harri/ardo/diru?

Agurain/Salvatierra

nahia/desioa/beharra adierazten duten aditzak

-(e)la/-(e)larik menderagailua

on/off aldaketa

irekita/itxita

sarrera/irteera

UPNA/NUP

Bereizketa ez litzateke perpaus iragankor/iragangaitzen artean egingo.

⁶⁶ Parentesien bidez ere adieraz daiteke aukera hitz-zatietako bat berdina denean: -(e)la/-(e)larik menderagailua edo -(el)a(rik) menderagailua.

Barra etzanaren bidez elkartzen diren terminoetako batek, gutxienez, hitz bat baino gehiago baditu, zuriune bat uzten da barra etzanaren aurretik eta ondotik, garbi uzteko disjuntzioa ez dagokiela barra etzanaren ondo-ondoan dauden hitzei soilik.

Badira *etorri naiz / etorria naiz* bezalakoak, eta *ikusi ditut / ikusiak ditut* moduko bereizketak.

Donostia / San Sebastián; Puente la Reina / Gares

Bietara idatz daitezke *hamarrez gero / hamarrak ezkerro, zortziaz gero / zortziak ezkerro, sanferminez gero / sanferminak ezkerro, atzoz gero / atzo ezkerro* gisakoak.

- Beste era bateko erlazioa ezartzeko ere baliatzen da barra etzana, hots, bi terminoren arteko proportzioa edo zatiketa adierazteko. Adibidez, neurri-unitateen eta diru-unitateen sinboloekin:

60 km/h-ko abiadura

(orduko hirurogei kilometroko abiadura = hirurogei kilometro zati orduko abiadura)

tarifa 350 €/urte da

(tarifa hirurehun eta berrogeita hamar euro da urtean = tarifa urteko hirurehun eta berrogeita hamar euro da)

ar/eme proportzioa

Matematikan, zatiketa eta zatikiak adierazteko erabiltzen da. Zenbakien eta barra etzanaren artean ez da zuriunerik uzten.

$48/6 = 8$ (berrogeita zortzi zati sei berdin zortzi)

$2/5$ (bi bosten)

$3/4$ (hiru laurden)

- Kartografian eta eraikuntza-planoetan, barra etzana erabil daiteke eskala adierazteko.

1/100 000 eskalan, 1 mm-ek 100 m adierazten du.

- Bi termino aurrez aurre jartzeko ere baliatzen da, *versus* hitzaren antzeko esanahiarekin.

presio/bolumen diagrama

2.3.2 Lerro-amaiera adieraztea

Lerro berean jarraian idazten diren olerki, bertso edo abestien bertso-lerroak non amaitzen diren adierazteko erabiltzen da barra etzana. Kasu horretan, zuriune bat utzi behar da barra etzanaren albo banatan.

Oihaneko pagoak blai / aideratuz hiru elai. / Ostadarraren harian dira / hirurak pausatu nahi.

(*Sorterriko koblak*, Joseba Sarrionandia)

Ni hilen naiz, / nire arima galduko da, / nire askazia galduko da, / baina nire aitaren etxeak / iraunen du / zutik.

(*Nire aitaren etxea*, Gabriel Aresti)

Ortografiako azalpenetan, lerro-amaierara iristean hitzak nola banatu behar diren eta nola banatu behar ez diren erakusten du barra etzanak.

para-/psikologia eta ez *parap-/sikologia*, nahiz eta *autop-/sia* edo *elip-/se* banandu.

2.3.3 Data adieraztea

Data zifra bidez idazten denean, nazioarteko arauen arabera marratxoa baliatu behar bada ere, barra etzana ere balia daiteke urtea, hilabetea eta eguna bereizteko.

2023/10/28

2.3.4 Zerbait ondoz ondoko bi urteren artean gertatzen dela adieraztea

Urte-bitarteak adierazteko, marratxoa erabiltzen da (ikus 2.1.6 puntua); hala ere, barra etzana erabiltzen da batzuetan marratxoaren ordez —edo marratxoarekin konbinatuta— urte baten parte bat eta hurrengo urtearen beste parte bat bakarrik aipatu nahi denean, batez ere nekazaritza-kanpainak, finantza-urteak eta urte fiskalak adierazteko. Urte akademikoak eta kirol-denboraldiak adierazteko ere erabil daiteke, baina ohikoagoa da marratxoa, nahiz eta bi urte oso ez adierazi.

2020/21-2023/24 urte fiskalak bereziki zailak izan ziren AEBn ditugun enpresentzat.

[2020/21, 2021/22, 2022/23 eta 2023/24 urte fiskalak adierazteko]

2019/20 ardogintza-kanpaina

1999/2000 nekazaritza-kanpaina

Zeelanda Berriko enpresak % 8 handitu zituen diru-sarrerak 2022/23 urte fiskalean.

2.3.5 Lege, kode eta kidekoetan

Hego Euskal Herrian⁶⁷, lege, dekretu, agindu, ebazpen eta kidekoen izenetan, zenbakien eta letra-kodeen artean ezartzen da, haren alboetan zuriunerik utzi gabe. Hala egiten da dokumentu, kode, txosten eta kidekoetan ere. Kodeetan, zenbaki-multzo edo letra-multzo bakoitzak bere funtzioa du, eta barra etzanak multzo horiek bereizten ditu.

JUS/764/2019 Agindua

Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

DOI kodea: 10.1000/182

OHARRA

Kasu horretan, ortografia-marka bera, “barra”, irakur daiteke, kodearen parte baita.

75/2023 Dekretua

(hirurogeita hamabost, barra, bi mila eta hogeita hiru dekretua).

2.3.6 Telefono-zenbakietan

Telefono-zenbaki bat baino gehiago eman nahi direnean, guztiek estatu-kode bera dutelarik, barra etzanaren bidez bereizten dira bata bestetik, barraren albo banatan zuriunea utzita.

+33 140633900 / 140678900 / 140123456

Ondoz ondoko zenbakiak modu laburtuan adierazi nahi badira, barra etzana erabiltzen da, haren alboetan zuriunerik utzi gabe. Telefono-zenbakiaren parte finkoaren eta aldakorraren artean marratxoa jartzen da.

+33 140633-00/01/02

⁶⁷ Ipar Euskal Herrian, marratxoa erabiltzen da.

2.3.7 Orrialde-zenbakietan eta puntuazioan

Dokumentu baten orrialde-zenbakia emateaz batera dokumentu horrek zenbat orrialde dituen adierazi nahi bada, barra etzana jartzen da orrialde-zenbakiaren ondoren eta, jarraian, dokumentuaren orrialde-kopurua.

15/48

[berrogeita zortzi orrialde dituen testu baten hamabosgarren orrialdea adierazteko]

Joko, kirol, azterketa eta kidekoetan emaitza jakinaraztean, barra etzana jartzen da lortutako puntu-kopuruaren ondoren, eta, jarraian, gehienez lor daitekeen puntu-kopurua.

75/100; 4,7/5

2.3.8 Fonemak adieraztea

Linguistikako lanetan eta gramatikako liburuetan, barra etzanan artean adierazten dira fonemak.

Euskaldun askok antzera ahoskatzen dituzte /s/ eta /z/, baina badakite euskarak bi fonema horiek bereizten dituela.

2.3.9 Informatikan

Web-orri edo orrialde elektronikoaren helbideak modu hierarkikoan idazten dira, eta hierarkia horretako mailak bereizteko erabiltzen da barra etzana.

<https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/erakundea/>

<https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri>

2.4 Barra etzan bikuna

Bi barra etzan bata bestearen ondoren idatzita, tartean zuriunerik gabe, lortzen den marka lagungarria (//). Oso erabilera espezializatua du.



- Informatikan, Interneteko *http* komunikazio-protokoloaren bi puntuen ondoren jartzen da, helbide elektronikoaren domeinutik bereizteko.

<https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri>

- Lerro berean jarraian idazten diren olerki, bertso edo abestietan, barra etzan bikuna jartzen da ahapaldiak bereizteko. Kasu horretan, zuriune bat utzi behar da barra bikunaren albo banatan.

Oihaneko pagoak blai / aideratuz hiru elai. / Ostadarraren harian dira / hirurak pausatu nahi. // Larrosak dira gorriak / edo bestela xuriak. / Hagitzez ederragoak dira / neskatilaren irriak. // Maldan behera urratsa / betiko bidean latsa. / Hodei ilunak gaua belzten du / udazkena da ez bedatsa.

(*Sorterriko koblak*, Joseba Sarrionandia)

2.5 Alderantzizko barra etzana

Marra diagonal, goitik behera eta ezkerretik eskuinera trazatu ohi dena eta gutxi gorabehera letra larri baten altuerakoa edo, letra-tipoaren arabera, handixeagoa (\). Halaber deritza *alderantzizko zehar-marra*.



Informatikan bakarrik erabiltzen da. Sistema eragile batzuetan, karpeta eta azpikarpeten mailak bereizten ditu. Windows softwarean, adibidez, C: karpeta\azpikarpeta\fitxategia.abc helbideak adierazten du fitxategia.abc izeneko fitxategia azpikarpeta izeneko azpikarpetan dagoela, zeina karpeta izeneko karpetan baitago C diskoan.

Beste programazio-lengoaia batzuetan beste erabilera espezializatu batzuk ditu.

2.6 Barra bertikala

Zutikako marra, idazketa-lerroarekiko perpendikularra, gutxi gorabehera letra larri baten altuerakoa edo handixeagoa (|).



Testu baten parteak bereizteko erabiltzen da, oro har. Lexikografian, azpiadierak bereizten ditu hiztegieta baldin eta, adierak bereizteko, barra bertikal bikuna erabiltzen bada. Kasu horretan, zuriunea uzten da barraren alde banatan.


Matematikan, zenbaki bat inguratzen duenean, balio absolutua adierazten du⁶⁸.

$$|+7| = |-7| = 7$$

Erabilera espezializatua du programazioan eta lengoia informatikoetan (askotan, disjuntzioa adierazteko).

2.7 Barra bertikal bikuna

Bi barra bertikal bata bestearen ondoren idatzita, tartean zuriunerik gabe, lortzen den marka lagungarria (||). Oso erabilera espezializatua du.



Lexikografian, azpiadierak edo azpisarrerak bereizteko erabili ohi da hiztegieta.

bahetu, bahe/bahetu, bahetzen 1 *du* ad. Bahetik igaroarazi. Ik. **galbahetu**. *Garia, legarra bahetu*. || (Partizipio burutua izenondo gisa). *Demagun material baten T gramo bahetu ditugula, bahetuan B gramo sartu direla eta bahekinean K gramo geratu direla.* [Euskaltzaindiaren Hiztegia]

abade. iz (*1562, ~1620). 1. *Bizk. Apaiza. Abade jauna. Nolako elizalde, halako abade* (esr. zah.). *Abadearen lapikoa, txikia baina gozoa* (esr. zah.). || *Abade egin*. ik. **abadetu**. [...] [Euskaltzaindiaren Hiztegia]

⁶⁸ Matematikan baditu erabilera gehiago ere, oso espezializatuak, bai eta fisikan eta kimikan ere.

begi. iz. [...] 8. ZOOL. Zenbait animaliareen pigmentu-orbana. ■ **argi-, eguzki-begi.** Argi-izpia. || **begi bakun.** ZOOL. Lente bakarreko begia. || **begi gaizto.** Begizkoa. [...] [Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa]

Matematikan, paralelotasunaren sinbolo gisa erabiltzen da, besteak beste.

$AB \parallel CD$

(ahoz, honela: AB lerroa eta CD lerroa elkarren paraleloak dira, edo AB paralelo CD)

Metrikan, olerkiaren erritmoak eragindako bertso-lerro baten barneko etena (zesura) markatzeko erabil daiteke.

2.8 Izartxoa

Izar-formako ikurra, gehienetan bospasei puntakoa (*), idazketa-lerroaren goialdean ezartzen dena, letren oina baino goraxeago. *Asterisko* izena ere erabiltzen da marka lagungarri hau izendatzeko.



2.8.1 Ohar-dei gisa

Testuan hitz baten edo esaldi baten ondoren txertatzen denean, adierazten du hari dagokion ohar bat edo aipu bibliografiko bat dagoela. Batez ere, ohar hori orrialde horretako oinean dagoenean (oin-oharra denean) erabiltzen da, eta, gehienetan, orrialde horretan dagoen ohar bakarra denean. Izartxoa testuan dagokion tokian txertatzeaz gainera, beste izartxo bat jarri behar da oin-oharraren hasieran: ohar-marka. Testuan txertatzen den izartxoaren aurretik ez da zuriunerik uzten, baina oin-oharraren hasieran jartzen den izartxoaren ondoren zuriunea jarri behar da.

Halere, idatzizko euskara estandarrak neke gehiago du ibarrean sartzeko. Mauleko Mediatekan, adibidez, euskara batuko kazeta eta eleberrien irakurleak % 5etik beheragokoak dira*.

* Estatistika hauek guhaurek egiaztatu genituen Mauleko Mediatekan 2016an.

Txokolatea gustatzen zait esaldian bi argumentu ageri dira (*gustatu* aditzak *zerbait* eta *norbaiti* gustatzea eskatzen du ezinbestean)*, baina bi argumentu horiek...

* *Dastatu* esanahiarekin ez bada, jakina.

Espazioan, goian dagoena lehenik: *zeru-lurrak, goi-beheak**...

* Ikus Jacobsen (1982).

Testuan txertatzen den izartxo puntuazio-marka nagusien aurretik edo ondotik jartzea estilo-irizpidea da, eta nazioartean ez dago arauturik. Frantsesez, adibidez, aurretik idazten da; gaztelaniaz, bietara, baina ohikoagoa da aurretik.

Euskararako, sistema hau proposatzen da:

- Ohar-deia dagokion hitzaren edo hitz-multzoaren ondoren jartzen da, azken hitzari atxikia, zuriunerik utzi gabe. Esaldiaren amaieran gertatzen denean, esaldiaren amaierako puntuaren, komaren, puntu eta komaren edo bi puntuen aurretik jartzen da.
- Esaldiaren amaieran galdera-marka, harridura-marka edo etenpuntuak daudenean, ohar-deia galde-perpau edo harridura-perpau osoari edo etenpuntuak ixten duten kate osoari dagokiola zehaztu nahi izanez gero, ortografia-markaren ondotik jartzen da. Aldiz, ohar deia ortografia-markaren aurretik dagoen hitzari bakarrik dagokiola zehaztu nahi izanez gero, markaren aurretik. Parentesien eta komatxoaren kasuan, itxiera-parentesiaren edo itxiera-komatxoaren aurretik jartzen da barneko azken hitzari bakarrik dagokionean; barneko testu osoari dagokionean, berriz, ortografia-markaren ondoren.

[oin-oharra esaldi osoari dagokio]

Pierre Lafittek bere gramatikan aipatzen zuen “navarro-labourdin littéraire” (nafar-lapurtera literario) delako hori ote zen?*

* Pierre Lafitte, *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*, 1944 (1979, édition revue et corrigée, Elkar).

[oin-oharra azken hitzari dagokio]

Pierre Lafittek bere gramatikan aipatzen zuen “navarro-labourdin littéraire” (nafar-lapurtera literario) delako hori ote zen*?

* *zen*, lehenaldian, eta ez *da*, orainaldian, garbi baitago gaur egun ez dagoela horrelakorik.

Oin-ohar bat baino gehiago dagoenean orrialdean, izartxo gehiago ezar daitezke bata bestearen atzetik, tartean zuriunerik gabe: izartxo batek lehenengo oin-oharra adieraziko luke, bi izartxok bigarren oin-oharra adieraziko lukete eta hiru izartxok hirugarrena (*, **, ***). Hala ere, sistema hori antiestetikoa litzateke gehiago izanez gero. Horregatik, oin-ohar bat baino gehiago dagoenean, hobe da zenbakiak erabiltzea (edo letrak).

Bereziki erabilgarria gertatzen da izartxoa, ordea, zenbakiak dituzten tauletan edo formuletan, zenbakiak jarriz gero nahasgarriak izan baitaitezke; izan ere, berretzaileak direla uler liteke. Adibidez:

Eraikin nagusiko plataforman, hauek izango dira neurriak: 25 m eta 45 m.

Esaldi horretan ohar-dei bat jarri beharko balitz eta bigarren oharra balitz, honela geldituko litzateke zenbakiak erabiliz gero:

Eraikin nagusiko plataforman, hauek izango dira neurriak: 25 m eta 45 m².

Beraz, 45 m² ikusita, 45 metro karratu dioela uler liteke. Horregatik, kasu horietan hobe da izartxoa baliatzea.

Eraikin nagusiko plataforman, hauek izango dira neurriak: 25 m eta 45 m*.

2.8.2 Ez-gramatikaltasuna adieraztea

Linguistikan, termino edo egitura batean aurrean jartzen da, zuriunerik gabe hari atxikia, gramatikaren araberakoa ez dela adierazteko.

Azken batean, alokutiboa ezinezkoa da baldin eta perpausean (eta adizkian) bigarren pertsonako argumenturen bat bada: **Nik zuei esango zizueat*.

2.8.3 Forma hipotetikoak adieraztea

Linguistikan (batez ere, gramatika historikoan), hitz baten aurrean zuriunerik gabe ezarrita, adierazten du hitz hori hipotetikoa dela, berreraikia dela, hau da, ez dela aurkitu inoiz idatzita.

**edin*, **ezan* erabili beharrean —nahiz horiek erabiliz euskal aditz sistemaren hezurdura aise garbiago azaltzen den— “*da* aditza”, “*du* aditza” eta horien gisakoak erabiltzen saiatu gara, irakurketa errazten duelakoan.

Euskalkietan beste aditz batzuk ere erabiltzen dira laguntzaile gisa. Horien artean daude *eutsi* (**edutsi*), *egin*, **iro(n)* eta **eradun*: *esan deusat*, *esan leike*, *ikus diro*, *erran derautzut*...

2.8.4 Beste erabilera batzuk

- Izen bereziak ezkutatzeko erabil daiteke, izenok ezkutuan utzi nahi direnean. Hitzaz osorik ordezkari dezake edo haren azken parte bakarrak (kasu horretan, ohikoagoa da inisiala idaztea, edo etenpuntuak). Izena ezkutatzeko, hiru izartxo idatzi ohi dira elkarren ondoan, tartean zuriunerik gabe.

Miren A*** zegoen guardian egun horretan.

Eta *** kalean aurkitu zuten gorpua.

- Inprimakietan, batez ere elektronikoetan, eremu baten etiketaren aurrean edo ondoan izartxo bat jartzen da adierazteko nahitaez bete beharreko eremua dela. Batzuetan, benetako ohar-deia da, eta oin-oharrean hori adierazten duen oharra ageri da, baina oin-oharrik gabe ere erabiltzen da, beharrezkoa ez delakoan.
- Oro har, erabilera espezializatu ugari ditu, eta diziplinaren araberrako esanahi bereizgarria atxikitzen dio terminoari. Kasu horretan, obraren hasieran zehaztu behar da izartxoaren esanahia.

2.9 Apostrofoa

Koma-forma duen ikurra, letra baten edo hitz baten eskuinean goratua ezartzen dena ('). Itxiera-komatxo bakunaren antza du ('), jartzen den posizioagatik batez ere, baina ez da berdina. Eta ez da nahasi behar azentu zorrotzaren markarekin, antzekoak badira ere (').

APOSTROFOA	KOMATXO BAKUNA	AZENTU ZORROTZA
’	,	’

Apostrofoaren funtzio nagusia bokal baten edo gehiagoren, kontsonante baten edo silaba baten elisioa adieraztea da. Elisio horiek gertatzen dira elkarren ondoan dauden bi hitz independente testuinguru jakin batzuetan ahoskatzean. Apostrofoa, hala, elkarren ondoko bi hitz-zatien lotunea da; beraz, aurreko letrari eta ondorengo letrari atxikitzen zaie, apostrofoaren alde banatan zuriunerik utzi gabe.

Euskara batuaren aurretik, aski erabilia zen apostrofoa, bai elisioak adierazteko (hau're; euskara batuan, hau ere), bai hitzak eta kasu-markak lotzeko (Oñati'ra; euskara batuan, Oñatira).

Euskara batuan, agur **t'erdī** esapidean bakarrik erabiltzen da, baina *eta* hitzaren gainerako erabileretan osorik idazten da beti: urtero lau **eta** erdiko txapelketa antolatzen du; arratsaldeko sei **eta** erdietan; metro **eta** erdiko distantzia.

Gaur egun, apostrofoa lan filologikoetan erabiltzen da, batez ere testu zaharrak egokitu gabe emateko.

Lizardiren *Biotz Begietan* liburuan argitaraturik dauden poemetan apostrofoaren adibideak aurki ditzakegu: *t'ez eskeiñi bizitzak beazuna baizik; zu're il ote zera*

Apostrofoa erabili dugu aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean bokal bat edo gehiago galtzen dela adierazteko: *esa'utze 'esan deutse', jakingo't jakingo dot'...*

Apostrofoa (') honako kasu hauetarako erabili dut:

a) Aditz nagusia eta laguntzailea elkarrekin ahoskatzean, bietatik batek edo biek kontsonanteren bat galtzen dutenean:

hartuko'ittuzu (< hartuko dittuzu); esango'iazu (< esango di(d)azu)

b) Aditz nagusia eta laguntzailea elkarrekin ahoskatzean, silabaren bat galtzen denean:

bi'ot (< behar dot)

Literaturako testuetan, pertsonaia baten ahoskera berezia transkribatu nahi denean, egokia da ahozko jardunean gertatzen diren kontrakzioak eta elisioak islatzeko, bai eta hitz neurtuzko testuak transkribatzeko ere.

Proporzio bat izandu nuen / erdi zahartuta gero're

2.10 Parentesi angeluarra

Bata bestearen azpian dauden bi marra inklinatuk eratzen duten ikurra, *antilambda* ere deitua. Goiko marrak eta beheko marrak kontrako inklinazioa dutenez, puntu batean elkartzen dira, angelu bat eratuta. Inklinazioaren noranzkoaren arabera, bi marka eratzen dira: bi marren elkartze-puntua eskuinean duena (>), eta ezkerrean duena (<). Hala, marka bakun gisa zein marka bikun gisa erabil daiteke.

Marka bikun gisa erabiltzen denean, marren elkartze-puntua ezkerrean duen markari *irekiera-parentesi angeluar* deritzo (<), eta elkartze-puntua eskuinean duenari, *itxiera-parentesi angeluar* (>).

Antilambda izena ere badu, haren formak grekozko lambda (Λ) letraren antz handia duelako baina bertikala izan beharrean horizontala delako. Eskuizkribu greko eta latinoetan hasi zen erabiltzen > marka; *diple* izena eman zitzaion latinez, eta izen horrekin izendatu ohi da lan filologikoetan.

Matematikan, > markari *handiago* deritzo eta < markari, *txikiago*. Badira parentesi angeluar kamutsak ere (< >); antzekoak dira, baina teklatuetan parentesi angeluar kamutsak ez daude zuzenean eskuragarri, eta testu arruntetan ez dira baliatzen.

PARENTESI ANGELUARRAK (ANTILAMBDA, DIPLEA)		PARENTESI ANGELUAR KAMUTSAK
IREKIERA-PARENTESI ANGELUARRA (TXIKIAGO)	ITXIERA-PARENTESI ANGELUARRA (HANDIAGO)	
< >		⟨ ⟩

2.10.1 Parentesi angeluarra zeinu bakun gisa

Oso erabilera espezializatua du. Matematikan eta hizkuntzalaritzan baliatzen da, eta, bi kasuetan, bi markak erabiltzen dira, eskuineranzkoa eta ezkereranzkoa. Markaren alde banatan zuriunea utzi behar da.

- Hizkuntzalaritzan, irekierakoak (<) adierazten du markaren aurretik dagoen hitzaren edo egituraren jatorria markaren ondoren dauden hitz eta osagaietan dagoela.

gizona-re-kin < [gizona-ren kide + -n]; aldiz < aldi + z; beraz < bera + z

Eta itxierakoak (>) adierazten du markaren aurretik dauden hitz eta osagaiak markaren ondoren dagoen hitzaren jatorria direla.

haragi + -gin > harakin; ogi + -gin > okin

- Matematikan, handiago sinboloak (>) adierazten du sinboloaren aurretik dagoen zenbakia edo aldagaia handiagoa dela sinboloaren ondoren dagoena baino; txikiago sinboloak (<), berriz, alderantzizkoa.

$a > b$ (a handiago b); $7 > 4$ (7 handiago 4; zazpi handiagoa da lau baino)

$b < a$ (b txikiago a); $4 < 7$ (4 txikiago 7; lau txikiagoa da zazpi baino)

2.10.2 Parentesi angeluarra zeinu bikun gisa

Zeinu bikun gisa ere, erabilera espezializatua du.

- Antzinako testuen edizio kritikoetan eta paleografian, < eta > marken artean sartu izan dira jatorrizkoan ez dauden zatiak, hau da, jatorrizkoan falta direnak edo berreraiki direnak. Parentesi karratuak ere baliatzen dira horretarako (ikus 1.12.4 puntua).
- Ahoskeraren inguruko azterlanetan, parentesi angeluarrak erabiltzen dira ahoskera islatu nahi denean transkripzio fonetikoa erabili gabe ere, irakurle arruntei zuzenduta.

Hitz-mugan ere ordezkatzeari egiten den euskaretan, afrikatzea onartzen da ahoskera zaindian (hala nola *esan zuen* <esantzuen>, *eman zion* <emantzion>).

- Informatikan, helbide elektronikoak eta web-orrien helbideak testuan txertatzen zirenean, marka horien artean ezartzen ziren, ziurtatzearen ezen, helbidearen ondoren

puntuazio-markaren bat izanez gero (puntu, koma, galdera-marka...), irakurleak ez zuela puntuazio-marka hori helbidearen partetzat hartuko.

<<https://www.euskaltzaindia.eus/>>

<info@euskaltzaindia.eus>

Gaur egun, ordea, ulertzen da irakurleak badakiela helbide elektronikoen baten edo web-orri baten amaieran ageri den puntuazio-marka esaldiari dagokiola, eta, bestalde, formatu elektronikoetarako edozein hipertestu-markak ez duela hartu behar inguruko puntuazio-markarik. Horregatik, erabilera hori zaharkituta gelditu da.

- Informatikan, HTML eta XML lengoaietan erabiltzen dira etiketak inguratzeko.

2.11 Et edo anpersana

Latinezko *e* eta *t* hitzen loturaz eratutako ikurra (&). Latinez *et* hitzak *eta* esan nahi du. Markaren izena *et* (latinezko hitza da) edo *anpersan* da (ingelesezko *ampersand* hitzetik mailegatua). Berez, bi letra dira, grafema bakar batean konbinatuta eskuzko idazkeraren abiadura handitzez.



Euskaraz, ez da erabiltzen ohiko testuetan, baina bai bibliografia akademikoetan, lan baten egileak zerrendatzeko.

Ekialdeko euskalkietan adizki laguntzailea aurreratzen da maiz (Lafitte 1944; Etxepare & Ortiz de Urbina 2003)

Gai honetaz, ikus Etxeberria (2012) eta Etxeberria & Etxepare (2012).


Bestela, ohikoa da ingelesezko izen komertzialen parte gisa.

Dolce & Gabbana; Marks & Spencer; Johnson & Johnson

Informatikan, askotariko erabilerak ditu: HTMLn, JavaScripten, Excelen, programazio-lengoaia batzuetan eta abarretan.

2.12 A bildua

Helbide elektronikoen funtsezko osagaietako bat da (@).




Antzina, *arroa* pisu-unitatearen sinbolo gisa erabili zen (arroa pisu-unitate zahar bat da, Euskal Herrian hamabi kilo eta erdiren baliokidea). Dirudienez, *arroa* hitzaren jatorria arabierazko الربيع (*ar-rub*) hitza da, eta laurdena esan nahi du. Hortik eratorri da *arroba* izena gaztelaniaz eta *arobas(e)* izena frantsesez. Euskaraz, baina, *a bildu* izena du komunikazioen teknologian erabiltzen den @ markak⁶⁹.

Posta elektronikoaren helbidean nahitaez agertu beharreko marka da, erabiltzailearen izena eta domeinuarena bereizteko (erabiltzailea@hornitzailea)⁷⁰.

Horretaz gainera, beste aplikazio informatiko batzuetan ere baliatzen da esanahi espezializatuarekin; adibidez, sare sozial batzuetan eta programazio-lengoaia batzuetan.

2.13 Paragrafoa

Paragrafoa, berez, digrama bat da, dirudienez bi s letra konbinatuz eratua latinezko *signus sectionis* laburtzearen (§).



Obra baten barnean, kapituluaz azpiko ataletako batera (paragrafo, sekzio, epigrafe edo testua banatuta dagoen parteetako batera) bidaltzeko ohar gisa erabiltzen da, dena delako atalaren identifikatzailearen aurrean. Haren ondoren zuriunea jarri behar da, eta,

⁶⁹ Hala erabaki zuen Euskaltzaindiak 2003ko urriaren 24an, informatikarien aholku eta proposamenak jaso eta aztertu ondoren.

⁷⁰ Ingelesezt *at* irakurtzen da @ marka (*non* edo *zeren ondoan* adierazteko). Hala adierazten da non dagoen ostatatua, zer zerbitzaritan, @ markaren ezkerrean dagoen izena (hots, erabiltzailearen izena).

jarraian, erreferentzia egiten zaion testuaren partea identifikatzeko zenbakia, letra edo zenbaki eta letren konbinazioa.

Jo ditzagun adibide hauek: *Zu Pirinioetan egon zara / Zuk Pirinioetan eskiatzen duzu*. Argumentu kopuruaren aldetik (§ 23.2.2), biak pareko dira.

OHARRA

Paragrafo edo parte batera ez baizik eta bitara bidaltzeko oharra egiteko, ez dira bi marka bata bestearen ondoren idatzi behar, markek ez baitute pluralik: edo markaren ondoren identifikatzaileak bata bestearen ondotik idatzi, tartean koma edo *eta* jarrita, edo identifikatzaile bakoitzaren aurretik marka idatzi.

(EGOKIA) Erregela orokorra hori izan arren, badira salbuespenak, aurrerago ikusiko dugunez (§ 30.6.2.2 eta 30.6.2.3).

(EGOKIA) Erregela orokorra hori izan arren, badira salbuespenak, aurrerago ikusiko dugunez (§ 30.6.2.2, § 30.6.2.3).

(DESEGOKIA) Erregela orokorra hori izan arren, badira salbuespenak, aurrerago ikusiko dugunez (§§ 30.6.2.2 eta 30.6.2.3).

2.14 Paragrafo-marka

Antzina eskuizkribuetan paragrafoak bata bestetik bereizteko erabili zen marka, ezkerretara begira dagoen *P* letra larri baten antza duena (¶).




Inprenta asmatu ondoren, paragrafoak lerro-aldaketa bidez bereizten hasi ziren, eta ¶ markak bere zeregina galdu zuen. Hiztegi batzuetan, hitzen adierak bata bestetik bereizteko erabili izan zen gerora, baina gaur egun ez da erabiltzen.

Testu-prozesadoreetan, inprimatzen ez den marka gisa erakusten da, paragrafoaren amaiera markatzeko. Eskuarki ez dago agerian, baina erabiltzaileak aukera du ezkutuan dauden formatu-markak bistaratze-pantailan agerian jartzeko, nahiz eta gero ez diren inprimatuko.

2.15 Gezia

Marra zuzen bat, horizontala edo bertikala izan daitekeena (zeiharra ere izan daiteke, ohikoa ez bada ere) eta muturretako batean (inoiz, bietan) punta edo angelu bat duena; beraz, gezi baten irudi eskematikoa da (→).




Ikono-balioa du, irakurlearen arreta puntu jakin batera bideratzeko (hitz batera edo elementu grafiko batera). Parentesi artean, bidalketa markatzeko erabil daiteke *ikus(i)* hitzaren ordez.

Euskararen hitz hurrenkera ez-markatua Subjektua-Objektua-Aditza (SOV) da (→ 41. kapitulua).

Euskararen hitz hurrenkera ez-markatua Subjektua-Objektua-Aditza (SOV) da (ikus 41. kapitulua).

Gainerakoan, testutik kanpo, diagrama eta tauletan erabiltzen da, hurrenkera, bideratzea, kausa-efektua eta antzeko erlazioak adierazteko.




2.16 Giltza

Zutik dagoen arku baten itxura duen zeinua, bata bestearen gainean dauden zutikako bi marra gutxi-asko kurbatuz osatua, elkartzen diren puntuan irtengune edo erpin txiki bat eratzen dutela. Bi aldaera ditu, erdiko erpinaren noranzkoaren arabera. Eskuinerantz begiratzen duena *itxiera-giltza* da (}), eta ezkererantz begiratzen duena ({} *irekiera-giltza*. Marka bakun gisa zein marka bikun gisa erabil daiteke.

GILTZA	
IREKIERA-GILTZA	ITXIERA-GILTZA
{ }	

Unitateen hierarkia erakusteko erabiltzen da diagrama eta koadro sinoptikoetan, lerro desberdinetan kokatuta dauden elementuak maila berekoak direla adierazteko. Giltzaren tamaina lerro-kopuruaren arabera aldatzen da. Termino nagusirantz begiratzen du irekiera-giltzaren erpinak.



Enuntziatu baten barnean dauden aukerak adierazteko ere erabil daitezke giltzak marka bikun gisa.


etxera joateko {asmoa/gogoa/beharra} dauka

etxera joateko { gogoa
asmoa } dauka
beharra

Testuetatik kanpo ere erabiltzen da: matematikan, multzo baten elementuak mugatzeko, eta musikan, noten altuera ezartzeko.

2.17 Buleta

Sinbolo tipografiko bat da, normalean zerrenda gisako enumerazioetan elementu bakoitzaren aurrean jartzen dena hasiera dela nabarmentzeko. Irudi geometriko bat izan ohi da: zirkulua, karratua, erronboa, gezia, triangelua eta abar. Testu-prozesadoreetan era askotako buletak egoten dira eskura. Marratxoa edo asteriskoa ere erabil daitezke bulet gisa.



Ordena garrantzitsua ez denean erabiltzen dira. Bestela, ordena edo hierarkia bat markatzea beharrezkoa bada, lerroak zenbakitu egiten dira edo alfabetoaren letraz izendatzen dira.

Askatzen den bero-energia hiru era nagusitan erabil daiteke:

- Bero-energia bera zuzenean erabiltzea
- Energia mekaniko bihurtzea
- Lehenik, energia mekaniko bihurtzea eta gero elektrizitatea ekoiztea

Bulet gisa balia daitezke, halaber, beste zerbait aditzera ematen duten sinboloak; adibidez, plus (+) eta minus (–) sinboloak, zerrenda bateko elementu bakoitzaren balorazioa adierazteko (positiboa dela edo abantaila dela; eta negatiboa edo eragozpena dela).

3. Marka diakritikoak

3.1 Zer dira diakritikoak? Zertarako erabiltzen dira?

Honela definitzen du *diakritiko* hitza *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*:

diakritiko

1 adj. *hizkl.* Ortografia-markez mintzatuz, letra bati balio berezia ematen diona. *Hizkuntza guztietan erabiltzeko balioko lukeen alfabeto batek ikur diakritikoz oztopatua azaltzeko arriskua izango luke.* 2 iz. Marka diakritikoa. *Ingelese ez dago diakritikorik.*

Diakritikoa, marka diakritikoa edo zeinu diakritikoa, alfabeto latinoan, letra edo grafema bati ezartzen zaion zeinu bat da. Diakritikoak posizio askotan ager daitezke: letra baten azpian edo gainean, barnean edo inguruan, edo bi letraren artean. Letra baten gainean agertzen direnei *azentu* edo *azentu grafiko* ere esaten zaie. Nagusiki, bi zereginetarako baliatzen dira:

1- Dena delako letra edo grafemari dagokion hotsa aldatzeko, hau da, balio fonetikoa aldatzeko. Kasu batzuetan, hitzaren bokal tonikoa markatzeko balio du. Adibidez, gaztelaniaz, *teléfono* hitza proparoxitonoa da —azken-hirugarren silaban du azentu prosodikoa—, eta *telefono* hitza, aldiz, paroxitonoa litzateke —azentu prosodikoa azken-aurreko silaban duena—. Beste batzuetan, grafemak ordezkatzeko duen fonema aldatzeko balio du, hau da, letrari dagokion hotsa aldatzen du. Adibidez, frantsesez, *beauté* hitzaren azken letrari —*é* letrari— /e/ fonema dagokio [bote], eta *que* hitzaren azken letrari —*e* letrari—, berriz, /ə/ fonema [kə]).

2- Hitz homografoen (berdin idazten diren hitzen) arteko anbiguotasuna hausteko. Adibidez, gaztelaniaz, *de* [preposizioa] eta *dé* (*dar* aditzaren hirugarren pertsonako agintera), edo *sé* (*saber* aditzaren indikatiboko lehen pertsona singularrekoa) eta *se* (izenordain pertsonala); frantsesez, *du* (artikulua) eta *dû* (*devoir* aditzaren partizipioa), edo *la* (artikulua) eta *là* (“han” esan nahi duen leku-adberbioa).

Beste zeregin batzuk ere badituzte; adibidez, vietnameraz diakritikoak baliatzen dira, bokalen gainean jarrita, silaben tonua markatzeko (vietnamera hizkuntza tonala da).

Europako hizkuntza gehienek erabiltzen dituzte diakritikoak. Europako hizkuntza moderno nagusietan, ingelesa da ohiko erabileran diakritikorik ez duen bakarra⁷¹.

Diakritikoak bokaletan zein kontsonanteetan ager daitezke. Europako ekialdeko hizkuntza batzuetan, kontsonanteetan zein bokaletan baliatzen dira diakritikoak; Europako mendebaldean, berriz, bokalei ezarri ohi zaizkie, eta digramak baliatu ohi dira kontsonanteek ordezkatzeko dituzten fonemak [hotsak] aldatzeko. Hala gertatzen da, adibidez, euskaraz (ts, tx, tz, dd, tt, rr, ll), gaztelaniaz (ch, ll, rr) eta frantsesez (ch, gn, ph).

3.2 Diakritikoak hizkuntza bakoitzaren ortografiaren parte dira

Alfabeto latinoa erabiltzen duten hizkuntzetan, baldin eta diakritikodunak badira, diakritikoak nahitaezkoak dira; hau da, ez dira aukerakoak. Adibidez, gaztelaniaz, frantsesez, katalanez, portugesez, alemanez edo italieraz diakritikoak erabiltzen dira, eta, hizkuntza horietan, diakritikoak erabiltzea edo ez erabiltzea ez dago idazlearen esku: hizkuntza bakoitzaren ortografia-sistemaren parte dira. Diakritikoa duen hitz bat diakritikorik gabe idaztea ortografia-akatsa da. Eta hala da diakritikoei funtzio bat dutelako, laguntzen dioten letrari esanahi bereizgarria erantzen diote eta. Haien gabe, irakurlea informazio faltan egongo da izena behar bezala ahoskatzeko edo behar den prosodia erabiltzeko.

3.3 Letra edo grafema diakritikoduna alfabetoaren parte da ala ez?

Diakritikoak erabiliz, zabaldu egiten da hizkuntza baten grafema-kopurua. Letra diakritikoduna, baina, letra independentea da? Hizkuntza bakoitzaren tradizio ortografikoaren arabera da letra diakritikoduna hizkuntza horren alfabetoan letra beregaina izatea edo ez. Hizkuntza batzuetan, letra diakritikoduna ez da grafema independentetzat hartzen; halakoetan, alografotzat jotzen da, hau da, letra sinplearen aldaeratzat edo bertsioztat, eta ez da, beraz, alfabetoaren partetzat hartzen. Beste hizkuntza batzuetan, berriz, letra diakritikoduna eta diakritikorik gabea alfabetoaren letra desberdintzat jotzen dira. Eta badira hizkuntzak bietakoak dituztenak: letra diakritikodun batzuk alfabetoaren parte dira, eta beste batzuk ez. Alegia, gerta daiteke

⁷¹ Gaur egun ez ditu baliatzen, baina historikoki erabili egin ditu.

diakritiko berak, letra berari ezarria izanik, letra beregain bat sortzea hizkuntza batean, eta beste batean, aldiz, ez. Izan ere, alfabetoaren parte zer den eta zer ez den erabakitzea zerbait egiunezkoa da, konbentzionala alegia. Adibidez, *ë* eta *ö* alfabetoko letra beregaintzat hartzen dira gaur egun alemanez, baina nederlanderaz ez.

Nolanahi ere, letra diakritikoduna hizkuntza baten alfabetoaren parte izateak edo ez izateak ez dauka inolako ondoriorik: bi kasuetan, diakritikoa nahitaez idatzi beharrekoa da hizkuntza horretan. Alegia, diakritikoa alfabetoaren parte izatea edo ez izatea ez da, berez eta beti, irizpide zientifiko eta linguistiko baten emaitza; ohitura eta tradizioa —historia— gertatzen dira, gai horretan, nagusi eta erabakigarri.

Gaztelaniaz, adibidez, *ñ* alfabetoko letra da, eta *ü*, berriz, ez; eta azentu zorrotza (´) duten bokalak ere (*á, é, í, ó, ú*) ez dira alfabetoko letra beregaintzat hartzen. Horregatik, esan daiteke gaztelaniak bi diakritiko soilik dituela, dieresia eta azentu zorrotza, eta *n* letraren gainean agertzen den zeinua, (˜), ez dela diakritikoa, eñe letraren parte bat baizik.

Frantsesez bost diakritiko daude: lau azentu —azentu zorrotza (´), azentu kamutsa (˘), zirkunflexua (^) eta dieresia (¨)— eta *c* letrari ze hautsia (ç) sortzeko eransten zaion marka, baina azentu horiek dituzten letrak eta ze hautsia ez dira alfabetoko hitz beregaintzat hartzen.

Gure inguruko hizkuntza ugarik erabiltzen dituzte marka diakritikoak, baina letra diakritikodunak ez dituzte letra beregaintzat hartzen; adibidez, okzitaniaraz (*á, à, ç, é, è, í, î, ó, ò, ú, ü, n·h, s·h*), portugesak (*à, á, â, ã, ç, é, ê, í, ó, ô, õ, ú*), katalanak (*à, ç, é, è, í, ï, ó, ò, ú, ü, l·l*) edo alemanak (*ä, ö, ü*).

Beste hizkuntza batzuetan, berriz, letra diakritikodunak alfabetoko hitz beregaintzat hartzen dira, hala nola suedieraz (*å, ä, ö*), estonieraz (*õ, ä, ö, ü*), kroazieraz (*č, ć, đ, š, ž*) edo polonieraz (*q, ć, ę, ł, ń, ó, ś, ź, ż*).

3.4 Euskararen diakritikoak

Euskararen alfabetoan, *n* (ene) eta *ñ* (eñe) letrak bereizten dira; beraz, (˜) zeinu diakritikoa (tildea) erantsi zaion ene hori (*ñ*) letra beregaina da alfabetoan. Horrek esan

nahi du *ñ* delakoa ez dugula *n* diakritikoduntzat hartzen; hau da, aparteko letratzat hartzen dugu.

Bestalde, *ü* letra ere (u dieresiduna) erabiltzen da euskaraz zubererazko hitzetan, hala izen arruntetan (*ündüreintar* edo *erreustarzün*) nola berezietan (*Ürrüstoi* edo *Basabürüa*). Hala ere, euskal alfabetoan *u* baino ez da ageri. Beraz, *ü* ez da euskal alfabetoko letra beregaina, non ikusten baita ezen, *ñ* letrarekin erkatuta, erabaki konbentzionala dela *ü* alfabetoko letra ez izatea.

3.5 Erdal marka diakritikoak euskal testuetan

Gai honi buruz ez da orain arte arau edo irizpide orokorrik izan, eta erabilera ez dago bateratua. Horregatik, galdera hauei erantzutea da atal honen helburua:

Idatzi behar al dira erdal hitzetako marka diakritikoak euskarazko testuetan?

Noiz bai eta noiz ez?

Eta hau da erantzuna: oro har, bai. Euskarazko testuetan erdal hitzak erabiltzen direnean, jatorrizko grafia egokitzen ez bada, hitz horiek dituzten marka diakritikoak jatorrizkoan bezala idatzi behar dira.

Zehaztu behar da, baina, zer esan nahi duen aurreko paragrafoko “oro har” horrek eta nola ulertu behar den “jatorrizko grafia egokitzen ez bada” hori. Eta kasuistika zabala denez, komeni da zenbait sailetan banatzea, hobeto deskribatu, zehaztu eta azaltzeko. Zehazki, lau sail hauetan:

- Diakritikoak kanpoko izen arruntetan
- Diakritikoak pertsonen izen-abizenetan: kanpokoetan eta Euskal Herrikoetan
- Diakritikoak leku-izenetan: kanpokoetan eta Euskal Herrikoetan
- Diakritikoak pertsona-izena edo leku-izena ez diren izen berezietan

Azkenik, zehaztapen batzuk ere egin behar dira gure inguruko hizkuntzetakoak ez izateagatik aski urrunak gertatzen zaizkigun marka diakritikoen erabilerrari buruz (ikus 3.5.5 puntua), bai eta transkripzio eta transliterazioetako marka diakritikoei buruz ere (ikus 3.5.6 puntua).

3.5.1 Diakritikoak kanpoko izen arruntetan

Euskaraz hitz egin eta idaztean, ez dira beti euskal hitzak bakarrik erabiltzen. Gaia zein den, askotan erabiltzen dira erdaretako hitzak ere. Gehienetan, izen bereziak izaten dira, baina baita izen arruntak ere. Adibidez, zientzia eta teknologiako hitzak, edo, besterik gabe, hedabideen bidez iristen diren hitzak: *aquaplaning*, *bestseller*, *escrache*, *watt*, *jacuzzi* edo *iceberg*.

Izen arruntek, euskarara iritsi berritan behintzat, jatorrizko grafia atxiki ohi dute (edo, jatorrizkoa ez bada, bitarteko hizkuntza batekoa). Euskarak erdaretatik mailegatu dituen hitzak dira, baina gordinik mailegatuak; hau da, mailegu irentsigabeak dira. Hitz horietako batzuk, denboraren poderioz, grafia-aldaketaren bat jasota etxekotzen dira, hala nola *errugbi* (jatorrizkoa: *rugby*), *kanpin* (jatorrizkoa: *camping*) edo *kitxua* (jatorrizkoa: *quichwa* edo *quichua*). Mailegu irentsiak dira. Beste asko, ordea, eta gero eta gehiago, jatorrizko grafiari eutsita hiztegitratzen dira: *yuppie*, *chichewa*, *sandwich*, *collage*, *hockey*, *quark*, *cowboy*, *copyright*, *dvandva*, *geisha*, *chantilly*, *chow-chow*...

Kanpotik euskarara iristen diren hitz arrunt horietako batzuek marka diakritikoa dute. Mailegua irentsitat jotzen bada, euskal hotsen egiturara eta euskararen ortografiara egokitzen da. Adibidez, frantsesezko (edo gaztelaniazko) *canapé* hitzetik, *kanape* hitza sortu da euskaraz: batetik, jatorrizko *c* letra *k* bilakatu da, eta, bestetik, *é* letra diakritikoduna *e* bihurtu.

Grafia egokitze hori, batzuetan, diakritikoak kentzea besterik ez da. Hala gertatzen da jatorrizko hitzaren grafia arrotz ez zaionean euskararen ortografia-sistemari; adibidez, frantsesetik (dela zuzenean, dela gaztelaniaren bidez) mailegatu den *pate* (frantsesez, *pâté*; gaztelaniaz, *paté*) hitzean, edo jatorriz frantsesa den *naïf* (frantsesez, *naïf*; gaztelaniaz, *naíf* edo *naif*) hitzean. Eta bada, azkenik, erdizka egokitutako hitzen bat ere, hala nola *gruyere* (jatorrizko hitza *gruyère* da, Suitzako *Gruyère* eskualde-izenetik): azenturik gabe idazten da euskaraz, baina *i* grekoarekin. Hau da, moldaketa bakarra diakritikoa kentzea izan da.

Kanpoko hitza mailegu irentsigabea bada, jatorrizko grafiari eusten zaio, eta, jatorrizko grafian diakritikoak erabiltzen badira, haiei ere eusten zaie. Hala gertatzen da, adibidez,

couché paper eta curaçao hitzekin. Kasu horietan, euskal grafiara egokituz gero, *kuxe paper* eta *kurazao* hitzak aterako lirateke, baina ez dira egokitu.

Kanpoko hitz arrunt bat euskaraz nola idatzi jakiteko, hiztegian begiratzea da lehen urratsa. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* agertzen den grafia da erabili beharrekoa. Halarik ere, askotan gertatuko da testuan idatzi behar den hitza ez egotea hiztegian oraindik, hitz berriak ez baitira inoiz agertu bezain fite hiztegitratzen. Horregatik, besteak beste, hiztegiak etengabe eguneratu beharrean gertatzen dira, hizkuntza etengabe aldatuz baitoa.

Beraz, marka diakritikoa duen hitz berria hiztegian ez badago, zuhurtzia-printzipioa aplikatuz, bere horretan idaztea komeni da, jatorrizko grafia atxikita.

Hau da, laburbildurik, hitz arruntetarako irizpidea hitz diakritikodunei dagokienez:

- Mailegu irentsietan, jatorrizko grafia euskal moldera egokitzen da; beraz, kendu egiten dira diakritikoak, eta hala agertzen dira *Euskaltzaindiaren Hiztegian*.

Adibidez: **kanape** (frantsesez —eta gaztelaniaz—, *canapé*), **bexamel** (frantsesez, *béchamel*), **framazon** (frantsesez, *francmaçon*), **lanpara** (gaztelaniaz, *lámpara*). Zenbaitetan, mailegua irentzia delako erakusgarri bakarra diakritikoa desagertu izana da. Adibidez, **pate** (frantsesez, *pâté*; gaztelaniaz, *paté*), **naif** (frantsesez, *naïf*).

- Mailegu irentsigabeetan, jatorrizko grafia ez da egokitzen, eta, horrenbestez, diakritikoak ez dira kentzen.

Adibidez: **volapük**, **couché paper**, **curaçao**

3.5.2 Diakritikoak pertsonen izen-abizenetan

3.5.2.1 Diakritikoak atzerriko pertsonen izen-abizenetan

Gaur egun, gure kultura-ingurune zabalean, kanpoko pertsona-izenen grafia ez da aldatzen. Hori da irizpide nagusia, bai eta euskaran ere. Alegia, *Marie Curie*, *Adolf Hitler*, *Hillary Clinton* edo *Italo Calvino* beren jatorrizko grafia horrekin idazten dira euskaraz, abizenen grafia aldatu gabe eta ponte-izenen euskal ordainak erabili gabe (**Maria Kurie*, **Adolfo Hitler*, **Hilaria Klinton*, **Italo Kalbino*). Hori irizpide nagusia izanda ere, badira

zenbait salbuespen. Batetik, salbuespen historikoak; bestetik, gaur egungo salbuespenak. Gaur egungo salbuespen bakarrak aita santuen izenak dira.

Beraz, atzerriko pertsona-izenetan jatorrizko ortografia atxikitzen da euskaraz idaztean⁷². Horrenbestez, jatorrizko ortografian diakritikoak daudenean, haiek ere atxikitzen dira.

Hau da, laburbildurik, atzerriko pertsona-izenetarako irizpidea hitz diakritikodunei dagokienez:

- Gaur egungo pertsona-izenen jatorrizko grafia —eta, oro har, Errenazimentuaz geroztiko atzerriko pertsona-izenen jatorrizko grafia— ez da egokitzen euskaraz idaztean, eta, horrenbestez, diakritikoak ez dira kentzen.

Adibideak: **Molièreren** komediak, **García Márquezen** eleberriak, **Réaumur** eskala, **Rosalía** de Castro, **René** Lafon, **Jérôme** Lafitte, **Ségolène** Royal, **Cánovas**, R.M. del Valle-**Inclán**, **José Martí**, **François** Lyotard, Francesc **Macià**, Gabrielle Duchêne, Pedro **Sánchez**, Karel **Čapek**, Heinrich **Böll**.

OHARRA

Urruneko diakritikoekin, malgutasuna (ikus 3.5.5 puntua).

3.5.2.2 Diakritikoak Euskal Herriko pertsonen izen-abizenetan

Pertsona-izen diakritikodunak ez dira ageri atzerriko pertsona-izenetan soilik; Euskal Herriko pertsona-izen ugari ere badira izenean edo abizenean diakritikoak dituztenak. Pertsona horiek diakritikoak erabiltzen badituzte beren izen-deituretan, hala idatzi beharko dira euskaraz ere. Alegia, ez litzateke koherentea izango pertsonaren jatorriaren arabera desberdin jokatzea: atzerriko pertsonen izen-deituretan pertsona horien hautua errespetatzea, eta Euskal Herriko pertsonen hautua, berriz, ez.

Hau da, laburbildurik, Euskal Herriko pertsona-izenetarako irizpidea hitz diakritikodunei dagokienez:

⁷² Salbuespenak arauetan ageri dira: Antzinateko pertsona-izenak, Erdi Aroko eta Errenazimentuko pertsona-izen batzuk, XX. mendearen erdialdera bitarteko errege-erreginak eta aita santuen izenak.

- Euskal Herriko gaur egungo pertsona-izenak pertsona horiek erabiltzen dituzten bezala idaztekoak dira.

- Izen-abizen horiek erdal diakritikoz idazten badituzte, hala idatziko dira euskaraz ere.

Adibideak: Gorka **Knörr**, **Ramón** Rubial, Milagros **González**, Arturo **Campián**, **María** Bayo, Roberto **González** de Viñaspre, Elena **Martínez** de Madina, Patxi **López**.

- Izen-abizen horiek diakritikorik gabe idazten badituzte, hala idatziko dira euskaraz ere.

Adibideak: Elixabete **Perez** Gaztelu, Castillo **Suarez**, Iñaki **Martinez** de Luna.

3.5.3 Diakritikoak leku-izenetan

3.5.3.1 Diakritikoak atzerriko leku-izenetan

Kanpoko leku-izen batzuk, erabilera-maiztasun handienekoak, ez dira jatorrizkoan bezala idazten euskaraz, eta beste asko bai. Forma moldatua dutenak erabileran finkatuak daude, tradizioa dute edo tradizioa finkabidean dago, eta Euskaltzaindiaren arauetan ageri dira. Halakoak dira, adibidez, estatu-izen asko, hiriburu-izen batzuk, zenbait hiri garrantzitsu eta historiko, eskualde nagusi batzuk eta ibai, mendikate, lurmutur, uharte eta gisa horretako leku-izen geografiko garrantzitsu edo gertuko batzuk.

Gainerako leku-izenak, hau da, gehien-gehienak, jatorrizkoan bezala idazten dira, hori baita nazioarteko joera, leku-izenen grafia, ahal dela, ez aldatzea hizkuntza batetik bestera. Eta leku-izen batzuek diakritikoak dituzte.

Bereizketa hori da giltza kanpoko leku-izenetako marka diakritikoak euskaraz jarri behar diren ala ez ebazteko: grafia aldatu den ala ez.

Hau da, laburbildurik, atzerriko leku-izenetarako irizpidea hitz diakritikodunei dagokienez:

- **Kanpoko leku-izenen grafia euskarara moldatua badago, leku-izen horiek dituzten jatorrizko zeinu diakritikoak ez dira erabiltzen euskaraz.**

Adibidez, Andaluzia (ez Andalucía), Kordoba (ez Córdoba), Pirinio Atlantikoak (ez Pyrénées-Atlantiques), Aljeria (ez Algérie) edo Rodano (ez Rhône). Zenbaitetan, grafia moldatu den seinale bakarra zeinu diakritikoen desagerpena da. Adibidez, Senegal (ez Sénégal), Peru (ez Perú) edo Bogota (ez Bogotá)⁷³.

- **Bestela, euskarazko grafiara moldatuta ez badaude, jatorrizko hizkuntzan bezala idazten dira, inolako aldaketarik gabe. Beraz, jatorrizko hizkuntzan zeinu diakritikoak badituzte, diakritiko eta guzti idaztekoak dira euskarazko testuetan ere.** Adibidez, León, Chiloé, Neuchâtel, Besançon, Potosí, Sigüenza, Île-de-France, Lozère, Zürich, São Paulo, Empordà.

OHARRA

Urruneko diakritikoekin, malgutasuna (Ikusi 3.5.5 puntua).

Bada puntu bat kontuan izan beharrekoa: batzuetan, gaztelaniak eta frantsesak marka diakritikoak erabiltzen dituzte kanpoko leku-izen batzuk idazteko, baina leku-izen horiek jatorrizko hizkuntzan edo beren tokiko hizkuntza ofizialean ez dute diakritikorik. Adibidez, Rio de Janeiro da portugesez, diakritikorik gabe, baina RÍo de Janeiro idazten da gaztelaniaz; edo Piemonte da italieraz, diakritikorik gabe, baina Piémont da frantsesez, diakritikoarekin; edo Los Angeles da ingelesez, diakritikorik gabe, baina gaztelaniaz Los Ángeles da, diakritikoarekin. Euskaraz, Rio de Janeiro, Piemonte eta Los Angeles idaztekoak dira, marka diakritikorik gabe⁷⁴.

3.5.3.2 Diakritikoak Euskal Herriko leku-izenetan

Euskal Herriko leku-izen nagusi gehienak araututa daude, eta izen gehienek euskal grafia dute baldin eta euskal toponimoak badira. Era horretako leku-izenetan ez dago diakritikorik, *u* bokalaren gaineko dieresia izan ezik (eñe letra beregaintzat hartzen da

⁷³ Leku-izenak euskarazko grafia aldatua duen ala ez jakiteko, Euskaltzaindiaren arauetan kontsultatu daiteke; zehazki, Arauen Datutegi Onomastikoan.

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ecoeda&task=arauakPortada&Itemid=1722&lang=eu.

⁷⁴ Leku-izen gutxi batzuk diakritikoarekin edo gabe idatz daitezke; hala gerta daiteke leku horretan hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoenean. Adibidez, Mexikoko Teotihuacan (nahuatlez) edo Teotihuacán (gaztelaniaz) guneko arkeologikoa.

alfabetoan). Era horretako izen arautuak dira, adibidez, Ametzaga, Añorbe, Aranaratxe, Aritzakun, Doneztebe, Getaria, Gernika, Uztaritze, Zabaltza, Zürkhatségi.

Badira Euskal Herrian euskarazko toponimo ez diren leku-izenak ere, eta, oro har, erdal grafiaz idazten dira euskaraz, euskal grafiara aldatu gabe, hala arautuak. Era horretako izen arautuak dira, adibidez, Alhama, Barrancosalado, Cascante, Cuadro, Corella, El Raso, La Mouline, Murchante, Omecillo, Riomayor, Valtierra, Vayalengua.

• Euskarazko toponimo ez diren Euskal Herriko zenbait leku-izenek marka diakritikoak dituzte, eta izen horiek, grafia egokitzen ez zaien kanpoko leku-izenak bezala, marka diakritikoarekin idazten dira euskaraz ere. Adibidez:

Armiñón, Cárcar, Castejón, Cintruénigo, Egúrzanos, Herrerías, Lantarón, Mérida, Odrón, San Adrián, Torres del Río, Valdebarón.

Torralba del Río Udalak, Lapoblación Udalak; Odrónen adarra; Purónen arroa.

3.5.4 Diakritikoak pertsona-izena edo leku-izena ez diren izen berezietan

Izen berezien eremuan, berezko izen berezietan gainera, badira pertsona-izen edo leku-izen ez diren adierazpen izendatzaileak ere, izen berezien moduan funtzionatzen dutenak. Halakoak dira era guztietako enpresa, talde eta erakunde, merkataritza-establezimendu, marka, gertaera, eta era guztietako artelan eta bestelako sorkarien izenak.

Era horretako izen berezietan jatorrizko hizkuntzan zeinu diakritikorik baldin badute eta euskarara itzultzen ez badira edo itzulezinak badira eta, beraz, euskaraz idaztean jatorrizko grafiari eusten bazaio, diakritiko eta guzti idazten dira euskaraz ere, testu formaletan behintzat. Halakoak dira marka-izenak, marken modeloen izenak, enpresa, erakunde eta instituzioen izenak eta abar.

Gure amaren **Citroën** zaharra; **Musée** d'Orsay-n dago ikusgai; **Sacré** Coeur basilika; **La Nación** egunkaria; El **País** egunkaria; **Lancôme** markako kosmetikoak; **Société Générale**ren egoitza nagusia; **Löwenbräu** garagardoa; **Enagás** eta **Telefónica** enpresak.

3.5.5 Urruneko diakritikoekin, malgutasuna

XX. mendean, idazmakinak edo ordenagailuak erabiliz marka diakritiko guztiak idaztea ez zen beti erraza. Gehienetan, norberaren hizkuntzakoak ez ziren diakritikoak ez zeuden gaur bezain eskura. Eta baziren arazo teknikoak ere: adibidez, telegrametan ezin ziren erabili diakritikoak, teletipoetan ere ez, eta ordenagailu-sistema batzuetan hitzak desitxuratu egiten ziren diakritikoak erabiliz gero. Horregatik, batez ere ingelesezko idatzizko hedabideetan —egunkariak eta aldizkariak— marka diakritikorik ez erabiltzeko joera zabaldu zen.

Gaur egun, era horretako arazoak desagertu dira edo aski puntualak dira. Nolanahi ere, diakritiko guztiak ez ditugu maila berean, hurbiltasunari eta erabilera-maiztasunari dagokienez. Euskal idazle eta irakurleentzat ezagunak dira gaztelaniaren eta frantsesaren diakritikoak, baina ez hainbeste portugésaren edo alemanaren diakritiko batzuk. Eta urrunak eta ezezagunak gertatzen dira Europako beste hizkuntza batzuetakoak, hainbat arrotzago zenbat eta Europan ekialderago egin. Ez hori bakarrik; teklatuetan ez daude eskura, eta, testuan txertatu ahal izateko, tekla-konbinazio konplexuak edo sinboloak txertatzeko leihoak erabili behar dira autoedizio-programetan.

Horregatik, malgu jokatu ohi da gure inguruan ezezagun gertatzen diren diakritikoekin edo, ezagunak izanik ere, ohiz kanpoko posizioan agertzen direnekin. Zehazki, alfabeto latino hedatua erabiltzen duten hizkuntzen kasuan jokatu ohi da malgu. Adibidez, polonieran, turkieran edo suedieran, besteak beste. Halakoetan, testu formaletan —baina ez espezializatuetan⁷⁵, ezta testu ofizialetan ere— ohikoa da sinplifikazioak egitea izen bereziak idaztean. Adibidez:

Gdansk (polonieraz, **Gdańsk**), **Diyarbakır** (turkieraz, **Diyarbakır**), **Maramures** (errumanieraz, **Maramureș**), **Oresund** (danieraz, **Øresund**), **Vistytis** (lituanieraz, **Vištytis**), **Erdogan** (turkieraz, **Erdoğan**), **Lech Walesa** (polonieraz, **Lech Wałęsa**) edo **Dvorak** (txekieraz, **Dvořák**).

Beste hainbeste gertatzen da tonua adierazteko diakritikoekin. Vietnamera idazteko, adibidez, alfabeto latino erabiltzen da, eta diakritikoak baliatzen dira tonua adierazteko

⁷⁵ Testu espezializatuak dira, adibidez, hiztegi, entziklopedia eta atlasak.

(adibidez, *à, á, â, ã* eta *ç*), baina, beste hizkuntzetako testuetan vietnamerazko hitzak sartzean, ohikoa da diakritiko horiek ez erabiltzea dibulgazio-testuetan, hedabideetan, eskola-liburuetan, literaturan eta abarretan; komeni da, ordea, informazio hori ematea kontsulta-obretan. Adibidez, **Hồ Chí Minh** pertsona-izena edo **Điện Biên Phủ** leku-izena (vietnameraz, **Hồ Chí Minh** eta **Điện Biên Phủ**, hurrenez hurren).

3.5.6 Marka diakritikoak transliterazio eta transkripzioetan

Alfabeto latinoan erabiltzen ez duten hizkuntzetako izenak alfabeto latinoan emateko, transkripzioak eta transliterazioak erabiltzen dira, eta ohikoa da transliterazio-tauletan marka diakritikoak erabiltzea.

Hizkuntza batzuetan, transliterazio-sistema bat nagusitu da, eta sistema hori bera erabiltzen da alfabeto latinoan baliatzen duten hizkuntza guztietan. Hori da, adibidez, txineraren kasua: *pinyin* sistema. Sistema horretan, marka diakritikoak erabiltzen dira txineraren tonuak adierazteko, baina ohikoa da marka horiek ez baliatzea obra espezializatuetatik kanpo. Adibidez, leku-izenetan, **Xinjiang** eta **Beijing** idatzi ohi da (berez, **Xīnjiāng** eta **Běijīng**) edo, pertsona-izenetan, **Xi Jinping** eta **Deng Xiaoping** (berez, **Xí Jīnpíng** eta **Dèng Xiǎopíng**). Japoniera alfabeto latinora aldatzen denean ere ohikoa da diakritikoak ez erabiltzea obra espezializatuak ez badira.

Beste hizkuntza batzuetan, berriz, ohikoagoa da diakritikoak baliatzea transliterazioetan, testuaren mailaren arabera. Adibidez, greko modernoan.

Azkenik, beste zenbait hizkuntzatan, transliterazio ofizialak eman dituzte nazioarteko erakunde batzuek edo estatu batzuek, eta marka diakritiko ugari erabiltzen dituzte, baina lan espezializatuetan bakarrik. Kasu horietan, transkripzio sinplifikatuak erabili ohi dira haien ordeztu, hizkuntza bakoitzera moldatuak. Hori gertatzen da, adibidez, alfabeto zirilikoarekin eta arabieraren alfabetoarekin. Euskaraz, euskararako moldatutako transkripzio sinplifikatuak erabiltzen dira (Euskaltzaindiaren 156., 163. eta 165. arauetan emanda daudenak). Adibidez, **Дмитрий Шостакович** errusiar musikaria **Dmitrij Šostakovič** transliteratu behar da ISO nazioarteko erakundearen arabera, baina **Dmitri Shostakóvich** idatzen da gaztelaniaz, **Dmitri Chostakovitch** frantsesez, **Dmitry Shostakovich** ingelesez eta **Dmitri Schostakowitsch** alemanez. Euskaraz, transkripzio sinplifikatuaren taula aplikatuta: **Dmitri Xostakovitx**.